

HORTZAK IZERDI

Henri DUHAU



HENRI DUHAU

Beskoitzen sortua 1942an. Laborari semea; laborantzako ikasketak. Soldadotik landa, luberri egiten Donapaleutik Iparralde guzian barna, teknikari gisa, Jean Errecart senatariaren zuzendaritzapean. 1968an Senpererat ezkondurik merkataritzan erretretarat heldu arte.

Lehen artikulua euskaraz, 1961eko urtarrilean, 'Gazte' kazetan.

Elkarte askotan parte hartu du,

Euskaltzaleen Biltzarrean, bertzeak bertze. Elkarteburu ere izana : Euskaldun Gazteria, Zirikolatz, Senpereko Gure Lurrak, Euskal Dantzarien Biltzarra...

Elkarte sortzaileetarik izana : Senperen Aro Berri, Senpereko ikastola, *Aide Familiale Rurale*, 'Izan' eta 'Gure Herria' talde politikoak, Elkarri, Egunkaria sortzen...

Aldizkarietan idazle: Herria, Otoizlari, Dantzariak, Ekaina, Denak Argian, Enbata.

Liburu eta liburukiak :

- Hasian-hasi (1993) ;
- Euskal aditz batua (1996) ;
- Aupa batasuna (2000) ;
- Hasian-hasi (bigarren partea, 2002) ;
- Dufau bi anaiak (2006) ;
- Saindu batzuen biziaz (Adema-Zaldubi, 2007) ;
- Zaldubi artzain beltaren neurtitzak (G. Adema, 2008) ;
- Kantikak (Adema-Zaldubi, 2009) ;
- Prediku zenbait (Adema-Zaldubi, 2009) ;
- Bidegileak (Jean Barbier, 2009) ;
- Bidegileak (Dominique Dufau, 2009) ;
- Lapurdiko ihauteria eta mutxikoen pizkundea (2010) ;
- Alegiak eta bertze neurtitzak (Adema-Zaldubi, 2010) ;
- Jabetasun auzi eta hirigintza/ *Litige foncier et urbanisation* (2011) ;
- Senpereko ikastolaren hastapenak/ *Les débuts de l'ikastola de Saint-Pée* (2011) ;
- Bertze prediku batzuk (Adema-Zaldubi, 2011) ;
- Gaineratekoen bilduma (Adema-Zaldubi, 2012) ;
- Bahnar deitu Salbaiak (idazlea, Pierre Dourisboure/ itzultzailea, Jean Elissalde, 2014).
- Hortzak izerdi (2015).


HORTZAK IZERDI

(Aupa batasuna!-ren segida)

(Hirugarren edizioa)

(2000 - 2009)

2015



« **Hortzak izerdi** » Senpere inguruko esaldi ezaguna « Aupa batasuna »-n jadanik aipatua 145. orrialdean. Lagunarteko ihardespen alaia dukegu hau, guziz nekea haatik xeheki argitzeko : buru bezainbat aburu entzunen baita esaldi horren erran nahiaz galdatuz gero !

Kasu honetan, iritzi politiko ‘seriosenak’ ere eztabaidagarriak daudela eta ez direla egia zientifikoekin nahasi behar adierazi nahi luke, omore ihintz bat isuriz denbora berean orrialdeen aurpegi idorraren gainerat...

Baina bertze irakurketa bat ere egin daiteke: “hortzak erakutsi”, “hortzak tinko” eta “izerditan”: abertzale baten zoriarekin geundeke hor bete-bete...

Hortzak izerdi

Enbata
astekari politikoarentzat
egin “Sar-hitzak”

(Aupa batasuna!-ren segida)

(Hirugarren edizioa)

(2000 - 2009)

Henri Duhau

2015

© Henri DUHAU “Mariatorenea”
48, Karrika Nagusia
Senpere – 64310 – Saint-Pée-sur-Nivelle

Couverture, reliure/ Azala, jostura : “Etxekoz etxeko”

Les photos sont de l’auteur sauf indication contraire/
Argazkiak egilearenak dira, bertzerik ez badiote


Tous droits de reproduction réservés/
Kopiatzerik ez, jabearen baimenik gabe

AURKIBIDEA

Aitzin solasa:	Nondik mintzo da idazle hori ?.....	13
	Gure arrangura nagusiak:	
	euskara eta abertzaleen batasuna	25
2000- 08-31	Kezkak nagusi.....	30
09-28	Erabakitzeko orduan	32
10-26	Batzuek egina bertzeek deseginez	34
11-23	Herria eta herritarrak gogoan	36
12-21	Maitasuna sustatzaile	38
2001- 01-18	Maitatzea zein neke den.....	40
02-15	Euskal laborariak aitzindari	42
03-15	Apoarmatuaren urratsean	44
04-12	Zorion eta goibeldura.....	46
05-10	Giro nahasia eta dorpea.....	48
06-07	Txapela Txapeleneri	50
07-05	Zer mundu bitxia.....	52
08-02	Genoatik Sohütarat	54
08-30	Abertzaleen batasuna lehenik	56
09-27	Izigarrikeria horien ondotik	58
10-25	Aita Lafitte zena gogoan.....	60
11-22	Diru horren desmasiak.....	62
12-20	Euskararen sustraiak	64
2002- 01-17	Adiskidetzen bagara.....	66
02-14	Sinesgarritik egiaztagarritat	68
03-28	Eskuina eta ezkerra	70
04-11	Biziduna ehortzi ?	72
05-09	Mamua baztertzea ez da aski	74
06-06	Abertzaleen bidea hobetsiz	76
07-04	Gezurtean atzeman dituzte.....	78
08-01	Ohitura paregabea	80
08-29	Otsoak artzain	82
09-26	Egoera ezin gehiago nahasia	84
11-07	Elkarrekin bizitzeko deia	86
11-21	Biharko euskaldunaz gogoetan	88
12-19	Aupa BATERA !	90
2003- 01-16	Otsailaren lehenari buruz	92
02-13	“Esperantzari leiho bat ireki”	94

	03-13	Belatzen garaia.....	96
	04-10	Berrogei urte	98
	05-08	Euskara freskoaren bila.....	100
	06-05	Herritartasuna landu.....	102
	07-03	Eraikuntzaren aldia	104
2003-	08-07	Ateketan	106
	09-04	Jendetasuna	108
	10-02	Ametsak eta urratsak.....	110
	10-30	Jo aitzina !.....	112
	11-27	Maitasun izerdi izpi bat	114
	12-25	Katalunian goiti ari	116
2004-	01-22	Gure ildoan barnatu	118
	02-19	Zakutik edo zorrotik.....	120
	03-18	Hondoa jorik	122
	04-15	Goiti ari garela	124
	05-13	Laino artetik eguzki izpiak	126
	06-10	Bide zabaltzailearen alde	128
	07-08	Sineste argituak.....	130
	08-05	Min, izerdi eta udako amets.....	132
	09-09	Errusiako sarraskiaren ondotik	134
	09-30	Atzokoek argi bagintzate	136
	10-28	Ondorio urrunak gogoan.....	138
	11-25	Anoetako erakustaldiaren ondotik	140
	12-23	Aberastasunen artean ezin biziak.....	142
2005-	01-20	ELBren urrats bikaina	144
	02-07	Hitza roaren zain.....	146
	03-17	Euskaltzale maitasunez	148
	04-14	Erromakoen artetik dei baten oihartzuna	150
	05-12	Hauteskunde iraganak eta datorren referenduma.....	152
	06-09	Ametsa eta ahalkea indargune	154
	07-07	Euskaraz mintzatzea sustatzeko.....	156
	08-04	Euskal indar uztartuak noizko	158
	09-01	Oharpentxo eta galderaño batzuk	160
	09-29	Batzuk biltzen, bertzeak irakasten	162
	10-27	Estatua eta eliza bereizi zituzten.....	164
	11-24	Ihardespen osatu beharrak.....	166
	12-22	Aupa Sustrai, Amets eta bertzeak !.....	168
2006-	01-19	Geroa eraiki nahi badugu	170
	02-23	Marraskilari supitx.....	172
	03-23	Izen eta ez izen.....	174
	04-20	Inarrosaldi bat gaitza.....	176
	05-18	Jorran, aroa lagun.....	178
	06-15	Burujatasun osoaz	180

07-13	Goresmen eta desohore.....	182
08-10	Ez da lana bezalakorik	184
09-07	Gauak irauten du.....	186
10-05	Abertzalegoa suspertzeko	188
11-02	Egintza goresgarri jakingabea.....	190
11-30	Ostatu xokotik pindar	192
12-28	Lurra itsumenduka, eta gu ?.....	194
2007- 01-25	Delako “lurrikara” haren zain	196
02-22	Aterabidea : abertzaleen batasuna.....	198
03-22	Elkarretaratu aitzinatzekotan	200
04-19	Bakea irabazteko.....	202
05-17	Denak berdin hobendun?	204
08-09	Bide onaren bila	206
10-04	Lehendakariaren urrats handiak	208
11-01	Sabelahots	210
11-29	Goresmen zuri Adema-Zaldubi !	212
12-27	Argi eta itzal.....	214
2008- 01-24	Hizkuntza guttitiuak ohoretan.....	216
02-21	Kosovo beregain	218
03-20	Emaitza gazi-gozaak.....	220
04-17	Gosetea anitz herrialdetan.....	222
05-15	Aro kaskarra.....	224
06-12	Gurpil zoro hori	226
08-07	Iritzi eztabaidagarriak	228
09-04	Goresmenak zuri Ingrid	230
10-02	Jokamolde deitoragarrien ondorioak	232
10-30	Ahulenak lehen pekatzaile	234
11-27	Ipurdia lastoz.....	236
2009- 01-22	Ohorea galdu dugula.....	238
03-19	“Oi gu hemen bidean galduak”	240
04-23	“Lapurdi 1609-2009”	242
05-14	Izorratu gaituzte	244
06-12	Emaitza gordeak eta bertzeak	246
07-09	Besten artetik borrokarako deia	248
08-06	Jabetasun eztabidak Senperen.....	250



Tituluen aurkibide alfabetikoa

Aberastasunen artean ezin biziak	142
Abertzaleen batasuna lehenik	56
Abertzaleen bidea hobetsiz	76
Abertzalegoa suspertzeko	188
Adiskidetzen bagara	66
Ahulenak lehen pekatzaile	234
Aita Lafitte zena gogoan	60
Ametsa eta ahalkea indargune	154
Ametsak eta urratsak	110
Anoetako erakustaldiaren ondotik	140
Apoarmatuaren urratsean	44
Argi eta itzal	214
Aro kaskarra	224
Ateketan	106
Aterabidea : abertzaleen batasuna	198
Atzokoek argi bagintzate	136
Aupa BATERA !	90
Aupa Sustrai, Amets eta bertzeak !	168
Bakea irabazteko	202
Batzuek egina bertzeek deseginez	34
Batzuk biltzen, bertzeak irakasten	162
Belatzen garaia	96
Berrogei urte	98
Besten artetik borrokarako deia	248
Bide onaren bila	206
Bide zabaltzailearen alde	128
Biharko euskaldunaz gogoetan	88
Biziduna ehortzi ?	72
Burujatasun osoaz	180
Delako “lurrikara” haren zain	196
Denak berdin hobendun?	204
Diru horren desmasiak	62
Egintza goresgarri jakingabea	190
Egoera ezin gehiago nahasia	84
ELBren urrats bikaina	144
Elkarrekin bizitzeko deia	86
Elkarretaratu aitzinatzekotan	200
Eraitza gazi-gozaok	220
Eraitza gordeak eta bertzeak	246

Erabakitzeko orduan.....	32
Eraikuntzaren aldia.....	104
Erromakoen artetik dei baten oihartzuna	150
Errusiako sarraskiaren ondotik.....	134
Eskuina eta ezkerre	70
“Esperantzari leiho bat ireki”	94
Estatua eta eliza bereizi zituzten	164
Euskal indar uztartuak noizko	158
Euskal laborariak aitzindari.....	42
Euskaltzale maitasunez	148
Euskara freskoaren bila	100
Euskararen sustraiak.....	64
Euskaraz mintzatzea sustatzeko	156
Ez da lana bezalakorik	184
Gauak irauten du	186
Genoatik Sohütarat.....	54
Geroa eraiki nahi badugu	170
Gezurrian atzeman dituzte.....	78
Giro nahasia eta dorpea	48
Goiti ari garela.....	124
Goresmen eta desohore	182
Goresmen zuri Adema-Zaldubi !.....	212
Goresmenak zuri Ingrid.....	230
Gosetea anitz herrialdetan	222
Gure ildoa barnatu.....	118
Gurpil zoro hori.....	226
Hauteskunde iraganak eta datorren referenduma	152
Herria eta herritarrak gogoan	36
Herritartasuna landu	102
Hitzaroaren zain	146
Hizkuntza guttitiak ohoretan	216
Hondoa jorik.....	122
Ihardespen osatu beharrak.....	166
Inarrosaldi bat gaitza	176
Ipurdia lastoz	236
Iritzi eztabaidagarriak.....	228
Izen eta ez izen	174
Izigarrikeria horien ondotik.....	58
Izorratu gaituzte.....	244
Jabetasun eztabidak Senperen	250
Jendetasuna	108
Jo aitzina !	112
Jokamolde deitoragarrien ondorioak.....	232

Jorran, aroa lagun	178
Katalunian goiti ari.....	116
Kezkak nagusi	30
Kosovo beregain.....	218
Laino artetik eguzki izpiak.....	126
“Lapurdi 1609-2009”	242
Lehendakariaren urrats handiak	208
Lurra itsumenduka, eta gu ?	194
Maitasun izerdi izpi bat.....	114
Maitasuna sustatzaile	38
Maitatzea zein neke den	40
Mamua baztertzea ez da aski.....	74
Marrazkilari supitx	172
Min, izerdi eta udako amets	132
Oharpentxo eta galderaño batzuk.....	160
Ohitura paregabea	80
Ohorea galdu dugula	238
“Oi gu hemen bidean galduak”	240
Ondorio urrunak gogoan	138
Ostatu xokotik pindar.....	192
Otsailaren lehenari buruz	92
Otsoak artzain.....	82
Sabelahots	210
Sinesgarritik egiaztagarrirat	68
Sineste argituak	130
Txapela Txapeleneri.....	50
Zakutik edo zorrotik.....	120
Zer mundu bitxia	52
Zorion eta goibeldura	46



Nondik mintzo da idazle hori ?

Alabaina, nork erran behar zuen liburu idazten ariko nintzela egun batez, ikusiz ene eskola maila, ene ingurumen soziala, sortzezkoa ala gazte denborakoa edo berdin geroagokoa ere?

Alta, beharrak eraginik edo/eta bertze batzuek bultzaturik, nihaurek ere ez dakit xuxen, artikulua andana bat banuela idatzirik ordutuz, hasi nintzen lantto baten egiten, eta, emeki-emeki, bil eta bil ari izanik eta bilduak jakingarri izan zitezkeela iruditurik —nihaurentzat segurik hala baitziren— lanen publikatzeko gogoak pizten hasi zitzaidan; eta jadanik 1982an zerbaiten publikatzekotan nintzen.

Berehala erran behar dut ene ordutako lanttoa, nehorat agertu aitzin, erakutsi niola Piarres Lafitte kalonje eta euskal jakintsuari (1901-1985) eta hark sustatu ninduela lanari jarraitzerat. Publikatzerik ez zidan aipatu eta sentitu nuen askoz ere gehiago landu eta emendatu behar nuela ene lanttoa. Luzamendu horrek hamar bat urte iraun behar zuen: 1993an atera baitzen ene lehen liburua, “Hasian Hasi, Beskoitzeko Euskara”.

Orduz geroztik ez naiz atertu idaztetik, baina, ‘idazle’ izena ez dut gustukoa: idatzi dudana guzua behar baten ondorioz, militantismoak bultzaturik egin baitut. Hots, ez dut nehoiz idatzi asmakuntzarik, eleberri eta holako.

Gauza bat erran behar dut: Xalbador bertsulari handiak erran zigun behin 1964an: “Bertsuak egiten dituzunean, bat-batean emateko edo idazteko, ez har bertzeren hitzetan edo lerroetan deus: zuhaurena izan dadila plazaratzen duzun guzua.” Eta nik beti gogoan atxiki dut aholku hori bertsu batzuk idatzi ditudanean, halaber artikulua egin ditudanean.

Baina, behar nuke beharbada, galdera bati ihardetsi, politika gaietaz egin artikulua irakurtzen dituenak bere baitan egiten dukeenari, hau da:

— Nondik mintzo da idazle hori?

Bertzela errateko: zer erreferentzia du? Joset Zamorak, Senpere Lohiakobordako goizegi zenduak, beti errepikatzen zidan: “Biziak erakusten dik unibertsitateak baino gehiago.” (Esaldi horretan ez dezala nehork ikus unibertsitatearen gutiespenik). Ega da, ariaren ariaz, lehenagoko herabetasun haiek ere ttipitu zaizkit; eta hau errepikatuz nabil: Hobeki egin dezakeenak egin dezala, ni ez naiz samurtuko!

Erreferentziarik ez dakit badudanetz, baina erro batzuk baditudala, haatik, segur naiz eta horiek erakutsiz, laburzki bada laburzki, nahi nuke erran edo sentiarazi bederen nola sortu zatekeen ene baitan euskararen, Herriaren eta herritarren alderako karra. Egia da erroen ezagutza ez dela aski gizon baten bizia ulertzeko, biziaren beraren ekarpena berdin inportantagoa ere izan baitaiteke.

Has gaitezen bada hastetik eta horretarako miatu beharko dut lehenik nire aitzineko zenbaiten bizian eta lekukotasunean, “Odolak tiratzen baitu bi idi parek baino gehiago”. Gure aitzinekoen goasterat ekarriko nau horrek, haizu baita, errankizun zaharrak dioenaz; haurrak aldiz ez: haurren laudatzea bere buruaren goratzea baita, omen...

Buraso eta arbasoak beskoiztarrak nituen ezin gehiago. Aita eta amak, aitaren aita eta amak, bai eta amaren aita eta amak ere ! Aitatziren eta amatxiren aita-amenganaino joan behar dut 8 arbasoetarik biga kanpotik etorriak aurkitzeko eta haiek ere hain urrundik jinak, pentsa: bata Hazparnetik, bertzea Bardotzetik...

Arbola genealogikoari behako ttipi bat eman orduko ohartu nintzen Duhau deitura Labiagerrean egon zela, aitatik semerat, erregulartasun handiz, 1623az geroztik, aitatzixi Xalbat arte. Azkenen izenak baizik ez aipatzeko, aitarena: Piarres; aitatzixi: Xalbat; aitatziren aitak: Piarres; aitatziren aitatzixi: Xalbat!!! Hori bera ere ez ote ohargarria ?

Nolaz bada, Xalbat, ene aitaren aita, Labiagerreko premua zelarik, ez zen etxondoan plantatu, ezkondu zenean, 1907an, Mañeñe Ospital Mentaberrikobordako alaba zaharrenarekin (1881-1956)?

Etxeko sekretua zen, nolazpait guti edo aski zilatu duguna denborarekin. Baina alderdi baten ikuspegia da eta ez dugu hemen ezarriko. Dakiguna da aitatzixi amodiozko ezkontza egin zuela eta premutasuna galdurik, bordari jarri zela, parte “bidogain”, erran nahi baita behiak mailegatuz eta haien jabearekin mozkinak erdizkatuz!!!

Jakingarri da ere Xalbaten anaia gazteagoa, Batista, ezkondu zela Marta, Mañeñeren ahizparekin eta ez zela Labiagerrerat ezkondu, Mentaberrikobordarat baizik, emaztearen etxondorat beraz, eta 14 haur ukan zituztela: 9 mutiko eta 5 neska! Beskoitzeko familiarik handiena: denak haur azkarrak, ezin gehiago langileak izanen direnak.

Xalbat eta Mañeñe nire aitatzixi amatxiek, beren ohantzea egin zuten: ez baitziren lotsatuetarik! Baina aitatzixi Xalbat gazterik hil zen, 1918an; Indotxinan soldado ibilia zen eta kolpatua izana, Aita Pierre Dourisbourek (1825-1890, auzokoak eta beharbada ahaideak) aipatzen dituen kanaberazko (*bambou-zko*) zizta zorrotz famatu haiekin.

Ez dakigu zertako igorri zuten soldado harat; batek erran dit errotik apeztiarra izanik, beharbada zigorrez izan zela... Orduko buruzagietan arras

antiklerikalak izan baitira anitzak. Halere ez zaigu nahikoa. Hor ere norbaitek argi bagintza anitz anitz eskertuko genuke.

Amatxi Mañeñek haziko ditu beraz kasik bakarrik bere lau haurrak, (mutiko bat [aita] eta hiru neska) etxalde batetik bertzerat bordari, 20 urtez lau etxalde ttipitan ibiliz: lehenik Bordaberrian, gero Iturbidean, Mexeretan, Leizarretxean, azkenik aita, haurrik zaharrena, Iturralderat ezkondu artean! Udako jeikitzea, seiretan berantenaz eta jadanik Mañeñek laborea (ogia) labean errea zuen!!! Eta zer zainak bertzalde: 100 kiloko ongailu zakua eramaten zuen bizkarrean, lur irauliaren gainean (!!!), bera 55 kiloko (?) emaztea zelarik nunbait han...

Ezin sinetsia kasik, holako bizi zaila eramaki zutelarik, etxe ttipitto baten erosteko dirua bazutela baztertuturik...

Gero, amatxi biziko da bere alaba Helena eta Janpiarri suhiarekin, Apeztegian, eta etxea bera ere erosiko dute hau salgai gertatuko delarik.

Aita zena, Piarres Duhau beraz (1908-1980) Bordaberrian sortu zen eta orai aipatu ditugun lau etxalde horietarik pasatuko da bere haur eta gaztaroan. 12 urtetako epaiten ariko da gizon adinekoen erdian. Hor hasiko da ere erretzen, bertze hainbertze bezala, eta bazekien, aspaldian, egun batez, zein eritasunek eraman zezakeen...

Berezitasun bat: aita urte bateko soldadogoa egin zuen, Tolosan, 1928an hori baitzen orduko legezko epe finkatua. Hainbertzek beren soldado denbora galdutzat daukatelarik aita zenak ukan zuen kapitain bat beti goretsiko duena.

Kapitain hori laborari umea bide zen, Hamalaueko gerlan gradutan goiti joana. Askotan soldado aitzindariak doi bat arruntak izaten baitira, hura sekulako kontseilu onak ematen ari zen soldadoei, zinezko prediku batzuk bezala eginez: nola behar zuten ibili hirian neskekin, nola gero familian haurrak altxatu, eta abar.

Uste dut aita, aita ordain bat bezala zeukala bere kapitaina. Hala iduritu zait segurik. Erants daiteke, aitaren adinekoetan, bazirela bakarrak beren aita Hamalaueko gerlan galdua zutenak, eta beraz kontseilu on horiek ez zirela beharbada hain arraroak denbora haietan...

Baina aitarentzat, Labiagerreko premugoa galdu izana, min bat geldituko da eta ukanen du eragina haren baitan: gorde nahi zuen baina hautematen genion. Nola konpreni daiteke bertzela hauteskunde batzuetan, ofizialki demo-kristaua zelarik, aise ezkerrago bozkatzea, kontserbadoreak eta eskuindarrak ezinikusiz? Herriko kontseiluan ere agertu ukan du deplauki bere ezkertiar gogo: langile guziekilako elkartasuna, lan ontsa eginaren amodioa berme, haatik!

Ezen aita zena, ordukotz denek “Piarres Ithurralde” deitzen zutena, politikan sartuko da 1945ean berehalaxe ikusiko dugun bezala. Ez zuen gerlarik egin, lau haurren aita baitzen jadanik (ni bortzgarrena, 1942koa). Erresistentziaren aldekoa izan zen errotik. Iheslariak ere atxiki zituen etxean, eta bi aldiz segurik, salaketa baten ondorioz, jandarmek harrapatzeaz zuten. (Salaketaren egilea badakigu nor izan zen; baina bego horretan: Jainkoak bere lorian duela!)

Oroitzapen. Colin eta Betbeder iheslari horien izenetaz bederen oroitu naiz, haiekin batekin mahastigintzan ikasi zuen aita eta herriko ‘arnozaleak’ gure etxerat heldu ziren, estakuru gutirekin, arno horretarik jastatzeko, drago bat edo berdin gehiago ere...

1945ean, herriko bozetan, zerrenda bat bakarrik presentatzen da Beskoitzen. Halere, lehen itzulian berean hautatua izateko behar da boz kopuru maila bat gainditu. Hamahiru zerrendakideetarik batek ez zuen gainditu delako maila eta beraz, jarleku batentzat, berriz bozak egin behar ziren ondoko igandean (*ballotage*).

Léon Peyrelongue Kanttoineko zenak erran zion orduan aitari: “Xuk behar duxu presentatu!” Sekulako ateketan ezarri zuen aita: ez baitzuen holakorik gogoan, ez eta holako deusen ohiturarik bere familian.

Nahiz, egia erran, orduko usaiari jarraikiz, boz paper hedatzen ibilia zen 1929ko herriko hauteskundeetan “Zaharren” alde, Guillaume Berhonde bere lehen kusi batekin, bertze paper hedatzen ari izan ziren gazte guziak eskuindar-erregetiarrek osatu zuten lista “Gaztearen” alde ibili baitziren. (Hauteskunde haiek “Zaharrek” irabazten zituzten)

Beraz, 1945ean sartu zen aita zena politikan; erran daiteke berbera denen kontra: zeren eta 1929an elkarren kontra ari izan ziren bi alderdiak (“Zaharrak” eta “Gazteak”) elkartuak baitziren, aspaldixko hartan.

Lehenik jaun erretoaren ikusterat joan zen, gero boz paperak inprimatu eta etxez etxe kanpaina pixka bat egin. Jadanik aitzineko igandean pasatu zirenek, Etienne Delicette, orduko auzapeza buru, presentatu zuten, ez aitzineko aldian iragan ez zen hura, baina bertze bat, laborari ona, aita familiakoa hura ere. Aita, bakar-bakarrik, bermatu zen eta airez aire iragan 40 bat bozen abantzuarekin. Kalipu kemen handi baten gainerat, ‘adar handiko’ ordezkaria zen: bazituen herrian berean 50 bat lehen kusi, denak ez bere aldekoak izanik ere...

Bi urteren buruan, Frantziako Konstituzio berriari jarraikiz (IV. Errepublikaren sortzearen ondorioz), berriz bozak, maila guzietan: deputatu, zenatur eta... herrietakoak. Aita zenak muntatu zuen berak zerrenda bat. Lehen itzulitik iragan zen bera eta bigarren itzulian (*ballotage*) bertze hiru lagun pasarazi zituen: Xemartin Duguine ‘Behereko-Eihera’, Janbattit Lissarrague ‘Kurutxaga’ eta Alexis Navarron ‘Baratxartea’. Horra beraz

orain herriko kontseiluan ditugula 9 hautetsi Delicetchen zerrendatik eta 4 aitarenetik.

Hor hasiko du aita zenak borroka bat zinez gogorra herriko beharren alde: ura, elektrika, bideak, eskola publikoaren berotzea eta abar. Alde askotarik arrunt gibela baitzen Beskoitze.

Denbora haietan kontseilariak biltzen ziren igandekari, goiz meztatik landa, lau edo bostz bilkura urtean eta ni oroitu naiz aita ikusirik etxerat sartzen arratsaldeko bi ornetan, goizetik jangabea, leherregina eta ama haren sokorritzen.

Behin, 1950a inguruan, Delicetche auzapezak, (donadoa baina eskolatua eta munduko berriak segitzen zituen, Pariseko Burtza lehen-lehenik) ihardetsi zion honela: “Mutikoa, ez dik balio lan horietan bururik haustea, berdin laster Xinoak gainean ditiagu”! (Ikus “Aupa batasuna!”, 1980-11-19)

Ahapaldi hori heldu zen delako “*Le péril jaune*”, Mao tse tung Txinan, buru jarri ondoan sortua zen egoera beldurgarri hartarik. Haatik, auzapezaren ihardespenei lerden hori politikero baten solas gisa har bazitekeen ere orduan, gaur, 65 urteren buruan, ez da hain funts gabea, ekonomia alorrean jadanik martxan baita !!!

Bertzalde, zenaturren hautatzeko herriko kontseilarien artean bozkatzeko dira Pauerat joan behar dutenak ordezkariak. 1947-1953 urteetan, aitak, behin bederen badakit bere burua aurkezteko zuela “MRP” gisa [*Mouvement Républicain Populaire*]; baina bere lagunen bozak baizik ez zituen bildu.

Hau ere nahi dut erran. 1945an emazteek erdietsia zuten bozkatzeko eskubidea eta beraz presentatzekoa ere bai. 1947an aitak bere lista osatzeko orduan, berehala pentsatu zuen emazte bat hartu behar zuela berekin eta Gaxuxa Ospital Agerrekobordakoak onartu zuen aitaren zerrendan sartzea.

Ordea, bagenuen Larrea etxaldean Urepeletik etorri bertsulari bat, hain xuxen harekin ikasi zuela bertsutan baitio Xalbadorrek (ikus, “Odolaren mintzoa”, 32-33 orrialdeetan). Eta, ez baita erraiteko baizik, izendatuko ez dugun bertsulari horrek kantu itsusi batzuk jarri zizkion gure Gaxuxari.

Bere baitarik eman zituenetz ala bertze batzuek galdeginik, hori ez dakigu. Baina ez Gaxuxa, ez aita, biak bertute handikoak baitziren, ez zituzten lotsatu, nahiz holako tzarkeriak ez diren atsegin batere.

Kantu horiek ahantziak direlarik aspaldi, zenbat urte joanen ote dira emazte bat berriz presentatuko den arte herriko kontseilurako bozetan...?

Galdatu zuen ere aitak Erramun Lissarrague Etxexurikoa. Beskoitzeko jakintsun handiena ene ustez, baina doi-doia bi urte lehenago bukatua zen gerla hartan ez zena batere gure aitaren alderdikoa izana. Ulertzen

duzue zer erran nahi dudan. Erramunek ez zuen onartu, zioela “Ni gizon bitzi [bitxi] bat nuk”.

Erran behar da haatik gizon hori eta horren bi arrebak jendetasun handikoak zirela eta, adibidez, “Mantsotegian” bizi ziren herriko buhamiek ez dutela izan haiek bezalako gerizatzailerik eta, hori diot jokabide arraro baten lekuko zuzena gertatu izan bainaiz. (Ikus “Beskoitzeko Ur Gaziak” liburuan)

Eta ni fier naiz aita zenaren izpiritu idekiaz: zerbait egin zezaketen guzien biltzaile herriaren onerako, lehenago gertatuak gertatu. Irabazleek, edo irabazleen alderdikoek, ez ote dute eskuzabal izan behar bidez enganatu direnei buruz, biziak eta bizitzeko zorionak berriz gaina hartzen ari zuen garai hartan bertzenaz ere?

Hau ere erran nahi nuke. 1964an, Otxalderen omenaldiari buruz ari ginelarik joan ginen Lucien Ithurbide eta biak Erramun horren ikusterat. Ordukotz eri handi zen eta halarik ere, izerdia zeriola, nahi ukan zituen sekulako xehetasunak eman Otxaldez eta harriturik atxiki gintuen hainbertze gauza eta bertso aipaturik gogoz! Ahantzi gabe Bidaxunez erran ziguna: “Bidaxunek behar luke izan Monaco bezala: bere gain.” Arrebak erasiatzen zuen: “Erramun, geldi zaite holako segituz, unatuko (nekatuko) zira eta erituko.” Baina Erramunek segitzen zuen beretik.

Euskaltzalea eta erregetiarra zen, Jean Laxalt, Beskoitzen erretor egon zen apez famatu harek formatu taldeko zazpi edo zortzi lagunetarik bat.

Artetik erraiteko hau ere, Beskoitzen bizpahiru urte egin orduko (1924-1927?) Laxalt izendatuko dute Donibane Garaziko erretor (sobera ‘politika’ egin ote zuen?) Joaite hori elizan jakinarazi zuelarik emazte asko nigarrez hipaka hasi ziren (amak erranik daukat). Ez da harritzeko, beskoiztar batzuk joaiten bazitzaizkion Donibane Garaziraino ikusterat eta mintzatzerat! Hori Arnaud Borotrak berak salaturik, Senpereko erretore etorri aitzin (1931n) Laxalt horren bikario egona baitzen Garaziko hiri nagusian...

Erran dena, aita zenak, gehienki, demo-kristau bozkutzen zuen. Bere formakuntza nagusia zor zion artoski irakurtzen zuen “*Foyer Rural*” kazetari. Astekari hau CMR (*Chrétien dans le Monde Rural*) taldekoek argitaratzen zuten eta aita dena irakurtzen zuen, burutik buru, eta kazeta altxatzen ere bai armairu gainean, bakarrak baizeuden hantxe euli kakek beltzatuak denborarekin!

Funtsean, aita, etxerat sartzen ziren irakurgai mota guziak irakurtzen zituen, janiza batean bezala, gure eskolako kaierak barne! Arratsetan berant ariko irakurtzen, gauerdia arte eta goizetan 4etako jeikia zen (gero,

bazkalondoan, pausaldia egiten zuen, haatik). Irakurtzen zuen ere “Eskualduna” gerla aitzinean eta “Herria” gerla ondoan.

Dena den, 1953an Delicetchek uzten du auzapezgoa. Jean Cyprien Eyherabidek —hau sortzez heletarra eta beraz beskoiztar berria— biltzen du aita zena eta biek zerrenda bat osatuko dute eta nagusituko dira 8 hautetsirekin eta 5 bertze zerrendatik. Handik goiti, aita egonen da 18 urtez lehen axuant edo auzapez orde.

Baina erran dugu ere jadanik ‘ezkerrago’ ere bozkatzea gertatu izan zaiola adibidez deputatu edo Kontseilu Orokorreko (departamenduko) bozetan.

1958an, Pierre Pflimlin frantses gobernuburuak galdatu zuen Herriko Etxeko Kontseilu guziei eia onar zitekeen de Gaullen berriz boterean ezartzea. Eyherabide auzapezak, kontseilu galdaturik Louis Dassance Uztaritzeko auzapez prestuari eta haren bidetik, de Gaullen alde joatea galdatu zuen. Gure aita zena kontra agertu zen osoki.

Eztabaida kontseiluan. Oposizioneko buruak: “De Gaulle sartu orduko bakea diagu: ez duka ikusten ehun milaka jende manifestatzen Alger hirian?” Aitak: Baina gaixoa, horiek kasik denak militarren familiak edo ‘zango beltzetarik’ dituk; nun dira hango bereko arabeak?

Gaixo aita zenak, nundik zuen holako dohaina bizpahiru urte doi-doia eskolan ibilia eta Mendès-France bati segitzeko hemengo bertze gutik bezala, gehiengo itogarri baten erdian gainerat? Kasu honetan aitarekin bat egin zuen bertze kontseiluko batek ere, ez zelarik alta aitaren zerrendakoa. Oroitarazten dut, Beskoitzen, maioria handi batek de Gaullen alde bozkatu zuela.

Handik laster jin ziren deputatu bozak. Jean Errecart-ek, zenatur (senatari) karguan zenak, erabaki zuen deputatu presentatzea, hobekiago zerbitzatuko zituela euskaldunak zenaturgotik baino. Hauteskunde egunean, *Sud Ouest*-a erosirik, oroit naiz barnean zeukan lerro batez: “Sud Ouest eskualde gehienez ez dakigu nor pasatuko den; soilik Errecart-ek segura du hautetsia izaitea.”

Orduko irrati nazionalak ez zuten lekuko berririk ematen eta ondorioak jakin nahiz geunden, xifrituak, igande arratsean, ezen goizean bozka leku inguruetan, usaiaiko zenbait adiskiderengandik halako “hoztasun” zerbait bezala zentitua genuen...

Astelehen goizean heldu zaigu etxerat auzo bat, Batita Hirigoyen Leizarragako semea, bezperan hor gaindi ibilia, eta galdatzen diogu: “Eta, aditu duka atzo nola pasatu diren bozak?” Eta ihardesten digu: “Ba, ontsa konprenitu balin badut: Camino, aitzinean dela”. Harrituak ginen aita-semeak, sesituak, erotuak ere ezin onetsiz...

Egun hartan berean, ongarri hedatzen ari ginela aita-semeak ‘behereko landan’, horra nun heldu zaigun guri buruz gizon bat, oinez, ez baitzen oraino gure etxeko bidea osoki harriztatua. Aitak ezagutu zuen berehala, adintsuak baitziren, kanboarra, eta gure ahaideki urruna ere bide zen.

Bozez hasi ziren segidan eta galdatu zion aitari ni urruntzea segetuan hitzegiteko gisan. Aitak erran zion mintzatzen ahal zela gostuan ene aitzinean. Bazekien aitak haren ideiak neuretuak nituela ordukotz. Eta hasi zen : “Badakigu itzal handiko gizona zarela Beskoitzen eta Caminok zure beharra badu, bigarren itzulia ez baita segurtatua.” eta diru eskaintza bat egin zion.

Aitak, argi eta garbi erran zion ezetz, kasik merezi baino gehiagoko errespeturekin. Gizona joan zen, jin bezala, eta aitak bere fuxina (sardea) han berean sartu zuen lurrean: “Henri, segi zak ongarri hedatzen; ni johan nuk kanpaña egiterat Errecarten alde.”

Irakurle, ez naiz ahalge aitortzeko, denek dakitena bertzenaz ere, gure etxean ez zela dirurik, xuhurki bizitzekoa baizik. (Erran behar dut, ordea, komunione, bataio eta bereziki ezteietarako, moltsa arin izanagatik, beskoiztarrek bagenekielako ‘chic’, dotore beztitzen: gizonak krabatean eta emazteak eskularruekin!)

Beskoitzerat etorri zen Etienne Pochelu, Makeako auzapeza, Errecarten ordaina (*suppléant*), eta harekin mintzatu ziren kanpaña nola segitu, nahiz irabazteko esperantza ttipia ikusten zuten Caminok hartua zuen abantzuagatik. Halere aitak bi edo hiru egun osoak eraman zituen etxez etxe; debaldetan, haatik, denek baitakigu Camino zela hautetsia izan.

Ahantzi dut erraitea, 1947 eta 1953 artean, bere borroka politiko gogorra eramaki zuen denboraldi hartan, eskolako lagunak kitzikatua nindutela: “Hire aita meraren kontrakoa duk”. Hamar bat urte nituzkeen. Eskolan hola mintzo zitzaizkidala jakitean, aitak hartu ninduen goxoki bezain fermuki eta hauxe erran zidan sekulan ez ahanzteko gisan: “Solex-ea mezarat heldu den salindar gizon hura, Beskoitzeko mera dena, hari eta haren tresnari behatzeko inguratzen zatzaizkiotelarik, hik erran behar diok beti: *Bonjour Monsieur le Maire!*”

Ondoko igande batez, lagunekin gertaturik gure auzapezaren arribadako, Delicetchek, bere solexa pausatu zuen eta nik bota nion: “*Bonjour Monsieur le Maire!*” Auzapezak halako behako bitxi bat egin zidan (segur naiz ezagutu ninduela) baina lagunak harritu ziren: zertako deabrutako hola agurtu nuen...

Aitak, iritziz kontrakoa errespetatzen zuen gain-gainetik. Bere lagunak, batzuetan, erasiatzen zuten: Ez zian horrek hoinbertze “jauna”-rik merezi !

Horrek erran nahi ote du aita itzalik gabeko gizona zela? Ez, ez zen itzalik gabea, bistan da. Behin Auguste Mouesca makiñunak erran zion:

“Hik, heure behi onak soberaxko estimatzen dituk eta txarrak ez aski.” Aitak berak errepikatzen zigun oharpen hori, xuxena baitzitzaion dudarik gabe. Uste dut jendearekin ere gisa bereko zerbait egin zezakeela, Euskal Herrian askori (eta nihuri) maiz hauteman dudan jaidura baita hori...

Engaiamendu politiko oso horrek ez zukeen etxeko garapenari onik egin, asteak bazeramatzalarik bide harriztatzen (gure etxeko bidea kasik dena idiz eta eskuz harriztatua izana da 1953 eta 1960 artean, aita esku langile eta aitzindari). Hainbertze laguntza bertzalde auzoei eta herriarrei (xerri eta aratxe xikiratze, belar pikatze, itzaingo...) Laborantza karraskan berritzen hasia zen eta gu geure hartan egon ginen. Ordukotz higatuegia ote zen berrikuntzari lotzeko? Dena den, eztabaidak izan nituen hor aitarekin.

Hil zen egunean, goiza harekin pasatua nuen eta nola buru guzia baitzeukan, azken hitz bezala erran zidan: “Deneri barkatzen diat.” (1980-07-03). Zerbait gehiago erran nahiko zukeen... Ordea, apezari konfesatua zen eta ez zuen semeari bere bizian hoinbertze ‘batailatua’ zuenak, nahitez, egin zituzkeen hutsen aitortze beharrik.

Bazen, Beskoitzeko karrikan, “Menta” etxean, gure deitura bereko bertze familia bat; ahaidekian ere ginen omen baina arras urrunduak. René Duhau administrazionean kargu handiak atxikiak zituen eta biziki maite zuen gure aitarekin hitzegitea (aitarekin hoin ados baldin bazen, segur izan zaitezte ez zela eskuin muturrekoa!). Aita zendu zenean erran zuen: “Oraindik, Beskoitze ez da gehiago Beskoitze izanen neretzat.”

Ama, Xane Lafourcade (1909-2002), Eiheraldean sortua zen. Bazituen bi anaia: Battitta eta Janpiarri. Laster familia joan zen bizitzerat Behereko-Eiherarat eta handik, aitatxi zenak Jean Lafourcadek (1875-1963) erosi zituen Legassetarrei hiru etxe ttipi elkarri lotuak: Urtubia, Iparragerrea eta Iturraldea, 20 ha orotarar.

Bigarren aitatxi honek, dirua nondik bildu ote zuen? Parte “*en viager*” eskuratu zuen baina gaineratikoa? Badakigu aitatxik bazekiela gutirekin bizitzen eta irabazten zuena baztertzan; baina halere daukat balentria ederra egin zuela...

Aitatxi hau, Harrietakobordatik eskolan ibilia zen Bastidan, bortzpasei hilabete. Zertako Bastidan? Harrietakobordatik Bastidarat joan ala Beskoitzerat, bide bertsua zukeen. Baina Bastidak bazuen bertze abantail handi bat, han bi hizkuntza ikasten ziren: frantsesa eskolan eta gaskoina karrikan! Gaskoiera jakitea biziki baliagarri baitzen denbora haietan eta Bastida erroik gaskoina zen orduan.

Bertzalde, aitatxiren izena, Lafourcade, Bastidatik jalgitzen da eta menturaz ahaide (urrun) edo jendaki zenbait han ukan zezakeen harat tiratzen zukeena.

Aitatxik 3 urte soldado eginak zituen eta gainerat Gerla Handia 4 urte! Kolpatua izana zen, obus eskarda bat sartu zitzaion isterretik, odola

“pegarretik bezala” jauzarazten ziola. Lagunek ukan omen zuten ordenu latza, suak suari, tiroak tiroari eta zartagailu erauntsien erdian: “Zoazte gizon haren bila: erortzen bazarete, ordainduak [ordezkatuak] izanen zarete!”

Eta aitatxi bildu zuten, urruntxago eraman eta loakartu gabe operatu, isterra bertzaldetik zilaturik: eskardak kasik trebesatua baitzuen menbroa. Sei hilabete sendatu arte. Gero etxerat igorri zuten pausatzerat, eta aitatxi berriz joan zen gerlarat, maingu: bazekien haatik ez zutela gehiago surat igorriko; hori bederen.

Emaztea, amatxi, Mañeñe Olhatz (1880-1925) minbiziarekin galdu zuen. Seme zaharrena, otto Battitta, Alemanian soldado zelarik hil zitzaion eritasunez, 1927an. Gerlako kolpeetarik maingu gelditua zen aitatxi eta, arto jorran, xutik ezin ariz gehiago, belauniko ariko zen, orenak eta orenak: oroit naiz ikusirik!

Auzoan bagenituen lau adin bereko, laurak urte bat barne hilen direnak, 88 urtetan: Beñain Goutenegré ‘Butt’ “Kurutxetakoa”, Manex Ithurbide ‘Botxox’ “Larreixta”, Batista Etchart “Haranederrea” eta aitatxi.

Botxox, bere erreximenduko (*régiment*) lasterkari hoberena izana, heldu zen gure aitatxi ezinduaren ikusterat eta ari ziren, supazter xokoan, Gerla Handiko gorabehezez, orenak eta orenak.

Batzuetan lerratzen ziren jendarte gaietarat ere... Eztabaidak: zoin da beharrena herrian, apeza ala jendarmea? Botxoxek: “Apeza!” Aitatxik: “Ez, beharrena jendarmea!” irri karkaila handi batez beztiturik...

Orain arte aipatu ditugun izen horiek guziak euskaldun garbiak ziren. Gure haurtzaroan Beskoitze ehunarentzat ehun euskalduna zela erran baitaiteke. Duhautarrak famatuak ziren mintzalari bezala. Soinuak edo fonetikak bazuen garrantzi ikaragarria horien hizkuntzan.

Aita zena ere biziki eleketari on zen. Tourreuil barkoxtar arno saltzaile batek erran zion behin ez zuela hura bezalako mintzatzailerik ikusi Euskal Herri guzian! Ez zuen apezan euskara ospetsu hura, xeheagoa zuen baina xuxena eta argia. Bertzalde eztabadatzailerik paregabea zen. Ez zen ados gauazko bunba pausatzaileekin: konfrontazio argi eta zuzenaren aldekoa zen, buruz buru, bekoz beko. Egia da bazuela horretarako gaitasuna, presentzia fisiko batez lagundua.

Nehork erakutsi gabe bazekien mintzatzen gazteen argitzeko eta berdin berotzeko ere. Oroit dira horretaz oraino ere zenbait. 1968an, René Ospitalen ordaintzeko bozetan, auzapez orde bezala, hari tokatu zitzaion Manex Pagola Enbatakoka herritarrei presentatzea (Eyherabide auzapeza bera ere presentatzen baitzen eta pasatu ere baitzen airez aire). Gero baso bat edan zuten denek elkarrekin Legategian, Mixel Burucoak pagaturik.

Egia erran Enbatako hizkuntza, “*extremista*” kausitzen zuen eta gorago aipatu Beskoitzeko eskuindar talde horretakoek erabiltzen zutenaren eitekoa zela zioen: ez funtsez, baina moldez.

Eskuindar erregetiar euskaltzale horietarik zenbaitek, irakurtzen zuten Enbata kazeta, 1957-1960 urteetakoaz ari naiz. Noël Mendy Mentaberrikoa horietarik zen, gorago aipatu Erramun Lissarrague haren adiskidea.

Lehen aldikotz Noël Mendyren etxean izan nintzelarik, Bixintxoko, kartiereko eskea egitean, 16 urte nituen. Bere sukaldeko paretan dilindan zeukan jeneral baten argazki eder bat eta galdatu nion: Nor da? Harek fierki: Pétain !

Haatik, ez ninduen ahapaldi horrek batere lotsatu zenbait urte geroago haren galdezkatzetik Beskoitzeko euskara lantzen ari nintzelarik, izan bainintzaion ikusten eta grabatu ere baititut haren solas batzuk. Berez, egiazko intelektual bat zen “*ouvrier agricole*” xume bat zelarik alta bizipidez!

Duhautarreganat berriz itzultzeko, jakingarria da Sauveur Duhau zenak errana. Aitaren lehen kusia zen: odol berekoak zirela erran daiteke bi anaia eta bi ahizpen arteko haur zirenaz gero! Baionan zen soldado “*Caserne de la Nive*” berriki desegina izana den horretan, 1953an. Denbora haietan, “*Police Militaire*” delakoa karriketan ibiltzen zen ikusteko hirian permisionez jalgiak ziren soldadoak zintzoki zebiltzanez. Behin batez, atzeman zuten, Sauveur, bere euskaldun lagunekin ostatuan kantuz, goraxko mintzo edo holako zer bait.

Ostatu barnerat sartzeko eskubiderik ez izanez, polizia militar horretako sarrientak jauki zuen kanporat, bertzeak bertze erranez: “...*et de plus vous parlez patois!*” Sauveur-ek ihardetsi zion nortasun ezin sinetsizko batean: “*Je ne parle pas patois, je parle notre langue!*” Ausartzia horrek harritu zituen bazterrak eta gertakariak kaserna guziko itzulia egin zuen...

Sauveur ezagutu dutenak ez dira haatik harrituko : autoritateari gogor egiteko Duhautarrak ez baitira uzkurretarik. Ixtorio jakingarri horren kondatzerat bere baitarik jin zait, adiskide bat, Senperen ene usaiako saltegian lanean ari nintzelarik: Jean-Pierre Olaizola (geroztik zendua hau ere); Sauveur-ekin biak elkarrekin ziren soldado eta gertakari horren lekuko zuzena izana zen. (Ikus hortaz “*Hasian Hasi*” bigarrena, 2002, liburuan).

Ikus bertzalde Sauveur-en amaren bai eta amaren ahizparen euskarazko gutun miresgarriak “*Hasian Hasi*”, bigarreanean horiek ere.

Gertatzen da nik ere kaserna horretan berean egina dudala soldado zerbitzua hura baino hamar urte geroago. Baina nik ez dut ukan holako kopetarik ez ausartziarik. Ene iritziak, batzuetan zorrotzak, nahiago izan ditut mintzaldietan edo idatziz azaldu; egia da okasione edo aukera horiek goizik ukan ditudala eskuetan bertze batzuek behin ere izan ez dituztenak.

Aitaren eskuak...

Etxekoak aipatzen hasia bainaiz hau ere erran nahi nuke, agian ez du nehork espantutzat hartuko. Gure amak, ama izaiteko sortua zela, ez dut egundaino bertzerik pentsatu, halaxe betetzen baitzituen eginkizun horrek galdatzen dituenak. Egun batez Etchegaray erretorari erran zion: “Ez dut beti nahi bezala egiten hoinbertze haurrekin.” Apezak ihardetsi zion: “Jainkoak eman dauzkitzu, baitzakien zurekin ontsa izanen zirela.” Etchegaray ezagutu dutenek preziatuko dute...

Baina aita zenak eta haren familiak (ezagutu ditudan haren amak eta hiru arrebek) bazuten beren estatu eginkizun usaiakoaren gainerat gehiagoko zerbait odolean: lanaren ‘mistika’ bat bezala! Lanarekin bat egiten zuten. Iduri zuten laneko eginak zirela. Lanean beren buruak ontsa kausitzen zituzten.

Egun batez Ithurralde rat jin zitzaizkigun aitaren bi arreba: ttantta Helena eta ttantta Mayi. Gure sukaldean sartu ziren biak eta hasi eleketan, goxoki, hartaz eta honetaz. Oharturik gure supazterreko burdin plaka ez zela arras distira osoan, hona non ttantta Mayik hartzen duen ondoan zegoen ‘*paille de fer*’ delakoa, zangoan jaunzten eta lotzen den, torra eta torra, burdin plaka dirdirarik ederrenean eman arte!

Nehori ez zitzaion gaitzitu. Ni, harritu bakarrik...

Aita ikusi dut frangotan kantuz joaiten lanerat; badakit kantu egin daitekeela nekezien ahanzteko, baina nik badakit, plazerez ere ari zitekeela. Hala-nola euri gozo baten kari barneko lanetan hasten zelarik, bereziki gider zurgingoan, kantuz ari zen!

Herriko edozoin bidetan edo bidexkatan, traba edo oztopo zerbait ikusten bazuen trebes, geldituko zen eta kenduko, duda izpirik gabe... Berdin arroila bat tapatua bazen, urari bidea irekiko zion nolabait. Hots, aita eta bere hiru arrebek (ttantta Xane Uzpurukoa berdina baitzen) lan bat egin beharra ikusten bazuten aitzinean, hari lotzen zitzaizkion, lotsarik sekulan erakutsi gabe....

Euskal Herrian barna ibilia naiz, lur berrigintzan nenbilerarik bereziki, hiru-lau urtez eta 2.000ko bat laborari familia bisitatu ere. Zenbat aldiz ez naiz egon gizonen eskueri behaka eia ikusiko nuenez aitaren eskuen parekorik, giderrak erabiliaren bortzaz kantxoz estaliak (*callosités*) baitzituen eta nola arrailduak gainerat! Lanak markatu-higatu esku anitz ikusi dut, baina aitaren heinekorik ez zait iruditzen.

Gure arrangura nagusiak : euskara eta abertzaleen batasuna

Azken urte hauetan, gertakariak hala eramanik, ez naiz idazkien lantzetik atertzen. Gehienki apezan lanak : hala gertatzen; ez da ahanzi behar haatik tartean bi laiko ere goretsi ditudala: “Dufau bi anaiak”.

Sail handiena, Adema-Zaldubiren lanak publikatzea, 7 liburuki. Gero Jean Barbier-z ere zerbait, eta azkenik Pierre Dourisboure aita misionest guziz famatuaren lan bat argitaratu dugu, “Zerbitzari” idazle handiak (1883-1961) euskaratua baina agortua zena.

Egia da, ez dut gordetzen apezai anitz zor diedala, bereziki Euskaldun Gazterian ezagutu ditudanei: Jean Hiriart-Urruty, Manex Erdozaintzi-Etchart eta Piarres Charritton-i bereziki. Baina ez bakarrik, ezin uka ene zorak Gratien Iriart Beskoitzeko erretor zenari eta hastean aipatu dudan Piarres Lafitteri hizkuntza mailan bereziki.

Eta hola-hola izendatzen ahal nituzke bertze apez batzuk, anitz ekarri didatenak. Matxin Irabola senpertar bertsulari handiak ere (1879-1935) aitortzen zuen zekien guzia apezengandik ikasia zuela ez zelarik alta apeztiar handi haietarik !

Erran gabe doa, laikoak ere izan zaizkidala sustatzaile, eta ez guti: Errecart, Mendisco, Labéguerie, Pitrau, Etcharren, Arbelbide eta abar, ni baino zaharragoak eta zenduak baizik ez aipatzeko, eta, jakina, horiek ere denak kristau gogokoak gertatu direla.

Azken denbora hauetan askok aldarrikatzen dute (frantses) Errepublikari zor diotela beren garapen sozial eta kulturala; nik garbiki aitortzen dut kristauei zor diedala guzia.

Urrunago joanen naiz: ezen diot, Euskal Herriak atxiki duen hoberenaren zurkaitza, jendetasun ala hizkuntzaz den bezainbatean, hemengo Eliza izan dela, nahi duenak nahi duena erranik ere, hutsak hustegi... Horiek hola, zenbaitek, bereziki Euskal Herriaz mintzo diren erdaldunek, maite dute gure arbaso zaharren idealizatzea. Baina guk, euskaldunek, badakigu zoin bortitzak ziren, beren buruentzat lehenik baina ere elkarrentzat. Eiki, auzolana pratikatzen zuten baina beren jiteari uko egin gabe eta, daukagu, kristautasunak jendetasuna lagundu zuela, gizartea hobetu zuela anitzez, gehiegikeria (handi) batzuk gorabehera.

Badakit nondik heldu naizen.

Egundaino ez naiz gelditu ene erroez gogoetatzetik. Aitaren bihotz suharra eta amaren maitasun baketsua uztartzerat entseiatu naiz. Aita hil zenean, amak erran zidan: “Hor hiza, seme; aita hain maite hintiin”. Zer indarra hartu nuena orduan zuzentasunaren alde lanean segitzeko, gostarik gosta...

Batzuetan aita zenak pairatu du bakartasuna, sinesten zuena ez baitzezakeen uka, nahiz bazekien hautsi-mautsien egiten ere nehork bezainbat; beharko: talde batean lan egitekotan! Nik ere sofritu dut bakartasun hori ez guti, adibidez, abertzale askok, HERRIA astekaria ‘euskaldun ahulen’ kazeta deitzen zutelarik, nik aldiz estimurik handienean neukalarik... Edo oraino partikularren eskubideak defendiatzean, eztabaida izigarri batzuetan, Senpereko Herriko Etxearen eta ONFaren kontra.

Halaber borroka armatuak euskaldunen arteko zatiketa handitzen, espagnolistak indartzen eta gure garapena oztopatzen zutela nioelarik; adibidez, ‘Ama beraren umeak’, nigarrez idatziaren ondotik (Enbata, 1998-06-04), zuzendariekin arazoak izaterainokoan. Zorionez, handik berehala sekulako alderdien arteko hurbilketak gertatu ziren Hegoaldean su-etenari buruz, eta abertzaleen arteko egoerak hoberratu egin zuen. Gero berriz makurtu artean, zorigaitzez...

Bertzalde, badu 35 urte oihuka nabilela kostalde honetako etxegintza neurrigabea salatzen: etxe berriak eta lotizamenduak trumilka; jendea honat milaka sartzen ari, guk hemen haien euskalduntzeko ahalik ukan gabe. Ez da kanpotarren kontra joateko, baina erdal uholde horrek gure ohiturak, hizkuntza eta kultura gero eta gehiago minorisatzen eta ahultzen dituelakotz baizik !

Lehen mintzaldia: ‘FR3 Pays Basque’: 1980-10-15; ikus, “Ondarea zaindu eta landu”, ‘Aupa batasuna!’, 17. orrialdean.

Ikus ere, bertzeak bertze, “*Un scandaleux litige foncier et une urbanisation discutable*! Jabetasun auzi ahalkegarriak eta hirigintza bat eztabaidagarria”, Senpere/ Saint-Pée sur Nivelle.

Ikus oraino: “*Sacré Seignaux!*”, Enbata, 2011-09-15 eta “Hil edo biziko erabakia hartu behar dugu”, Berria 2013-09-06. Idazki horien ondorioz zer mutur saltsak! (Zoriondu nautenak ere izan dira, haatik!)

Apartamendu prezio apalekoen eskasia betetzeko proposatzen dugu egiten diren etxebizitza kolektiboetan, egoitza sozialak egitea soilik, ehunarentzat ehun, sail horretan dugun beranta harrapatzeko: ezen %30 edo %50 eginez bakarrik ez baita sekulan legearen betetzerik erdietsiko... beti eta beti eraikitzen hertsatuak izanen baikara.

Ez dugu ‘mixité’ sozialaz hainbat arduratzerik. Jendea, anitz mugitzen da leku batetik bertzerat. Egoitza sozial horietan dabilzan asko maiz, geroxago, apartamendu erosoago batzuetarat doaz edo berdin berri bat eraikitzen edo erosten dute.

Gainerat, eraikuntza berriak egin baino lehen ikusi behar litzateke etxe zaharrak berrituz zer egin litekeen. Bada hor pedagogia lan bat egiteko, “berriaren lilura” hori gainditzeko, etxe zaharrei adinak emaiten dieten indar eta “arima” berezi haiei ohartarazteko.

Dena den, ez dut urrikirik erranak erranik eta idatziak idatzirik, zeren eta ene ‘garrasia’ horiek barne-barnetik heldu baitziren Euskal Herriaren maitasunez, hautetsi edo hautetsigai batzuen idekidura modernista bezain arriskutsua salatzeko. Gainerat ondorio batzuk ukan dituzte ez hain ttipiak.

Hemen datozen artikuluko horiek doi bat presaka eginak izan dira, aktualitateari hurbil egoteko (hogeietik edo hilabetetik behin), astelehenarekin hasi, aratsean Enbatako bilkuran ahozko laburpen bat egin eta astearte goizean dizketa eraman Baionarat, internetez igortzen hasi aitzin.

Halarik ere, nik idatzi guziak hor sartu ditut eta bere horretan utzi, Enbata agertu ziren bezal-bezala. Doazela beraz **‘Hortzak izerdi’**-k adierazi nahi lukeenaren asmotik, hots, iritzi politikoekin eta egia zientifikoekin bi sail desberdinetarik gabiltzalakoan.

1991-1992 urteetan hasi ziren Hegoaldean bakegintzari buruz euskal alderdi politikoak bildu beharrez eta “Elkarri” taldea sortu zen. Jonan Fernandez, Mailux Recalde eta bertze andana batek gaitzeko urratsak eraman zituzten. (Geroago, “Lokarri”-k hartuko du mugimendu horren segida, hain xuxen egun hauetan bere saila uzterat doana, helburuak beterik, omen)

Ene ikusterat etorri zen apez bat talde horretako kidea eta erran zidan nik hartu behar nuela Iparraldean elkartasun horretan adar baten sortzeko kargua.

Nahiz aspalditik ari nintzen euskal alderdien batasunaren alde mintzatzen irratian eta kazetetan idazten (ikus “Aupa batasuna!” ere), ez nuen, ohi bezala, ene burua gai sentitzen holako egoera minberatsu batean aitzindari abiatzeko, euskaldun balio handiko bezain burugogorrez baitakit zerbait eta erran nion: “Galda iezaiozu Jean Louis Maitiari: azken urte hauetan aitzinamendu handiak lortu ditu Seaskaren alde eta, jakina, erakunde hau dugula Iparraldeko indar bateratuen ezaugarri hoberena.” Eta apezak ihardesten dit: Galdatu diogu eta zureganat igorri gaitu.

Enbata idaztetik geldituz geroz, batzuetan gusta izan zait isilik egotea ikusiz zerrenda abertzale batzuek euskararen sustapenari ematen dioten leku hertxia. Bistan da ados direla eukarazko irakaskuntzan, irratietan eta abar egiten den guziarekin, baina xede guti, jendartean, egun guzietako urratsen bidez, euskararen indartzeko: familian, elkarrekin, lan munduan, kirolean, eta abar.

Haatik, ezinbertze guziengatik goazen beti aitzina, ‘euskara lehen’ Euskaltzaleen Biltzarrak dioen bezala, ‘gazteak nahiara eta zaharrak ahalara’, talde lanean urraska baina bakarrik dihardutenen iritziak arbuia gabe, ‘ezina ariz egina’, egiazko politika nazionala interes desberdinen kudeantza dela onartuz gero, helburu nagusia adosturik hautsi-mautsi bidez, hori gabe ez baitago egiazko botererat heltzerik, are gutiago herrialde bat

beregaintasunerat eramaterik, gero eta gehiago teknikaz brokaturik berehalakotasunaren menpeko dabilen jendartean (gure oroimenaren kaltetarako), prentsan ageri ez dena ez denean, gure iraganaren jabe bere alde on eta txarrekin, alderdien lana aitortuz baina batasun zabalago baten beharra oihukatuz, abertzaletasun elkarganatzaileak lekarkeen esperantza handia berriz indartzeko.

2015-03-19. H.D.



Hartzak izerdi

Enbata astekari politikoarentzat
egin “Sar-hitzak”

(“**Aupa batasuna**”-ren segida)
(2000 - 2009)

(3. edizioa)

2015

Kezkak nagusi

2000-08-31

BA OTE DA NEHOR, gaur egun, gure herriari aterabiderik ikusten dionik ? Baldin bada bat mintza bekigu ! Gu hasteko isilik egonen ginen gogotik ez bagenu orrialde erdi hau bete behar ukan. Beha dezagun Hegoaldeko saltsari. Horra beraz 1998-1999 urteetan euskal alderdiek hain ederki eraiki guzia pirka-pirka desegiten ari digutela. ETaren berriz tiroka lotzeak barraka guzia lurrerat darama : halako itxaropenak, hainbertze elkarlan euskaldunen artean !

Zertako erakunde armatuak berriz hasi duen bere sail arbuiaagarria ? Laburbilduz, su-etenaren ordain preso hurbilketarik ez delakotz izan batetik eta bertzetik EAJ eta EA ez direlakotz haren xedeetarat nahi lukeen bezain laster bihurtzen...

Lehen arrazoinamendua, nolabait, uler daiteke ; presoei egiten zaiena ezin jasana baita, espainol inperialistei jazartzekotan, haatik, soilik. Baina bigarren arrazoaia, odolaren bidez, herritarren iritzia bortxatu nahi izana, ez dezakegu neholara ere onar, ez egun, ez bihar.

Arnaldo Otegiren azalpen batzuk ere ez zaizkigu fin-finak. Joan den egunean ari zitzaigun Hegoafrikan Nelson Mandela preso zeukatenari egunero eskaintzen ziotela askatasuna borroka armatua uztearen truke. Miresten dugu Mandela guk ere, baina hura preso zen denborako Hegoafrikako egoera sozio-politikoa konpara ote dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gaur daukatenarekin ? Eta ez litzateke ahortzi behar beltzen bazterketa borrokatzeko Martin Luther King batek erdietsi dituenak, bertze bide batzuetarik...

Bertzalde dioskute EAJ eta Ibarretxeren proposamenek ez dutela Lapurdi eta Zuberoa kontutan hartzen. Noiz ulertuko dute bada, Hegoaldean, egiten ahal liguketen laguntzarik hoberena litzatekeela lehenik beren arteko arazo batzuk antolatzen hastea ? Noiz onartuko dute batzuek, nahikoa ez izanik ere, EAE instituzio garrantzitsuen jabe dela, eta guk, Iparraldean horien erdiaren erdia bagenu loriaturik ginatekeela ?

Gainerat, EAEn abertzaleak dira aitzindari (noiz arte ?) eta hauteskunde bidez ezkerrekoek giderrak har ditzakete eta jadanik hartuak ere zituzketen nahi ukan balute egiazki.

Bai, preseski eta arma bide horiekin gure egoera makurtzeko orde, zertako ez lukete bilatuko EAEn lehen alderdi abertzalea izaten, gero herria askatasunerat eramateko berek gustukoagoa luketen molde ? Ez ote litzateke hori bide argiagoa ? Jakina, beren aldetik, EAJ eta EAk jarrera guziz interesgarriak plazaratu dizkigutela euskaldunen batasunari buruz. Alabaina, nehork ez dezake deus konpreni gure egoeraz : zertarako borroka armatua gehiengo abertzalea eskumenean izaki eta ? Pazientzia izpi bat izanez gero: ez baita herria kurriarazten asto txar bat bezala...

Bertze su-eten batekin, anitzek uste dute gauzak berriz antola litezkeela bakarrak irentsi dituen herri honetan. Ordea, ETAk ez ote du erakutsi dena berak nahi duela erabaki : helburua, bidea eta urratsa ? Eta nork onets dezake holakorik ? Itxura guzien arabera aitzindari talde argitzailea nahi luke izan ; marxisten ikuspegi horri darraio oraino ere.

Bizkitartean ikusten dugu komunismo zientifikoa jendearen hertsatzeko tresna bat dela azkenean eta ez dezakeela iraun luzaz. Gainerat berriki Ekialde horretan egin duen itzulipurdiaren ondotik sistema liberalak eta kapitalistak hartzen ari dute arrebantxarik salbaiena munduan barna. Ikusazue laneko moldeetan gizonak nola darabiltzaten, haurretarik haste... Beraz, bertze elkartasunezko bide hobeagoen asmatzeko eta lantzeko ordua genuke, bete-betea... ■

Erabakitzeko orduan

2000-09-28

ORTZIRALE HONETAN Abertzaleen Batasunak, ohiz kanpoko biltzar baten karietarat, bere jarrera finkatu behar luke borroka armatuari buruz. Eskurat ukan ditugu batzuen eta bertzeen ikusmoldeak ; artoski irakurri ere. Landuak kausitu ditugu. Ageri du urte luzeetako hausnarketaren ondorio direla. Hain osoak eta errotuak iruditu zaizkigu non ez baitugu ikusten nola ikusmolde bakar baterat bihurtu litezkeen bi bideak.

Norat goazke beraz, zatiketa bati buruz, zuzen zuzena, hogeitaz gibelat ? Bizkitartean nork ez du ikusten gai horren inguruan ikusmolde garbi baten beharra ? Nahi bezainbat arrazoinaturik ere beti puntu bererat erortzen baita auzia gure garapenaz ari garenean : borroka armatuaren ingururatu.

Eztabaidaren iturria nahitarat deitu dugu “borroka armatua”, “bortizkeria” baino hitz egokiagoa baitzaigu. Norbaitek erranen du, beharbada, lehen hitzetan beretan xauxunkeria hasten garela, baina ez dut uste batere hala denik. Ez ote da bortizki jokatzeko, adibidez, McDo baten desmuntatzea, legez kanpoko ekintza bat ere baita gainerat ? Baina jokabide gogor hori ez da neholako erailketa baten mailakoa. Eta puntu hau guziz garrantzizkotzat daukagu.

Bertzalde, betiko solas berak, Yasser Arafat, Mandela, Jerry Adams. Baina zertako ahanztura de Gaulle, Boumedienne eta Mao, ez ote dira horiek ere herri askatzaileak izan ? Baina, seriozkiago aritzeko, zertako baztertzeko dira Frantzia, Katalunia edo Québec Iparraldeko kasuari hurbilago direnak, eta azken urte hauetan sekulako urratsak ematen dituztenak, isil-isila edo kasik ? Korsikako jokabideak ere lortzen du begirunerik Iparraldean. Zorigaitzez korsikarren “*omerta*” bere armazetasunarekin eta Euskal Herriko kultura guziz ezberdinak dira. Igandean Ajacciuko udal hauteskundeek ere ez digute bada argi handirik iragarri...

Lehenik hasi bagintez gu gauzen argitzen, denak nahasteko partez. Nehorik ez dezake uka, alabaina, hiru instituzio desberdinen pean dagoela Euskal Herria : EAE, Nafarroa eta Iparraldea eta horien artean sekulako aldeak badaudela, adibidez, EAEko Estatutuaren eta neholako instituziorik ez duen Iparraldearen artean. Banaketa horren arduradunak salatu behar ditugu baina hori ez da aski. Geure aldetik ikusi behar dugu zer egin dezakegun indarrak bildurik, hiruki horren zati bakoitzean gure abertzale xedeen lantzeko. Hori da gure gai bakarra, eta bertze deusik ez : atzematea bakoitzari doakion bidea. Horrek ez du neholako Udabiltza bezalako erakunde baten saila arbuiazen, oi ama ! gain-gainetik gomendatzen dugu eta, denen lokarri, batasun seinale, helburu erakusle !

Oroz gainera ikus dezagun ETA edo IK sortu zirenetik garaia aldatu direla. Eta ez bakarrik ingurumen politikoa. Bazterren inarrotea

beharrezkoa zatekeen abertzale mugimenduaren berpizterakoan. Halaxe egin dukete gure kasuan gertatu diren nazio ukatu askok.

Baina gero dator bertze denbora bat : Herriaren eraikitzeke garaia. Eta hor ez da gehiago lekurik borroka armatuarentzat : gure lurraldean zibilizazio guziz aitzinatuan baikaude, nahi duenak nahi duena erranik ere. Funtsean, borroka armatua utzia dute gorago aipatu hiru gudari aitzindari bilakatu haiek ere. Alta, ez dituzte beren helburu guziak eskuratuak...

Lehen ez bezala, badugu orain mila bide geure ideien zabaltzeko eta aitzinarazteko, gaur, borroka armatuak oztopatzen dituenak. Ekintza gogorak bai beharrezkoak izanen dira gure kasuan eta bertze anitz lekutan. Baina biziaren errespeturik gabe aintzinamendu oso huririk baizik ez dezakegu igurika. Herriari konfiantza egin behar zaiola daukagu.

Chirac-ek ere nahi ukan du bere burua edertu igandeko referenduma antolatuz, lehenago Jospin izorratu nahi ukan zuen bezala hauteskundeak briu-brau aitzinatuz. Horra hor beraz baieztatua jendeak, orokorki, ikusten dituela politika ekintza batek ukan ditzakeen gibelasmoak, hots, politika gizonen urratsak gardenak diren ala ez. Ez gara gu samurtuko horretaz.

Zer desiratu gaur ? Sinestedunek bederen, agian Mikael Arkanjeluak, irailaren 29 honetan, lagunduko gaituela ilunpeak, hodeiak eta lanbroak zilatzen, bentzutzen, eguzki izpi bat hel dakigun... ■

Batzuek egin bertzeek deseginez

2000-10-26

BERTZEAK BAINO gutiago ez izateko, dudarik gabe, hona beraz IK ere iratzarri zaigula ; dirudienez, erantsi behar haatik, idazten dugunean, ekintza norengandikakoa den ez baita oraino egiaztatua. Helburua : gure lurraren salketa geldiaraztea. Baina zertako Kanbon, Labéguerie-ren omenaldiak arrakasta gaitza bildu duen bezain laster : bertze batzuek eraikia desegiteko ?

Senpereko posta ere erretzerat entseatu dira baina hau ere ez da batere errana IKren lana denik, kazetetan agertu denaren arabera bederen, jokamoldea arras bertzelakoa izan omen baita. Egun hauetan bazterrak doi bat nahasirik daude han karrika nagusiaren birmoldaketa dela-eta. Baina harritzeko litzateke horretaraino berotu direla jakiten bagenu. Dena den, pentsatzeko da jendeak noren gain emanen dukeen gaiztakeria hori ere... Eta “*barbouze*” horien lana balitz ? Ageriko... edo ez ageriko, ez dela “etxeko probetxu” izanen irrisku handia da beti...

Baionako “kontra-gailur” kari gertatuez sekulako erauntsia jasan dugu media horiengandik, baina jendeak zer dioten ez da hain garbi ageri. Egiazko oihartzunik ez bide dugu ukanen heldu den bozak arte, isilik nahiago baitute egon gehienek. Beldurra sartzen hasia ote da hemen gaindi ere ? Beldurraren hedatzea baita, iraultzaile marxistentzat, lehenbiziko urratsa. Ordea, holako jokoek ez dakit deus onik eman dezaketenetz. Hemengo ondorioa dukegu, datozen hauteskundeetan bozak gure etsaiek bilduko dituztela...

Hegoaldekoek “janen” gaituztela baitzerasaten hemengo zenbaitek eta guk, kexu-kexua, ihardesten baikenien ezetz, ez zuela horrek itxurarik ere, oraindik nork atxik dezake ez zela dena gezurra ? Janen, ez segur, baina hango eraginak hunkitzen gaituela bai eta Baionako etsenplua biziki txarra izan dela ! Euskal mamuak bere itzuliñoa egin baitu Iparraldean eta erakustaldi bikaina eskaini ere. Egia da botereak “lagundu” duela, ardura hoberenaz inguratu baitu. Badakitela gutaz arta hartzen, gain horietan, nahi dutenean ! Gaixo gu !

Badea abertzalerik borroka armatua noiz edo noiz txalotu ez duenik ? Oroit : Carrero Blanco, Lemoiz, Donibaneko McDo... Baina orain nola geldiaraz beso armatu biziatuak ? Usteko genuen bazterrak harrotu ondoan eta gure bizitzeko nahikari mugaezina erakutsirik, jokabide argiagotarat itzultzeko onduak zirela gogoak. Gure ustea ustela gertatu da. Bizkitartean, berrogei urte baditu Iparraldeko abertzale mugimenduaren pizteak, hala zioen gure kide batek hemen berean berriki. Bertze hainbertze edo gehiago Hegoaldekoak. Ez ote da zuhertasunerat heltzeko adina ? Egia da ABk, gai honetaz, joan den irail hondarrean hartu jarrera eztabaidagarriak ez gaituela lagundu gauzen argitzen... Xuxen edo makur, jesuitak famatzen zituzten baia eta eza nahasteaz : ori, umeak egin dituzte fedegabeetan ere...

Jendetasunaren aldetik borroka armatuaren gaitzestea errexka da. Eragin-kortasunaren aldetik dute zenbaitek uste oraino ere zerbait ekar dezakeela eta guk nahi genuke jakin zer ekar dezakeen, egiazki gero... Alabaina herri hau martxan da. Ez doala aski zalu ? Badakigu egundainotik gazte sutsuak izan direla uste ukan dutenak berak etorri aitzin ez dutela aitzinekoek deus handirik egin.

Eta buru heldugabe horiek adimendu gehixago bildu artean errepikatu beharko dugu, ez talde batek, baina herriak duela soilik bere geroaren erabakitze-ko eskubidea. ■

Herria eta herritarrak gogoan

2000-11-23

ZER HARRABOTSAK eta zalapartak azken denbora hauetan ekologiaren inguruan ! “Behi eroa” lehenik, gero “Erika” ontziaren hondamena eta berrikiago bertze ontzi bat “Manche” departamenduari hurbil, urperatua, estirenoa dariola hau berriz ! Kezka sail berean ezar ditzakegu ere non-nahi eta noiznahi dauzkagun uholdeak joan den Eguberri inguruko haizete izigarria ere oraino denen gogoetan dagoelarik. Jakintsu handi askok diote garbiki aroa aldatzen ari dela eta, ingurumenari dagokionez, bertze bide batzuetarik abiatu behar litzatekeela lehenbailehen....

Ekologistek, bai eta “*Confédération Paysanne*”-koek, zeinetan baitaude ELBkoak, aspaldian iragarriak zituzten orain gertatzen ari zaizkigunak oro. Zertako bada, Frantzian, istripu lazgarri eta kalte izigarrien ondotik baizik ez dira agintariak kezkatzen ? Eta ‘kezkatzen hasten’ erran behar zeren-eta ez baitira denak itzuliak funski bide berrien bilatzeari buruz... Ez dugu ahantzia duela hogeitaz urte xahal edo aratxe hormonatuekin izan zen auzi handia, baina orokorki, Frantziako laborantza politikaren norabidea den gutienik ere aldarazi ez zuena...

Ekologiaren aldeko mugimendua azkartu beharko zen ontsalaz egoera gaizto honetan. Baina, alderdiburuak hor dabilta, zeingehiagoka beren arteko lehiaketetan hikatua... Mugimendu zabal gelditzeko partez nahiago ukan dute alderdi politiko soil bilakatu eta ezkerrari josi. Ordea, horien gaurko axalezko batasunak ezintasuna dakar, beharrik handienez...

Abertzaleen egoerak badu eiterik ekologistenarekin. Guk ere badakigu arrazoin dugula, bertzeak bertze, mundu hau globalizazioan joanago eta jendeak gehiago senditzen baitu hurbileko botere gerizatzaille eta sustatzaille baten beharra. Baina gure xede eta lanek, munduko hoberenak izanik ere, galtzen dute sinesgarritasuna oinarrian falta baitute biziaren errespetu osoa. Eraikuntza eta tiroketa nehondik ez doazke batean. Eta euskal borrokaren odol ziliportak helduko zaizkiguno, nola nahi duzue batasunik egin dezagun, hainbertze garelarik bide hori gaitzesten dugunak, pairamenik baizik ez digulakotz ekartzen aspaldi honetan ?

Abertzaleen desadostasuna jokabideetan dagoela dirudi, nahiz pertsona batzuen itzala sendi den iritzi desberdin horien azpian. Eta hola gabiltza, batean aitzinka eta bertzean gibelka, lehengo urrats txarretarat lerratzean, bidean deusik ikasi ez bagenu bezala... Pierre Mauroy ezkerrekoa Jose M^a Aznar eskuinekoaren laguntzen hasia dugularik, “Espainiari kalterik ez egiteko” (hau bada zerbait !) holako gizon ezberdinak elkartzen direlarik gure kontra, guk hola-hola segituko dugula, adiskideak egiteko orde etsaiak emendatuz ?

Eta guziengatik esperantzak dirau. Jendeak dastatua du batasunak zenbait hilabetez erakutsi dion bide itxaropentsua. Sinesten du bide

demokratikoen bidez, haiek ere gogorrak baina, geure helburuak lortzen ahal ditugula. Nornahik erraten baitu su-etena aise goizegi hautsia izan dela ; zer dira alabaina hamabortz hilabete herri baten bizian ? Gisa guziz nehondik ere ez aski aldakuntza sakon baten bideratzeko. ■

Maitasuna sustatzaile

2000-12-21

DUELA EZ ASPALDI eskolako lagun xahar batek, Gure Irratiarentzat, egin zidan galdera bat garrantzitsua : “Zer da hiretzat abertzale izatea ?” Galderak ez ninduen hein hori baino gehiago harritu ez eta osoki ustekabeen harrapatu ere, gai horiek ez ote ditugu egunero hausnartzen gisa bat edo bertze ? Eta gure adinean ez ote dugu aski ikusirik ideia baten ukaiteko ? Baina nola erran, iduritu zait horrelako galde sakona bezain bat-batekoak merezi zuela ihardespen osoxagoko bat eta haren entseatzerat dator gaurko gure hizñoa.

Irratiko lagunari ihardetsi nion beraz, laburbilduz eta durduzatu gabe, abertzale izatea zela enetzat, hitz gutitan bildu behar bazen, herriaren eta herritarren maitatzea, lagunduz bakoitza Euskal Herriari ohartzen lehenik, gero euskal kultura aberatsaz jabetzeko emeki emeki, euskaldun bezala bizitzeko azkenean. Haatik, ez da dudarik euskaldun bezala bizitzeko anitz eskas dugula Iparralde honetan segurik eta denetarik lehena lurralde finkatu bat “etxearen” eraikitzen hasteko gure hizkuntza harturik oinarri.

Herriari lehentasuna ematen badiogu ere, herritarrez axolatuz ez ditugu baztertzen gai sozialak. Funtsean lehenbiziko abertzaleek, eskuinekoek ere, beti ukan dute langilearen alderako sentiberatasuna bederen. Alde horretarik uste dut erran daitekeela abertzale izenaren azpian lehiatu diren gutiz gehienek, sozialaren kezka ukan dutela eta horrela bereizten dela abertzaletasuna bertze asko nazionalismotarik zeinek ez baitute beti erakutsi, ez atzo, ez egun, arrangura handirik langileriaz eta jende xehearen beharrez.

Baina gure elkarrizketaren kudeatzaileari hau ere erantsi nion : abertzalea dela ere bertze herrialdeak errespetatzen eta maitatzen dituen, prest egonez, eta ez bakarrik hala beharrean, gure elkartasunaren obratzeko eskuan ditugun ahalen arabera, ahal hauek biziki ttipiak badira ere egungo egunean...

Horrek erran nahi ote du munduan gaindi ikusten ditugun ohitura guziak ontzat ematen ditugula ? Ez eiki. Erran gabe doa ez ditugula onartzen, bertzeak bertze, talibanoen jarrerak emazteei buruz ez eta ere mutilazio batzuk, hoinbertze tokitan oraino praktikatzen direnak. Kasu horietan eta bertze askotan gure iritzia eman dezakegu eta ene ustez eman behar dugu baina ez dugu ohitura arbuiagarri horiei zuzenean jazartzeko eskubiderik, gogoak ditugu etengabe aitzinarazi behar eta gaurko komunikabide indartsuek lagun gaitzakete horretan. Mundializazioak, bertze guti baina, hori bederen baduke onik...

Berriz gure herrirat itzultzeko : nola maita, ordea, Euskal Herria eta euskaldunak ? Eta hor hasten zaizkigu zinak eta minak. Zein bide har ? Zer da zilegi eta zer ez ? Zein da eraginkorrena ? PP eta PSOEk gure kontra itun

sakratua sinatzen duten honetan euskal indarrak elkartzerat entseatzen dira. Horren lekuko joan den larunbateko manifestazio ederra Bilbon euskal hezkuntzaren alde. ETA da bakarra bere bide oies eta guziz irriskutsutik bereber doana, kantitu gabe, dena berek gidatu nahi dutenak bezala. Ez doa, nehondik ere, bide zabaletik, zeina baita bide demokratikoa.

Bada, bide honek lituzke bakarrik espainolisten gaurko nazioarteko arrakastari hegalak moztuko eta gero, bildurik, euskal indarrek lukete aitzina joaten ahalko, urraska, nehork ez bailituzke geldiaraziko, bururaino heldu arte.

Gure ustez, Euskal Herria ez da oraino arras prest autodeterminazioarako, zenbait urtexka eskas ditu. Ez da sanoki jokatzeari lurralde arazo desberdin asko daudelarik lehenik antolatzen hasi beharrak, zeinek handiagoak botaz, jendearen hola berotzea zuhurki ari direnen kontra.

Bereziki nehork ez du onartuko hemen marxisten diktadurarik : buruzagi sartu diren eremuetan gizonaren askatasuna bahitu baitute beti beren teoriek bertzerik badiote ere. ■

Maitatzea zein neke den

2001-01-18

JOAN DEN ASTEKO ZENBAKIAN Mikel Duvert adiskideak eman digu bere gogoeten berri, Euskal Herriko egoera politikoaz, artikulu samin batean. Ez da lehen aldia agertzen dizkigula deblauki bere iritziak. Eta gu loriatzen holakoetan barnago joaterat behartzen baikaitu eta debate sano batek onik baizik ez baitezake egin.

Lehen merezimendua, izpiritualitate baten beharra sentiaraztea : kezka hori ez baita maiz agertzen euskal politikagintzan... Bizkitartean arrangura hori premiazkotzat daukagu, politika bat eramatean on baita jakitea nondik hartzen duen hatsa, norat eta zeri buruz joan nahi duen. Egia da anitzek egungo egunean ez dutela aditu nahi ere gisa horretako gogoetarik : gizona eta emaztea, hotz-hotza, hartzen dituzte, ar eta eme, haien adimendu eta gorputzen beharrak aipatu eta tira ; gaineratzen dute, badela aski elkar ezin jasan eta miseria mundu honetan, filosofiatzen hasi gabe... Familiaren beraren osaketaz ere bada argi baino lanbro gehiago. Aski da ikustea zertan diren sortzeak hego Euskal Herrian...

Lehengo bide izpiritualen emaitza batzuk gaurko begiekin jukatzen dituzte eta harritzeko dena denbora berean sozialismo marxista aldarrikatuz doazela halere, berriki itzali zaigun mende horretan deus ikasi ez balute bezala... Hots, begiak hesten edo irekitzen dituzte beren alderdiaren probetxurako daukatenaren arabera. Ez uste ukan ahanzten ditugula marxismoak, zuzenean edo zeharka, erakarri dituen aitzinamendu batzuk eta sortu dituen itxaropenak.

Gaurko egoera ikusi-eta, bereziki langilea nola erabiltzen duten piltzarra bezala diruzale indartsu horiek, ez gara batere harritzen gertatzen denaz. Bertzetik berriz, ezagutzen ditugu bide izpiritualek ukan dituzten edo ukan ditzaketen jaidurak ; badakigu zein neke den maitatzea neurritz eta egiaz. Baina maitasunik gabe nola gaingitu gure arteko mugak herria eraikitzeke, ahuleziarik gabe barkatzeko elkarri eta etsaiari ? Eta behartsuen laguntzeko lehian kristau mezua gogo hazkurri paregabea dukegu.

Euskal Herriko gehiengoak, ateismotik baino gehiago badauka kristau gogotik, mila urte honetan bederen, muinetan landatua. Ikus larunbatean Gasteizen Hegoaldeko lau apezpikuek deitu manifestazioak bildu duen arrakasta. Baionakoak ere bere atxikimendua erakutsi nahi ukan die, bertze hainbertze Iparraldean antolatu artean ? Eta ez dira txarrak agertu dituzten ikusmoldeak, zenbaki honetan irakurgai direnak. Aspaldian igurikatzen genuen holako mugimendu bat, Elizak eta giristinoek anitz egin baitezakete elkarriketa eta adiskidantza sustatzeko, bertzeak bertze.

Abertzalde ikuspegiek badute maiz intelektualegiak izateko akatsa. Mikelenak ere baditu korapilo ttipi batzuk : “Zazpiak Bat hertxiogia gure kulturarentzat” batetik eta “Euskadi eraiki behar haatik bertzetik”: zoaz zu

horrelako teoriarekin datozen hauteskundeetan herritarrengat.... Nahiz hor militanteei ari zen, ez da dudarik jendeari hurbilagotik mintzatu behar zaiola, ohartaraziz badela euskaltasun bat bizi dena oraino Iparraldean ere, ahuldua baina bizi, eta hortik behar dela lotu. Proposamen sinpleek, ez dute, ordea, izpiritualitate baten beharra ukatzen nehondik ere.

“Otsoak borrokatzean kasu ez otso bilakatzetik !” San Frantses Asiskoak otsoa ematu baldin bazuen damurik hemen ez dela haren parekorik gertatu eta otsotu behar izan dela otsoari ihardukitzeko. Baina Francoren dekoratik gauzak aldatu egin dira eta aldatu azkarki eta ez gure alde ! Haren kontrako guduak onarpen zabala lortu zuen bazterretan. Guk dugu ez jakin bihurgunea hartzen, hura itzali-eta, erregimen berriak utzi bideetarik, izanik ere hertsia. Batzuk gutiegiz kontentatu ziren eta bertzeek sobera galdatau zuketan berehala.

Atzokoak atzoko, gaurko galdera da aberekeriak utziz gero zer bait egin genezakeenez herriari aterabide bat bilatzeko ? Gure ihardespena baiezkoa da, dudarik gabe. “Jo eta ke, irabazi arte”-k ez du gehiago zentzu handirik. Argi eta garbi daukagu etapa handi batzuk bai baina ez dela garaipen osorik eta behin betikorik izanen ; aitzina beharko dela borrokatu gure zuzenen osatzeko, herri mailan, sozial mailan, bai eta nazioartean ere.

Beti izanen baitira inperialistak, baliatzaileak, gisa bat edo bertze. Baina aitzinatzeotan bide handiz joan behar dugu, gaurko mendean ez baita bertzerik onartuko jendartean. Ikus GALen gelditzeak zer abantailak erakarri dizkion Espainiari. Biziaren errespetu ezak oztopo gaindiezinak sortzen ditu handik edo hemendik. Aldiz martxa demokratikoa, hura ez dute nehork nehoiz geldiarazten ahalko. ■

Euskal laborariak aitzindari

2001-02-15

HARRITZEKO DA zein errexki jukatzen dituzten gaurko intelektual batzuek gure arbaso zenbaiten jokabideak. Har ditzagun Sabino Aranaz entzuten diren iritziak. Galtzipurdi bat eskolan higitu bezain laster hasiko zaizkizu batzuk, baizik-eta abertzale mugimenduaren sortzailea arrazizta zela eta haren etnismoa bide arriskutsua. Gaineratuko dizute horiek berek edo bertze batzuek karlista zela, katoliko integrista eta azkenerat espainolista bilakatu zela. Gaude noraino lihoazkigukeen bide horretarik... Eta beha balezate Jules Ferry laikozele amorratuari, frantses kulturaren bidez munduaren argitzaile izan nahi zuen horrek zer zioen garai bertsuan ?

Baliteke Sabinok zuen baino buru argiagorik aurkitzea gure arbaso igarleetan baina zer esku ukan dute gure herri bilakaeran ? Ez ote da Sabinoren oldea izan abertzalegoaren landatzailea Euskal Herrian bertze batzuek geroztik sozialismoa hari xertaturik birlandatu nahi balukete ere ? Kuban burujabetasuna eskuratzen lagundurik amerikarrak zoriondu zituenean etnismoz eta arrazakeriaz ari ote zen gure bizkaitar sutsua ? Badakigu, bistan dena, zer den hizlari zenbaiten gogo : Sabinoren oraingo jarraitzaileen ttipitza... Baina ez uste ukan, irakurle, jeltzaileen defentsa dugula hemen bilatzen : berak aski handi dira horretarako eta bada gu baino adituagorik milaka.

Ez gaudeke ordea hau bederen oihukatu gabe, lehengo gizonak jukatu nahi baditugu, behar genukeela lehenik lehiatu, gure ahal oroz, ikasterat, asmatzerat, sentitzerat zer izan zitekeen aipatu nahi ditugun gizon horien denborako egoera ekonomikoa, soziala, politikoa, erlijiosoa Euskal Herrian. Zer ziren orduko pentsatzeko moldeak herrian eta herriz kanpo. Eta hori izigarri zaila zaigu deneri eta jende gazteari areago, ez baitezakete konpreni, hainbertzetaraino aldatu baitira gogoak eta bizitzeko moldeak denbora gutiz.

Hizlari horien arintasuna barkatzekotan ginateke ez balira bertsuak borroka armatuaren sustatzaile. Arbola fruituetarik ezagutzen bada, errankizun hori baliagarri dateke gure xede eta erakundeentzat. Gizon eta emazteentzat ere, funtsean, gogorra baldin bazaigu ere horren aitortzea... Sabinoren ondoko hurbiletan bederen ez dugu fruitu ustelik ikusten eta, adibidez, 1936an Agirrek moldatu gobernua eredugarria zaigu. Bertze batzuen urratsez haatik ez dakigu zer ele ukanen duten hemendik ehun urteren buruan... Nahi genuke hor izan entzuteko zer erranen duten sukaldari bat garbituz gure herria askatu nahi luketenez !

Ondorioz, abertzaleen arteko batasuna lurrean ezarria ; indarrak murrizten ari Hegoaldean neofaxisten fagoretan eta gure zabalkundea oztopatua Iparraldean ; Nafarroa ilunpeetarat berriz abiarazia euskara mailan bereziki. Ez genuen horren beharra baizik ! Euskal Herria hondamendirat

daramakigutela ez dugu halere erranen bertzalde egiten den lan onari esker, Elkarri-k adibidez, berriz indartuko dela nolabait sinesten baitugu, segurtamenik gabe haatik...

Eta argirik badatorkigukea nonbaitik ? Bai, badator eta aldi honetan Iparraldetik, jaun-andreak ! Eta nolako argia ! Hona ELBren garaipen historikoa, joan den astean irakurri eta entzun duguna ! Hona beraz hogeit urteko lanaren fruitu gustu onekoa, ahotik ezin utzia, begitik ezin baztertua ! Aspaldi eredugarritzat geneukan jokabideak bere fruitu nasaia eta zaporeduna mahain gainerat ekarri digu : Iparraldeko laborarien artean gehiengoa ! Hori bada zerbait. Behar den oharmenez ikusten ote dugu ?

Askotan entzun izan da aldakuntzei buruz laborariak zirela gogoz hurrienak eta horra hor non ditugun, denek, aitzinean ! Kartsuki eta zinismorik gabe bermaturik dastatzen dute gaurko emaitza eta guziei usnarazten ere. Gogor jokatzu baina indarkeria baztertuz eskuratua. Ez demagogiaz aho beteka baina biderik zailena, delako urrun ikusten duen bide hura errepikatuz obratua. Non dira gaur Euskal Departamenduaren arbuizatzaileak ? Non dira gaur indarkeriaren onesleak hitzez edo isilik egonez ? Eta aupa ! bertze lanbide sailetakoak ere ! Badugu hor guziei non zer segi...

Zorionak bihotzez Euskal Laborarien Batasunari. Gozo handi bat sentitzen dugu geure baitan hoinbertze urrats makur, espantu eta jaunkeria ditugularik bazterretan. Eta hik ere Mixel, bertze kidetasun batzuen artean, kazeta honetako idazlekidea, har itzak gure goresmenik bizienak. Merezimendu handien jabe ikusten haugu. Bazakiagu zenbaitek artzainik gabeko artaldeak nahiagoko lituzketela. Bertze batzuek berriz erraten ditek populu azkarrak ez duela buruzagi beharrik. Eleak dituk horiek. Laborariak bazakitek ontsaxko itzainaren lana beharrezkoa dela.

Agian garaipen horrek indarberriturik hola hola segituko duzue, urratsez urrats, bide irekitzaile, denen akulatzaile. Atxiki beti begia fruituari : hura baita bide onean garenez ikusteko frogarik hoberena eta jo aitzina, herritarren laguntzan xume baina gogor eta tinko nortasunik gabeko bihurtu nahi gintuzketen guzien aitzinean. ■

Apoarmatuaren urratsean

2001-03-15

JOAN DEN IGANDEAN bi hauteskunde mota iragan zaizkigu Iparralde honetan : herrietako hautetsi guziak eta departamenduko en erdiak berritzea. Gerlaz gero, lehen aldia zen batean gertatzen zirela. Behin-behineko bilan bat baizik ez dezakegu egin, zeren eta, Frantziako sisteman, bigarren itzuli bat baitugu datorren igandean ospatuko dena. Dezagun ikus beraz, gaingiroki bederen, zein izan diren lehen itzuli horren erakapen nagusiak.

Kantonaletan, emaitzarik hoberena Baigorrikoa %29,13. Miarritze Ekialdekoa ere ona : %14,18. Ontzat eman dezakegu ere Donibane Lohizuneko batzen baditugu AB %11,33 eta EAJ %7,06. Ontsa heltzen dira Uztaritzen ere (AB %13,26 + EAJ %3,38), Hendaian (AB %9,03 + EAJ %2,62) eta Ezpeletan (AB %10,61). Ez bada abertzale talde baten izenean jokatu ere agurtu nahi dugu hemendik gutarik arras hurbil daukagun Sauveur Bachoren balentria Donapaleun %32,21 !

Orokorki ez da haatik espantuarenik : interneten mendean gu beti apoarmatuaren urratsean baikabiltza, han-hemenkako emaitza onak lehenago ere ikusi izan baitira. Aholku bat eman behar bagenu nonbait Uztariztar adiskideei buruz itzul gintezke : ea bada antolamendu bat atzematen duten gure urrats guzien oztopatzaile den Colo baztertzeko bigarren itzuli horretan ?

Herriko bozen inguruan are zailagoa da bilan baten egitea : hainbertze kasu mota aurki baititzakegu. Goazen beraz hemen ere larri-larria. Arras ontzat ematen dugu Baionako ABren emaitza %9,68 ; badirudi egin lanaren fruituak altxatzen dituztela hor, sozialisten porrota lagun. Funtsean emaitza onak, kantonaletan ala herriko bozetan, gutiz gehienak dira, lekuan lekuko arazoei, aberria ahanzi gabe, hortzez eta haginez lotu ondoan, herriek erakutsi ezagutzak. Hor kokatzen da ere Hiriburun A.Iriart kazeta honetako idazlekidearen taldeak lortu duen emaitza itxaropentsua : %43,98..

Senpereko kasua ere hor da, interesgarria gerta daitekeena. Batetik abertzale taldeak %14,67 egin ditu, bi puntu irabaziz 1989tik honat eta bertzetik Kristina Bessonart anderearen garaipen nasaiak berrikuntza zerbait ekar dezake. Duela sei urte galdu zuen partida eta batzuek zioten emazteak izateak galarazi ziola ! Hala baldin bada ikus dezakegu hor sei urtez gauzak nola aldatzen ahal diren, Frantziako Estatuan gertatu dena lagun : lege berri batek eskatzen baitigu aurtendanik herri gotorretan, eta Senpere horietarik da, zerrendak azaltzekotan gizon bezainbat emazte aurkeztea. Bertzalde, arerio nagusiko zerrendaburua (Fourgeau medikua) osoki ez ezaguna izateak ere anitz lagundu duke gehiengo hori eskuratzen lehen alditik beretik.

Herrien itzuli labur hau bururatzeko, so bat eman dezagun Hazparneri. Datorren igandean trenkatuko da auzia, gehiengorik ez baitu nehork lortu

hor lehen itzulian. Agian Coumet gure aspaldiko arerioari, kanporat ez badute botatzen ere, emanen diote inarrosaldiño bat bederen, ez bailuke ebatsia ! bertzekoan Lamarkareneko eremuetarat ihizirat igorri artean....

Artetik errateko, bigarren itzuli hori Frantziako legea da, osoki ohituretan sartua hauteskunde guzietan, (*régionales* delakoetan salbu) : lehen aldian atea deneri irekitzen da eta bigarren aldian, arras aitzinean jalgi diren taldeek edo koalizio berriek dute eramaten partida. Itxuraz, sistema horrek alderdi ttipiei ahal zerbait eman diezaieke, baina oro har talde ttipi horien iritziak, maiz interesgarriak, ez dira funski kontutan hartuak izaten eta, bigarren itzulia iragan bezain laster, ahantziak bezala gelditzen dira, hauteskundeei seriosasuna kenduz.

Bakoitzak bere iritzi baina askoz ere garbiago litzatekeela daukagu itzuli bateko bozaldia. Koalizioak muntatu behar badira egin daitezela aitzinetik denen jakinean eta ez, hertzpresaka, bi egunez, astelehena eta astearta barne, nehongo tratu mota guziei bidea eskainiz askotan ; astearte arratseko alabaina hautagai guziek, herri handietan eta kantonala guzietan, beren izenak agertu behar baitituzte. ■

Zorion eta goibeldura

2001-04-12

JOAN DEN IGANDEAN ezin ederkiago iragan zaigu beraz Korrikaren heltzea Baionan. Aurtengoa, hamabigarren lasterraldia zen eta bururatu da hamahirugarrena aipatuz ! Arrakasta gaitza ukan du Baionako helmugak, eguraldiaren aldetik ez bada ere hainbat gastatua izan, nahiz badugun holako baten usaia Euskal Herrian eta bertze erauntsiarik behar litzatekeen Korrika bezalako olde baten durduzatzeko...

Biziki gustatu zaizkigu denak : hitzaldi, bertsolari, kantari, musikari, dantzari, antzerkilari eta bertze. Iparraldeko jendearen parte-hartzea nabaria izan da, milaka etorri baitira. Antolakuntza on bati esker, Baiona-ttipia ere guziz egokia agertu da holako festa baten gune izateko. Bagenuen zerbaiten beharra joan den urrian, Kontragailurkari, egin izan zen manifestazio txar haren ondotik abertzaleen omena doi bat hobetzeko... Uste dugu AEKk gure zorionak behin eta berriz hartze dituela daraman sail guziz beharrezkoarentzat. Ea bada noiz ezagupen ofizial bat lortzen duen diruztapen hobe batekin... Agian, gaurko arrakasta hau lagungarri izanen zaio zerbaiten eskuratzeko.

Aitzineko igandean, apirilak bat, poesia euskaldunaren eguna ere ospatua genuen Hatsa elkartearen eskutik Senpereko Oxtikenean. Ez ditugu bi ekintzak parekatuko, Korrikak euskararen ikaskuntza sustatu nahi du ; olerkarien gozatzeko aldiz euskara mailan ezagutza gotor bat behar da eta zaletasun izpi bat ere. Duela bi urte, lehen poesia egunak, berrogei olerki lan bildu zituen. Iazkoak berrogeita hamahiru eta aurtengoak hiruretan hogeita hiru ! Lan guziak liburutan ezarriak baitira Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin, ikusten dugu hor zer altxorra metatzen ari den Auxtin Zamora berak asmatu eta kudeatzen duen sail ederrarekin...

Iparraldeko olerkari hoberenak biltzea ez da jadanik balentria txarra, Iratzeder-etik Itxaro Borda-raino zabaltzen denaz gero olerki bilduma. Alta bada Hegoaldetik datozenak ez dira ahulagoak : JosAnton Artze eta Juan Mari Irigoien, bertzeak bertze, urtero hor aurkitzen baititugu, lanak igorritz bai eta ere berek parte hartuz ! Zer giroa bazkalondoan idazle bakoitzak bere lan bat irakurtzen duelarik : idazkia gauza bat da baina egilearen jatorrizko abotsarekin emana delarik bertze zerbait gehiago ere bada.

Horra beraz beti karraskan lanean ari euskaldunak, bertze ospakizun batzuk ere gainean ditugula : Sarako Idazleen Biltzarra, Nafarroaren Eguna, Herri Urrats, aiantzi gabe heldu den igandeko Aberri Eguna Maulen. Hori guzia Hegoaldetik datorkigun zeru goibelpean : holakorik ikusi behar genuela ere... Duela hiruretan hogeit bat urte Euskal Herria menperatu eta Gernika txirtzikatu zutenen umeak jaurlaritzako atarian ditugu, abertzaleen zatiketarik... Hauteskunderz hauteskunde, urteak ditu beheiti ari garela eta espainol eskuindarrak goiti, hortxe baitira gaur boterearen hartzeko prest !

Lizarra-Garaziko itunak gure herriaren geroa soilik jokabide demokratikoen bidez eraiki nahi zuen eta puntu hori guziz garrantzizkoa izan zen sinatzaileentzat. ETAk errana zuen alderdi politikoen gain uzten zuela politika ; baina berriz bere sail ezin onartuzkoari lotu da, aitzakiak lerrokaturik arrazoin gisa. Nornahik suma baitezake batetik bere biziraupenaren arazoa dagokeela tartean eta bertzetik ez duela konfiantzarik herritarren baitan : gure beharrak gaurkoak, biharkoak eta etzikoak guk baino hobeki ezagutzen baititu, alabaina.

Bizkitartean armak behin betikotz uztea da giltza, gakoa. Ez du horrek dena batean antolatuko ez eta hurbiltzekorik ere ; baina armekin tantoak galtzen segituko dugu eta ez dugu ikusten tantoak galduz partida bat nola irabaz daitekeen. ■

Giro nahasia eta dorpea

2001-05-10

DENAK ADOS GARA puntu batean naski : heldu den igandean Euskal Autonomia Erkidegoan iraganen diren hauteskundeak guziz garrantzizkoak izanen direla Euskal Herriaren geroarentzat. Espainiako eskuina eta ezkerra hor ditugu gainean euskaldunak lehertu nahiz ari, su eta ke !

Hauteskunde hauek badute berezitasun bat kasik ezin sinetsia : hauen ondorioz Francoren umeak, Estatutuaren beraren arerioak, hel daitezkeela botererat Gasteizen ! Hau ez da bidegurutzea, infernuko atea da ! Ezin sinetsiagoa dena : ETAk, Zaragozako azken atentatua lekuko, bere jokabideari deusola, jokabide horrek, urtetik urterat, soilik etsaiaren indartzea dakarrela erakusten duelarik alta, argi eta garbi ! Eiki, Otegik errana du Lehendakariaren hautaketan parte hartuko duela baldintza batzuk betez gero. Baina zer balio du agintza horrek gobernatzeko egitarauik gabe ? Ez ote litzateke ezintasunerat eraman gaituen gaurko egoera ber-bererat erortzea ?

Gure iritziz Estatutua utzi ziguten ETari hegala mozteko gibelasmoarekin eta hein batean erran dezakegu Madrilek bere helburua lortu duela. Baina ETAk ez du hori nehoiz ulertu nahi ukan jokabidez aldatzeko. Erakunde armatuari josia dabilen ezkerreko bati entzun diogu berriki erraten Euskal Herria ez dela nehoiz osorik izan... Nolaz bada aska dezakete nehoiz osotasunik ezagutu ez duen eremua ?

Hala da : Lapurdiko mugak non dauden ere ez lekike Iparraldeko gehiengoak ! Autodeterminazioa baino lehen herri hau euskaltasunerako bideetarat erakari behar dugu, urraska, hats luzeko lan baten bidez, abertzalegoan aitzinatuenak diren lurraldeek laguntzen dituztela bertzeak. Autodeterminazio legoke guretzat, azken etapa, oinarriak segurtaturik eta paretak altxatu ondoan, teilatua etxeari ematen zaionean bezalatsu.

Igandeko hauteskundeei begira zein litzateke bada gure nahia gaurko zundaketei behako bat emanez gero ? Ez gara ariko hemen PP eta PSE ahalik eta beherena gelditzea dela gure desira eta euskal indarrak ahalik eta gorena ateratzea : hori erran gabe baitoa.

Azken hogeitau urte hauetan lehen aldikotz diogu, EAJ eta EAK gehiengoak berek lortzea litzatekeela gure gaurko nahikaria, horien xede batzuk, ekonomia mailan, sobera merkatuaren menpe utziak direla badaukagu ere. Alabaina EH eta HBk borroka armatu itxuragabeko hori gaitzetsiko ez duteno ez da haiekin akordiorik egiten ahalko. Eiki, badakigu euskal indarren parte handi bat, sekulako lana daraman partea gehiago dena, kanpoan uztea zenbat damugarri den, hainbertzetaraino, langile guzien beharra dugun herri honetan. Gure nahikaria ez doa beraz gure usaiako batasun ametsetik, ezinbertzekotik baizik.

Iparraldean Abertzaleen Batasunak emaitza onak lortu ditu azken herrietako eta departamenduko hauteskundeetan. Baina emaitza horietan finkatzeko orde urrats berri batzuen paratzeko, badirudi gure arteko lehiaketa batean sartzen ari garela. Udaberriko izerdi goititzeak sustatu balitu bezala, hor ditugu enbor beretik hiru adar jalgi nahiz ari ! Laburki errateko : “Batasuna” Hegoaldekoek bultzatua, “Matalas” Iparraldeko nortasunaren lekukoa eta “Burujabe”. Hiru ‘adar’ horiek ez dira, egia erran, atzo muskilduak : AB sortu baino lehenagotik ere ezagutzen baikenituen...

Nahiz tontoak garen eta irudimen urrikoak ez dugu ikusten hiru eskaintza horien artean, beti garrantzia duten pertsona zenbaiten itzalaz kanpo, ñabardura batzuk baizik, ñabardura osoki errespetagarriak baina horiengatik zatiketa bat jasan behar bagenu damugarri litzaiguke egiazki.

Beti gauza bera errepikatzeko : elkartzen gaituena anitzez garrantzitsuagoa deritzogu bereiz gintzakeena baino. Gainerat, bada bertze zatiketabide bat AB guzia zeharkatzen duena aldean bertze baina oraino deblauki agertzen ez dena : borroka armatua onesten dutenen eta hura kaltegarri daukatenen arteko eztabaida. Gai horretan, AB beti hinki-hanka ibili da eta halere emaitza batzuk eskuratu ditu. Errexki asma dezakegu bide argiagoak hartzen balitu, batasuna begiratzuz, zer nolako uzta nasaia biltzen ahal genituzkeen... ■

Txapela Txapeleneri

2001-01-07

NAPOLEON IZENEKO printsesa batekin estrenatu da Larrun gainean “Enperatrizaren Bidea” joan den ekainaren lehenean. “Gasnaren Bidea” eta bertze holako batzuen ildotik dator hau ere. Gogoetak sortarazi dizkigu ordea, bereziki obra horren plazaratzeko moldeak.

Historia apur bat baizik ikasi ez dugunek ere badakigu Napoleon III.a eta haren emaztea Eugenia, Euskal Herriaz eta bereziki kostaldeaz maitemindurik ibili zirela. Eugeniak zuen ezagutzen gure itsas hegia, gazte-gaztedanik heldu baitzen oporretarat, Miarritze orduan 2.500 jenderekin, arrantzale herri kozkor bat zelarik. Eugeniak zuen bildu gero bere senarra, 1853tik beretik eta, badirudi urte gehienez edo guziez beren itzulia egin zutela honat.

Beren biltoki nagusia “*Villa Eugénie*” ospetsua izan zuten, enperadoreak eraikia bere emaztearentzat. Denbora berean sekulako aristokrazia eta burjesia berekin erakarri zuten honat : nehongo printze eta erregeak ostean, baitzetozen ! Miarritze bilakatu zen, denbora gutiz, hiri arrotz bat bezala, euskaldun batzuek haien erdian, gero eta itoago, ahal bezala irauten zutela. Eta erran dezakegu turismoari izigarriko bultzada eman izan zela bide berez. Agintari puxant horiek, Sara bereziki maitatu zutela ez da dudarik, baina ere Azkaine, Ainhua, Senpere, Kanbo eta Donibane Lohizuneko aberastasunak bisitatu zituzten, eta diru-laguntza andana bat ere banatu han-hemenka.

“Jakintza” aldizkarian irakurtzen dugu Eugeniak, senarra Miarritzen utzirik, Larrun gainerat egin zuela lehen itzulia 1859ko irailaren 30ean. Mando bizkarrez igan ziren, kakoletan, ez baitziren holako jarleku idorretan usatuak frantses agintarisa eta haren inguruko segitzaile fauna delikatuak ! Sekulakoak pairatu zituzten, iluna hatzeman jaitsi baino lehen eta goizeko biak bederen bildu, Miarritzerat itzuli aitzin ! Itxura guzien arabera enperatriza ez zen lotsakorra eta ingurukoak xarmaturik utzi zituen. Igaite horren oroitzapenez, bada geroztik oroitarri bat eraikia Larrun kaskoan.

Hemendik goiti ikusten ahalko da ere beraz erakusketa bat, “Enperatrizaren Bideak” abiapuntutzat hartu duen gailur mitiko horretan. Baina xehetasun batek harritu gaitu bertan : ‘bide’ horrek ez duela aipatzen Senpererik, badenetz ere, alta bada enperatrizak 192 hektarea bazituelarik erosiak hor 1868an, eraikuntzak parte burutuak eta denak ! Hots, Miarritzez kanpo enperadoreak Euskal Herrian ukan duen proiekturik handiena, Senperen beharra zen, xede horiek ez badira burutu ere, 1870ean Sedan-ekoaren ondotik, dena bertan behera erori zelakotz. Eta naski, beharrik ! erran behar : nork daki zer bilakatuko zen Senpere xede hori bururaino joan balitz ? Miarritzeko jauneriaren ihizileku ?

Baina Enperatrizaren Bide horretan zertako ez dute aipatu Senpere eta zertako baztertu dituzte hango batzuek egin lan eta eskakizunak ? Egia erran ez dugu ihardespen garbirik ukan, baina susmo batek hauxe diosku. Dezagun ikus, labur bilduz : 192 hektareako eremu hori parte herriarena zen eta bertze parte 58 partikularrena. Baina 192 hektarea horien erdian senpertar batek ez zuen saldu nahi ukan bere lur pezattoa (82-00) enperadoreari eta, ohargarri dena, enperadoreak errespetatu zuen “Txapeleneko” nagusiaren nahikundea !

Artetik errateko, ehun urte geroago, 1963an, lakuko lurrak (132 hektarea : 32 herriarenak eta 80 partikularrenak) saldu zituelarik jende arrotzari, Cami auzapez zena, aise makurrago ibili zen !

Dena den, gertakari hori ongixko ezagutzen dugu denek inguru hauetan eta behar ukan dute kopeta Enperatrizaren Bidekoek, Senpere baztertuz, historia zangopilatzeko, denen jakinean ! Badakigu handikien lausengatzaile horiek hastio dituztela gehiengoaren iritzi errexerat bihurtzen ez diren guziak.

Guk, alderantziz : ‘txapela’ ezartzen diogu Txapeleneko nagusi ohiari, historia jakinean, euskaldun batek egin ihardukitze kuraiatsuenetarik bat izan dela baitaukagu. ■

Zer mundu bitxia !

2001-07-05

BADAKIGU EZ DELA NEHOR harrituko titulu horrekin ; alabaina usatuak gara bitxikerien ikusten eta entzuten. Lehenago, inguruko bitxikeriak ziren bakarrik ikasten; orain mundu guzikoak badatozkigu sukalderraino, ganberaraino ez denean ! Media askok lehentasuna bitxikeriei ematen diete, telebistak bereziki, eta honek sekulako tokia hartua du gure bizian, internet eta bertze, gero eta gehiago pantailari so baitago oraingo jendea... Baina gure gaurko xedea ez da bitxikeria bitxienez aritzea, kaltegarritzat dauzkagun haien hautemaitea baizik.

Beha dezagun Frantziako ekonomiari. Duela zenbait hilabete, denak burtzoratutak bezala zebiltzan ekonomia gaitzeko osasunean genuela-eta ! Garapena % 3tan izanik amets guziak berriz haizu ziren, langabezia bera beheiti ari, hura baita ondorio aipagarriena. Eta hona non, kasik bat-batean, garapen hori %2,6tarat jaisten den, bazter guziak hotzikaretan ezartzen dituela eta langabezia berriz goiti abiarazten ! Aski izan da beraz garapen ekonomikoa % 0,4rez beheititzea amets gozoa amets gaizto bilakarazteko ! Hori ez bada bitxikeria...

Burtsak ere sekulako garrantzia hartua du gaurko gizartean. Ohar gaitezen ordea, nolako jauzietan dabilen munduko izkin batean gorabehera zerbait gertatu orduko, informazioaren zalutasunak berak informazioa larritzen duela, baikaude noiz itzulipurdi alimaleko bat egingen duen eta guk harekin ! Ez da ezin gertatua : burtsaren kudeatzaileek gertakariak ahalaz aitzinduz, irriskuak hartuz ari baitira... Eta nola ez baitira sorginak, beren trebezia guziarekin ere, ikusten dugu errekarat eraman gaitzaketela berdin, zio gutirekin, zioa edo kausa tresnerien zalutasunak emendaturik artifizialki... Hori ez bada bitxikeria beldurgarria !

Beha dezagun publizitateari, hura gabe ez baita deusik egiten ahal gehiago. Emaztearen gorputza erabiltzen dute alde guzietarat plegaturik, ideia gordinenak piztea bilatuz ikuslearen baitan ; ideia faltsuak aipatu gabe : bakarren kalte psikologikoen eragile direnak... Beti eta beti urrunago, haizu ez denaren muga-mugetaraino joz, arrunkeria eta bortizkeria areagotuz eta banalizatuz daramatzate. Baina jokabide zirtzil horrek salarazten du salgaia bertze argibide serio batek egin lezakeen baino hobeki. Bitxia, zinez. Emazteen zuzenen alde segitzen dute beti feministek baina ez dute lehengo arrakastarik, gizarteak --emazteak barne-- ez baitu grina handirik erakusten emakumearen irudia hein horretaraino baliatua ikustean ! Iduri luke hor errespetua eta duintasuna baino beharrago ditugula gorputzaren askatasun liluragarria eta gizonek bezala egitea. Zer bitxikeria...

Bitxikeria kontuetan ez gara abertzaleak bertzeak baino gutiago. Batasuna-ren sortzeak, iparraldeko Abertzaleen Batasuna, jadanik ahal bezala xutik zegoena, inarrostean du eta ez guti ! Batasuna-n sartu diren

batzuek diote segi daitekeela bietan barne izaten, orain arte ere zenbait ba omen zeuden-eta, adibidez, EAn edo EAJn eta ABn. Bitxi dena Iparraldeko nortasunari gain-gainetik atxikiak garenek, gauza ber-bera diogula : izan gaitezkeela errotik Zazpiak Baten alde eta denbora berean Iparraldeko beregaintasunaren alde, etapak errespetatu behar direlaketz. Eskubide guzien begiratzailleek hori ez ulertzea, ez da bitxikeriarik ttikiena... Eta hori guzia gertatzen da ABk emaitza ederrak eskuratu dituen biharamunean berean. Ala gatu horrek badu bertze buztanik, ikusiz zein ikuspidetakoek eskuratu dituzten delako emaitza on horietarik gehienak ?

Hona beraz ABkoak bi alderdi politikotan bizitzerat gomituak. Bietan aurkitzen omen dira kazetari ez gogokoak garbitzea onartzen dutenak eta kazetaritzaren askatasuna sakratutzat daukatenak. Eta bi iritzi horien artean zenbaitek ez dute ñabardura ttiki bat baizik ikusten. Zein bitxia hori ere ! ■

Genoatik Sohütarat

2001-08-02

HAMABORTZ EGUNEZ gu isilik egon gara baina gertakariak ez ziren oporretan ! Zerbaitetarik hasteko, zer inarrosaldia Genoako hirian ! Uztailaren 19tik 22rat, G-8koen gailurra genuen, baina munduko indartsuenen goi bilkura hori ez da buruzagiek nahiko zuketen bezain lasaiki iragan...

Milaka eta milaka lagunak, mundu guzitik etorririk haiek ere, behin eta berriz eta sekulan baino ozenkiago, gaitzetsi dute, jendea merkatuko puska tzar bat bezala erabiltzen duen mundializazio hori. Genoakoa baino lehenago, gisa horretako jazarraldiak ikusiak genituen jadanik Seattlen 1999an, Porto Alegren iaz eta aurten Göteborgen.

Lehenago ere aipatu ditugu mundializazio horrek ekartzen dituen makurrak, bai herrialde aberatsenetan eta are gehiago eskualde pobregoetan. Eta gaur atsegin dugu ikustea jazarpena hedatzen eta indartzen ari dela, gogoetatze baliosenak piztuz jendartean ; berriki orain horiek guziak ezker muturreko zenbaiten nahaskeria batzuk baizik ez zirela zioten batzuek ! Chirac ere konbertitua ? Bai zera ! Badu holako bat erranik lehenago ere, segida mikorik ukan ez dutenak ahuntzaren gauerdiko eztulak baino gehiago...

Prentsa hura dugu gogoan, idatzizkoa ala eleduna ; gehienek xehetasun frango eman dutela daukagu, gisa guziz usaian baino gehiago eta hobeki. Iritzigile handi horien ikuspegi aldaketak ukanen duela ondoriorik uste dugu. Orain, haatik, on litzateke manifestazio mailan ez gelditzea, hori baldin bazen ere lehenbiziko urratsa, luzaz eta luzaz errepikatu beharko ere dena dudarik gabe. Proposamen zehatzak eta egintza arabera bideratzen entseatu beharko da, garapen orekatuagoko baten alde.

Ekialdeko komunismoa erori zen zangoz gora eta hainbat hobe. Sistema gogorra zen eta gizonaren libertate gosearen aurka zihoan. Beti erran dugu zapalduen artean esperantza pizle izan dela komunismoa eta hori nehork gutik uka dezake. Baina, daukagu ere denbora berean, gaurko liberalismo oies hau, nolabait akulatu egin duela komunismoari nagusitu beharrez lehiatu baita. Funtsean Europako batasuna ere gehien-gehienik eraiki zen komunistei ihardukitzeko, frantsesen eta alemanen baketzea baldin bazen ere lehen arrazoia. Gure uste xumez, sovietarrak indarrean zeudelarik hartu zuen kapitalismoak bere oldar izigarria, eta gaur gorenean dabil, lehertuen gainean airez aire, batzuk diruz hanpaturik eta gehiengoa haien eskumakila bihurturik...

Eta guk zer egin dezakegun holako indarren eta diruketen kontra ? Hasteko eta bat, Italiako poliziaren basakeria eta krimenak ez dute hautsiko han bildu jendeketak sortu edo berri duen itzaropena. Neholako lotsarik

gabe segitu behar dugu aitzina ; egintza xeheek ere berea emanen dute bertzerenekin uztartzean.

Alde hauetan, Euskal Herriko Laborarien Batasunak ederki erakusten digu bidea. Joan den mendean aldakuntza ikaragarriak ikusi ditugu ; ohar gaitezen, aldakuntza horiek denek beren hastapena ukan dutela gizon eta emazte bakar batzuen militantzian, eta horietarik zenbaiten eragina, denbora batez, mugatua zirudiela...

Gure opor denbora horretan ere, uztailaren 15ean arratsaldean eta 21ean arratsez, ospatu da “Xiberoko Makia”, sohütarrek hain ederki eman diguten pastorala. Jean Louis Davant euskaltzainak idatzia ezin ederkiago, anitz xehetasun historiko erantsiz liburutan, hain jakingarri kausitu ditugunak.

Arrakasta gaitza ukan du, aurten bi pastorala izateak sor zezakeen ahultzerik ez baita sentitu. Memento hunkigarri haiek erakutsi digute gerla ez dela josteta ! (Gure ondoko gizona negarrez ari izan da !) Asmakizun batzuk badauzka pastoralak, antzerki guziek bezalaxe ; baina argi eta garbi geldituko da gaurdanik gure baitan : Iparraldeko euskaldunek ere, zuberotarrei esker, parte hartu dutela zuzenki Liberazioa deitu guduan, Hegoaldeko anaiek, Pointe du Grave-n, beren partea egin zuten gisarat. ■

Abertzaleen batasuna lehenik

2001-08-30

BALITEKE KORSIKA IZATEA Estatu frantseseko eztabaidagai nagusietarik bat datozen aste eta hilabeteetan. Hauteskunde garrantzitsuak hurbiltzen ari baitzaizkigu (presidentzialak lehenik, legebiltzarrarenak ondotik) eta politikariak beren armen xorroxten hasiak baitira aspaldian. Egia erran biziki nardatzen ditu afera horrek. Matignoneko elkarriketek segitu behar dutela ez da dudarik : ez baita bertze biderik. Faltsua edo jakobino itsua behar da izan horren kontra joateko.

Dirudienez frantsesen gogoak prest lirateke autonomia zerbaiten uzteko uharteari baina kezkatuik dabilta, eta gu ere haiekin, hein batean bederen, beren artean nola antolatuko diren, ikusiz gaurko anaiarteko tirokadak. Santoni eta haren lagunen erahiltzea deitoragarria da, erahilak izan direnen jokabideak ez bazaizkigu gustatzen ere. Alabaina, ez dira horiek jende moldeak : etsaia etsai bertze entsegu guziak alferrikakoak izan direlarik ; baina abertzale-anaia ez da nehoiz etsaia, bertze bide batzuk hobesten dituenean ere.

Hegoaldean Ertzaintzak atxilotu ditu ETako batzuk ; ez da hori ere berri ontzat eman genezakeena. Ez ditugu parekatuko, haatik, hango erahilketak eta hemengo atxiloketa batzuk... Argi baita ETak eta bere inguruan dabilzan gazte buruberoek beren ahal guziak egiten dituztela Euskal Gobernu ateketan ezartzeko, beren jokabidea bakarra dela frogatu nahiz ; eta gogoetagarriagoa dena oraino, hori guzia daramatela euskaldunek hauteskunde bidez eman berri duten iritziz hain garbiaz axola mikorik gabe !

Halere, garbi izan bedi hau, ez ditugula guk hemen armen hartze mota guziak gaitzesten orokorki, bereziki bertze bide guziak antzu gelditu ondoan baldin badatoz. Zer izanen ote zen Korsikaren aurpegi miresgarria horko abertzaleak ez balira oldartu su eta ke ?

Solasa Mediterraneoraino lerratu zaigunean, ez genuke ahanzi behar Sardinia, hau baita Korsikaren anaia biritxia geografiaz eta naski pentsamoldez ere. Italiak utzia dio autonomia interesgarri bat eta hari esker karraskan garatzen ari da ; ohargarria da horko gazteria, zoko guzietarik jalgitzen zaizunean. Aldiz Korsikako herrixkak (hain politak, baina) zaharrez beteak agertzen zaizkizu.

Dena den, Korsikan ez dakit, baina Euskadin prest ote gara autodeterminaziorako ? Ez zaigu iduritzen, euskaldunen arteko harremanak iraunkorki hobetuko ez direno bederen. Autodeterminazioak giro baketsua beharrezko duela daukagu, biharamun lazgarri, gerla eta miseria sobera ikusten baita nolanahika beregain sartu diren hoinbertze herrialdetan.

Eta ez otoi erran holako deusen hirriskurik ez dugula hemen. Beha jokalekuaren bi aldeetan dauden zenbait herratsu-tematsuri ! Eta horien

gainerat erlijioaren etsai amorratu jarriak diren haiek... Gure borroka armatuak Korsikakoak baino ‘garbiagoa’ dirudi ; ez baita hemen mafiarik aipu ararteko. Baina berdin makur dabilkigu herritarrak sudurretik erabili nahi dituelarik, garbitzen ez dituenean, marxisten bideari jarraitzeko.

Gure ustez, eta hainbat aldiz errepikatua dugu hemendik beretik, gaurko jendea kapable da hautu onen egiteko. Eskuan ditugun ahalmenak ez dira nahikoak. Ez gara ordea ezintasun oso-oso hartan ere, bereziki Hegoaldean. Mundializazioak, lilura batez kanpo, ez du on handirik (“Zeren ilüsiune bat bera da” erran liezaguke Zuberoako pastoraltzale batek) eta horri oharturik bada jende bat prest dagoena langilea hobeki gerizatuko duen nazio bat bideratzen entseatzeko.

Horretarako, guri da, gostarik gusta, erakargarri izatea eta frogatzen hastea Euskal Herrian egin dezakegula zerbait hobe, ez eskubide xoro batzuen alde (hondartzan biluzgorri, panpalinak zintzilik, ibiltzeko irakurri berri dugun hura, adibidez); baina gizon-emazteak bultzatuz gure kultura eta ohiturak lantzerat, hobetzerat ; lanaren eta elkartasunaren bidez jendetasun eta goxotasun gehiago ezartzeko gure Euskal Herrian. ■

Izigarrikeria horien ondotik

2001-09-27

JOAN DEN IRAILAREN HAMAIKAN Estatu Batuetan gertatu izigarrikeriek, ukanen dituzkete bizi garen Europa honetan ere ondorioak eta menturaz biziki urrunago ere. *Krach* baten hirriskua ez da batere baztertzekoa. Eta horrek ondorio lazgarrienak ekartzen ahal lituzke edozeinentzat. Uztailaren zazpian, hemen berean aipatzen genuen herriarteko ekonomia gero eta elkarri josiago dabilela eta sare ekonomiko hori guziz beratza agertzen zaigula Burtsaren ‘omere txarrei’ iharduki behar dienean.

Burtsa dateke ekonomiaren bizkarrean ‘jostetan’ ari den diru merkatua. Baina josteta horrek hartu du sekulako hedadura, diruketa ikaragarriak ‘dantzan’ ari baitira hor, hainbertzetaraino non erran baitaiteke Burtsaren zalapartek baldintzatzen dutela ekonomiaren martxa ! Joko hori beti gaitzetsi dugu hemendik.

Dudarik gabe Estatu Batuek umiliatze gogorra irentsi behar dute gaurkoan. *Pearl Harbor*-ekoa zerbait izan bazen hau areagoa izanen zaieke ! Lehen lehenik etsaia maltzurki gorderik baitagokie ! Bertzetik musulmano mundu guzia beren kontra itzultzeko arriskua hor baita. Haatik, Saddam Hussein, etsai ageria hura, suntsitzen ahalko zuten nahi ukan balute. Zertako ez dira bururaino joan : lur haietan egoteko aitzakia ukaiteagatik, beren merkatuaren zaindari ?

Dena den, ekintza horiek soberakinak zaizkigu jendearen errespetu ezaz den bezainbatean ; hori argi eta garbi daukagu bederen. Korsikarrek beren ur bazterrak begiratzeko jende guzia barneetarik jalgiazten zuten lehenik eta gero eraikuntza ozarra birrintzen... Horrela egin balute Ameriketara ere ez dakit ez ote genuen guk ere txalotuko bi dorre espantutsu horien suntsitzea, eta ez ginen bakarrak izanen !

Alabaina amerikarren jokabide ekonomikoa ez zaigu batere gustatzen. Dirua denetan nagusi, hura utzi behar beti nahi duenaren egiterat, lurraren eta langileen axolarik gabe ; azkarragoak ito dezala ttipiagoa, eta jo aitzina historiaurrean bagina bezala, baina erantsirik Jainkoaren amodioa eta kristautasuna ! Zinez ahalkegarria da estatubatuarren joko hori beren etxean berean baina ezin onetsiagoa oraino bilakatzen da bertze guziei bide kapitalista arrunt hori harrarazi nahi lieketenean !

Bada, bakegintza ere ez dabil tza hobeki : Israel uzten dute arabiarren umiliatzerat dakigularik alta, politika gizon xumeenak ere senti dezakeena, ez dela nehoiz umiliatu behar etsai menperatua, hobendun izan edo ez (bertzeak bertze, Irak setio ekonomikoaren bidez edo 1919an Alemania bentzutua, adibidez). Preseski umiliazio horiekin baita ondoko gerlen sustraia egiten, han edo hemen, gaurko munduak ez baitu mugarik ezagutzen gogoen bilakaeran.

Ez erran beraz ez direla gertakariak nahasi behar : politika, ekonomia edo erakunde izpiritualen arduradunek mundu guziko gorabeherak segitzen dituzte. Eta begi bistakoa da aspalditik dirauten Ekialde Hurbileko gudu etsigarriek eragin handia dutela bereziki arabiar eta musulmano herri guzietan...

Ikaratzekoa bada amerikarrek jasan duten umiliazioaren arabierakoa izan behar balu mendekuak, bereziki errepublikano urrikigabeak direlarik buru Etxe Zurian. Ez omen da haatik hori mendekua deitu behar ihardespina baizik... Bizkitartean, ordu litzateke ohar balitez, indartsuenak direnaz gero, eginbide zorrotzak ere dituztela munduko bakeari buruz, eta gatazkak usteltzerat uzteak, azken denbora hauetan palestindarrekin egin duten bezalaxe, iratzartze dorpeenak ekar diezazkiekeela.

Ireki bitzate beraz begiak eta lagun herrialdeak beren nortasun eta burujabetasunean ; errespeta bitzate elkartasun gehiagoko gizarte bat eraiki nahi luketenak ere, eta, orduan, guk ere errespetatuko ditugu herrialde bakoitzari zor zaion askatasunaren izenean. ■

Aita Lafitte zena gogoan

2001-10-25

JOAN DEN IRAILAREN 17TIK 22RAT ospatu da Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra. Gaitzeko lanak eta ikerketak zabaldu dituzte jendaurrean karia horretarat. Lehenik Azkue eta Urkixoren omenez Bilbon : Hizkuntza Ereduak, Hiztegiak eta Hizkuntzaren Historia. Gero Piarres Lafitteren omenez Baionan : Gramatika eta Literatura Egitarauak. Ez dezala nehork ikus hor zatiketarik Hegoaldearen eta Iparraldearen artean : Euskaltzaindiak betidanik mugaren gainez gain lan egiten baitu, euskararen onerako. Ez ahal da nehor harrituko halere hobekienik ezagutzen dugunari buruz lerratzen bada gaur gure gogoeta.

Uztaritzen bururatu zen Biltzarra Lafitteren omenaldiarekin : haren sortzeak ehun urte betetzen baitzituen joan den maiatzean. Duela hamasei urte zenduaz, bada jadanik anitz erranik eta idatzirik eta halere iduri luke bazterrak ez direla oraino ase. Izanen da alhapiderik : bi mila gutun bederen ba omen dira harenak sakabanatuak zazpi herrialdeetan eta, bil arau, ukanen dukegu hor zer ikas hain garrantzitsua izan den iragan mendeaz. Alabaina ba ote dugu lekuko hoberik ?

Burasoengandik zukeen, dudarik gabe, berezko buru miresgarri hura. Eta ikasteko janiza hura nondik zetorkion ote ? Oroz gainetik beti bere fedearen arabera bizitzeagatik ? Zazpi urtetako umezurtz bilakaturik, ez zuen ez goxotasun handirik ezagutu lehen urteetan, bere osasun nolabaitekoaren gainerat. Halere ontsa atera zen eta adinak baino lehen bere apez ikasketa-heziketak bukatuak zituen.

Hor ikasirik euskara hasiko du obra bat kasik ezin sinetsia : zer ez du hunki geroztik eta batzuetan arras sakonki aztertu ere bere bizi ez hain laburrean, azkenekotz ? Hiztegi, gramatika, literatura, kazeta, soziala, ekonomia, politika, formakuntza, emazteen alde, fededunen laguntza eta nik dakita zer oraino ! Ba ote da gutartean anitzik hari deus zor ez dionik ? Jadanik argitaratuen gainerat, publikatuak izanen dira Biltzar horretako solasak balioko baitu horietaz jabetzea. Halarik ere iduritzen zaigu bi sail bereiz daitezkeela obra erraldoi horretan : gramatikaz egin duena eta Herria astekariaren bidez, Enbata sortu arte bederen, euskal aitzindarigoan eraman duen borroka.

Alta gizona bera ere, bere gorabeheretan, hunkigarria zaigu. Halako jakintsua, hain apala, zioelarik bizi hondarrean, euskararen ikerketa guzia egitekoa zela, beraren lanak eta gorago aipatu Azkue batek bildu altxorra gogoratzen ditugularik ! Hor da ere 1968an Bergaran bota zuen etsipenezko oihua, hitzen errepikatzeko ere lotsa baikara. Sentiberatasun soberakinak eragina beharbada, nahiz kristauek badugun oraino ulertezinagoa zaigun Jainko-Semearena : “Aita Aita, zertako abandonatu nauzu ?” Eta jakina ikaslea ez dela irakaslea baino gehiago.

Euskara mailan, Iparraldean bereziki, hodei beltzak beti hor ditugu, inguruka, buru gainean baina udaberri seinaleak ere gero eta hedatuago, azkarrago dabilzkigu. Politika horretan dugu geure ahulgunerik larriena. Gizonaren jaidurak ezagutuz gero normala da. Noiz ohartuko gara, ordea, sekulako indarrak higitzen ditugula eztabaidetan elkarri esku emateko orde ? Har bageneza Lafitte erakusle, epelak akulatuz eta sutsuegiak eztituz, bere burua ahanztirik, zerbait egin nahi zutenen zerbitzari jartzen zena ?

Psikologia handia ere bazuen bertzalde, bere pedagogiarekin. Zein ontsa ez zizkigun hautatzen behar genituen liburuak edo oraino ixtorio zapart egingarri batzuk kontatzen, berdin berrogeita hamar urte lehenago adituak baina iduri baitzuten gure laguntzeko asmatuak ! Har dezagun “Idek eta Zabal” 1974an idatzi zuen liburuxka : ttipiñoa tamainaz baina handiñoa mamiz ! Fedez eta zuhurtziaz brokatua da, hala-nola dioen : “Hets atea tristeziari !”

Bai zinez maitasunezko urratsetarik ibili izan zaigu Lafitte. Egin lanaz jarraitzen du gure sustatzen eta haren irri-karkaila umoretsua hor dugu goxagarri geure pasioen menperatzen ere ikasi behar dugula oroitarazteko.



Diru horren desmasiak

2001-11-22

BAZTER GUZIAK BALDITURIK ezarri zituen joan den iraileko New-Yorkeko sarraskiak. Ondoriorik utziko ote du ala fanatikoek lehia beltz haren gailur huts geldituko da ? Ezin uka halere gertakari latz horrek itxaropen zerbait piztu zuela bereziki herrialde ahul eta indartsuen arteko bertze harreman batzuk sortu nahi lituzketenen baitan.

Ez zen hor indarkeria onarpenik egiten, ez eta asmatzen ere talibanoak mundu hobe baten sortzaile izan zitezkeenik ! Baina gaurko ekonomia neholako morala edo etikarik gabea delakotz, soilik diruaren menpekoea (eta zer diruketa ikaragarrien menpekoea !) halako makurrak eragiten dituen, izigarrikeria batek beharbada bide hobe baterat erakar zezakeelako amets bat bazezilen...

Gaur amerikanoak airez eta Iparreko Aliantza lurrez talibanoek nagusitzen ari zaizkie. Talibanoek zer egin dezakete denen aurka ? Lehen, azpiz hilka elkarren kontra ari ziren Amerika eta Errusia, orain elkarrekin baitoaz edo kasik. (Ez baita ahortzi behar ‘gerla hotzari’ esker zutela irabazi vienamdarrek amerikarrei eta afganistandarrek errusoei.) Talibanoen azken putar bezala aipatzen da islamdar batzuen laguntza, bereziki Saudi Arabiatik letorkeena. Dena gertagarria dela badakigu baina lehenago ere izan dira egoera saminak, Suezko Ubidean (1956), Iranekin ez hain aspaldi eta azkenik Irakekin, baina indarren pisua sobera desberdina izanik jabaldu dira, osoki ezabatu ez badira ere denak.

Nehork ez daki zer gertatuko den : “geroa ez da gurea” zioten arbasoek (nahiz etorkizunaz artoski arduratzen ziren preseski). Amerikarren ahulgune handi batzuk ere agertu dira karia horretarat. Gisa guziz gai hunek albiste nagusi izatea galduko duen arau, mundializazio liberalaren kontrako borroka berriz indartu beharko da. Ez dugu onartuko sakatu nahi diguten ekonomia sistema bortitx hori gure gainean : herriez axolarik ez baitu, jendea lan baldintza gero eta nekeagoak inposatzen baitizkio ; hots, indartsuak indartzen eta ahulak ahultzen baititu.

Euskal Herritik urrundu ote gara solas hauekin ? Ez hainbertze. Lagun batek zioskun berriki Kanbon etxe egiteko lurren prezioak doblatu direla hiru urtez ! Eta badakigu sukar hori ez dela bakarrik Kanboko. Azkainen ba omen da lur zati bat salgai milioi batean (152.449 euro) gainean eraikigogo duten etxea baino aise karioagoa izanen dena ! Hola segituz non beharko dute kokatu gure gazteek ? Ingurumenak, etxeen aurpegiak nahi ukan ditugu begiratu eta orain denari arrakasta arabera goiti joan zaio ; diru eskaintza ustelgarri batek mehatxatzen gaitu maltzurki. Holako arazo kasik ezin gaindituzkoen aurrean (botere politiko ezarengatik) auhenez gaude egiazki abertzale guzien batasun galdez. Gure lurra zaintzeko, diruaren lilura horri

oharrarazteko, batasunean ere izanen da lan, baina batasunik gabe ezinezkoa izanen da.

Joan den asteko Enbatak ederki erakutsi digu Baiona Angelu Miarritzeko gurasoen %56ek nahi luketela beren haurrek euskara ikas dezaten eskolan. Buraso horietarik anitz kanpotarrak dira eta beharbada baliteke gutartean bat, erdi astokeriaz-edo, erran lezakeena : “Zer duzue beraz kanpotar horien kontra : nork daki ez ote duten euskara ikasteko gogoa Iparralde barne horretan baino handiagoa ?”

Hori egia balitz gogoetagarria litzateke bistan da, baina oharpen batek eztituko bide du lehen xistean sentitzen dugun makur izigarria : euskararen ikastea aski ote da euskaldun jator baten egiteko ? Sortzez euskaldun garbia, ez badu deus handirik egin ere euskaldungoaren alde, ez ote da euskal zibilizazioaren lekuko eta ezaugarri sakratua ?

Bertzetik berriz, euskararen ikastea hain da beharrezkoa herritartze bidean non lehentasun guzietan hura baita lehena ; gure herriko ohitura, sineste, jaidura, jeinu eta euskaldun egiten gaituzten bertze guziak xertatu beharko zaizkiolarik lehenbailehen. ■

Euskararen sustraiak

2001-12-20

JOAN DEN AZAROAREN 27AN hitzaldi-solasaldi guziz interesgarri batean parte hartzeko atsegina ukan dugu Saran. Hizlaria Koldo Zuazo Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Gaia Euskara batua eta euskalkiak. Lehenago ere irakasle argi horren idazki batzuk gogokoak gertatuak baitzitzaizkigun ez dugu hutsegin nahi ukan gizonaren hurbilagotik ezagutzeko parada. Jendeak ere poliki ihardetsi zuen Azkaine, Sara, Bera eta Etxalarko gazteek egin deiari beren kultur hamabortzaldiaren kari.

Gure hizlariak aitortu digu doi bat urduri zegoela Saran, euskararik hoberena egiten omen den herrian, bera Eibartik heldu-eta, euskararik txarrena egiten omen den eskualdetik ! Ez dugu hango euskararen ezagutzarik baina Koldorena gustatu zaigu : ulergarria euskara batuari esker eta iritziz areago gure bidetik baitoa.

Iparralde honetan bereziki egoera txarra du euskarak, eta hori hemendik maiz errepikatzen da. Baina bada bertze arazo bat gutiago aipatzen dena : erabilpenarena, zoin euskara eta non ? Auzi hau iduri baino zailagoa da, teknikoa, eta hautuen egitea guharen gain dago.

Goazen Koldoren solasek sustaturik gu ere hortik, gaur, izpi bat bederen, gaia zabal-zabalik uzten dugula. Hizlariarekin denetan bat gaude. Euskara batuak eman dio gure mintzairari bere ospea eta neurri nazionala. Bide hori hartuz geroztik gure hizkuntzak gaitzeko aitzinamendua, goratzea egin du, bereziki ikaskuntzan, irakaskuntzan eta komunikabideetan.

Euskarak ezin zezakeen holakorik lortu eta ez zuen irauten ahalko ere hizkuntza nazionala bihurtu gabe eta hizkuntza nazionala bilakatzeko batasuna behar-beharrezkoa zuen. Lan mundua da gibelenik gelditu dena : ez baita aski lantegietan eta supermerkatuetan iragarki batzuk euskaraz ezartzea, nahiz hori ere beharrezkoa den.

Badugu eremu bat zointan euskara gibelerat ari baitzaigu parte bederen gure faltaz : eguneroko hizkuntza xehearena, etxeetan, lagunartean mintzatu behar genukeenarena. Hemen gogoan ditugunak ez dira bertzeak baina guhaur, euskaltzale, irakasle, ikasle, abertzale eta bertze. Zertako dugu euskara, ‘kanpoko’ arazoetarako bakarrik ? Ez ote du euskarak gure muiñetan erroak barna landaturik egon behar, zuhaitzaren pare, fruiturik ekarri nahi badu segurik ? Gogoetagarriena dator, euskarazko eskolatik ateratzean ikasle batzuk beren artean erdaraz ari direla !

Iduri luke zerbait falta dugula, etxean, lagunartean, eremu oso intimoko hori betetzeko. Oinarri hutsezkoa edo/eta sobera literarioa delakotz, gaurko euskara batua gai ote da behar horiei ihardesteko ? Eta falta deritzogun hori ez ote genuke bilatu behar doi bat baztertu ditugun herri mintzaira aipagarrietan, belaunaldiz belaunaldi gudanaino heldu diren horietan ?

Herrietako mintzairak baztertuak izan dira, arbuiatu ez direnean, ahoskera txarrez edo erdal hitzez ihaurri erabiltzen genituelakotz omen ! Behar ukan dugu denek aski alienatuak izan, egundainotik menperaturik egon den euskara jukatzeke hiztegi soiletik ! Gehiago dena euskarak hitz horien erabiltzeko eskubide osoa dauka bertze hizkuntzek bezala, latinetik baitatoz gehienak, eta gainerat hitz horien diseritzeko gaitasun handia ere baduela erakutsi baitu beti.

Badakigu bi, hiru edo lau hizkuntzaren ezagutzeak eta erabiltzeak, gaurko bizimolde barreiatu eta teknikak itotzen ari duen honetan, murriztuko duela, nolabait, gure haurrean ezagutu dugun familia handietako hitz jarioa eta euskarari berari emanen zaion lekua ere. Baina euskarak gure bihotzetan egiazki lehen tokia atxikitzea nahi badugu, hizkuntza nazionalaren erronka ere betez aspaldian hasia den hizkuntza borrokan, beharko du oraino ondu, euskalkien izerditik xurgatuz eta ohiko soinueta berotuz : lehen-lehenik egun guzietako beharrak asetzeko !

Harritzeko da ordea zein guti garen herrietako euskalkien biltzerat entseetzen garenak. Egoera orokorra dugu salatu nahi, ezin onetsia baitzaigu, holako aberastasunez ez gehiago axolatzea, behar-orduak hain premiatsuak direlarik ! Gainerat, frantses botere sorjesari ihardukitzeko molde bat ere izan daiteke. Gisa guziz euskararen sustraiak hor daude eta oraino luzaz hortik hazi beharko du batuak. ■

Adiskidetzen bagara

2001-01-17

DENEK DAKITENA eta ikusten dutena, ez du balio gordetzea : abertzaleak berriz ere barreiatu gabe egundaino bezala. Iparralde honetaz ari gara baina Hegoaldean ere ez dabilte hobeki. Denek ezagutzen ditugu batzuen eta bertzeen iritziak, gisa bat bertze, aspaldian hor alha direnak, ezin gaituztekoak iduri. Luzaz borroka armatua ginuen bereizle handiena. Gaur ere ETaren itzala hor dago oztopo nagusi : su-etenaren hausteak eta geroztik burutu dituen ekintza itxuragabekoek ez baitute aitzinamendu pikorrik ere ekarri, zatikuntza handitzea baizik. Baina borroka armatua bera baino ETakoen nagusigo nahikaria da gehienik ezin onetsia.

Huna beraz Iparraldean Abertzaleen Batasuna hain ontsa abiatua genuena, bereziki azken hauteskundeetan gaitzeko emaitzak eskuratu, bere sabeletik jalgi zaion (?) Batasunarekin lehian, biak zein gehiagoka, biak jende beraren ondotik ! Harrigarriena, Batasuna, ETaren beso politikoa, deika ari hemengo EAJri, Hegoaldean lehenik haiekin antolatzeke orde ! Ihaute, erran genezake !

Egia da ihauteak gainean ditugula, baina ez digu egoera hunek airosteko gogo izpirik ere erakartzen... Egia da urratsik ttipienak ere mugimendu bat sor dezakeela. Baina noiz arte iraun behar du tragedia hunek : Euskal Herria bere indar guzien behar gorrian delarik eta Iparraldea areago ? Zer pentsatzen ote du jendeak, isil-isilik dagoen hark, baina bozkatzeke orduan bertze edozeinen ahal berekin denak ?

Berriz ere Hegoaldetik etorri da zatiketa, ‘batasuna’ izenez jantzia baina Aralar taldearen xedeak airez aire baztertu datorrena... Nafarroari behatuz, ohargarri da (eta kezkarri ?) ikustea nola abertzale askok sinetsi duten berriki egunkari batzuek jostatzeko asmatu ‘enuxentkeria’, delako Sanz-ek bortz ehun euro emanen zituela sortu berriei izen euskaldunik ez ematekotan...

Segur ez dituzte ebatsiak gure ziztak UPNkoek eta PSNko batzuek ere baina gure arerioez trufatzea ez da bidea. Hobe genuke aztertzea ausartzia eta beharbada umiltasun poxi batekin zerk daramatzen gure erresuma zaharrean, emanak zituzten urratsak bata bertzearen ondotik desagiterat ; bertzela erranez, zertako dute UPNkoek Nafarroan gobernuburu izaterainoko arrakasta ?

Hegoafrikan, Mandela miresgarria aitzindari hasia dute, ja aspaldixkoan, gaitzeko sail bat, terapeutika bat bezala, kasik ezin sinetsia, gertakariak hain berri, bero-beroak direlako. Buruz buru ezartzen dituzte lehengo zuri zanpatzaileak eta azpian lehertu atxiki dituzten beltzak, halako ‘adiskidetze’ bati bidea irekitzeko, xeheki aipatuz batzuek bertzei jasanarazi itsuskeria kasik ezin aitortuak... Gure ustez historia guzian holako

guti ikusi da. Horrela, nolabait elkarrekin bizitze bat sustatu nahi lukete, indarrak bilduz, herri osoaren faboretan. Ez ditugu sekulan aski goretsiko holako saila akulatu dutenak.

Guk ere, bagenuke naski Nafarroarekin, gisa horretako zerbaiten egitearen beharra. 1936-39ko gerlak euskaldunen artean sortu zituen zauriak ez baitirudite sendatuak. Ez baitu nehork, dakigularik, behar den bezalako urratsik eman bide horretan. Bizkaitar-gipuzkoarrak harro-harro dabilta, durduzarik gabe, orduan hartu zuten bideaz.

Guk ere errotik gaitzesten dugu Franco okaztagarriaren bidea, baina Staline zitalaren eta komunisten beldurrak eraginik, bertzeak bertze, nafarrek hartu zuten bertze bidea oso-osoki gutiesgarria ote da, bereziki geroztik jakin diren guziak dakizkigula-eta ? Historiaren erakaspenekin ez ote da harrotasun batzuen ezititzeko arrazoinik, hurbiltze batzuen oinarri izan litezkeenak ? Lehengo Espainiako ezkerria ez ote zen oraingoa bezain zentralista ?

Baina euskaldun odolak ukanen ote du aski buru gauza minbera horien eztabaidatzeko ? Ala betiko buruzkinak egonen gara sekulan elkarri barkatu gabe ? Noiz arte batzuk xuri huts eta bertzeak beltz huts ? Elkarganatze horretan urratsik handiena egin lezakeenak ez luke bere burua ttipituko ! Elkarri hurbiltzea lehenik eta gero gure artean adiskidetzeta izan liteke herriari geroa argi lezakeen urratsik emankorrena... ■

Sinesgarritik egiaztagarritat

2002-02-14

JOAN DEN URTARRIL HONDARREAN, Joseba Egibar EAJko eledunak, Batasunaren bake proposamenean, bilakaera edo eboluzio bat atzematen zuela aitortu zigularik itxaroten hasiak ginen : urrats ttipika, elkarri buruz berriz abiatuak ote ziren Euskal Herriko bi indar politiko nagusiak, duela lau urte bezala... Baina gure esperantzak laster ilaundu dira. Otsail hastapenean, EAJko eledun horrek berak ozenki jakinarazi baitigu bere lagunetarik ehun bat izendatuak direla ETArri berriki bahitu dizkioten paperetan.

Gainerat, EAJkoek gogorki salatu dute ere, Madrilen, bazekitelarik hori lehenagotik ere eta ez dietelakotz parte eman. Azkenik otsailaren 8ko Egunkarian Batasunak EAJri ihardesten dio : “Ez duela uste holako zerrendarik badagoela” eta montaia bat dela dio helburu politiko ilun batzuen bideratzen laguntzeko...

Baina EAJ gezurrez ari dela akusatzeko orde edo halatsu, eta demokraziarentzat doi bat errespetu ukanez geroz, ez ote genuen honelako zerbait itxaroten ahal Batasunarengandik bederen (PPTik ez dugu deusik igurikatzen, alabaina) : “Hil mehatxu zerrenda hori egiazkoa baldin bada, gain-gainetik gaitzesten dugu eta elkartasunez gaude geure arerio baina ez etsai direnekin”. Batasunak erran duena eta morala izpi batek erranarazten digun hori alderatuz ikusten dugu zertan garen.

Euskal Herriko politikan (ala bertzetan ere ?) ohituak gara saltsa erdian bizitzen. Egia erran saltsa baino hitz egokiagoko bat baliteke baina ez dugu hemen ezarriko usainarengatik ! Egia izan edo ez izan, EAJk bota duena gogoetagarria da : politika gizonak, demokratikoki euskaldunek hautetsiak, zenbaitek garbitu nahi ukaitea !

Gezurra izanik ere bota baldin badute sinesgarria izan litekeelakotz dateke eta sinesgarria izatea da lotsagarria ! Eta aise sinesgarria da : guhaurek behin baino gehiagotan entzun izan baititugu ezkerreko gogorrenak parekatzen EAJkoak eta PPkoak batere lotsarik gabe, gaineratuz EAJkoekin egin akordio guziak taktika hutsezkoak direla, EAJren ehorzteko aldia etorri artean.

Alta hemen elkarren indarrak xahutzen ari garelarik Madrilen eta Parisen ez doaz gure alde. Aznar sekula baino azkarrago agertzen da Europako aulki nagusitik orain (zenbait hilabeterentzat), kukurrukuka ! Goraki errepikatuz dabil ETA eta EAJ gauza bera dela ! Hau ere ez da bada itsusia ! Eta sinesgarria izan daitekeena batzuentzat : euskal nortasunaz edo autodeterminazioaz mintzo den guzia terroristatzat baitaukate Espainiako agintari anitzek !

Frantziako lehendakari hauteskundeei begira ez gara hobeki : Jean-Pierre Chevenement goiti ari baita karraskan, iduri hauteskundeak gako eskuratzen ari dela ! Enbatako irakurle jakituna ez dadila gaitzitu oroitarazten badugu Chevenement dugula Frantziako jakobino amorratuenetarik bat, eta gehiago dena sinesgarritasun handikoa, hainbertzetaraino non eskuineko askok ere ekartzen baitiote beren sustengua bertze eskuineko jakobinoetan baino konfiantza gehiago dutelakotz hartan ! Batzuk oraino urrunago doaz : lehen ministro ere ikus lezake hauteskundeak Jospinek irabaziz geroz ! (Pentsa emazue, hauteskunde horiek berak irabaz litzakeela diotenak ere badira !)

Nafarroako egoera ere hor dugu guziz kezkarria : “Euskara kanpotik heldu den zerbait da” horko zenbaiten ahotan, jendeen bereizketa dakarrena eta gatazka sortzen duena bertzelde... Hola segituz, zer behar dugu ikusi ? Iparraldean, egoera txar hunek jotzen gaitu bete-betean eta ondorioak Hegoaldean baino makurragoak dituzkegu, neholako botere propiorik gabe baikara hemen gureak gerizatzeko.

Noiz eramane ditugu gure arduradunak elkarri buruzko urrats salbagarri baten egiterat ? Haatik, herriak igurikatzen duen urrats hori sinesgarria izatea nahi bada egiaztagarria ere izan beharko du : alegiazko suetenaren zepoan sartu baldin baginen behin, bietan enganatzea, nekeago izanen baita. ■

Eskuina eta ezkerra

2002-03-28

NOLA EGON Frantziako hauteskundeak aipatu gabe kazetaritza guziak ez duelarik bertzerik ahoan ? Eskuin mutur eta ezker muturrekoak aspaldian jendea atzarrarazi nahiz ari zitzaizkigun erranez eskuinak ala ezkerrak politika berdintsuak zeramatzatela. Hori guzia lelo batez laburbiltzen ziguten azkeneko hogeita hamar urte honetan segurik : “*Bonnet blanc, blanc bonnet*”. Komunisten boterean sartzeak eta kohabitazioak azken ukaldia eman dukete ideia horri : orain asko jendeak ere, menturaz gehiengo batek, gauza bera pentsatzen baitu.

Berriki Bartzelonan izan dira Chirac eta Jospin eta han aho batez mintzatu omen dira. Eta ez da hehen aldia hori gertatzen dela. Alta atzerriekilako politikak ere erakusten du non dabilen barneko politika saila. Eta beraz erran behar arras gutik bereizten dituela gaurko bi politikaburu frantsesak. Ez pentsa guk hemen ñabardurarik ez dugula kontutan hartzen.

Eiki, kontutan hartzen ditugula eta behar ere. Aitortuko dugu ere gure politikariek gider batzuk galdu dituztela, bereziki ekonomia mailan, Europak ezarri norabideen ondorioz. Haatik, Europako lege batzuei ala mundializazioari iharduki behar litzaieke halabeharrean, baina horretako kalipua behar da, zeren eta hor baztertua izateko bideetan sar bailiteke politika gizona, gaurko gizartearen gehiengoa globalizazioaren bidetik doalakotz oraino.

François Bayrou ere ari da zerbait adierazi nahiz. Bordeleko telebistatik joan den astean erran digu garbiki Fantzia aspaldi honetan gaizki doala, gaizki gobernatua delakotz baina ere ezintasun batzuk badauzkalakotz bere zentralismoarengatik ; arazoak ezin gaindi, boterea jendearengandik urrunegi dagoelakotz... Iduri zuen Enbataren ‘katiximatik’ ari zela, ala fede baietz ! Baina sinesgarria izateko beharko zukeen lehenik etxetik hasi, adibidez Euskal Departamendua eraikiz. Eta bere kidekoen artean lehenik xedeak eztabaidaturik eta zifratuak abiatu bazen, bere mezuari bertze indarrik emanen zion.

Frantziaren eskualdekatzea funski, hori bai litzatekeela beharrezkoa ! Ez eskualde bakoitzaren eremua emendatuz, Bordeletik Santander-erat Noël Mamère abilak dioen gisarat edo Frantziaren laurdena hartuz André Labarrère hitz-jaleari berriki entzun diogun bezala. Ez, botere gehiago eman behar zaie eskualdeei beren eguneroko arazoak, gutiz gehienak, berek antola ditzaten. Baina hori ‘irriskuen’ hartzea omen litzateke, Frantziaren puskatzekoarena ! Eta jakina kargutan egon nahi dutenek irriskua ez dutela maite. Bizkitartean noizbait zerbait egin beharko da. Irriskuak izanen dira beti ; eta haien beldurrez deusen ez egitea, ez da irriskurik ttipiena...

Ez da harritzeko beraz bi muturretako hautetsigaien arrakasta goiti baldin badoa. Jean-Marie Le Pen eta Arlette Laguiller ditugu naski hor

gehienik entzunak. Lehen, gure etsaia da burutik buru. Bigarrenari aldiz boza emangogo lioketenak ba omen dira gure artean ; baina hau ere, hain zuzen orain aipatzen genituen aldakuntza sakonaren bideratzeko zaldi txarra dukegu. Gure kexua erakusteko molde bat izan liteke baina handik goiti, ez dakit zer ekar liezagukeen.

Frantziak baluke ere, eta lehen-lehenik, instituzioen aldatzearen beharra. Irri egingarriak ziren Chirac eta Jospin, bezperan eta biharamunean elkarri ostikoka baina Bartzelonan bat eginik... Eta Bartzelonan iritzi desberdinekoak izan baziren, gertatzen ahalko zen bezala, bata eskuinaren izenean eta bertzea ezkerraren izenean ari direnaz gero ? Hor ez zen gehiago jostetarik izanen, baina krisia bat ederra, trufagarria munduan barna ! Halere instituzioen aldatzerik ez dute aipatzen hautagai larrien horiek, dakigula. Jo aitzina, zapartatu arte ? ■

Biziduna ehortzi ?

2002-04-11

JOAN DEN ASTEAN etorri zaigu andere bat batere ez euskalduna, Arroxelan (La Rochelle) bere lan denbora irakasle gaiei hizkuntzak irakasten eraman duena. Urrun ibilia da eta ainitz jende mota solastatuak ere, haien komunikatzeko moldeez zerbait ikasi nahiz. Bere sail baliosean, oroz gainetik ‘biziduna’ gustatzen zaio ; adibidez hizkuntza mintzatuari interesatzen da gehiago idatziari baino.

Euskal Herria miresten du dioelarik, hemen, nehon ez bezalako koherentzia dagoela jendeen eta ingurumenaren artean, bizidunen eta bizilekuaren artean. Hots, gure lurak, etxeak, ohiturak, pilota, elkarrekin ezkontzen direla osagai natural batzuk bezala. Eta gure andere jakintsua ez da duela berrogeita hamar urtekoaz mintzo : gaurkoaz ere ari zaigu !

Azala, agerikoa, ikusi ondoan nahi luke orain barnaxago joan gure hizkuntza mintzatuaren sartuz. Eta hor zerbait erran diezaiokegu hemendik ere : gure artean ere baitateke gauza batzuen errepikatzearen beharra. Ez izi irakurle, ez gara hasiko hizkuntzalarien puntako ikuspegi zehatz eta luze batzuen ematen. Ez, normahik ulertzekoa izanen da gure solasa, puntu bakar batean mugatuko dena gainerat. Hitz batez errateko, gogoetatxo bat euskararen barne indarraz.

Gaur erran nahi genukeena da, euskara hizkuntza soziala dela, gain-gainetik egokia giza harremanetarako. Sozialtasun horren lekuko ainitz bada baina gaur ez dugu bat baizik aipatuko, gure aditzean daukagun berezitasuna : hau da, mintzalaguna kontutan hartzeko ahala, erdal hizkuntza bihibatek ez duena.

Adibide soil bat bakarrik : **“Etxe bat ikusi dut”**; horra hor esaldi arrunta, xuxena, baina doi bat hotza gelditzen dena, gure inguruko hizkuntzen gisarat. Aldiz mintzalaguna kontutan hartu nahi badugu (xeheetasunetan sartu gabe, ez baita hemen lekua): **“Etxe bat ikusi diat”** erranen dugu gizonki bati buruz eta **“Etxe bat ikusi dinat”** emazteki bat baldin bada. Horra hor berean molde bat euskarak bat bertzeari hurbiltzeko ahala daukana, hots, sozialtasuna erakusten duena hein bat poliki.

Puntu berean egonez bada bertzerik. Zenbait eskualdetan badute errespetuzko forma ere : **“Etxe bat ikusi dizut”**, [dizit] edo [dizüt] ahoskatzen dena zenbait herritan ; laugarren eleketarako forma ahantzi gabe, goxotasunez betea hura : **“Etxe bat ikusi dixut”**, [dixit] bilakatzen dena zenbait herritan.

Horra beraz gure euskara, ez bakarrik hizkuntza soziala, baina hizkuntza amultsua ere izan daitekeena ! Zer zaizue ? Badakigu zailtasunak ere hor direla hautu aberats horren ondorio, bereziki hastetik buru gure hizkuntza ikasi behar dutenentzat. Baina badute kopeta batzuek salbaiak edo

fanatikoak garela diotelarik edo gure jokabideak berekoiak eta hertsia direla sinetsarazi nahi liguketelarik ! Ez ote genieke noiztenka horiei oroitara zi behar ingurumenarekin bat egiteaz gain, garatu dela hemen mintzabide bat ohargarria, hurbiltasuna (hika), errespetua (zuka) eta maitasuna (xuka) berez erakuts ditzakeena ? Funtsean guhaur ere harriturik gaude batzuetan, laborari, artzain, arrantzale jendaira xehe batek holako zibilizazioa nola moldatu ahal ukan duen...

Ez dugu haatik zeren urgulutan sar ! Alabaina, zer balio dute orain aipatu ditugun horiek guziek politika bideetan zatiketa lotsagarrienetan baldin bagabiltza, desagertarazi nahi gintuzketen frantses jakobinoen eta espainol inperialisten fabore ? Uste baldin badugu bertzeak baino gehiago garela geure burua enganutzen dugu. Indarkeriaz jokatzeko direnek ez dukete “xukako” hizkuntza goxoa ezagutzen...

Menturaz, aldebateko su-etena eskatzen dugunek ere erabili beharko genuke : arrazoinamenduz ezinezkoa dirudiena sentimenduz lortzea baizik ez baita gelditzen ! Denak entseatzeko. Zoritxarreko bereizkuntza hunek, guri tiroka hasteraino makurtu behar balu, herri bizidunaren itzaropena bailuke ehartziko... ■

Mamua baztertzea ez da aski

2002-05-09

IRAGAN ZAIZKIGU beraz Frantziako lehendakari hauteskundeak. Jacques Chirac ezarri dute aulkian %82 bozekin nonbait han, Jean-Marie Le Pen-ek %18 ezbaian eskuratu dituelarik. Eraitza garbiak beraz, igandekoak, eskuin muturraren baztertzeaz den bezainbatean. Hori dukegu haatik boz horiek utzi diguten puntu baikor bakarra ! Zerbait da baina arras guti da oro har : ez baita aski norbaiten baztertzea, izanik ere mamu beltza, estatu baten kudeaketa delarik helburu !

Gehiago dena, iduri luke eskuinak eta ezkerak berriz eskuetan tinko hartu dituztela Frantziaren erabiltzeko giderrak eta ez direla nehoi uzteketan ez eta alderdi ttipiekin partekatzeetan ! Askia da ikustea nola jokatu diren hamabortz egunez !

Bide horretarik eta Frantziako hauteskunde sistemaren okerkeriaz, lehen aldia jendeak agertu arrangurak ahanzteko irriskuan dira. Eta hori ezin onartua zaigu. Ez dute handi horiek holakorik salatuko ! Alderdi nagusien gogoak : “Josta bitez lehen aldia hautesleak, bigarren aldia bilduko ditiagu arrautzak (arroltzeak) bozkatzeko sistemari esker”. Zenbat aldiz ez dugu jadanik errepikatua hemendik beretik frantses hauteskunde sistema jendearen eskaerak itozteko sistema bat dela garbi-garbia. Bi itzulitako sistema higuin hori bera da diputatuen hautatzeko ere eta hauen bozak ere jarraian heldu zaizkigunaz gero, gauza bera berriz ikusteko irriskuan gaude, egundainokotan.

Egiaz egiaz, nork erran dezake sistema hau ez dela gure enganatzeko molde bat ? Ba ote da harritzekorik Le Pen-ek horrelako arrakasta ukan badu lehen bozaldian bederen ? Egia erran, sistemari jazarri bazaio ez du ordea frantses errepublikaren presidenteak dituen botere gehiegizkoak legebiltzarrari ematerik aipatu, are gutiago eskualdeen funski indartzerik !

Halere frantsesek hari boza eman badiote egia kozkor batzu ere bota dituelakotz dateke. Alabaina ez da egia Europa gabe ez gaitezkeela bizi. Suitzan bizi dira orri gu bezain ongi edo hobeki Europa politikoan izan gabe ! Europa asmatua izan zen oroz gainetik bakea egiteko behin betikotz frantsesen eta alemanen artean. Bigarrenik, Soviet Batasunari ihardukitzeko eta azkenik, nolabait, amerikarren nagusigoa edo eragina hein batean atxikitzeke.

Gaur ez bagaitezke Europarik gabe bizi (edo mundializaziorik gabe, gauza bera baita, azkenean) gure egitura ekonomikoa halaxe bihurtu digutelakotz da eta bertzerik ez. Kapitalistak loriatu dira mugen gainditze horrek eskaini dieten aukera berriaz. Jende xehea (gaizoa !) liluratu dute edozein gauza mota merkeago erakarriz Taiwan-dik (edo nahi duzuen lekutik) gerlako hegazkinen truke ! Eta holaxe hemengo industria sare parte handi bat desagertu da osoki eta bertzeren meneko ezarri gaituzte hainbat eta

hainbat sailetan eta hori guzia lortu dute bakar-bakarrik gauzak bi sos merkeago eskainiz !

Horrela, milioika lanpostuak desagertu dira, adibidez komertzio ttipietan. Jendeak, langile xehea buru, erosi du begiak hetsirik, behatu gabe nondik heldu ziren gauzak, zer baldintzetan eginik eta bereziki norbaiti (berari !) lanposturik kenduko ote zion behatu gabe ! Zer atzuloak gu ! Gu, erraiten dugu zeren eta ez baita batto ere afera honetan guti edo aski hobendun ez denik. Eta horren hobekienik sentiarazteko Le Pen bezalako faxista bat, behar izan dela ; hori ez bada nigar egingarri !

Ez ahal duzu pentsatu, irakurle, muga-harresiak eraiki eta denetarik hetsi beharrez ari garela hemen ; guhaur goxoki bizitzeko-edo eta bertzeak izorra daitezela ! Ez neholara ere. Heren mundu pobrearen axola sakon-sakona dugu. Baina ez dezakegu onar, munduari irekitze baten aitzakian, gure bizkar, aberatsak aberastuz eta pobreak pobreagotuz joan daitezen gaur gertatzen den bezala eta ez hein ttipi batean baina ezin sinetsizko heinean ! Ez dugu onartzen jendea xifriturik atxikia izan dadin, aldebat, bere lantegia noiz lekutuko dioten mehatxupear.

Apalik aitortzen dugu ez dugula arazo guzientzat ihardespenik. Apalik aitortzen dugu ere ez dugula sistema ekonomiko berririk ikusten. Soilik nazioarteko morala edo etika bat sortu, zabaldu behar genukeela. Eta hor ere moralak fama txarra duela askoren baitan ulertzeko gai gara. Bizkitartean ez dugu bertze biderik ikusten. ■

Abertzaleen bidea hobetsiz

2002-06-06

DATOZEN DIPUTATU HAUTESKUNDEAK nola iraganen diren ez dakigu batere. Lehenago, sondaia batzuek, peto kozkor batzuk gorabehera, argitzen gintuzten doi bat bederen norat zoan jendearen gogoia. Baina joan den president bozetan gertatuaren ondotik, eta maiz ikusi ohi den bezala historian, soberakinetik eskaserat iragan zaizkigu gure iritzi ikerleak !

Guri, gehienik interesatzen zaiguna da abertzaleek zer arrakasta ukanen duten Euskal Herrian. Badira arrazoinak baikor izateko. Gure hauteslegoa gero eta helduagoa, finkatuagoa dirudi ; hauteskunde hauteskunde hori erakusten digu. Egitarauak ere, bereziki Abertzaleen Batasunarena, gustagarria zaigu : jende xeherearen arrangurarekin, zintzoa, duina, gaurko egoerari itzulua eta ez amets hutsez edo zinismoz inguratua.

Bada ere ezkor izateko arrazoinik. Lehenik estatal egoerarengatik. Frantsesak lastoa bezala iziturik ezarriak dituzte eskuin muturra dela-eta ! Egoera hunek badu 1968an ezagutu genuenaren eite zerbait. Maiatz bero haren ondotik eta orduan ezkeraren eta ezker muturraren beldurragatik, sekulako arrakasta lortu baitzuten indar kontserbadoreek ekaineko bozetan. Gero gure arteko zatiketak ere hor dira trabatzaile, bai eta departamendurik eza, gure emaitzak biarnesekin nahasiko dituen.

Baliteke ere eskuin muturrekoen arrakasta hori baieztaturik gelditzea Frantzia mailan. Artetik errateko, alderdi tradizionalak haiei buruz erakusten duten jarrera sasi-demokratikoa da, Aljerian torturatu zuen 'demokrazia' hura baitirudi. Ez du diputatu anitzik aterako eskuin muturrak frantses hautespen sistema dela eta. Baina sistema antidemokratiko horrek ezkerari irabazaraz diezaioke, teorikoki bederen, hiruko lehiaketa haien bidez. Eta horrek nork daki norat eraman gaitzakeen : Konstituzioaren berritzaerak beharbada ?

Dena den, lehenago, komunistak azkar eta beldurgarri zeudenean, jende askok, batere komunistak izan gabe, haiei ematen zieten boza beren samurgoa erakusteko ! Eta hori Stalinen denboran ere !

Europa gehienean ere ikuspide eskuindar hori zabaltzen ari dela iduri luke eta hori kontutan hartzekoa dateke. Europa egiten ari da, hala-nola, euroa indarrean jarritz. Gaurko Europako buruzagitza ez da frantses estatua bezain erdirakoia eta erabaki batzuk hartuko ditu, beharbada, herrialde ttipien faboretan... Baina gero eta gehiago zabaltzearekin, erabakiak gero eta goragotik edo urrunagotik etorri behar bazaizkigu, ez da harritzeko jendea gogoetaturik ere. Europako presidentea hautatu behar bagenu egun batez ?

Ez dugu neholara ere gure burua Estatu Batuekin konparatu behar, Europa zaharragoa baita. Hemen sekulako berezitasunak, nortasunak, historiak badaude, hizkuntzen arazoa ez delarik ttipiena. Eta, bakoitzak bere

iritzi, baina ez dugu ikusten nola denak saski berean ezar gintzaketen. Bertzetik berriz Europaren eraikitzea izan liteke anitz aitzinamenduren bideratzailea, pertsonen bai eta populuen eskubideen alde.

Ikusten den bezala, gure balorazioa ez da ezkorra. Baina onartu behar dugu, mundializazioaren garai honetan, beren nortasuna eta beregaintasuna urtuko zaizkielako jendearen kezka hori, ulergarria dela, gurearekin baitu ikustekorik ; diferentzia handi bat bada haatik : guretzat Frantzia inperio bat baita eta haientzat estatu behin betikotz finkatu bat.

Abertzaleen bidea zaigu beraz hoberena. Euskal boterea izan dadila ahalik-eta osoena, bakoitzaren ‘menekoa’ nolabait eta ez izariz kanpoko. Auzoekin harreman orekatuak landuz eta urrunagoko herrialde dohakabeekin berriz haien garapena erakarriko lukeen elkartasuna pratikatuz.

Guri iduritzen zaigu lan denbora laburtzea baino beharrago dukegula lan denbora hobetzea. Bizimaila goratzea baino beharrago dukegula bizipide egonkorragoko bat, biharamuna doi bat bederen segurta lezakeena eta ez egungoa bezalakoa : dena zalaparta, dena zeingehiagoka, burtsaren eta diru gosearen menekoa. ■

Gezurrean atzeman dituzte

2002-07-04

DUELA HILABETEA, gure hitzñoa bukatzen genuen erranez ez genuela nahi burtsaren meneko gizarterik. Joan den azaroan berriz “Diru horren desmasiak” titulutzat emanik gai berarekin ari izan ginen. Eta lehenagokoak bertzalde. Ez da lehen aldia beraz zorrozki jorratzen eta gaitzesten dugula finantza munduari hoin josia dabilen ekonomia.

Joan den astean, diruzaleen mundu okaztagarri horrek, eman digu bertze erakustaldi higuingarri bat. Dirudun askok emaitzak gordetzen, apaltzen dituzte zergarik ez pagatzeko, edo ahal bezain guti, Estatuari. Enpresa handi horiek berriz, alderantziz jokatzen dute : kontuak, ahalik eta gehiena ‘hantzen’ dituzte, miliarka emendatzen, akzioek araberan goiti egin dezaten, akziodunen probetxugarri. Enpresaburu handienek ezin sinetsizko soldatak sakelaritzen dituztela pasatzean: zenbaitek, beren lantegietako irabazi normala baino berrehun aldiz goragokoak !

“Hatsa gezurra !” “Gezurra gezurraren gainean !” ez da bertzerik aho-mihietan, moderatuenetan ere ! Gezurra indarrean sekulan baino gehiago. Enganatu dituzte denak, haur batzuk bezala ! Zenbat ez da gutartean ere burtsa horretan zuzenean ari denik ? Alabaina azken hamar-hogei urte hauetan zure diruak %10 edo 20 ekar ziezazukeen urtekal. Ez zuen balio bururik haustea : zu lo egonik ere, zure dirua lanean ari zen zuretzat !

Joan den irailaren hamaikan eta joan den astean gertatuaren ondotik, zenbaitek bederen, ulertu dukete istorio horrek ez dezakeela iraun. Gaurko media indartsuen gaintetik, gezur horrek hogei urte iraun baitu ez da guti ! Burtsa-joko hori betitik gaitzetsi dugunak hasiak ginen durduzatzen ez ote ginen bada idealista zozo batzuk, ikusiz zenbait lanik egin gabe dirua irabazten eta gu aldiz beti lanean eta beti berdin asto !

Iduri luke azken hogei urteetako garapena, handia izan dena eta ez bakarrik mendebaleko herrialdeetan, parte bat bederen artifizialki goratu dela. Diruak, berez, jendeari dirua erakartzeko ahala balu bezala. Ezkerreko jendea ere bide horietarat lerratua zen ! Zenbaitek nahiko zuten (ATTAC taldekoek, adibidez) burtsaren merkatu horri zerga bat lotu, herrialde pobreen laguntzeko. Horretarat bermatu dira batzuk sekulako karrarekin. Estimatzekoa da xedea. Baina ez dugu uste jendea burtsarat pusatu behar denik.

Ez gara dirurik gabe bizi nahi luketen ameslari huts haietarik eta bizitasuna laguntzeko edo lanbideak sortzeko, zerbaiterarat entseatzen denak irriskuaren saria ere merezi duela diogu. Baina burtsan irabazi diru errex horrek bazterrak usteltzen ditu. Elkartasuna hausten du. Hemengo lurren prezioen goititzea ere, parte, horren gain ezar daiteke. Jendearen eta enpresa tikien arrangura galarazten du. Irensten ahal balituzte denak, irentsiko

lituzkete ! Non eta nola diru gehiago irabaziko duten eta huraxe dute helburu bakar.

Politikagintzan aspalditik bi bide handi ikusten ditugu. Batak, eskuinaldeak orokorki, aberastasunak beti eta gehiago emendatzea du gidari, edozein gisaz izanik ere, berdin langileen bizkar. Bertzeak, ezker aldeak, aberastasunak banatu behar direla aldarrikatzen du. Bistan da ez direla gauzak hoin sinple eta salbuespenak ehunka aurki ditzakegula munduan zehar, bereziki azken denbora hauetan eskuina eta ezkerre elkarri hurbilduz joan baitira. Baina orokorki eta goraxkotik behatuz gero, bi bideak holaxe ager dakizkiguke. Eta preseski domaia da ezkerre (Frantziakoa eta Espaniakoa segurik) ez baita bere bideari jarraiki. Sosak denak burtzoratu dituela dirudi.

Ondorioz, zertan ote ditugu herrialde pobreak Afrikan, Hego Ameriketara eta abar ? Duela berrogeita hamar urte afrikar laboraria hemengoa baino 10 aldiz pobreagoa zen. Oraingoa, 70 aldiz pobreagoa da ! Eskualde osoak gibelerat ari dira, kolonizazio denboran baino makurrago ! Diruzaleen jukutriei badutela hor ikustekorik erran gabe doa ; horiekin, beti ttipienak eta ahulenak galtzaile. Lotsatzekoa balitzateke baina ez dugu barkatuko. Gero eta gehiago baitira sos-jokoaren kalteei ohartzen hasiak direnak.

Garapen ekonomikoa, ez finantza, baina lekuko laborantza, industrian, komertzioan eta zerbitzuetan finkatu behar da lehenik, herrialde pobreagoen funski laguntzea segurtatuz denbora berean. ■

Ohitura paregabea

2002-08-01

ALTZÜRÜKÜK joan den igandean eman digun pastorala aipatzen da xeheki barnaxagoko orrialdeetan, baina hemen ere zonbait gogoeta xume bederen jalgi nahi genituzke. Lehen-lehenik zer da pastorala : gertakari berezi bat ala ohituren saileko zerbait ? Menturaz biak batean daude hor bildurik. Gertakari berezia da, beti ederki emana eta lan ikaragarri baten emaitza delakotz. Ohitura ere da, urtero jokatzen digutenaz gero.

Ohitura sailean sartuz ez dugu nehola ere pastorala baten merezimendua apaltzen, goratzen baizik ! Ohiturei jarraikitzea beharrezkoa zaio herri bati, haietan kausitzen du gozorik iraunkorrena. Preseski, pastorala zaigu ohitura guziz maitagarria : behar dena berrituz, baina funtsez bere lege nagusiei, batzuetan dorpeak izanagatik, loturik doana.

Iaz, halako ikara bat bezala hartu gintuen, bi pastorekin, ez ote ginen sartzen ari, hemen ere, arrakastak bultzaturik-edo, euskaldunek zorigaitzez han gustukoak ditugun lehia higagarri-etengarri haietan barna ! Ez, ez da batere holakorik baieztatu. Iazkoa gertakari berezitzat joko dugu beraz eta ahantziko lehenbailehen (ez gaiak, ez lanak, ez antzezleak, baina biga izan direlakoa). Nehori mugarik ezarri gabe, Zuberoak pastorala bat urtero antolatzen badu, balentria guziz miresgarria dela jadanik erranen baitugu.

Baditu sekulako erakaspenak pastorala batek. Lehen, zuberotarren artean egiten baldin bazen gehienki, gaur holako lan itzelak Iparraldearen ekarpena baitezpakoa duke aitzinatzeko, irauteko. Hegoaldearen laguntza gutietsi gabe ! Badakigu lapurtarrek ez dituztela hain maite bertzeren euskalkiak, berena ederrena baitaukate ; baina ez ditugu erasiatuko horrentzat : baita sobera, bazterretan, beren euskalkiaz ahalge denik ! Eta hemen ikusten dugu indar baten egiten ere badakitela bertzei buruz joateko eta, gure ustez, baxenabartarrekin eta bertzeekin prest lirateke anitz gehiagoren egiteko ere, Zuberoaren alde, euskal botere zerbait bagenu gogo hori obratzeko.

Pastorala, erakustaldi zoragarri bat da, herritar guziak bildurik ematen dutena ! Baina ikasten ere duzu hor zerbait, gaingiroki bada ere ; oroimena harrotzen dizu, eta Historiaren gate luzeko partaide egiten zaitu. Gehiago oraino, bizi-nahikari baten eta arima baten ezaugarri bikaina ere da, ez baita guti, ugaztun huts bihurtu nahi gintuzketen oraingo diruzale eta jainkogabe-materialisten aurrean... Hortakotz dukegu beila (erromesaldi) izenaz ere jantzi batzuetan, bere sorterriaz baino urrunago duen arrakasta aipatzerakoan.

“Ürrütiko Peirot” Altzürükükoarentzat erranen dugu biziki gustatu zaigula. Gaia zen naski poxi bat ‘ahulagoa’ (ez baita beti ‘Etxahun’ bat bezalakorik izaten ahal eskumenean !) eta horrek oztopatu duke, beharbada,

goi mailarat heltze hura. Kantuak onak, dantzariak arras onak, jantzi batzuk paregabeak, kausitu ditugu.

Niko Etxarten lana gorestekoa da, bai idazle bezala bai eta kantu gidaritzat mailan. Ikasi dugu ere Altxürükük eman azken pastoralat 1907an zela, baina horko herritarrek maskarada andana bat ere jokatu dutela geroztik, urte hauetan bederen gutienez : 1925, 1933, 1938, 1951, 1957, 1963, 1968, 1972 eta azkena 1992(?). Erantsi behar dugu ere herri horretako bestek, aspaldixko honetan, gaitzeko fama dutela.

Nola ez aipa oraino bertze altxürükütat batzuk hainbertze entseatu direnak euskararen eta Euskal Herriaren alde, Eppherre-tar hiru anaiak bederen, hirurak goizegi zenduak ? Guillaume, kalonjea eta euskaltzaina, Zuberoako hizkuntzaren lantzailea ; Michel, Enbataren sortzaileetarik bat eta Gregoire apezat Mauleko ikastolaren abiarazlea.

Doala hemen oroitzapen ttipi hau ere. Mixel eta Gregoire-k, Euskaltzaleen Biltzar batez (duela 35 bat urte) eman zuten bi bozetan, apuñatik, “Basoilarrak kantatzen dizü” kantore ezaguna. Hain ederki non lerro hauen idazleak ez baitu ahanztekoa berari eta ingurukoei haiek orduan sortu zieten zirrara ! Eta bizi bedi Altxürükü, artisten lurraldean ! ■

Otsoak artzain

2002-08-29

AZKEN BERRIEK, tituluan ezarri hitzak jauzarazi dizkigute ! Hegoafrikan, Johannesburgo-n, bilduak dira munduko Estatuburuak. Garapen garbi, orekatu eta solidario baten behar gorrian dago lurra eta zer jakiten dugu : Bush, amerikar presidentea, ez dela beharbada batere joanen harat... Alta, denek badakigu gizon hau dela zinezko 'artzain ona' beti 'ongiaren' aldekoa eta 'gaizkiaren' etsaia !

Egia erran, ez gara harritu : aitak (Bushenak) errana baitzuen jadanik Rio-n (1992an) bere herritarren bizimaila ez zela eztabaidagarria eta semea aitaren ildo beretik baitoa, okerrago ez bada ! Oroit, munduko kutsatzaile handienak direla estatu batuarak !

Alabaina badakigu lur hau zoin gaizki dabilkigun. Hamar urte gailurrak biltzen direla, han edo hemen, eta erabakiak hartzen ere, baina erabaki horietarik arras guti obratzen dela ! Egoera gero eta larriagoa ari da bilakatzen. Aurten ukan dugun udarekin eta Europa erdialdean ikusten ditugun uholdeekin jendea hasia da zinez grinatzen : badela zerbaiz makurturik eta makurtu dena gizonaren faltaz datekeela !

Bada zinez kezkatzekoa : liberalismoaren ausartzia lotsagarria da, martxan ezarri duen tresna ez baitu menperatzen ! Egin eta egin, sal eta sal, goza eta goza, erre eta erre, kutsa eta kutsa, ez du mugarik, munduaz jabetu da, otsoa arditegi bezala !

Brasilen, hamabortz milioi hektarea oihan balios suntsitzen dituzte urtero eta ez dezakete geldiaraz horrelako oldea. Aireari botatzen dizkiogun gasak beti emendatuz joaki dira. Batzuek diote biosferari egin kalteak ezin zuzenduak direla jadaneko. Basamortua hedatzen ari etengabe. Jendetza ere emendatuz doa, bereziki eskualde pobreenetan, baina herrialde haiei doakien laguntza murrizten ari diete urtetik urterat, erditaratu baitiete hamar urtez ! Beharrak emendatuz eta laguntzak ttipituz !

Aberatsenak aberastuz doaz eta, ez bazaigu beti iduritzen ere, aberatsenen lerro horretan gara gu ere euskaldunak. Aitor dezagun halere, bere estakuru guziekin, Europa indar ñimiño batzuen egiterat bederen entseatzen dela eta zinez Estatu Batuetako buruak direla egiazko soraioak ; buruak diogu, zeren-eta, erran behar baita, Ameriketara aurkitzen ditugula lurraz, aroaz, ekologiaz egiten diren ikerketa interesgarrien egile indartsu batzuk ere.

Eta Euskal Herrian ? Hemen ere otsoak artzain. Hegoaldean segurik giroa samin. Madrilgo otsoak ez du urratsik ttikiena ere egin nahi euskal auzia zuzentzeko. Isilik egotea edo ekintza baten ez kondenatzea delitu bihurtu digute, ez baikenuen holakorik ikusirik oraino Historia guzian ! ETArekin zimikoez balia, euskal gizarte guzia begietan daukate orain. ETak,

zazpi eginahalak egin eta egiten ditu gertatzen dena gerta dadin. Haren ametsa, abertzaleak bortxaz bereganatzea, haiekin ados ez izanik ere : nork onar dezake Batasunaren legez kanpo ezartzea ? Ordea, jokabide horri, salbaia izateaz gain, jukutria dario, eta hola euskaldun batzuk bidean galtzen ari gara, etsipenez.

Iparraldean ere gure jateko prest diren otso eskasik ez da ! Baina otsoak utz ditzagun istant bat eta goazen, bururatzeko, etxebizitzaren eskasiaz hitz bat, hemengo arazoetarik bat baita. Laborantzako lurrak gerizatu beharrez (POS delakoen bidez) etxe egiteko lur eskaintza ttipitu da eta, horrek ere, prezioen sutan goititzea eragin du. Horra beraz egintza iduriz arras onaren infrentzu latza ! Nahiz frantses legeek traba gaitzaketen, POS horiek aldatu behar genituzke, herrian sortu jendeari bederen etxebizitza segurtatzeko gisan. Baina ez nola-nahika eraiki, ez bailuke xede on horrek bilakatu behar kanpotarrak sarrarazteko tresna, gure nortasun jadanik hain ahulduaren suntsigarri !

Hots, betiko arazoa : jadanik turismoaz eta industriad gauza ber-berak erran izan ditugu. Xede hobereak kaltegarri gerta daitezke egiazko euskal botere bat ukanen ez duguno ; guhauren lehenik eta gureganat bizitzerat heldu direnen euskalduntzeko gaitasun osorik izanen ez duguno. ■

Egoera ezin gehiago nahasia

2002-09-26

ZUZENGABEKERIA ozarki hedatzen ari zaigu azken denbora hauetan : lehen nolabait gordetzerat entseatzen zirenak orain agertzen baitituzte lasai ! Beha dezagun Paponen presondegitik ateratzeari. Eri omen zen, ohea utzi behar ez den heinean, medikuen arabera. Baina hara, presondegitik jalgitzen da xutik eta nehoren laguntzarik gabe, munduko kamera guzien aitzinean !

Ez ezazu uste ukan, zuk irakurle, Paponen etsai judu amorratu bat duzula lerro xume hauen idazlea. Ez, jadanik errana du hemen berean (Enbata 1997-10-23) gizon hori ez dela bertze batzuk baino askoz hobendunagoa ; oroit gaitezen denbora haietaz : erantzukizun kolektibo okaztagarri baten ordezkaria dateke Papon oroz gainetik. Horren aitortzeak ez digu, haatik, haren osasunaz pentsatzen duguna kanbiarazten...

“Gizona gizonarentzat otso” dio errankizunak eta gertakariak, maluruski, hori egun guzietan egiaztatzen digute. Oroit, 39-45eko gerlan, frantses ihardukitzaile miresgarri izanak ziren batzuk nola bilakatu ziren torturatzaile higuinagarri Algerian ! Alemanak bezain makur edo makurrago jokatu baitziren ! Ez otoi erran hori frantses astokume zonbaiten istorioa denik ! Beha juduei ere nola dabilzan: hoinbertze pairatu dute alemanengandik, holako berpizkunde zoragarria burutu dute beren herrian, eta ikusazue gaur nola jokatzen diren palestinarrekin, denak lehertu beharrez ! Eta hori dena mundu guziaren aitzinean, batere ahalketu gabe, hastean genioen bezala. Holako jokaerak zer kalte psikologikoak eragin ditzakeen, nork asma ere dezake ?

Eta Euskal Herriko egoeraz zer ? Batetik Garzon epailea dabilkigu betiko jukutrietan, ez baitakigu gehiago legea haren eskutik aterako den ala legebiltzarretik ! Bertzetik, ETA eta haren ingurukoek odolean baizik ez dute sinesterik. Denen artean, egoera korapilatu digute, nahasi eta ulergaitza bilakarazi. Garbi dena, Madrilen aldetik, badela hor jokabide zorrotz bat Euskal Herria belaunikarazi nahi lukeena. Baina bertzeak ere ez dabilza hainbat sanokiago, guziak haiei segitzera hertsatu nahi gintuzketelarik...

Berri hitsen artetik atsegin handiz eskuratu dugu irail honetako “*Pour la science*” agerkari zientifikoa. Hunen arabera, badirudi azken duda-mudak itzali direla eta aldebat frogaturik dagokeela gaur euskara Europako hizkuntza lehena dugula. Duela hogeita eta zenbait mila urte, azken izotzaldian, jendea Pirinioetarat bildu zen, hemen aroa epeltxagoa gertaturik. Horrela finkatu zatekeen nolabait euskal populua.

Izotzaldia bukatzean, jendea hemendik berriz barreiatu zen Europa guzirat. Gaurko Frantzian, Alemanian, Italian eta abar, berbereen herrialdeak barne, euskararen arrastoak aurkitu dituzte bereziki ibai izenetan edo hogeinaka kontatzeko maneretan. Baina azken duden kentzaile egiazkoa

izan da ADN eta ‘*génom*e’ delakoen ikertze xehetik datorren emaitza. Hizkuntzalaritza eta biologia ikerlanek elkar osatuz eman dute beraz segurtamen kasik burtzoragarria...

Holako berri onaren ondotik zer erran ETArekin jokamolde nehork ezin onartuzkoez eta Aznarren ihardespen idor berdin arbuigarriez ? Nehork ez dezake uler gure kasua : abertzaleek gehiengoaren duten lekuan beren arteko talde batek borroka armatua segitzea. Are gehiago, indar abertzale horiek guziak bat eginik zeudelarik Lizarra-Garazi bezalako asmo ezin ederragoan. Gehiengo motelenak ere baduke, alta, talde bizkorrenak baino indar gehiago. Eta, dudarik gabe bertzerik ezinean, nahasketa sumindu dute ! Ondorioak orain ? Nehork ez daki zer aterako den. Aitzinamendu zerbait, handik edo hemendik, nola edo hala ? Ala gibelerat, amets, autonomia bera kolokan jartzerainokoan ? Gu beldur, harrabots anitz eta gero tirrit izanzen dela.

Guk, lan eginean dugu sinesten. Lan egin, zuzentasuna bilatu eta bereziki indar abertzaleen batasuna bilatu. Ordea, ez da neholara ere batasun iraunkorrik egiten ahalko euskaldun batzuek armak eskuan, bertze euskaldunei, beren ikuspegiak inposatu nahiko dizkietenok. ■

Elkarrekin bizitzeko deia

2002-11-07

AZKEN URTE HAUETAN bazterrak gogortu dira Euskal Herrian, bereziki Hegoaldean, gerla hitzak eta oro entzuterainokan ! Ondorioz, badirudi, euskara gibelka abiatu zaigula ! Bai jaunak eta andereak, gibelka ari gara eta ez da hau artikulugile etsitu baten intziria ; zifrak hor dira, Euskaldunon Egunkariak dakartza, larri bezain gogoetagarri, 2002ko urriaren 29ko zenbakian.

Egia da eskola mailan, haurren eta gaztetxoek hezkuntzan, gauzak hein batean doazela, denik ere euskaraz ikasi nahi dutenen kopurua beti goiti ari dela. Baina ez da gauza bera gertatzen adinekoen euskalduntze-alfabetatzearen inguruan. Euskaltegiek 12.500 ikasle galdu dituzte azken zazpi ikasturteetan ! Egoera kezagarria dugu hau eta behekitze hori 1996an hasi bazen, azken bi urteetan du egin bere jaiste handiena. Zifra txar horien artean behar dugu agurtu Iparraldeko AEK, ezen hau da, euskal lurraldeetan, hobekienik ihardukitzen duena, heintsu berean baitago, eta aurten goititze ttipi bat ere egin baitu ; beharbada eskuratu dituen laguntza berriei esker.

Dena den, arrazoi bat baino gehiago badateke behekitze orokor horren eragile. Halere, iduritzen zaigu egoera politiko hits baten ondorioa dela kausa nagusia. Aspaldi du gibelerat ari garela hauteskunde emaitzei behatzen badugu segurik. Duela hogeita bat urte, Euskal Autonomia Erkidegoan kasik bozen hiru laurdenak biltzen genituen ! Beha zertan ziren PPkoak edo horien aitzinekoak orduan eta ikus orain non dauden ! Gibelatzeko horretan euskal ezkerra da galtzaile handiena eta nola hura baita euskalduntze lanean gehienik jokatzen dena, ez da harritzeko beherakada politikoak euskalduntzearena ere erakarri badu... Autokritika bat noiz eginen duten zain gaude, hobekien guziak beti bertzeren gain emateko partez.

Eta egoera politiko hau noiz hobetuko ote zaigu ? Elkarri-ren Bake Konferentziak ez du lortu nahiko zuen bezainbat, nahiz eta urrats baliosak izan, beti, gisa horretako entseguak. Batasuna lege kanpo ezartzeak nahasi duke afera, jadanik hain korapilatua zena ! Bi aldeetako muturkariak ez dute oraino entzun elkar bizitzarako deia, euskal jendeak aspalditik adierazia eta berriak iritzi biltze batek baiesten duena, bizkitartean ! Nahiago dute gudukatu. Noiz arte ? Elkarriketa batzuk ba omen daude indar politikoen artean ; hala zioen astekari hunek joan den astean. Ageriko zer aterako duten.

Erran dezagun segidan, espainolisten jokabideak ez gaituela hainbat harritzen. Betidanik bagenekien Espaniarekilako harremana gogortuko zela, euskaldunak burujabetasun bidean aitzinatu arau. ETAren elkortasunak gaitu harritzen. Nehun ez du begirunerik biltzen jokabide horrek eta genituen adiskideak urrunarazten dizkigu. Aldiz palestinarrek, adibidez, adiskideak badituzte orotan eta irlandarrek ere badute laguntzailerik. Zertako haiek bai

eta guk ez ? Gu garelakotz, EAEn, askoz ere bertze herrialde horietan baino egoera hobeagoan, aitzinatzeko ahalekin, bereziki indarrak batuz geroz.

Iraultza batzuk goretsi ukan ditugu hemendik behin baino gehiagotan eta gaurko mundu ekonomiko jendetasunik gabeak baluke, eiki, iraultza egiazko baten beharra eta atzo baino gehiago gaur... Baina ez dugu gehiago sinisterik bat batean guziak aldatuko lituzkeen iraultzan. Iraultza arrunt horiek, gutiz gehienak, gaizki bukatu dira eta sobera aldiz askatzaile sutsuenak menperatzaile bilakatu dira.

Eguneroko lanak, herriaren eta herritarren maitasuna gidari, emeki emeki izpirituak alda ditzakeen militantzia jarraiki hartan dugu bakarrik sinesten. Bide horretarik, Ibarretxeren proposamenak ontzat dauzkagu. Ez dugu uste zaluago joan daitekeen. Gure helburuak argi atxiki behar ditugu, baina etapak onartu ere bai, lurraldeen arabera.

Goazen herriarekin urraska. Gaurko egoeran, indar abertzaleen suspertzeko biderik hoberena dukegu. Eta berriz indartzen bagara gutxiengoen errespetatzea ere errexago egingen zaigu. ■

Biharko euskaldunaz gogoetan

2002-11-21

EDOZEIN KAZETA har dezazun ala telebista ideki, ez dezakezu aurki bortizkeria gabeko berri hedatzailerik. Denek, gisa askotako indarkeriak, burrustan begien bistarat ekarriko dizkizute : senar-emazteen arteko tira-bira ; haurren arteko kiskilkeria ; emazte eta haur bortxaketa, eta abar. Ez ditugu bortizkeria hauen artean ahantziko, bistan dena, bortizkeria sozialak, zinezko bortizkeriak baitira, hemen maiz aipatzen ditugunak.

Lehengo gizartea gogorra zen, bizitzeko moldeetan ala solasetan : orain erraterat sekulan mentura ez gintezkeen ahalpaldiak botatzen zituzten ! Baina gaurko jokabidea ez zaigu hobe, zinikoa kausitzen dugu. Gezurra izanik ere, eta gezurra dela jendeak badakiela jakinik ere, aitzina aurpegirat botako dizute hala ez dena : batean enpresen arteko lehiaketa aitzakiaz jantzirik edo bertzean libertatearen estakurua aitzinatuz... Bortizkeria beti izan da eta beti izanen naski, guti edo aski. Berria dena, gaur plazaratzen direla lehenago gorderik zeudenak. Hori hola izanik ere, guk uste dugu bortizkeria goiti ari dela.

Orokorki goititze horretan bi kausa handi ikusten ditugu. Lehenik, langabeziak dakartzan miseria eta lan segurtasunik eza. Familia batek, irauteko, hein bat egonkortasun behar bailuke. Bortizkeriaren bigarren iturburua dela erran genezake, prentsa eta zinema odoltsu indarkeriaz eta sexuakeriaz oratuek, sortzen duten ‘oro haizu’ delako ustekeria. Harritzen gaituena da zenbat jende isilik dagoen holako izurritearen aurrean. Eliza katolikoa bera ere zein motel dabilen ; beharbada berak ere aski lan baduelakotz bere ardi beltz zenbaitekin ?

Ez uste ukan irakurle, Sarkozyren sator bat duzula hemen Enbatako lurretan sartua soropil andeatzaile ! Gure solasak ez du ministro horren politika neholara ere baiesten. Argi eta garbi diogu miseria dela bortizkeriaren iturri nagusia. Miseria hori ezin jasana da denetan eta areago naski dirua ihaurri dabilen eremuetan kausitzen delarik ! Horrengatik, ez dugu isilduko gogo nahasle eta bortizkeria sortzaile zaigun bertze usaia berri bat, zaila bada ere hartaz hitzegitea, moralismo soberakinetik eskaserat pasatua den gizarte honetan. Hau da, erotismo mugarik gabea bistan da, baina ere eguneroko probokatzaile hura ere. Jitez ahulenek edo ahulduenak nola iharduki dezakete hoinbertze kilikaren aurka ? Gizabanakoaren libertatea behar-beharrezkoa dela goraki diogu. Horrenbertzez, etika serio bat aipatzearen behar gorria ere sumatzen dugu bizimolde sanoagoko bat bideratzeko, libertatea eta sasi-libertatea arinkiegi nahasiko ez dituen. Etsenplu bat hartzeko, ez da egundaino izan orain bezainbat argitasun sexualitateaz baina jendea argituago eta bereizte gehiago bikoteen artean. Maitasuna eta ‘maitasuna egitea’ itsuski nahastekaturik daramazkigute.

Euskal gazte erradikal batzuk badabilzkigu borroka armatua lehenetsiz etsaiaren herra bultzatzaile. Ikastolako gaztetxo batzuk ere ez dira azkenak “Gora Ben Laden”-ka aritzeko ! Bertzelakoa zaigu iMUVRINI taldearen bidea azaro hunen 4an oraino azkenik Miarritzen erakutsi diguna eta zer arrakastarekin ! Horra hor gustatzen zaigun eskuzabaltasuna aitzindari ezarria ! Goresmenik bizien-bizienak dizkiogu Bernardini poeta bihoztun handiari. Herrialde menperatuen oihartzunlari bikainak segi dezala beretik !

Giza-eredurik ez da finkatzen ahal, gizartea beti aldatuz baitoa, baina ez ote genuke bederen eztabaidatu behar zer gogoko jendea nahi genukeen biharko, jasaten dugun egoera politikoak hausnarketa hori zailtzen badu ere ? Zer eskatuko lukeen bide horrek bakoitzari ? Euskaldun zaharrek bazuten geroaren griña, sekulako sakrifizioak onartuko ere zituzten segida nolabait segurtatu beharrez. Nun dabilta gaurko gure intelektualak gai horiei buruz ? Giza-eskubideak bai, ederki, baina eginbideak aipatzerakoan gure mihiak moteltzen dira ! Zer ez dugun nahi azaldua dukegu.

Nola irekiko dugu ordea etorkizuna, biharko euskalduna zein izpiritutan nahi genukeen ikusi aitzinatzen asmatu ere gabe ? ■

Aupa BATERA !

2002-12-19

ZER ARRATSALDE ITXAROPENTSUA iragan duguna joan den larunbatean, abenduak 14, Baionan, Merkataritza Ganberako aretoan ! Gonbidatzaileak hauek ziren : Euskal Konfederazioa, Euskal Departamenduaren Aldeko elkarte (ADPB), Euskal Departamenduaren Aldeko Hautetsiak (AED), Euskal Laborarien Batasuna (ELB) eta Unibertsitateko ordezkari batzuk.

Bilkura arras ongi antolatua zen eta emankorra izanen dela uste dugu, jendearen txalo beroek garbiki erakutsi nahi zuten bezala. Kanpaina luze eta azkar bati hastapena ematea zen helburu, BATERA deituko dena. Lehen manifestazioa otsailaren lehenean, Baionan. Hautetsi andana baten inguruan, bilduak ginen hor, gorago aipatu elkarteez gain, bertze 20 bat elkarte, euskaltzain, gazte eta adineko andana bat.

Lau eskakizun erdiesteari buruz bilduak ginen : Euskararen Koofizialtasuna, Euskal Departamendua, Euskal Herriko Laborantza Ganbera eta Unibertsitate erabakitzailea. Argi eta garbi erakutsia izan da hor euskaldunen nahikundea lau instituzio horiek eskuratu arte ez dela isilduko. Euskal Konfederazioaren edo ELBren solas indartsuak ezagutzen genituen eta errotik bat gaude haiekin betidanik. Baina azpimarratu nahi genuke hemen hautetsien mintzaldiak ez direla motelagoak izan ! Aspaldi du errana dugula hautetsi andana batek euskal militantziarekin bat egiten badu esperantza beti haizu izanen zaigula.

Bakoitza geure iritziarekin gabiltza. Alderdi politikoak ala gu Enbatan berdin, bertzeak bezala, huni edo hari emanez lehentasuna. Lau eskakizun horietarik bakoitza guziz garrantzikotzat daukagu eta zinez bozkariatuko gara horietarik bat, edozein, etortzearekin. Bertzalde, lau eskakizun batean aitzinatzeak bistan da jende gehiago martxan ezartzen duela eta hori ere garrantzizkoa dela. Baina gu beti berean gaude, behar-beharrezkoa duguna, hura gabe ez baitezakegu egin aitzinerat, Euskal Departamendua da. Gainerat, gaurko 'dezentralizazio' aroan ezin hobeki sartzen da, hain ontsa nun dezentralizazio gogoetak funski hasi ere baino lehen ezezka lotuak baitzaizkigu gure gobernariak...

Hala da, lotsagarria da gure gobernarien buruzkinkeria. Beti eza, Euskal Herriko gehiengo batek, hautetsien gehiengo batek eta bertze hainbertze puntuk zuzenesten dutenari.

Lotsagarria bada Parisko buruen jokabidea aitortu behar dugu Biarnoa ere ez dela oraino behar bezala atzarri. Alta guk bezain beharra lukete han bere-berea luketen departamendua. Halako nortasuna zuen auzo-herria politikari batzuek azpian daukate, gaurko departamenduko gehiengoa izatearen lilurapean.

Nola ez aipa Bayrou, hizkuntzen aldetik guri hurbil dabilena baina bi departamendu berri egiteari aher dagoena beharbada Biarnoa zinez iratzar dadin beldurrez ? Labarrère hura berriz nun ezarri behar genuke hain da lotsagarria haren jokabidea : 1980an Euskal Departamenduaren alde agertu ondoan, orain haren kontra botatzen dituenek ez baitute itxurarik ere : traidore baten ele-mele dira hondarkinetarako gai ! Gaude zinez, azken batean, batak ala bertzeak ez ote duten ipurdia lastoz beren herriaren eta hango mintzairaren alde egin ez dutenaz oroitzean...

Baina Euskal Herrian ere ez dira hodei guziak barreiatu. Larunbat arratsean berean atentatu entsegu bat izan baita ! Batzuek eraikia bertzeek desegiteko dudarik gabe ? Badu hogeita hamar urte abertzale batzuek hitz gogorak erabiltzen dituztela departamenduaren kontra : ez baita harritzeko Mitterrand eta Defferrek ukatu bazuten haren sortzea : aise egin zuten, gure batasunik eza ikustean ! Oraino ere, xede horren “ahuleziez”, zinkurina batzuk heltzen zaizkigu.

Agian agian, heldutasunak gaina hartuko du, Euskal Departamendua ez baita ‘gainetik finkatu’ bertze departamendu arrunt baten parekoa izanen, baina herri atzarri batek eskuratua herriaren beharrei ihardesten hasteko. ■

Otsailaren lehenari buruz

2003-01-16

GIRISTINOEI, ez aspaldi oraino, irakasten zitzaien kristau on izateko ‘munduari’ ihes egin behar zela. Bide hori areagotzen zuten, apez edo serorentzat : haiei gehiago galdatzen baitzitzaien (baitzaie, oraino ere, funtsean) beren gizontasun edo emaztetasunaren parte bati ere uko egitea ! Iduri luke, ‘mundua’ gauza atsegin galgarritz betetzat zeukatela soilik ! Egia da, guzien Aitzindariak anitz pairatu zuela bekatuen erospenarako...

Bertze batzuek berriz uste ukan dute, eta zer karrarekin gainerat ! erlisioneak gizonaren lokarrarazteko joko bat zela eta mundua antola zitekeela zientifikoki, gizakiak nahi ukan edo ez ! Zioten, aberastasun mailak ezeztatu behar zirela eta “Gizona gizonarentzat otso” izateko partez, bata bertzearen heineko izan gintezkeela, gizona tinko hezirik horri buruz, ardi umil izan zedin, artalde laño, aker beltzik gabekoan...

Egungo ekonomiarekin gaudela, bihoz dunak badu atxik-ahala hoinbertze zuzengabekeria ikusiz denetan, aberastasunak gaindika dabiltzalarik denbora berean. Baina horiek nun dituzte erroak ? Zeren erro asko baitaude... Handi-mandien jukutriak betikoak dira eta ez da dudarik gaurko ahal berrien bidez makurrak biderkatzen dituztela. Galizian gertatu den ezbeharrak, “*Prestige*” gaizki deituaren hondoratzeak, bere ondorio latzak guganaino hedatzen ari ditu.

Bada bertzerik ere zointan denek parte hartzen baitugu, guti edo aski... Egia handia bada ere puxantek diruaren irabaztea dutela helburu bakar, erran behar dugu, gu ere ez ginatekeela ahalik gabe, gure xilkoa (zilborra) baino urruntxago behatzeko nahikundea bagenu : indar handia eskuan daukagu, ekonomia kontsumitzaileen baitan finkatua delakotz oroz gainetik.

Baina erosleak zer nahi du ? Gauza ahalik eta merkeenik erosi ; hala egin behar duela artoski erakutsia zaio azken hogeita hamar urte honetan bederen. Eta saltzaileak ere berea atxiki nahi, konkurrentziari ihardukitzeko, ahal bezain merke eskainiz bere materiala, eta hortakotz zernahitarako prest da, azpi-joko itsusienak asmatzeraino : puskak atzerrian erosi, lana langileak merkeago ari diren lekuetan eginarazi, ekologiaren axolarik gabe bistan da ! Ez dakigu noiz arte iraun dezakeen holako sistema eroak, denak merkatuaren arabera bihurturik eramaki gaituenak.

Badakigu beraz mundua zoin bortitza den. Badakigu gizonak bere sinesteari jarraikiz beharko dituela bilatu nolabait bere bizitzeko arrazoiak, amets handiegieta bere burua enganatu gabe batetik eta bertzetik sukalde xokoraino heltzen zaizkion berri ikaragarriek lotsarazi gabe. Zenbaitek ez dute behatzen ere berriketariei, ezin jasanak baitzaizkie ! Bertze asko aldiz, hor daude, sor eta gor bilakatuak : informazio soberakinak soraiotu balitu bezala... Zerga soberakinak zergari kalte egiten omen dion gisan edo, gorago

erraten genuena, jendea osoki gerizatu nahikeriak, geriza galaraz dezakeen gisan... Eta hor gainera genezake, eztabaidagarria bada ere, ETArek borroka bortitzegiak Euskal Herrian PP sustraitu dukeen bezala...

Munduko bertze borroka askori loturik, badugu Iparraldean gure borroka berezia, jakobinoek altxatu diguten errefusazko pareta higuinarekin... Deneri eza deblauki : euskal departamenduari, euskararen ofizialtasunari, eta abar. Ori, pairatzeko, ez dugu guk mundutik urruntzearen beharrik !

Baina oroit gaitezen “paretak” erortzen direla noizbait ; Berlingoa erori denean, gure aitzineko hori ere eroriko dela. Baina hura ez zuten bortizkeriaz suntsitu... Jo aitzina beraz demokratikoki, eskuzabal eta gogozabal, iraupenerako bideak bilatuz, etsaiak, jokabide ilunetarat gure lerrarazteko irekitzen dituen zepoetan erori gabe. Lana eta borroka (Aupa euskaltzaleak eta otsailaren leheneko manifestazioa !), besta eta kitzika neurtua (Aupa ihauteriak eta Demoak !), goazen gure inguruak higiaraziz : jende uholdeak pareta ahalkegarri hori uzkaile arte ! ■

“Esperantzari leiho bat ireki”

2003-02-13

GARBIKI MINTZATZEKO ez dakigu gerlarik egin behar den ala ez Saddam Hussein diktadorearen kontra. Lehenik, ez baita frogatua arma kimiko eta bertze badauzkala mundua mehatxatzen dutenak. Bertzetik berriz Saddam Hussein ez baita diktadore bakarra munduan bere aulkitik kentzea merezi lukeena... Baina bada arrazoi sakonagorik. Amerikanoak libertatearen alde jokatu dira luzaz baina orain beren sistema kapitalista, lekuan lekuko ekonomien eta bizimoldeen suntsitzaile dena, bazter guzietan sakatu nahiz ari dira. Ez dute eskubiderik mundu guzia beren gogoaren arabera plegatzeko.

Giza Eskubideen mailan ere ez diegu konfiantzarik egiten, Estatu Batuetako askatasun famatuak sobera alde ilun baitauzka, azkarrak ahula irensteko ahala, bertzeak bertze, neholako trabarik gabe ! Hor dago ere haien armazetasuna eta herio zigorra, preseski Bushek praktikatzen duena bertze nehun baino garrazkiago bere jatorrizko Estatuan ! Ez dugu ahortzi behar Estatu Batuek ez dutela sinatu Kyoto-ko hitzarmena kutsadura ttipitzeko. Eta nola ahortz munduan gaindi egin dituzten sarraskiak : handiena Vietnam-ekoa baina ere bertze hainbertze ‘zikinkeria’, bereziki Amerika Erdian eta Hegoan, zuzenean edo azpi ?

Zinez harrigarria da ere, kasik ezin sinetsia, joan den astean zabaldu den berria. Duela zenbait denbora Tony Blair ari izana zitzaigun heiagoraka eskuan zituela Saddam Hussein-en kontra gerla egitea zuzenesten zuten frogak eta horra nun jakiten dugun ez dela neholako frogarik baina ikasle batek, duela hamar bat urte, egin tesi bat, norbaitek, nunbaitetik, nolabait atera dukeena eta lehen ministroak erreberoa bezala xurgatu dukeena ! Hori ez bada ezin sinetsia... Aspaldi du ikusten ditugula politikariak zernahi gauza mota erraten (eta ez bakarrik hauteskunde kanpaina kari) laster gezurtatuak direnak eta frangotan gezur huts direnak haste-hastetik... Baina ez ote ditu hunek guziak gaintitzen ?

Zer, munduko Estatu armatuena gerla pizterat doan honetan eta haren sustengatzeko gisa horretako petentakeria bat zabaltzea, gehiagoko funtsik gabe... Lehenago ingelesak biziki onak omen ziren xehetasun bilketan, espioitzan eta abar. Munduko gobernuburu indartsunetarik dugu oraino ere Tony Blair : nolaz bada erori da holako haurkerietan ? Halako estimu izpi bat atxikitzen genion gizon horri Ipar-Irlandan bakeari buruz abiatu urrats batzuegatik. Oraingotik bertzeekin lerrokatuko dugu hoberik egin dezan artean bederen... Zer pentsa ere Txekiaz amerikarren ipurtik jarri dena duela doi-doia Vaclav Havel agurgarritzat geneukanak gidatzen zuelarik alta erresuma hori ?

Gerla pizten bada aberatsen gerla izanen da. Azkarrenek egingen dutena, berek hautatuko duten egunean eta moldean, kasik josteta bat balitz

bezala... Amesten ahal duguia holako jokamolde batek ukan ditzakeen ondorioak bazterretan? Gerla denboran zibilak dira urrikkalgarrienak, hobengabeak direlaketz. Baina jendeen gogoetan ere zer geldituko da? Ezin neurtuzko ondorioak ukan ditzakeen gerla bat bultza daitekeela, indartsuena den ber, estakuru batzuk aitzinatuz eta egiazko arrazoiak gordez? (Petrolio, eskualdeko nagusigo, eta abar.)

Gazteak ere gero eta berekoiago ari omen dira bilakatzen. Nola nahi duzue izan dadin bertzela? Nun dute eskuzabaltasunaren erakuslea? Are gehiago goresgarri zaizkigu Euskal Herriko gazteak hoinbertze baitira oraino bermatzen direnak beren herriaren eta herritarren alde. Denek gogoan dugu joan den otsailaren leheneko Baionan egin den manifestazio miresgarria: gazteak izan baitira hor akulatzaile bikain... Eguraldi txarrak han zirenen merezimendua azkarki emendaturik, Batera-k esperantzari leiho bat berriz ireki diola uste dugu. Ihauteriek ere indarberri gaitzatela, omorez baina beldurrik gabe gizartea zirikatuz, horretako ere baitira ihauteriak... Eta ez ahantz 26an berriz ere gomita dugula Baionarat, Kontseilu Nagusiaren egoitzaren ingururat... Mundu zabaleko gertakariak hunkitzen gaituzte, baina lana, herrian berean hasten da. ■

Belatzen garaia

2003-03-13

HORRA BERAZ Euskaldunon Egunkaria hetsi digutela. Ezin sinetsia baina egia. Noiz arte? Nehork ez jakin. Espainol ‘demokrazia gazteak’ ala frantses demokrazia zaharrak, deblauki zangopilatzen dituzte euskaldunen eskubideak (euskararen eta Euskal Departamenduaren kasuan, bertzeak bertze). Ez ahal dugu errate beharrik gure sustengu oso-osoak ekartzen diogula euskarazko egunkari bakarrari. Funtsean, hamar izan balira ere berdin-berdina eginen genuen. Ez izanik ere beti ados hor ematen zaion lehentasunekin, Iparraldetik behatuta, adierazpen askatasunari atxikiak gara, bereziki jendearen duintasuna errespetatua delarik. Beraz, argi eta garbi nahi dugu berriz ere gure elkartasun osoa agertu Egunkaria-ko zuzendari eta langile guziei.

Zertako ez dugun adiskide gehiago, Euskal Herritik kanpo, debekatze horren gaitzesteko? Huna bizpahiru arrazoi. ETAk inguru guziak okaztaturik dauzka eta, euskaldunek ez dugulakotz aski ozenki salatzen jokabide hori, militante guziak zikindurik gelditzen gara nolabait. Hots, euskaldunak ez dira oraino ohartu gizon baten biziak munduko agerkari guziek baino gehiago balio duela.

Eta gero, Euskal Herria ez da azken hatsetan: hala balitz sekulako sustenguak ukanen lituzke non-nahitik. Preseski, onik behar balitz ikusi makur handi horretan, haxe litzateke: debekatze horrek erakusten dukeela bizitzeko eta hori baino gehiago bizirauteko ahalak ere izan ditzakegula. Bertzalde, Euskal Herriak, Hegoaldean nabariago, bere nortasun nazionala piztearen gainerat gizarte sozialagoko bat ere badakarkeela bere baitan, marxismo hotzean erori ez diren ezkerreko abertzaleen bidez.

Baina mementoko, iduri luke bi buruetako gogorrenak gaina dutela, Espainiako inperialistek eskuin eta ezkerrekoek (horien gurasoak ez hain aspaldi gerla zibilean buruz-buru zebiltzalarik alta) batzen dira eta Euskal Herriko iraultzaile bortitzenek ere eskuratzen dute beren gisako uzta: euskaldunak, nahi ala ez, beren ildotik lerrokatzea. Egunkariaren kasuan euskaldunen batasuna egin da; Pagazaurtuondoaren inguruan espainolistek ere berena egin ondoan.

Gatazka ez dago gainditurik. Zenbat, ez urte, baina belaunaldi beharko ote dira bakean bizitzeko lurralde berean? Hobeki gustatzen zaizkigu katalanen urratsak, Quebec-eko oihartzunak eta are gehiago flandriarren lorpenak, odol xortarik isuri gabe beren hizkuntza eta kulturak piztu eta indartu baitituzte.

“Hartzaroa” edo naturaren berpiztea errespetatu gabe, belatzen garaia dugu beraz Euskal Herrian eta munduan gaindi berdin... Ekialde Hurbilean sekulan bezain idorki ari dira: palestinarrek, ezinbertzez-edo, atentatuitsuak eta Sharon-ek ihardespak zuzenduak (?) baina berdin odoltsuak!

Bush eta bere inguruko belatzak ere gerlarat abian dira, ikaragarritzko indarrak martxan ezarririk beren nagusitasuna finkatu beharrez. Denbora berean Nazio Batuen erakundeari ostiko bat ederra ematen diote, halaber Europako batasunari. Horiek guziek kalte handiak eragin ditzakete geroari buruz. Bush, bere kristau sinestearen (?) arabera doala diote, Aita Sainduaren bakezko deiari neholako kasurik egin gabe haatik... Nahiz ez diren eliza bereko, gertakari hunek oroitarazten digu Manex Pagolaren kantu batek zioena : “Karlomaño handia, Aita Saindu nahia...”

Belatzen artean ez da errex bake bideak irekitzea. Egia da, ez garela edozein bakeren aldekoak, errepikatua dugu aski aldiz. Chirac-en jokamoldeak (gibelasmoz betea bada ere, goresgarria dela aitortu behar baita) frantsesen jazartzea epeldu duke (alderantzizkoa gertatu baita Espainian, Erresuma Batuan eta Italian). José Bové entzun dugu arras argiki eta gizonki ; baina bertzerik ere igurika genezakeen... Nork daki zeri buruz goazen orain eta nola aterako diren lehen-lehenik kurdoak, gu bezala Estatu batzuek zatiturik dauzkatenak, baina eremu batean bederen beregaintasun zerbait eskuratua zutenak duela dozena bat urteko gerla haren ondotik...

(Belatza edo belatxa : *l'épervier*, aztorea edo mirotza : *le faucon*, denak espezie berekoak dira.) ■

Berrogei urte

2003-04-10

ENBATA mugimenduaren borrokan sartzeak berrogei urte beteko ditu aurtengo Aberri Egunez sortzaileetarik batzuek, prentsaurreko batean, oroitarazi diguten bezala. Lehenbiziko oharpena : hoinbertze urteren buruan sortzaile horietarik batzuk hor ditugula oraino beti aitzinean, idazle emankor edo/eta politikari erne ! Ez dugu hemen berrogei urteko irabazi eta galtzeak aipatzeko lekurik ez eta ahalik ere funtsean : zenbait libururen gaia bailitzateke ! Sekulako gertakaria izan baita Enbataren sortzea eta haren ekarpena handia, zuzenean edo zeharka.

Agian bertze batzuek ere beren lekukotasunak ekarri nahiko dizkigute : baitezpadakoa bailitzaiguke gogoan atxikitzea eta erakaspen batzuk ateratzea holako denboraldi mitikoaz : aski ezagutua da, alabaina, historia zaharrea, hebrearrak berrogei urtez Sinaiko basamortuan ibili zirela ‘hitzeman herrirat edo lurrerat’ heldu artean...

1963an sortu zen Enbata mugimendua baina lehenik hilabetekari bat ateraila zuten Bordalen ikasle ziren batzuek 1960a inguruan. Lerro hauen idazlea, laboraria, lana utzirik, oren erdi bat lehenik oinez eginik, gero autobusa harturik joaten zen Baionarat agerkari “miresgarri” haren erosterat ! Hots, arratsalde oso bat hartzen nuen soilik horretarako ! Eiki bagenekien euskaldunak ginela, sortzez hala baikin. Baina hara, Embataren (Enbata [m]-rekin idazten zuten orduan) ideia berriek kuriostasun ikaragarria piztu zuten gure baitan : zernahi ikasten genuen han, gure izateaz, gure historiaz, gure kulturaz, gure bizi nahiaz.

Egia da lehenago ere bagenuela zerbaitxka aditurik, adibidez, Marc Legasse baten borrokez. Baina denak zetozen jaun handi edo burjes edo apez eskola handikoen eskutik eta gure egoera sozial hain desberdinak ez zuen hor etorkizun hobetzerik ikusten. Egia da Enbatak ere intelektual kutsu bat garraiatuko duela berekin, ikasketa luzerik egin ez dutenen begietan, hori baitzen anitzen kasua berriki arte. Baina, dudarik gabe, lehengoak baino gehiago entseatuko dira herri xeheari hurbiltzerat.

Onar daiteke, duela berrogei urte ametsak loratzen zirela orain baino errexkiago. Euskal Herrian, militante eta kristau anitz bazen eta ideal batentzat borrokatzea ez zen gauza arraroa. Herria kazetak, Ikas eta Eskualtzaleen Biltzarrak lan goresgarria zeramaten. Egoera politikoa zen arrunt iluna. Bi inperio handik, beren hizkuntza munduko distiratsuenak lagun, ezeztatzen ari zuten gure herria, guhaur kasik ohartu gabe.

Ordea, bat-batean hedatu ziren leloak : “Zazpiak Bat”, “4 + 3 = 1” eta bertze, utopia hutsak zirela, ezin da ukatu gaurko egunean, ez baita teilatutik hasten etxearen eraikitzen ! Iratzarrarazte bipila, zorrotza (pertsonei buruzko hura segurik), bultzatu zuen Enbatak, nolabait, gaitzeko aitzinamenduak erakarriz halere. Zernahi elkarte mota sortu baita geroztik : politikoak,

sindikalak, instituzioen, hizkuntzaren eta kulturaren aldekoak, ekonomiaz arduratzeko eta bertze. Abertzaleen eragina ageri da gaur kasik non-nahi eta gure xedeak, bere eginik, badaramatzate, abertzale izenik hartu gabe bada ere askotan.

Aitor dezagun, haatik, berrogei urteren buruan ez garela gure lurraren kudeatzaile bilakatu. Eta nekezia handiak ditugula populu bat bilakatzen. Bistan da hor ditugula etsaien oztopoak, hain beharrak genituzkeen instituzioen ukatzaile, etsitzekoa baita kasik.

Hor ditugula ere gure arteko ikusmolde bateragaitzak (gaur, Hegoaldekoak ditugu gehienbat gogoan). Euskara ongi menperatzen duen batek erraten zigun berriki, bere burua auzoko baiones batengandik hurbilago sentitzen zuela Hegoaldeko euskaldun batengandik baino... Ez ote da hori kezagarria ?

Iparraldeko militanteak entseatzen gara Hegoaldekoei hurbiltzerat ; kasik sobera zenbait aldiz, hizkuntza mailan hasteko, gertakari arrunta bada ere ttipiena handienari jarraitzea... Hegoaldekoek, laguntza handiak ekartzen dizkigute baina aski indar egiten ote dute hemengo arak ezagutzeko ? Jakintza, azala da ; ordea, gure buru muinetan dabilena garrantzitsuagoa da. Eta gogo hurbilketa hori, azkarki landu beharko dugu, gauzak aitzinaraztekotan... ■

Euskara freskoaren bila

2003-05-08

“GAZTEENTZAT EUSKARA erabilgarri egin behar dela” titulupean, artikulua bat guziz ohargarria plazaratu digu joan den apirilaren 29ko Egutegiko-k ; hau baita, dakizuen bezala, Euskaldunon Egunkaria Espainiako faxistek debekatu dutenaren ordezkoa.

Ohargarria, iduritzen baitzaigu euskararen barne bilakaeraz ez dela aski eztabaidatzen publikoki bederen. Eta holako isiltasuna ez zaigu osasun seinale, neholaz ere. Iduri luke, gaia teknikoa litzatekeelakotz edo, bakar-bakarrik adituen, euskaltzainen edo irakasleen eginkizuna dela noiz nun zein euskara erabili.

Guk ez ditugu batere hola ikusten gauzak. Gure ustez herriak gehiago parte hartu behar luke bere mintzairaren erabilpen kontuetan.

Dena den, zer dio, bada, delako artikulua bere mamian ? Hiru aditu hizketatu dituzte : Erramun Osa (ikastolen elkartekoa), Lore Iriondo (EHU-ko pedagogia irakaslea) eta Atzio Orexa (Urtxintxa taldeko kidea). Enbatako irakurle guziek ez baitute beharbada Egutegiko beti irakurtzen, hartuko ditugu horien pasarte batzuk, arras adierazgarri zaizkigunak :

-- “Zuzenkeria gramatikalak hizkuntza freskoa galarazi eta espresio bidea moztu du... Eskolak betetzen du bere funtzioa ; hizkuntza formalaren ezagutza bermatzen du, baina, eskola orduetan egiten den lana ez da aski gure umeak euskalduntzeko...”

-- “Irakasle gutxi izatetik asko izatera pasa gara urte gutxiren buruan... Irakasleek euskara joria, landua eta goi mailakoa izan beharko lukete... Ezinezkoa da haurrek hizkuntza freskoa izatea irakasleek ez badute...”

-- “Eremu hiritartuetan, gazteen euskararen erabilera anekdotikotzat jo daiteke... Euskara hizkuntza akademiko soil bihurtzeko arriskua dago...”

-- “Gazteek eskolan euskaraz egin arren, kalean gaztelera edo frantsesa erabiltzeko joera dute ; funtsean, ez dakitelako euskaraz jolasten... Euskarak ez die balio eskolaz kanpoko ekintzetarako, ez die balio lagunartean hitzegiteko. Ez dira gai sentitzen dutena euskaraz esateko...”

-- “Eskolan, kontu akademikoei ematen zaie lehentasuna... Aisialdia da hizkuntza lantzeko esparru egokiena... Kosta ahala kosta euskarak lagunartean eta eskola orduetatik kanpo erabiltzeko hizkuntza ere izan behar du... Euskara erabilgarri eta horretarako freskotasuna eman behar diogu hizkuntzari...”

Eta inarrosi gaituzten gogoeta horien ondorio bezala, hiru hizketatuek, eskolatik kanpo euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak abian jartzea proposatzen digute.

Hitz bat gelditzen da halere artikulua horretan, batere argitu gabea, misteriotsua : zer da eskatzen den euskara fresko hori ? Euskara batu nolabait ‘arindua’? malgutua ? Ala jatorrizko kalitateak dauzkan euskalkia, zentzu itxuratuz oratua, adinekoekin ere bat eginik mintzatzeko goiz-arrats ? Ala euskaltzale bakoitzari dago gaiaren hausnartzea gero auzian parte hartzeko bere ikusmoldea emanaz ?

Egia da, eta aitortuko dugu errexki, hain garela gure hizkuntzari atxikiak nun gure iritzietan frango aise tematzen baikara eta sumintzen ere batzuetan. Alta bada, ez zaigu ongi, euskara den ber, denak onartzea ; euskara bakar bat, hitzak zentzu propioan bakarrik darabiltzana, hitz arrotzez brokatua. Badugu beraz hor denek bortz gogoetaren gaia eta hamaika sailen akulatzeke lekua ere bai, euskaraz bizi nahi badugu !

Euskara nun ere baitzen lehen ahulenik (eskolan), denik ere han da orain azkarrenik (Hegoaldean bederen). Eta, nun ere baitzen indartsu (etxean, auzoen artean edo herriko plazan) han da orain arras ahultzen ari (Iparraldean segurik)!

Euskara jalgi hadi kanpora... Bai eiki. Ez luke, ordea, lehenik eta bat, bere betiko eremutik kanpo gelditu behar, bizirik irautekotan... ■

Herritartasuna landu

2003-06-05

BADIRA ASTELEHEN BATZUK aski gogorak orrialde zati bat bete behar duenarentzat. Hobenduna ez da hemen lo eskasa edo besta zenbaiten ondorioa. Ez, da gertakariak ez zaituztela batere sustatzen gai baten edo bertzearen hartzerat. Hegoaldeko hauteskundeak iragan zaizkigu eta EAJ-k irabazi dituela ez da dudarik (zorionak dizkiogu hemendik !) baina emaitza horietan ez dugu ikusi abertzale mugimenduaren aitzinamendurik : euskal ezkerren parte handiena bazterrean gelditu baita, euskal debatea murritzuz ; espainolistak, bertzalde, sekulan bezain oldarkor daude eta horiek guziek egoera egundaino bezain korapilaturik uzten digute.

Korsikan, Nicolas Sarkozyren bisitaren ondotik orain berriz saltsa ederretan sartuko bide dira Erignac prefetaren hilketa epaitzerat baitoaz, Ivan Colonna gabe haatik, hura beti ihesean baitabilkie bortz urte honetan, haren harrapatzeko egiten diren edo ez diren ahalegin guziengatik.

ESAITek bere eguna ospatu du igandean, besta goxoa baina ez dena beharbada aski izanen gure kirol ezaugarrien erakusteko eta bilatzen den baimena eskuan dutenen inarrosteko...

B.O.koek galdu dute, talde nagusiak eta gazteek ere. Eta, gizarte gaietan, Okzitaniako Tolosatik, gauzak ez badira argituak ere, heriotzeraino eramane dezakeen sexukerietan pulunpaturik dabilzan batzuen oihartzun higuina datorkigu...

Joan den asteburuan, Frantziako Evian hirian bildu dira munduko zortzi Estatuburu aberatsenak. Chirac eta Bush bortzekoa ematen ikusi ditugu behin eta berriz, alegiazko aurpegi alaituak lagun. Denek badakigu, alabaina, Irak-eko gerla dela eta, iritzi arras kontrakoak zituztela amerikarrak eta frantziarrak.

Betiko ele zurien artetik, halere iduritzen zaigu, emeki bada emeki, zerbaitxka aldatzen ari dela. Chirac-ek gonbidatu ditu bertze hamahiru Estatuburu eta bada hor Amerika indartsuari buru egiteko halako abiapen zerbait bezala, faltsukeria eta gibelasmo guzien gainetik edo azpitik, ez bada hori hastapenaren hastapena baizik ere... Altermundialisten eragina nork uka dezake hor ?

Preseski uste dugu denborak eta denen laguntza uztartuek zerbait ekar dezaketela. Geroa ez da behin betikotz finkatua. Zuzentasunak bere bidea nolabait zilatuko duela sinesten dugu. Beha, Irak-ekoari : Espainian, gerlaren kontra ziren, baina ikusten denez, hain laster irabazi eta bukatu (?) delakotz, Aznar-ek, bere herriarekin zuen arazoaz, ez du anitz sufritu azkeneko bozetan... Funtsean ez pentsa berek ere amerikarrek bazekitela nola iraganen ziren guziak.

Eta, egoera ekonomikoaz ari garelarik, gauza berak erran ditzakegu. Amerika ikaran bizi da atentatu terroristen beldurrez. Itxuraz beren buruaz segur eta harro dabilta baina badakigu ez direla hain fida geroaz eta behaztopatzea ere gerta dakiekeela.

Dena den, altermundialistek beren puntuak markatzen dituzte urtetik urterat ihardukiz, eta mugimendu hori indartuz joanen dela daukagu. Ez daiteke bertzela izan : herrialde pobreen eta aberatsen arteko leizea ezin jasanezko kinkarat heldua baita.

Hemen gaindi berriz hogeita bortz urtez gure bizimaila doblatu ondoan bizimoldea gero eta makurrago bihurtzen ari zaigu : beti eta gehiago produzitu behar, beti eta zaluago eginez, beti eta merkeago saltzeko gisan. Erosleak oraino prezioari behatzen baitio lehenik.

Alta noizbait uko egin behar diogu kontsumitzaile huts izateari. Giro berri bat sortu behar dugu. Ez dezakegu hola segi. Buruzagiak, egin gaizkiaren araberako zorrotasunez, salatu behar ditugu, baina erosleek ere galda bageneza erosgaia nondik datorren eta bereziki zer baldintzatan egina izan den, ikusiz denbora berean, hau edo hura hautatzerakoan, lana nori kentzen diogun eta nori ematen, orduan aro berri bat sor genezake, denen onerako...

Herritartasuna lantzen da ere, gure urrats guzietan, xeheenak barne, badutela ondorio bat erakutsiz eta ondorio horien erantzule garelako oinarrituz. ■

Eraikuntzaren aldia

2003-07-03

SEKULAKO TIRABIRA eta eztabaidak dituzte Hegoaldean : euskal gobernua eta euskal Estatutua bera ere auzitan ezartzen dituela Madrilgo gobernu inperialistak. EAJ, EA eta IU koalizioak ederki ihardukitzen du erauntsia bortitzari, maizago euskal ezkerrari tokatu izan zaiona eginez !

Erantzukizun dorpea daramate bizkarrean. Ez dakigu noraino suminduz doakeen afera, baina ez da irri egitekoa... Batzuk lorietan daude halere, aspaldian Espaniarekin buruz-buruka zuzena bilatzen dutenak. Guk aldiz, ez dugu ikusten hor indar higitze eta herra emendatzerik baizik, gibelerat egiteko irriskua bertzalde !

Zerk piztu du bada holako urakana ? Ba ote dugu hemen ihardespenaren ezartze beharrik ? Ez ote dute itsuek ere ikusten Madrilgo jokabide okaztagarria ETArekin borroka armatu itxuragabekoaren ondorioz datorrela ? Horra erakunde bat bere hartan tematzen dena euskaldunek egiten dizkioten su-eten eskaerei kasurik egin gabe. ETA hein handi batean militarki ahuldu badute, ez du ordea jarraitzailearik falta.

Gazteriaren parte batek sutengatzen du deblauki eta iragan hauteskundeetan milaka baliogabeko ageri erakunde armatuaren mezutik zebiltzan. Preso gehienak ere haren ildotik doaz ; ez dakigu ea den babes-lokarri zerbait atxiki beharrez ala beti haren garaipenean sinesten dutelakotz... Alta bada, gogo bihurri horrek (demokrazia bertzei eska, berek itsuski zangopilatzen dutelarik) ez dezake fruitu onik ekar.

Eiki badakigu ez dela askatasunik etorriko lausengu bidez, baina sinesten dugu gogoen aldakuntzan. Guretzat borroka armatua on da soilik etsaiak bultzatu xede oker batzuen oztopatze edo apurtzeko : Lemoizko nukleartegia, adibidez edo, Korsikan bezala, itsas bazterra gerizatze edo holako.

Baina borroka armatua ez da neholara ere eraikuntzarekin batean eramaten ahal : eraikuntzaren etsaia baita. Eta guk pentsatzen dugu, aspaldixko honetan, eraikuntzaren aldia dugula Euskal Herrian. Eraikuntzak gogor borrokatzea eskatzen du baina odol isurtzerik gabe.

Aski aldiz errepikatua digute ez direla nehoiz Estatu osatu bat izan gure zazpi lurraldeak. Hori, ez da haatik arras egia, eta jakinarazi behar dugu duela mila urte erregetza beraren pean egon ginela ; ordea, ez ginen bakarrik eta hain aspaldi du... Geroztik ez ote dugu mila gertakari jasan (gehienak etsaiek ezarririk) elkarrengandik urrundu gaituztenak ?

Huna beraz funski elkarri hurbiltzeko garaia, lanaren bidez, baita nun zer egin, Nafarroarekin, Iparraldearekin eta bertzeekin... Gure indar guzien

biltzeko beharra, herriaren eraikitzeko euskara gure hizkuntza nazionala aitzindari emanik.

Nork uka dezake zenbat damugarri den eginkizun horretarako ezker abertzalearen eskasa baztertua izan den lekuetan ? Euskal Herriko indar lehena izan zitekeena, ordezkaritza argal batekin egon beharko da, batere ez dena bere ahalekin edo egin dezakeenaren arabera. Baina noiz utziko dute bada burutik Espainiaren belaunikarazteko amets hori ?

Zorionez edo zorigaitzez, gaurko mendea hautsi-mautsietarik dabil gehienki ; bide hori ez da garaipen ametsa bezain berogarria baina beharbada hobe da hola izan dadin. Garaipen eta askatasun anitz amesgaizto bilakatu baitira politika, ekonomia eta hizkuntza alorretan egituratzekoak ziren herrialdeentzat.

Nahiz gibeletik aritzeak ez duen tirrit balio, Afrikan segurik, asko populuk, independentzia baino hobe ukanen zuketuen autonomia zabal bat izan balute lehenik, beren garapen propioa bideratzen hasteko, askatasun osorik heldu aitzin...

Palestinian iduri luke su-eten aroa odol aroari gaina hartu nahiz ari dela. Baina zeri fida daiteke han ? Gisa guziz, ez bide da garaipen osorik izanene nehirentzat. Eta hobe naski hola gertatzen bada. Hoinbertze odol isurtze jasan duen eskualdearentzat antolamendu orekatu bat hobetsiko genuke, emeki-emeki bi herrialdeen arteko ezin ikusiak eta zauriak ezitzen hasteko ; adiskidetzetik ez baitu balio aipatzea ere zenbait denborentzat bederen. ■

Ateketan

2003-08-07

BERRIZ ERE ATEKETAN garela nork uka dezake ? Heldu den urriaren hamaikako manifestazioa hurbiltzen ari zaigu baina nondik lotu behar dugu giderrari Korsikan gertatu denaren ondotik ? Gure lotki hoberena suntsitu baita hor. Alabaina gaitzeko aitzakia bagenuen : “Korsikan referenduma egiten duzue, zertako ez Euskal Herrian gure departamenduaren eraikitze euskararen ezagutza ofizial batekin ?”

Esperantza batzuk ere piztuak zituen egoera horrek gure artean. Halako karrez entseatuak ziren frantses gobernuburua bera eta are gehiago Sarkozy baiaren alde, non nehondik ere ez baitzirudien errekaraz zitekeela hain artoski xutik emana zuten antolamendua !

Bizkitartean joan da lurrerat ; ez beharbada argi-argiki, bertze gai batzuek emaitzak makurtu baitituzkete, baina joan da eta beldurtzeko da gobernua ez dela berehalakoan berriz hasiko gisa bereko bozketa baten antolatzen ! Funtsean, departamendu baten eraikitze ez da referendum beharrik batere !

Dena den, artikulua honen idazleak ez du behin ere Korsikaren eremuan soberarik sinetsi. Iparraldea bagina bakarrik, balitzateke parekatzekorik ; baina guk hor dugu Hegoaldea eta horrek gure kasua haienetik aldatzen edo/eta baldintzatzen du. Bertzalde, baiak irabazi balu ere ez genuen hain argi ikusten : zer UMP eta FLNC kasik besoz-beso... Hauxe bikotea ! Egia da Kaledonia Berrian kaldoxek eta kanakiarrek nolabait aitzina badaramatela beren akordioa, hein bat ohargarria ere baita. Baina han, dakigula, ez dira talde armatu baten mehatxupear...

Eta Euskal Herrian zer dugu falta aitzinatze gure bideetan ? Ekonomia azkarra dugu, Hegoaldean bereziki (sistema kapitalistaren akatsekin bada ere) baina kultura mailan bada nahiko lan : abertzaleen arteko batasun politiko ezinezkoak euskaldungoaren erakargarritasuna suntsitzen baitu azkenean ; hots, euskaltzaleek buru batetik daramaten lan itzela bertze burutik deuseztaturik baitago.

Ibarretxeren plana berantetsia dugu. Batzuek diote ETAk duela hertsatu urrats berri horren egiterat. Guk berriz diogu goraki ezker abertzale arrunt batek, borroka armatuari osoki uko eginga lukeen batek, boz kopuruz EAJ gaindi ere lezakeen ezker abertzale demokratiko batek, ETAk baino mila aldiz hobeki bultzatuko/ akulatuko zukeela Ibarretxe aitzinarazterat eta olde hori hor bagenu gaur, bertze lasaitasunez ikusiko genukeela geroa, ez baita nehola ere segurtatua !

Urrun joan nahi bada politikan, morala edo etika sano batek behar du manatu barnean lehenik. Hogeita batgarren mende honetan gure bi Estatu menperatzaileen espantuak gainditzeko, haiek baino hobeki egin behar dugu.

Bitartean, neke bada neke, Iparraldean zerbait egin dezakegu ; hor dugu lekuko hoberena ELBk sindikalismoan hain ederki lortu duen gehiengoa. Gauza bera egin behar genuke politika alorrean ere. Gisa guziz politikoki indartu behar dugu. Gehiengoa izan artean, gehiengoak beharrezkotzat bederen izan behar gaitu, aitzinamendu erabakigarriak ikusi nahi badugu. Eta horretarako ez da bakarrik politikari-notable batzuk kritikatu behar, lan egin behar da herritarrekin, uda honetako Arrosako Jaialdia edo Idauze Mendiko pastoralaren gisarat, bertzeak bertze.

Halere instituzioen mailan, Hegoaldeko oihartzunak bortizkeriaz beteak badatozkigu, hemengo esperantzak eta indarrak ahul egoteko irriskuan daude. Aldiz hango alderdien arteko lehia arrunta bilaka baledi, Madrilgo otsoen orrobiak laster funts gabekotzat hartuak izaten ahal lirateke eta gure mugimendua zabal genezake ; ordutik ere, hain baitezpadakotzat daukagun kanpotar askoren laguntza itxaroten ahal genuke... ■

Jendetasuna

2003-09-04

POLITIKA, gizartearen zerbitzuko da, haren kudeatzeko, argitzeko, sustatzeko, bidaltzeko. Politika baten emaitza dira gizartean gertatzen diren gehienak baina ez denak : batzuk bizi molde berrien erakusle baitira. Aurtengo idorte handiak, iduritzen zaigu, mazelako bat ederra bota digula. Laborarien hesturak bertze aldi batetako utzirik, goazen aipa, gaurkoan, beroaldi gogor horien ondorioz hil izan den zahar andana, hiri handi horietan, eta bereziki Parise erraldoi, denen eredu izan nahi lukeen horretan.

Baina Pariseko molde txar batzuk guganatzen baitira zenbait urte barne, horrek dizkigu lerro kezkatsu hauek jauzarazi ; preseski guganatu aitzin, ordu deno, gogoetak egin, begiak ireki eta bakoitzak araberako bideak har ditzan, gure ahalean diren neurrian bederen, erran gabe doa.

Ez gara hasiko egun gobernuaren jorratzen behar den baino gehiago : ezkerre boterean izan balitz gauza bertsua gertatuko baitzen. Paristar lagun batek telefonatu digu badagoela ministeritzen arteko talde bat holako izigarrikeria arraroerik ihardesteko izendatua, 420bat lagunez osatua, ez baita guti. Ahal zerbait ere ba omen dauka. Baina hara, beroaldia gorenean genuelarik talde horretako 380 lagun oporretan ziren, munduan barna barreiatuak bistan dena ! Horra beraz argitan emana politikak egin dezakeenaren muga.

Alabaina, ustegabekoak beti izanen dira. Bakoitzak bere aburu, baina guk sinesten dugu, ustegabeko horiek, gure atzarrarazteko direla. Irakurle, ohartua zaitezke ez garela bertzetaz mintzo, guhauren burua barne ezartzen dugula gogoeta honetan. Badakigu ere ez direla denak gure iritziarekin bat izanen. Bizkitartean salatu nahi dugu gure gizarte baztertzaila, bakoitzaren autonomia edo libertatea oro baino gorago ezartzen duena, osoki sakratutzat daukana eta, azken finean, bakartasunerat daramana.

Haur jenagarriak bota hilaurretgiatarat eta zahar poxelukoak zahartegiatarat. Aita eta ama, bakoitza bere alde, eta haurrak ahal duten bezala. Solasari moralista kutsua badario ere, ez da apeza, ez serora, are gutiago saindua, lerro griñatsu hauen idazlea ! Jendetasunaren mailan gaude hemen bakarrik ; kristautasuna aise urrunago baitoa, bai maitasunean, bai eta barkamenean ere.

Ez ahal da nehor harrituko, zahar batzuk ere gazteagoak bezain hobendun ezartzen baditugu. Beren autonomiari atxikia izatea ongi da, hein batetaraino ; ordea, pentsatu behar lukete ere bakartasunak egun batez jotzen ahal lituzkeela... Zahar-gazteen arteko atxikimendua ahulduz joan da, bakoitzaren, baina bereziki zaharren autonomia goratu den hein berean.

Dena den, bakartasuna da beharbada gaurko gaitz handienetarik bat, bertze gaitz askoren sortzailea. Nehor kondenatu gabe, bakarrik bizi direnen kopurua goitituz doa eta horrek ez digu deus onik hitzematen geroari buruz. Etxe bizitzen eskasia ere hortik heldu zaigu parte.

Dudarik gabe bertze hobendun handia, handiena segur aski zahar-gazteen arteko haustura horretan, dela gaurko langileen mobilitatea. Gurasoak, erretreta hartzean nonbait finkatzen dira gehienki ; baina umeeak, lanarengatik, joan behar dute deabruetan trebes eta familiako elkartasuna ahuldua gelditzen da, orokorki bederen, zeren anitz baitira, bistan dena, beren lokarriak begiratzen dituztenak elkarretarik urrun izanagatik.

Bakoitzaren autonomiaren aldeko legeak, beharrezkoak dirateke; ospitale, zahar-etxe, zahar-laguntzaile eta bertze, baitezpadakoak eta hobetzen ahal direnak. Baina ez ginuke horien menturan xoraturik egon behar ; biharkoari pentsatu behar genuke gehiago. “Jendea jende” diosku errankizun euskaldunak. Bizitzeko errextasunak emendatzeko sekulako indarrak egiten ditugu ; baina gure biziko premiak geldituko dira : familia eta belaunaldien arteko lokarria, errespetua, maitasuna elkar jasanez eta bakoitzak bere burua menperatuz ; hots, jendetasuna egiten duten guziak. ■

Ametsak eta urratsak

2003-10-02

JOAN DEN ORTZIRALEAN bizi izan dugu egun arraro bat “Ibarretxe plana”-ren inguruan izan den eztabaida handiarekin, Gasteizko legebiltzarrean. Ez da dudarik Euskal Herriak bizi izan duela hor memento handi bat, ondorioak haatik batere ez dakigularik zer-nolakoak izanen diren. Guziek, aldekoek ala kontrakoek, beren iritziak xorroxtuak zituzten aho-biloraino. Alderdien arteko lehia gogorra ikusi dugu, alderdikeria huts anitzekin.

Politikan denek badute beren egia parte eta herritarrei dagokie gero hautatzea non ezarri nahi duten beren konfiantza. Ordea, ez du beti auzia itxuraz eramaten duenak irabazten ikus-entzulearen boza ! 1967ko diputatu hauteskundeetan Errecart, Ospital eta Labeguerie-k ehortzi zuten Inchauspe, Donibane Garazin bertan, bere bilkura batean. Baina bozak Inchauspek eraman zituen airez aire ! Enbatako Kristina Etchaluz-ek berriz biltzen zuen bere hitzaldietan Inchauspek baino ikusmin gehiago, baina bozak...

Ibarretxeren planak urrats bat aitzinerat eginarazi nahi luke. Estatutuaren ekarpena azpimarratua izan da eta ezin uka arras emankorra izan dela, bereziki ekonomia mailan baina ere bertze zenbait alorretan. Gibeletik behatu-eta ikusten dugu zer burugogorkeria izan den ezker abertzaleak osoki arbuiatzea Estatutu hori eta ez parte hartzea instituzio horren garapenean. Hain begi bistakoa delarik alta herri bat ez dela diktaduratik demokraziarat eta egitura ezetik autogobernurat iragaiten egunetik biharrerat, eta eraikuntza horretan abertzale guzien gutieneko batasun bat baitezpadakoa dela.

Luzaz ezkerreko abertzaleak legebiltzarretik ere kanpo egon ziren, EAJkoak Vichytarrei konparatzen zituztela ! Lurraldeez den bezainbatean haatik, daukagu Nafarroa bereber uztea zela nehoiz onartu beharko ez zena ; Estatutu ‘ahulagoko’ bat ere onar baitzitekeen Nafarroa barne izatekotan. Baina hor hobenak banatuak dirateke.

Ez du nehork aipatzen baina ETArek orduko indarra izan zen, 1979an, Estatutu hori lortzen lagundu zuena ; eta egia dena ere ETArek hegala mozteagatik erdietsi zela ! Baina erakunde armatuak uste ukan du ukaldi horren gaintetik iragaiteko ahalak bazituela eta bere borrokari jarraiki zitzaion, Estatutua deusik ez balitz bezala, traba bat balitz bezala, baina gero eta ahulagotuz eta beraz gero eta okerrago jokatuz joan da. Ondorioz espainolak indartu dira, beldurgarri bilakatzerainokoan eta gero aise gertatu da Estatutuaren murriztea edo bederen ez osoki betetzea.

Eta orain hor gaude dakigun kinka larrian, maioriarik gabe, Sozialista Abertzaleek ez omen baitute bozkatuko plana ; arazo guziak bat-batean antolatuko dituen autodeterminazioa nahi baitute segidan, atzo bezala egun ere, Nafarroa (?) eta Iparraldea (??) barne ezarriz naski !

Artzalluzek erran du igandeko mintzaldian Ibarretxe plana ez bada onartzen euskaldunen independentziarako tirria ez dela gainditzeko ahalikoa. Gisa horretan Otegi aise ariko da kontrakoa egiten, hain xuxen bilatzen duena hori baita EAJ bide horretarat erortzea! Baina Nafarroa egundainokotan ez bada barne delako biharko balizko hautu horretan, nola bozkatuko dute Sozialista Abertzaleek? Hilabete nahasien mentura beraz oraino ere bertze hoinbertzeren gainerat...

EAJ indarrean iduritu zaigu, bere baitan badaude haatik plan berri hunek durduzatzeko dituenak. Halere ederki iharduki du, eskuinetik eta ezkerretik etorri ziztakoei, doi bat haserre. Ibarretxek bere ahalak erakutsi ditu bere dozieren jabe agertuz. Egibarrek bere lekuan ezarri ditu ezarri behar zituenak. Sozialista Abertzaleek amets hutsetarik izpi bat jaitsi eta bide egingarriagoko bat hartu artean, 'hirukoa' dukegu herri zurkaitz.

Eiki, Euskal Herri askatu baten ametsa tinko atxiki behar dugu, baina ere pausoka aitzinatzen ikasi behar genuke. Eta jarrera eta pauso argiak plazaratu, Herriaren laguntza eskuratzekotan. ■

Jo aitzina !

2003-10-30

A RRI ARRI MANDOKO ! Haurrean aditu kantu xahar batetarik jalgiak direlakotz, hitz hauek badukete oroitzapenezko fereka ezti bat, ez dena beharbada, lehen xixtean, sentitzen politika alorrean gaur jasaiten dugun haize hotz (Iparraldean) eta erauntsia bortitzen artetik (Hegoaldean)!

Ordea, zertako ez isur noiztenka goxagarri xorta bat gure borroka latz eta idor hauen jasaiten laguntzeko ? Omere izpi bat behar omen litzateke sartu gai garrantzitsuak aipatzean ere ! Bai zinez, ez dugu hautarik, mespretxu eta mehatxu guziengatik, lotsadura eta etsipen guziak gainditurik, oihu bakar bat da zilegi : jo aitzina !

Gogoan atxiki behar dugu Batera-k berriki bildu duen arrakasta gaitza, Baionako manifean, urri hunen hamaikan. Eta arrakasta hau ez da izan bakarra, salbuespen bat, ez ; bertze batzuen ildotik etorri da, berdin emankorrek eta sustagarriak izan direnak : joan den otsailaren lehenekoa edo duela lau urteko urriaren bederatziko hura. Milaka elkartzat, lau eskakizun handiren inguruan, herritarrek ederki sustengatzen dituzte gaur gure aspaldiko xedeak.

Orain ikusi behar Parisen eta Pauen zerbait ihardetsiko duten edo bertze borroka mota bati buruz noiz eta nola joan beharko dugun. Erran dezagun ere, lau xede handi hautatu badira ez du horrek erran nahi bertze xedeak baztertzeko direla, hala-nola presoen hurbilketa. Nehola ere ez. Baina lau eskakizun horiek dirateke jenderik gehiena bil dezaketena eta gure mugimendua bazterketatik begira.

Igande honetan Madrilgo hauteskundeetan PP garaile handi jaiguturik berriz ere. Izugarri da: Irak-eko gerlari buruz ala “*Prestige*”-aren hondamenaren inguruan izan diren salaketa indartsuak, denak airez aire irensten ditu alderdi hunek...

Ibarretxe lehendakaria ere ozarki laidoztatu dute Andaluzian. Kasik iduri luke gerla zibilaren aurreko giro ustelerat itzultzen ari garela... Eta geunden ez ote zuten bederen euskaldunen burujabetasunerako urratsek sortarazten ari holako lerraketa higuina. Espainia handiaren ametsa bizi-bizirik baitago, sakratua baino sakratuago balitz bezala.

Ez naski : eskuin alderako lerraketa hori ez da Espainiakoa bakarrik. Joan den igandean zortzi, Suitzako hauteskundeetan eskuin populista irabazle atera da, Autrixian eta gero Herbehereetan gertatu izan zen bezalatsu ; azken frantses presidentzialetako Le Pen-en balentria ahanztu gabe ! Ez dira berri onak horiek. Europa aberats hau, oro har, intzirik lotua zaigu, geroaren beldur balitz bezala.

Baina Espainiako eskuin horren indartzea, aitor dezagun halere, kezkarria dela eta irrisku handien pean ezartzen gaituela. Ibarretxe-ren planak errotik landua dirudi baina bertze abertzaleen gaurko jokamolde indarrezkoari josirik dago oraino. Hain xuxen indarkeria hori delarik gaurko giro okaztagarri hunen sortzaile lehena.

Lan handiak daramatzagu euskaldunek alor gehienetan. Azkenak baizik ez aipatzeko : Amnistiaren Eguna, Biperraren Besta eta omenaldi hunkigarri haiek bertzalde : “Iratzeder”-i Beloken, Etienne Salaberry-ri Heletan, Xabier Lete-ri, Alduden.

Gure xedeak eta eskakizunak oinarrizko beharren mailan daudelarik, gure biziraupenaren segurtatzeko doi, omenaldi hauek, haatik, barna-barnatik sentiarazi digute on genukeela filosofia edo izpiritualitate batzuen garatzea. Gure premia fisikoez, materialez baino urruntxago behatzen laguntzeko, biziari zentzu bat emateko eta abar. Ez bailuke indarrak (militarrak edo ekonomikoak) erabili behar mundua baina gogo batek. Eta gogo edo izpiritualitate horiek landu, egokitu beharko baitira beti eta beti : euskalduna euskaldunagotzen laguntzeko baina ere jendea jendeagotuz joan dadin. ■

Maitasun izerdi izpi bat

2003-11-27

MUNDUA BETIDANIK aldatuz joan da baina azken urte hauetan bezain indarrez eta zalutasunez ez da behin ere gertatu. Eta guk, puntu batzuetan, nahi genuke lasterrago ere aldatzen balitz... Adibidez, euskara eta euskal kultura lasterrago indartzen balira eta gure xede politikoak lasterrago burutzen.

Xuxenez, aldakuntzarik zaluena ere ez da sentitzen, gertatzen ari delarik; zaluenez ere urteño batzuk behar baitituzte orotarik onartuak izateko. Azken denbora hauetako teknikaren aitzinamendu ikaragarriak, egiten du, gertatu mementoan berean, denen berri badugula munduko hegala batetik bertzeraino: nork ez du transistor bat edo telebista bat; interneten eragina berriagoa da; eta horrek, beharbada gu ohartu gabe, ari duela mundua aldatzen ziztu bizian.

Harrigarri dena, komunikazio tresna miresgarri horiek, zenbait aspaldian hedatuak direlarik (eta jakinean izatea, garapen bati buruz lehia sortzaile lehena da) zein nekez eta urriki aitzinatzen diren 'hego' pobrea deitzen dugun eremu horietan... Zer diot aitzinatzen: askok diotenez gibelerat ari dira!

Ez gara hasiko haatik 'gure' garapenaren goستن, baitakigu gure 'aberaste' hori, askotan, hegokoen bizkar egiten dela. Gehiago dena, eskualde pobreak ez dira bakarrik diruz pobre baina ere eritasunez beteak dira. Bertzeak bertze, hiesak errautsirik dauzka Afrika alde horretan segurik eremu izigarriak.

Erran dena, ipar 'abaratsean', ez dugu espantuarenik: lasaitasunik batere gabeko lan moldeak nagusitzen ari zaizkigu. Langabeziaren eta lana zailtzearen ondorioz, pobreak eta egoitza gabeak beti emendatuz doazkigu. Funtzionarioak lirake gerizatuena.

Baina gertatzen dena da, hezkuntza sailean bederen, gizartearen gaitz guziak isurtzen direla eskolaren barnerat eta eskolari galdatzen zaiola gaitz horien guzien sendatzea ez bada, horiek egin kalteen eztatzea bederen... irakasleen lana zailduz ezin gehiago.

Bertalde, gure inguruak osoki blokeatuak ikusten ditugu. Jendea sobera enganatua izana delakotz eta geroaren beldur, orain eraberritze aipamen bat bera zabaltu bezain laster kontrakoak jauzten dira, xedea funtsez ona bada ere, hala-nola dezentralizazioaren kasuan.

Aldaketa handi eta zalu horien artean sartzen da naski iduri baino garrantzia duen islamisten "*foulard*" edo lepoko zapi famatu horrekin hasia den eztabaida. Batzuek ez dute neholako arazorik ikusten hor: debekatu behar dira gain-gainetik erlisionearen ezaugarri guziak eskola publikotik.

Badira urruntxago ere joan litezkeenak debekatuz gure ikurrinatxoak edo alderdi seinaleak papotik, gapelu edo txapelak burutik...

Debekatze bide horretan sartuz gero nun geldi, ordea ? Itxuragabekerietaraino joanez, zertako ez debeka erlijioa oroitarazten duten guziak, katedraleetarik haste, leku publikoetan ez dadin geldi erlijio edo politika bazter nahasle horien hatzik ere ! Erlijio gaiak egon daitezen toki hetsi pribatuetan, kanporat agertu gabe jendartearen nahasterat, kutsatzerat...

Alta badakite denek debekatzek pizten duela fedea eta debekuaren hausteko tirria, bereziki haurren eta gazteen baitan. Frantziako laizitatea litzateke omen eredugarria ; ez dakigu bada : arazoak inguruetan baino saminkiago joka ari baitzaizkio...

Hogeita batgarren mendea izpirituala izanen dela edo porrota dukegula, iragarria digute. Guk estima genezake maitasun izerdi-jario izpi bat politika xede horietan. Alderantziz doazkigu bidegurutzeetan iragarki elebidunak elebakartzen dituztenak eta idorregiak zaizkigu : elebitasunetik iragan behar baitugu belaunaldi batez bederen.

Baina nola sinesgarriak izan, elebitasuna, erdietsi dugun eremu urrietan, ukan bezain laster zangopilatzen badugu ? Mundu zorabiatu, erotu honetan hobesten ditugu Abertzaleen Batasunak hartu erabakiak. Urraska joatea beharrezkoa zaigu herria gurekin izan dadin nahi badugu. ■

Katalunian goiti ari

2003-12-25

BERRI ONAK ditugu beraz, biziki onak Kataluniatik. Hango hauteskundeen ondotik hiru alderdiren artean osatu dute gobernu berri bat. Elkartu dira, Ezkerreko Katalanista Errepublikarrak (ERC), Sozialistak (PSC, alderdi nagusia), eta bertze alderdi gorri-berde bat (ICV).

Lehen-lehenik Estatutu berritu bat bidean ezarri beharra dute eta sekulako aldaketak iragartzen dizkigute hor, hizkuntza katalana, kultura, ekonomia, soziala gain-gainetik sustatu beharrez. Pisu demografiko eta ekonomiko handi bat lagun Espainiako erreinuan barna ere, hiri handienetan bederen, hedatu nahi dute, adibidez, katalanaren ikasketak egiteko ahala ! Gainerat, ordezkaritza bat paratu beharra dute UNESCOn. Etorकिन sartzeari ere ahalik eta molderik hoberenean antolatzekeo xedetan dira .

Lehenbiziko behakoan iduriko zuen hobeko zela abertzaleen artean, Ezkerreko Katalanistek eta CiU-koek, gobernu osatu ahal ukan balute. Ez baita gutiestekoa CiU alderdiak, boterean zegoelarik, egin duen lana hogeita zenbait urtez ; baina PPkoei hurbilegi ibili dira, bertzeak bertze, eta ERCkoek erabaki dukete bide berri bat irekitzekotan gizon eta alderdi berriekin abiatu behar zela.

Duda-mudek hartzen ari duten Euskal Herri honetan, dastatu dugu beraz atsegin ez ttipia, aspaldiko partez... Ez gara gehiago bakarrik ! Ikus gure planta, alabaina : Hegoaldean, Ibarretxe plana alde guzietarik blokeatua : barnean, alderdi abertzaleen ezin elkar adituaren ondorioz ; kanpoan, presondegi mehatxuekin. Iparraldean berriz, neholako instituziorik ezin erdiets, galdatzen dena gutien-gutienekoa eta den legezkoena izanik ere...

Kataluniako berriekin itxaropena berritu bazaigu ere, gure zoriona mugatua dagoke haatik. Hainbertze puntutan Euskal Herria eta Katalunia konparatzen ahal ditugularik, politika mailan leize bat baitago hango eta hemengo egoera politikoen artean. Leize hori PSOEn gaurko ibilbidetik dator gehienbat : han abertzaleekin bat egiten baitute (gibelasmoekin eta taktikaz bada ere nagusiki); hemen aldiz, salbuespenak salbuespen, gure kontra errabiatu baitabiltza.

Hemengo PSOekoetan ez dira denak hain gaizki ibili, hala nola Ramon Rubial Francoren ondoko lehen urteetan eta oraino hobeki gaur Odon Elorza, Donostiako auzapeza ; baina ETAk, sozialista batzuk hil ondoan, hautetsi eta bertze, herra lotsagarri batek darabiltza gure kontra aspaldi honetan.

Sozialistek GAL sortu zuten ETaren borrokatzekeo eta geroztik badakigu zenbatetaraino higuintzen gaituzten erakunde armatuaren

jokabidea errotik gaitzesten dugunak ere, nahas-mahas ! Zenbat denboraz jasan beharko dugu holako bereizkuntza bortitza ? Abertzaleak soilik askiko ote dira herria eraikitzeke, doi-doieko gehiengo batekin ? Ez ote da zabalagoko laguntza bat baitezpadako izanen aurrera ateratzeko ?

Joan den astean, Kataluniaren egoera berriaz, Enbata gure astekari maiteak, erdiko orrialdeetan egin duen artikulua gustatu zaigu, handizki gustatu ere. Tituluaz, haatik, oharpentxo bat egin nahi genuke. “Espainiak iparra galdu du” genioen hor. Ulergarria da gisa batez hainbertze sufriarazten digun Estatu horren nahigabeaz atsegin hartzea ; eta jakizue, atsegin hartu dugula !

Baina hori bihotzeko isuri baten emaitza arrunta da ; Espainiari min eginez Euskadiren askatzea uste dutenen ber-bera. Bigarren gogoeta bat egin izan balitz buru hoztasun gehixago erakakutsiko genukeen. Gure bidea ez da etsaiaren belaunikaraztea (ezinezkoa baita, gehiago dena), Kataluniaren eta Euskal Herriaren (eta bertzeen) eraikuntza dugu bilatu behar. Ez bortxaka, baina borroka demokratikoaren bidez, ideien eta xedeen indarraz.

Azken batean, elkarrekin bizi behar dugu, bakoitza bere etxean nagusi, haatik ! Kataluniatik elkartasun seinaleak etorri zaizkigu. Haiekilakoak indartu eta zabaldu behar genituzke baitezpada... ■

Gure ildoak barnatu

2004-01-22

GOLDE BERRI BATZUETAN badira bi pikoi : lehenak mozten du lurraren azal belarduna eta ildo zolarat igortzen ; bigarren pikoiak barnago sartzen da eta erran daiteke hark duela lurra zinez iraultzen. Horrela, ez dugu hemen gutiesten lehen pikoien lana, bigarrena laguntzen baitu ; azpimarratu nahi genukeena da ildoaren barnatzeak duen garrantzia, lurra irauli nahi izanez gero.

Gure Demoak gogor jokatzeko zaizkigu eta errotik sustengatzen ditugu. Borroka interesgarriak daramatzate, hala nola euskara burdinbideetatik zabaldu beharrez dabiltzalarik. Betidanik erran dugu euskararen eta Euskal Herriaren alde jokatu behar dela alde guzietatik, badela ahal eta dohain askorentzat leku. Eta Demoen baitan gazteak gazte gisa joki daitezke. Muga bakarra litzateke beren eta etsai edo arerioaren bizia errespetatzea. Alde horretatik, Demoek errepikatzen digute beren ibilbidea indarkeriarik-eza dela eta berriki frogatu ere digute frantses justiziaren eta polizaren jokabide lotsagarrien aurrean. Badute merezimendu.

Gainerat, errana da, politika dela egingarriaren jokalekua ; “*L'art du possible*” deitzen dute hori zenbaitek. Ametsak ez dira hemen ukatzen, bereziki herriaren askatasuna delarik gogoan, baina erran nahi duguna da amets egingarriari behar zaiola eman lehentasuna. Eta Demoen eskakizunak egingarritasun garbienean daude.

Baina bertze puntu batek ere merezi luke beti gogoan egotea : irabazi ditugun onorioak. Bide seinaleetan elebitasuna sartu da borroka goresgarri bati esker. Abertzaleen artean, autokritikarat ez gara batere ekarriak eta apertasuna ere ez omen da bertute politiko bat ; halere, ez ote genuke aitortzen ahal emaitza horrek, gure begiei gozo zerbait ematen badie ere, ez duela ekartzen funtsezko aitzinamendurik...

Hizkuntza mailan Iparraldeko egoera ezin gehiago kezkarria dela-eta, bereziki instituzio politiko berezi baten faltaz, iduritzen zaigu gure gisako iraunbideak aurkitu behar genituzkeela eta horri buruz proposamen bat erreberritu nahi genuke hemen, bertze batek bertzerik egin lezakeenari behatzeko prest ginatekeelarik.

Iparraldean, gaitzik handienak dituzkegu guhaurenganikakoak : konplexu bat frantses hizkuntzaren aldean lehenik, Hegoaldeko euskalki batzuen zailtasuna gero eta azkenik Sarako euskara dela bakarrik ona uste ukaitea. Euskara batua behar dugu, bistan dena, bereziki lanbideari buruz eta zazpi herrialdeen hurbilketa sustatzeko. Baina ez ditu euskara horrek mintzaira baten betebeharrak guziaz asetzen.

Bertzeak bertze, oinarritzeko euskara hori ez da oraino atrebitzen forma itxuratuetan eta beraz ez da osoki egoki(tu)a etxeko, lagunarteko edo

herritarren arteko elasturia hornitzeko. Laneko denborak laburtuz eta denbora libroak luzatuz doazkigun honetan, hizkuntza xeheagoko baten behar gorrian gaude beraz. Bertzalde, belaunaldien arteko transmisio naturala hausten ari baita, eguneroko solas simple-sinpleenak ere irakatsi beharko ditugu hemendik aitzina.

Gure proposamena litzateke, lehen-lehenik herrietan erabiltzen diren mintzairak ohoratzea, gure harri landu ederrenak baino gehiago balio baitute. CRSn ostikoei ihardukitzeko adinak edo ahalak joanak ditugunentzat bada hor sail eder bat euskaltzale batzuek irekia baina barnatu beharra.

Etkez etxe ibiliz, lehengo eta oraingo mintzatzeko molde biziak bildu, gero landu, beharrez doi bat egokitu, horra hor euskararen sakontzeko eta erabilpena sustatzeko parada bat eskumenean. Aberastasun mugagabea baitugu hor, galtzerat uzten ari duguna ezin sinetsizko axolagabekeria batean... Ez ote litzateke bide hori ona gure ildoaren barnatzeko ?

Euskaldunek, euskararen altxor miresgarria metatzen badugu, luzaz han ikasteko eta gozatzeko ahala ukanen dute gure ondokoek ere. Ofizialtasuna baitezpadakoa zaigu ; baina gure hizkuntza maitasunez ere inguratu behar genuke, hobetuz joan dadin irauteko gisan. ■

Zakutik edo zorrotik

2004-02-19

HEMEN, gure xedeen aitzinaraztea dugu oroz gainetik gogoko. Aipagaiak ez dira falta : politika, ekonomia, hizkuntza eta kultura alorrek sekulako eremuak eskaintzen dizkigute. Ez da maiz lehiarik abertzaleen artean, hauteskundeetan salbu, hainbertzetarainokoa baita zabala gure egin behar guzien lantegia.

Baina engaiamendu serio batek galdegiten du ere bere autokritika eta hor dira hasten zinak eta minak : gure borroka ezinago gogorrean, zilegi ote da batzuen jokabideak zalantzan ezartzea, edo/eta areago dena, gaitzestea ? Guk baietz diogu. ETArek bortizkeriak espainol botereari ematen baitio parada bat gaitza mundu guzian gure omena zikintzeko, gure galdeen baliogabetzeko eta ondorioz lurra baino beherago ezarriak gelditzen baikara.

Estatu agintariek badakite gaurko mugek herrialdeen eremuak ez dituztela errespetatzen, baina haien birmoldatzea ezinezkoa zaie : gerla odoltsuenen pizle izan baitira muga istorio horiek. Bizkitartean baditugu muga berritze eredugarriak, bat segurik Europa zaharraren erdi-erdian berriki gertatua : Txekia eta Eslovakia bereizi baitira eta osoki beren gain jarri, Vaclav Havel agurgarria izan delarik aldakuntza horren kudeatzaile bikaina. Zertako ez dugu maizago aipatzen Txekoslovakian egin dena, gerlarik gabe, onez onean eta denen onetan ?

Frantses boterea ere baliatzen da Hegoaldeko gertakariez Iparraldeko eskubide oinarritzkoenak ukatzeko, gure eskakizunak minimalak eta legezkoak izanagatik. Frantzia bere berrehun urteko teoria zahar okituari darraio : populu BAT = hizkuntza BAT = kultura BAT = nazio BAT eta Estatu BAT. Zer egin dugu (edo zer ez dugu egin) euskaldunek (eta bertze herrialdeek) holako egoera etsigarria merezitzeko ?

Eta Frantziak umeak egin ditu zoko guzietan bere kolonizazio erraldoiaren bidez. Afrikan bereziki hedatu du bere pozoia ; han ere orain, ‘eremu zatiezinak’ eta ‘muga hunkiezinak’ oihukatzen dituzte, kanore gabeak batzuetan.

Hargatik, aitortzen dugu, ez zela itxurarik gabea frantses iraultza, errege guziz boteretsuen aitzinean, libertatea, berdintasuna eta anaitasuna aldarrikatzen zituenean ! Baina lelo horien oihartzuna ahulduz doa. Bertzeak bertze, kolonia ohietarik etorri eta beti datozkion musulmanoek sekulako ezinbertzeetan ezartzen dute Frantzia. Leporatua zaio errepublikaren lema ederrak ez direla obretan agertzen. Alabaina, arrazismoa beti bizirik da eta bertzalde indartuz doan liberalismoak langilea gero eta gutiago gerizatzen du ; zer balio dute beraz ideia eder horiek barne hutsak badira ?

Arabiar-musulmanoen kultura eta zibilizazioak ihes-leku gaitzak gertatzen dira biziaren eta kanpoko ‘haize hotzei’ ihardukitzeko ; arazoak

badituzkete baina familia eta leinu elkartasun handiak ere badaude oraino, hain xuxen mendebaleko zibilizazioan buruz beheiti ari direnak.

Guk ere elkartasun bidetik joateaz bertzerik ez dugu. Gure zuzenen eskatzea, behar-beharrezkoa dago, baina horrek bere mugak erakusten dizkigu. Joan den otsailaren 5eko Berria-n, Mixel Berocoirigoinek arras ongi oroitarazten zigun ikastolak ez zirela gure dretxoak aldarrikatuz bakarrik sortu baina guraso batzuen lan itzelari esker eraiki zirela eta azkenean onartuak izan ; Euskal Herria ere hola egingen dela menturaz, gaineratzen zuen.

Bai, hala-halaxe daukagu guk ere. Eta beraz, Estatua ez bada higitzen, Laborantza Ganbera guhaurek egitea dukegu, zakutik edo zorrotik ! ELB gehiengorat heldu da laborarien artean borroka goresgarri bati esker ; orain obratu behar da zerbait baitezpada.

Hauteskundeak hurbilduak ditugula-eta, buruhauste eta izerdirik baizik ez dugu beraz hitzmateko. Daukagu, haatik, euskaldunek badutela jeinu gehiago zerbait zehatzen eraikitzeko bertze edozertarako baino. Laborantza Ganbaren saila, gure zatiketa politikoak gaintitzen laguntzeko ere ez da, beharbada, txarra izanen... ■

Hondoa jorik

2004-03-18

MILA GOGOETA jauzten zaizkigu astelehen goiz honetan, joan den asteko gertakari ikaragarrien eta jarraian atzo Espainiako Estatuan ospatu diren hauteskundeen ondotik. Ez dakigu zertarik has eta ez dukegu gaiaren itzulia eginik ! Beharbada, lehen lehenik adierazi behar genuke gure elkartasuna, zinezkoa baita, Madrilgo zaurituei eta hil guzien familiei : holako sarraskia baino jasangaitzagorik eta deitoragarriagorik ba ote da deus ?

Baina batzuk minez edo doluminez lehertuak zeudelarik, gu ere euskaldunak hor ginen zakar ontzirat botaiak, Al-Qaida okaztagarriari parekatuak, gure arteko talde armatu baten burugabekeriek dirautela-eta. Alabaina, doi-doia zenbait egun lehenago, bortzehun kilo lehergailurekin atzemaia izana zen bikote bat eta horrek ditu susmo guziak berehala ETaren gainean ematen lagundu. Dena den, gure kasua doi bat argitu baldin bada igande arratseko emaitzekin, hunkituen eta umilatuen atsegabeek iraunen dute luzaz...

Ez da dudarik, ortzeguneko sarraskiaz baliatu nahi izan dela boterea hauteskundeen irabazteko. Ordea, jendea ez da zenbaitek uste den bezain zozoa... Aznarrek eta Mayor Orejak (eta Bushek !) bildu dute hor ostiko bat ederra : ez baitzuten ebatsia ! Zin-zinez ezin jasana bilakatua zen horien bidea. Harrokeria, jaurogoa, gezurra, mehatxua, horra zer zituzten gobernatzeko moldeak... Ekonomia indartu badute ohargarriki eta denbora laburrez, ikusi behar da ere zer laneko baldintzetan daukaten langileria. Baina Irakeko gerlan partehartzea izan da, dirudienez, Al-Qaidaren mendeku garratza erakarri duena.

Euskal Herriko emaitzak ohargarriak dira. Lehenik parte-hartzea handia izan da eta gero Espainiako gaurko itxura gorraetan Euskal Autonomia Erkidegoa agertzen baita, berdez, bere kolore berezian ! Ez gara hemen ari gorriaren menderatzen baizik gure nortasun politikoa agertu dela hor, argi eta garbi, mundu osoak begiak gutan landatuak zeuzkalarik ! Ez da guti. Zorionak dizkiogu EAJri, irabazi baitio PSOERI.

Nola utz aipatu gabe Nafarroa-Baik lortu duen aulkia UPNri kenduz gainerat ! Horra hor bihar egin behar dugunaren eredua... Nafarroa gure erreinu zaharrak, azken gerla zibilaren zaurietarik ezin sendatuz, PPren morroi eta UPNren eskuetan dabilenak (noiz arte ?), irrintzi ozen bat bota du. Hel bekigu oihartzuna...

Kataluniako emaitzek ere merezi dute behako bat eman diezaiegun. ERCren gorakadak loriatu gaitu. Bagenekien goiti ari zela baina ETaren sareetan erabilia izana zelakotz ez aspaldi, ateketan emana izaterainokan, kezkatuak geunden. Orain horko sozialistak nola ibiliko diren ikusi beharko

da. Beharbada hor dago biharko politikaren gakoa, horien beharra ukanen baitu Zapaterok gobernatzeko.

Garaile berriak lasaitasuna eskatu du hitzemanen duen aldakuntzari lotzerakoan. Badu nun zer egin. Bertzela, gizona ongi presentatzen da ; bere kide guziak ez ditu, haatik, Kataluniako iritzikoak. Baditu bere inguruan PPkoak bezain zentralistak eta beraz itxaron beharko dugu zenbait egun ikusteko norat bihurtuko den indar politiko nagusi berria. Ez da hain gaizki atera EA baina Aralar-Zutikengandik gehixago igurikatzen genuen.

Zer erran Autodeterminazioa Orain bozkatu dutenez ? Ehun milako bat pasa. Ohargarriak, baina ere bertzetik nigar egingarri da hoinbertze izatea oraino odolaz jendea bortxatzearen alde... Bortxazko bide horrek makurrik baizik ez digu ekartzen aspaldi honetan : gure arteko zatiketa, etsaiaren itsuski indartzea, munduan gairi desohorea... Gaurko egunean jukutirik hatsa labur ! Al-Qaidak aski handia egin ez balu, PPrekin ginatekeen lau urterentzat, euskaldunak eta gaizo espainolak ! Lotsagarria.

Horiek hola, datorren igandean Iparraldean hauteskundeak izanen ditugu. Eraunsi izigarri horren ondotik, guk ere ihardespen argi bat eman behar dugu Abertzaleen Batasunarentzat bozkatzuz, duda izipirik gabe : hondoa jorik berriz goiti abia gaitezen. ■

Goiti ari garela

2004-04-15

HALA BAI EZTATU DIGU Aberri Egunakari Ezpeletan Ahudo Gurutxaga ikerle eta soziologoak. Mintzaldia gustatu zaigu eta gogoeta xume hauek jauzarazi dizkigu. Badu bospasei urte Iparraldeko egoera politikoa aztertzen ari dela Bilbo errekaldear hau eta harentzat ez da zalantzarik : emeki bada emeki goiti ari gara Iparraldean !

Galdeketa sozio-linguistikoek hauteskondeek baino hobeki oraino erakusten dute gure gorakada hurria baina jarraikia. Duela ez hain aspaldi beren burua frantses huts zeukatenak %50 ziren eta gaur %30etarat jaitsiak omen dira. Ez dugu arbuiautuko gure hizlariaren baikortasuna, ala futxo ezetz, baitugu zerbaiten beharra...

Hegoaldeko Anaia handiak Iparraldeko Anaia ttipia eskutik eraman behar edo eramanen duelako ustean ere ez du sinesterik. Guk ere ez, aspaldi honetan. Osoki errespetagarria izanik ere ez baitzaigu iritzi hori eraginkorra iruditzen, hango eta hemengo historia eta kultura politiko desberdinegiengatik, hauteskondeek argiki baieztatzen digutena gainerat. Hegoaldeko laguntzaren behar gorria dugu hemen baina, gure ustez, guk egin beharra gure gain geldituko da, gure moldean eta urratsean. Hola baita batzuetan : zuk egin behar duzuna bertze batek ezin egin zure orde, lagun bazaitzake ere.

Lurraldetasun baten finkatzea ere azpimarratua izan da Aberri Egunean. Egia da badirela lurrik gabeko populuak eta halere nolabait dirautenak, hala nola ijitoak edo buhameak. Baina euskalduna ez da batere gogo berekoa ; eremu batean bere etxaldea finkatzea osoki bere ohituretan erroturik dauka eta, hori gogoan, aise onar dezakegu herriaren garapenarentzat ere lurralde finkatu bat laguntza baitezpadakoa dela. Eta bide horretan euskal departamenduaren galdea, lehen urrats bezala, guziz bidezkoa zaio gure hizlari bizkaitarrari. Osoki bat gaude harekin.

Arras bertzalde baina erran dugunari lot dezakeguna halere : batzuk, gure artean, ari zaizkigu noiztenka euskarak eta euskarak bakarrik salba gaitzakeela. Guretzat aldiz argi eta garbi dago abertzaletasunak duela eraman behar herri hau, urratsez urrats, euskalduntzerako bide luzean. Ehunarentzat hamar, Iparraldean, beren buruak osoki euskaldun dauzkatenak. Bertze guziak, erdaldun hutsak edo berdin erdi frantses eta erdi euskaldunak, nola guganatuko ditugu ? Euskara hutsarekin ? Ez ote da hor beharrezko egundainoko legeari segitzea erran nahi baita guganat bildu nahi ditugunen mintzairan jokatzeko, mintzaira hori izan dadin eguneroko euskara ala erdara, azken hau tresna bat baizik ez delarik bistan dena ?

Nolaz pentsatu dugu Hegoaldean bezala edo areago frantses hertsatzaileek egin duten bezala egin genezakeela, jendea puntako euskara

akademiko bat harrarazi, gaurko mende “idekian” eta bereziki botere politiko baten laguntza ofizialik gabe ?

Denen beharra badugula aski aldiz errepikatua dugu hemendik eta gu beti horretan gaude. Euskara biziki gora daukagu baina ez da oraino aski finkatua eta landua maila guzien asetzeko eta zuzenean gure etsaiari bihurtzeko.

Bertzalde ez da ahanzi behar adineko jendea ez dela alfabetizatua eta gazteentzat ere, eskolaz kanpoko, hizkuntza ‘komunikatiboa’ landu behar litzatekeela ; hala zioskun berriki Asisko Urmeneta komikigile famatuak ere Berria-n. Badugu nun zer egin.

Utz ditzagun kritika errexegiak. Utz bertze batzuek Piarres Lafitte bat bakean : nork egin herriaren alde hark bezainbat joan den mende guzian ? Hutsak, denek egiten ditugu, baina paganismoaren bidetik hobeki atera gintezkeela ? Non dira frogak ? Frogaren hastapenik ere ba ote da ? Gure eskubideak etengabe aldarrika ditzagun baina ere goazen herritarrenganat haien zerbitzari eta euskaldungoaren proposatzaile. Gaurkoan ezin dezakegu bertzerik eta.

Baina hori guzia egiten badugu abertzaleen eta euskaltzaleen arrakastak berriz ere goiti egingen du. ■

Laino artetik eguzki izpiak

2004-05-13

DUELA BERROGEI BAT URTE euskaldun bat, biziak harat eramanez, Marseille aldean polizia aitzindari gertatu zen. Bere manupean bazeukan, bertzeak bertze, korsikar bat. Behin batez bazuten begietan gaiztagin bat, ez gaiztagin egiazkoa, baina lege batzuk bere gisarat erabiltzen dituzten haietarik halarik ere. Aspaldixkoan poliziak barrandatzen zuen eta delako korsikarraren gain zen haren ximenki ‘segitzea’ bai eta behar orduan harrapatzea.

Arrastatzeko nahiko frogaz bazuten bildurik eta azkenean gure euskaldun aitzindariak, doi bat aspertua, erraten dio korsikarrari zeren goait dagoen delako gaiztaginaren preso altxatzeko... Korsikarrak orduan, nigarra begian, aitortzen dio : *“Il est de mon village”*.

Ixtorio hau egiazkoa da eta gure adiskide baten aitari gertatua. Bistan da legeak denentzat bera behar duela izan, baina ez ote da hunkigarria korsikar horrek erakutsi duen elkertasuna sorterriko lagun bati, bere burua gaztigupean ezartzerainokoa izan baita ?

Manex Goihenetxeren ehorzketetan lekukotasun hunkigarririk baizik ez dugu entzun, baina zinez inarrosi, jo gaituena, andaluziar batena izan da. Han ez zirenentzat laburbilduko dugu zer gertatua zen. Manexek, Hego Ameriketara zebilelarik, bere mendigoizaletasunaz bertzalde baitzuen, denek dakigun bezala, jendaira mota guztiak ezagutzeko gutizia ezin asea, bidenabar aurkitu zuen han Machadoren olerki bat biziki gustatu zitzaiona.

Artetik errateko, olerki hori katalandar kantari batek ere bere egina du aspaldian. Poema hori beraz Manexek bildu eta ekarri zion bere inguruan ontsa ezagutzen zuen hemen bizi den andaluziar bati eta hau muinetaraino hunkia gelditu ere baitzen euskaldun abertzale batek egina ziolakoan, eta hori, berak ortziralean, nigarra ezin atxikiz, erran digu (oroit zer ezinikusiak dauden gaur bi herrialde hauen artean).

Herri Urrats berriz ere ezin ederkiago ospatu da joan den igandean 21. aldikotz. Goizetik gazteria eder bat hurbildu da, zoriontsu, eguraldi ona sustatzaile. Arratsaldean adinekoak gehiago etorri dira, beti denbora behar bezalakoak lagundurik.

Zer lastima haatik laku horren eraikitzeke maneretan izan ziren jokabide arbuiagarriak, gaur oraino zenbait antolatu gabeak eta senpenter askorentzat ezin ahantziak !

Bertzela, aitortu behar da zer leku gisa den eta zer antolakuntza, urtetik urterat hobetuz joan dena... Iduri luke Herri Urratsek preseski leku berean egiten delakotz ohitura kutsu zerbait ere bildu duela. Zenbaitek ez dute onik ohitura den guzia itzulipurdikatu arte ; uste dute berrikuntzaren ondotik dabilela bakarrik jendea... Ohiko bestak ere maite ditu gazteak eta

are gehiago adinekoak, aski da ikustea pastorek duten arrakasta... Jakinez gero noiz nun zer aurkituko duen, berrikuntza batzuk goiti-beheiti, jendea lorietan etortzen da euskal egun baten edo arratsalde baten gozatzerat.

Gisa guziz, herriz aldatu behar balitz Herri Urrats zenbait urtez leku berean egitekotan egin behar litzatekeela daukagu.

Bizi molde eta lanbide berriek gaurko jendea zalapartaka, jo harat jo hunat darabilte, berek nahi edo ez. Gaurko gizartearen gehiengoak, eta bereziki gazteenek, ez dute, iduriz, geroaz axolatzeko gustu handirik eta are gutiago iraganaz oroitzeko ; ‘orainean’ bizi direla erran daiteke, naski.

Liberalismoaren liluramenduak jo gaitu itsuski : oroitmenik gabeko eta geroan bihur errex egin (nahi) gaituzte. Baina gorago aipatu gertakari horiek —korsikan herritarren arteko atxikimendu ohargarria gostarik gusta ; andaluziar baten eta euskaldun baten adiskidantza pozgarria ; Herri Urratsen emaitza itxaropentsua— hirurak hor dira sentimendu baikor batzuen pizteko.

Ez pentsa nehola ere hain xumeak direnik eta orain laino arteko eguzki izpi horiek zabaltzen jarraitzea dukegu, kementsu jokatz, baina pertsonen bizia errespetatzu beti. ■

Bide zabaltzailearen alde

2004-06-10

HELDU DEN IGANDEAN Europako legebiltzarreko hauteskundeak ditugu eta abertzaleek bi bide desberdinetarik doazkigu. Herritarren Zerrenda, Hegoaldean debekatu dute. Han, bere usaiako boz kopurua biltzen ahalko zuen mugimendu horrek baina espainolistek pentsatzen dukete, debekatzearen bortxaz, nekearen nekeaz, olde hori ahulduko dutela.

Iparraldean aldiz utzi dituzte presentatzerat ; hemengo boz eremuak Frantziaren laurdena kasik hartzen du eta eskualde osoki artifizial horretan erdietsiko den portzentaia arras ahula eta kasik irri egingarria geldituko dela badakite denek. Frantses espantutsuek sinetsaraziko ote dute espainiarrak baino demokratagoak direla, instituzio eta boz kontaketa mailan han baino mila aldiz makurrago gauzkatelarik ?

Herritarren Zerrenda horri beren atxikimendua ekarri diote Iparraldeko izen andana batek : gehienak abertzale ezagunak eta frogatuak. Zertako ez ditugun bada guk ere segitzen ? Zeren-eta jokabide mailan, puntu guziz garrantzitsu batean, ez baikara batere gogo bereko. HZkoek ez dute sekulan aipatzen borroka armatuak gelditu behar duela.

Guretzat aldiz puntu horrek sekulako garrantzia dauka eta galdegiten dugu hauteskundeetarat aurkeztugogo duen edozein taldek borroka gisa hori behin betikotz uztea eska dezan, politika egin dezagun arerioen/ etsaien bizia errespetatuz. Ez dute ere nehoiz aitortzen debeku eta enegu horiek borroka mota horrek zilegitzen dituela. Espainolisten aitzakia dela badakigu, baina guziz sineskorra gertatzen da estakuru hori abertzalea ez den eta gudanatu behar genukeen jendartean.

Badu urteak gauza bera errepikatuz gabiltzala, baina oroz gaintetik ETAk su-etena hautsi zuenetik, Lizarra-Garaziko gogo aputu zuenetik, sekula egin beharko ez zuena.

Gaur, Madrilgo Al-Qaidaren ekintza odoltsuaren ondorioz, are gehiago makurtu dira iritziak gure kontra bazterretan eta oihukatzen dugu bide hori tapatua dela eta jokabide horrek gure omen txarra hedatuz daramakigula, ezker mutur-muturreko indarkerizaleen artean salbu.

Horretaz, nahi genuke hemen lekukotasun bat ekarri. Bertze batek alderantzizkorik igortzen badigu jakizue ezarriko dugula hemen berean !

Joan den apirilean izan gara Sardinia bisitatzen, hango jendeaz eta hango autonomia politikoaz ikuspegitxo bat bederen bildu nahiz, egun goxo batzuk iraganez denbora berean. Han gertatu gara, hirurehun bat frantsesen artean, gu senar-emazteak bakarrak Euskal Herritik. Ez da lehen aldia hegaldatzen garela bertze herriak ere doi bat hurbiltxagotik ezagutu beharrez. Nun-nahi izanik ere, haatik, gure euskalduntasuna agertu dugu beti

eta gehienetan, ez errateko beti, jendeak galdeak ere egin dizkigu, hartaz edo honetaz : gure herriaren berezitasuna frango urrun hedatzen baita. Hots, nori ez zaio holako bat gertatu ?

Sardinian ere, beti bezala, euskaldunak ginela hasi gara erraten, lekuko gidatzaileei ala bertze ingurukoei. Baina hau bitxikeria : denek motz-motza, hotz-hotza uzten gintuzten ; nehork ez zuen gurekin segitu nahi ! Eritasun kutsakor batez joak bagina bezala urruntzen zitzaizkigun ! Azkenean usnatu dugularik zer gertatzen zatekeen hasi gara bertze batzuei erraten Pyrénées Atlantiques-ekoak ginela eta haiek arras normalki hartu gaituzte !

Lehen aldikotz beraz gure herriaz ahalkea eta desohorea dastatu dugu kanpoan ere, herrian berean bazterketa latza sentitu ahal ukan dugun bezala. Ordu da beraz, eta premiazko, zabal gaitezen norabait eta argiki erakuts dezagun demokratak garela gogoz, hitzez eta egintzaz.

Horra zertako bozkatuko dugun Berdeen zerrendaren alde datorren igandean. Gaurko egoeran, gure borrokari hats berri baten emateko aukera ikusten baitugu hor. Gainerat anitz puntutan Berdeen xedeekin bat gaude eta haien zerrendako hirugarrena dugu Abertzaleen Batasuneko Gorka Torre, euskal militante ezaguna. ■

Sineste argituak

2004-07-08

DUELA HILABETEA, hemen berean, Berdeen alde bozkatzerat deitu genuen. Aitortzen dugu ez garela batere segituak izan. Egia da, Enbatan, batzuek genuela bakarrik argiki bide horren alde egin, bertzeek doi-doia eta urrundik baizik ez zutelarik sustengatzen. Halere gaur nahi dugu berretsi duela hilabeteko gure bidea, bide zabaltzailea, bertzeak bertze, Québec-etik etorri zaizkigun berri onen ildotik. Ikus joan den asteko Enbatan.

Horra hor frogar bat gehiago gaurko egunean bide demokratikoak emankorrakoak direla armei lotuak baino. Gisa guziz, armek, on baino kalte gehiago egiten digute aspaldi honetan eta, Madrilekoaren ondotik, Al-Qaidak azken ozkaraino suntsitu eta desohorepean ezarri du guretzat betikotz odolezkoaren bidea.

1967an De Gaulle-k “*Vive le Québec libre*” aldarrikatu zuenean hango abertzaleak arrunt behera zeuden. Eta gaur ikusten ditugu haiek boterearen atarian eta gu politikoki deusetarat ezin helduz... Guk ez dugula frantsesen laguntzarik ukan (...) edo Kanada ez dela Frantzia ? Egia beharbada.

Oroitu haatik, gu borrokatzen garelarik bi hizkuntza-kultura indartsuren (frantsesa eta espainolaren) azpian lehertuak ez izateko, haien borroka ez dela menturaz errexagoa : ingelesari iharduki behar baitute han eta hura baita egungo egunean aise eta aise mintzaitan puxantena, bazter guziak estaltzen ari dituen, estatubatuarren indar ekonomikoak eman bultzadaren bidez !

Abertzaleek idorki bozkatu badute, uste izateko da frantses ala espainol botereen jokabide ezin gogorragoari ihardesteko izan dela. Bakoitzak bere ametsak atxiki ditzala baina gure urratsek ez lukete hoin erradikalak izan behar. Joan den mendean ikasi ditugun guziek behar gintuzkete gauzen hobeki haztatzerat sustatu. Zer sinesteak, jaun-andreak, ez ditugu ikusi zangoz gora joaten, sineste horiek hain ederrak iduri zutelarik alta !

Aski da behatzea hoinbertze herrialde burujabe berriri. Behatzen ahal genuke ere, Frantzian ezagutu dugun JACari ; laborantza modernizatu behar zela-eta, fede onez eta sekulako karrarekin entseatu zen gazteen mugimendu katoliko hori ; baina halako oldarrez non laborari horietarik asko produktibismo hutsean leporaino sartu baitira, bazter guziak kutsatuz gainerat ! Ez zen bada hori gaztetan amestua zen etorkizuna...

Laborantzako lurak zaintzeko ere bideratu ziren POS delakoak, hain beharrezkoak direnak, erran gabe doa ; baina horrek ere etxe egiteko lur eskaintza murriztu du eta eragin handia ukan du hainbertze deitoratzen dugun etxelurren kariotze horretan, eskaintzaren eta galdetzaren arteko

merkatal jokia dela eta. Alor berean egonez bertalde, hamar etxebizitza eraikitzen badituzu, zortzi kanpotar eta bi euskaldun sartuko zaizkizu, kostalde honetan segurik...

Bertze batzuk oraino, kontsumitzailea gerizatu beharrez, ari izan dira heiagoraka errepikatuz “*rapport qualité-prix*” delakoa aztertu behar dela erosi aitzin.

Horrek ere alta, ororen buru, herstura ekomiko-sozialerat eraman du mendebaldea : hemengo kalitate bera aurki baitaiteke orain Asia hego-ekialdetik (edo nahi duzuen lekutik) ekarria eta hemen baino merkeago eginik. Ikus, haatik, gero joko horrek zer langabezia batetik eta zer langileen mobilitate, hertsatze eta lehiaketa etengabeak erakartzen dituen bertzetik... Hots, liberalismo salbaiena berriz, familiak eta herriak desegiteko ez baitu parerik.

Horiek hola, ez dugu haatik erran nahi sineste guziak, hauteman gabe, baztertu behar direnik : ez eiki ! Beharbada sineste eskasa da gure ahulezien iturburua... Euskal sineste eskaseko frango baitaude. Sinesteen argitzea bilatu behar dugu, gure urratsak behar den baino gehiago gogortu gabe, batzuen militantzia eskasa betetzeko ustez : fruitua bere orduan biltzeko gisan. ■

Min, izerdi eta udako amets

2004-08-05

UDA, OPOR ARO. Lehen, laborantza zelarik bizipiderik hedatuena (kasik bakarra gure inguruetan) ez zen batere hola : uda zen lan nekagarrienen denbora. Leher eginak ari ginen goiz arrats : arto jorratze, ogi sartze eta jotze, belarrak, egur biltze... hor genituen denak bata bertzearen gainean.

Nola ahantz ere gure gazte denborako sasoilariak, anitz baitzihoazen kostalderat bereziki, baina ere Lurderat ; baldintza gogorrenetan lan egin dute frangok. Beharrik ez baitziren ‘gaizki usatuak’ etxean ! Behartu zaie... Lan molde batzuk aldatu dira geroztik. Ez erran, haatik, denak hobetu direnik, laborarien edo sasoilarien bizi moldean ; ez eta ez : zenbait puntutan iduri bailuke berriz gibelerat ari garela aitzinamendu zerbait doi-doia dastatu ondoan.

Uda dela-eta, alderdien politika eta Estatuen gogorkeria utziko ditugu aldi batentzat. Iparraldean eta Hegoaldean sekulako arrakasta dute festek. Kultura alorrean Pastoralak dukegu hemengo gertakarien gailurra. “Antso Handiak” erdietsi du arrakasta gaitza eta, urte guzietan gauza bera errepikatzen badugu ere, ez gaudeke goretsi gabe Zuberoa bere idazle eta antzezle propioekin urte bakoitz ematen baitigu bere erakustaldia, ohiturari jarraikiz baina ere, xortaka-xortaka, berrikuntza batzuk sartuz, guzien loriagarri.

Egia erran pastoralak festa soila baino gehiago da : gure Historiaren hoberenetik ikasten baitugu hor. Eskerrak eta goresmenak dizkiegu joan den asteke Enbatan jadanik aipatu guziei.

Erants dezakegu hemen zenbaitek errege eta erlijio istorio horiek ez dituztela batere gogoko ; zaharkeria edo atzerakoikeriatzat dauzkate ; errepublikarrak eta laizistak omen dira osoki. Bertze batzuentzat aldiz demokrazia da beharrena. Eta iritzi guziak haizu (omen) baitira eta uda amets sortzaile baita, erran dezakegu beraz Nafarroan erregetza demokratiko bat berriz jar baledi ez gintezkeela batere samurtuko batzuk... Espainiako erregetzaren aurrean zer indar sinboliko ikaragarria ! Denetarik ezin onartuzkoena Espainiarentzat ?

Bertzalde, errege bat izan bada Euskal Herriak nehoiz eman duen politika gizonik handiena, zertako ez ? Bego horretan, gaiak gainditzen baikaitu.

Udako ekintza gehienak ohituretan sartuak bezala ditugularik (ez du haatik horrek ttipitzen, adibidez eta bertzeak bertze, aurten EHZ antolatu dutenen merezimendua) hor dugu Euskal Laborarien Batasunak ideki duen sail garrantzitsua : Laborantza Ganbera baten eraikitzea. Desafioa beharbada

baina erabaki ongi hausnartua, urteetako gogoeta, izerdi eta borroka askoren ondotik datorrena.

Gain-gainetik sustatzen dugu egitasmo hori. Zenbaitek diote (erdi ahapetik) ezinezkoa dela ; ikastola baten sortzeak ez bezalako diruketak eskatzen dituelakotz. Baina lehen ikastolak sortu ziren duela 35 bat urte. Geroztik euskal militanteak formatu eta azkartu egin dira eta uste dugu herriaren laguntzarekin, ELB-k lort dezakeela bere helburua Euskal Herriko laborantzaren faboretan baina ere herritarren onetan ; eta lortu behar du.

Nola egon hemen barneko min bat aitortu gabe : ez laborarieri buruz baina gure arteko komertsante eta enpresak gogoan. Laborariek ez bezala, badugu Baionan Euskal Herriko Industria eta Merkataritza Ganbera. Han sartzeko egin genuen entsegu bat 1997an eta bozen %35a eskuratu ere lehen aldian berean. Hauteskunde sistemak ez gintuen utzi aulki batzuk eskuratzerat, egia da. Baina zertako gelditu gara hasi bezain laster ? Enpresa ttipiak eta ertainak sustatzen segitzea ez ote zen baitezpadakoa ?

Nola salbatuko dugu laborantza ttipi edo ertaina, komertzio mailan saltegi erraldoiak -arrunt bertze sistema baten inposatzaile direnak- bazter guziak itotzerat utziz, hitzik erran gabe, gehiago dena ? ■

Errusiako sarraskiaren ondotik

2004-09-09

GURE KASUAN den idazlea lerraleku batzuetan eror daiteke luma hartzerakoan. Batean, kanpo arazoak har ditzake etxekoei ihes egiteko, hauek ez direlarik itxaropentsuak. Bertzean berriz buru-beharri sartuko da herriko gorabeheretan inguruko guzia ahantziz, munduan bakarrik bagina bezala... Euskal Herrian badugu bertze lerrabide bat : Iparraldean hitz egitea Hegoaldean gertatzen denak hunkitzen ez bagintu bezala edo alderantziz.

Ez dugu aski errepikatuko, hedabide berriei esker, gaurko mundua, mugarik gabea bilakatua dela. Hedabide guziak ez dira egiazkotasunaz kezkatzen : horietarik asko indar politiko eta ekonomikoen eskumakila baitira ; baina, xuxenak edo makurrak izan, populu menperatu baten berriek hunkitzen gaituzte beti.

Horrela, ez gaudeke Errusiako sarraskiaz hitz bat erran gabe. Ez ahal du nehork usteko txetxeniaren egoera, ezinago latza, ez dugula ikusten ; nola dauden han Errusiak zanpaturik, leherturik. Gehiago ere, uste dugu haien kasuan armak hartzea zilegi dela nahiz ez den beharbada molderik egokiena edo emankorrena. Baina bada ere armak erabiltzeko molde bat baino gehiago. Haurrak bahitzea eskola batean, guziz arbuia garritzat daukagu. Holako jokabideek ez dute txetxeniaren borroka, funtsez bidezkoa dena, ohoratzen : aitzinetik asma baitzitekeen Putin soraioaren ihardespena.

Iparraldean begiak zurutuak gaude hain garrantzitsua izanen den Laborantza Ganberaren sortze hori nola egingen den. Hegoaldean berriz Ibarretxe plana dugu hizpide. Iritzi biltze baten arabera bake esperantzak beheiti egin du : denak kantitu gabe baitaude han, bere hartan. Batetik, borroka armatua gaitzesten ez dutenekin ez da elkarriketarik komeni. Bertzetik, Euskal Herria bere osotasunean, hau da, zazpi lurraldeen autodeterminazioa ez bada aitzinean ezartzen, ezin onartua da plan berria. Hori ez bada gorpil zoroan murgiltzea...

Horrek ez du erran nahi, haatik, denak zaku berean ezartzen ditugunik ! Gure ustez Ibarretxe Planak urrats bat aitzinerat eginaraz dezakeela baitaukagu. Bertzeek, urrats hobe bat eta bereziki egingarri bat proposatzen badigute, prest gaude haren aztertzeke. Gisa guziz ETArek borroka armatu horrek gelditu behar luke behin betikotz ; bere denbora eginga du eta jadanik sobera irauna du : ez du itxurarik ere gehiago...

Arbuiatzen badugu txetxeniaren alde egin izan den bahiketa, aitortuko dugu Beslango gudari horien sakrifizioak inarrosten gaituela ; gure erakunde armatuaren zartagailuek aldiz abertzaleen arteko lana eragozteko eta etsaien herra sakontzeko ahala dute bakarrik...

Askok uste dute Ipar Irlandako bidea har genezakeela eredu. Badu hamar bat urte orain su-eten aroan bizi direla han. Baina biziki urriki aitzinatzen dira instituzio berrien eraikuntzan. Ez ote du horrek erakusten su-etenak ez duela baliorik ? Alabaina, berriz sua pizteko mehatxua baldin bada ez ote du erran nahi borroka armatuak dirauela eta horrela nola finka daiteke konfiantzazko harremanik ttipiena ere negoziatzaileen artean ?

Agian gure iritzi ezkorra gezurtatuko du geroak... Gogoan atxiki halere, urrun garela duela berrogei urteko giro hartarik : azkatasuna edozein baldintzatan ! Ondorioz, ikusi baita denetarik, dakigun bezala...

Mundua berriz ere odolatan ezarri dute Bush eta Putinen nagusikeria oiesak, Europako bertze agintari askoren isiltasun lotsagarria lagun. Etnien eta erlijioen arteko tirabirek ere handizki zailtzen dituzte arazoak ; alta gai horiek ez dira bihar ezeztatzekotan ! Segur nonbait gure saila ere nekeagotzen dutela.

Bizkitartean, euskaldunen oniritzia baina ere kanpoko jendearen begirunea bederen guganatu behar genituzke aurrera egitekotan, borroka zehatza bezain psikologikoa den honetan. ■

Atzokoek argi bagintzate...

2004-09-30

ARRATSALDE GOXOA eta hunkigarria iragan dugu Itsasun joan den larunbatean. Euskaltzaleen Biltzarrak hainbat ederki antolatua zuen omenaldi bat andere Janamari Malharin zenari, esker onez. Beharbada ez da alferretakoa hemen ere zerbait erran dezagun emazte bertutetsu horrek eraman duen biziaz, guziz emankorra eta eredugarria izan baita.

Lehenik derragun 1912an sortu zela eta 2001ean zendu ; hamaika haurridetako familian gertatu, gurasoak etxetiar xume zituelarik. Etxean, giristinotasunari atxikiak ziratekeen : hamaika haurretarik 4 serora eginen baitira ! Amizkutarra sortzez, Lekuinen irakasle 16 urtetako (47 urtez segituko duen saila !) eta gero bereziki Mugerren emanen du bere ahalen neurria. Kemen ikaragarri batekin eramanen baititu bere lanbideaz bertzalde : fedegintza, antzerkigintza, musika, dantza eta bereziki euskara eskoletan sartzearen alde bermatuko baita.

Duela 40 urte ikusi genuen lehen aldikotz Euskaltzaleen Biltzarrean. Zenbait urte lehenago Ikas elkarte sortu berria lotua zen eskoletan euskarazko lehiaketa batzuen antolatzeari, ordu arte EBk egiten zuena. EBren baitan, Ikasek bere leku guzia bazuen eta biltzar nagusi egunean Janamari Malharinek xeheki aipatzen zituen haurren lanak, zenbait aldiz luzeki, baina euskaltzale batek ez ditzake ahanzt haurren ateraldi pollitenen hautaketa eta azterketa haiek : gure herrietako hizkuntza aberatsaren lekuko paregabeak agertzen baitzituen hor.

Erran nahi genuke ere, gazte bero batzuek gure inguruan aspertzen zirela hura entzutean, trufatzen ez zitzaizkionean ! Funtsean, Piarres Lafitte zenarekin ere berdintsu zebiltzan. Iraultza egin behar zen eta hautsi lehengo jokabide maltsoegiarekin. Garaiak halakoak zirela ezin uka. Labeguerie Enbatatik urrundu zelako aroa bertzalde. Euskaldunen arteko zatiketaren denborak. Zenbat urte galdu ote dugu horrela, denen beharra gurela ohartu eta onartu aitzin ?

Janamariren biziaz xehetasun gehiago nahi lukeenak hor du “Bidegileak” Daniel Landartek egin liburu ez lodia baina giharri hutsa... Guk ez dugu aski eskertuko EB holako omenaldi bat antolaturik. Geunden ea nola eta zeri lotuko zen euskal elkarte zaharrena Piarres Aintziart buruzagi berriarekin. Alabaina, lehen bera-bera zen euskal alorrean langile baina gaur elkarteak eta erakundeak ugaltu dira eta zoin bere sailari lotu ere, hortzez eta haginez, zuzen eta beharrezko zen bezala. Orduan, zer gelditzen zitzaion gure “Amatxi” xaharrari, Mixel Itzainak berak, buru zelarik, behin hala deitu zuenari ?

EBk, aterabidetzat ateka ona atzeman duela iduritzen zaigu : bertzeak bertze, omenaldi egile, bereizkuntzarik gabe, hainbertze zor diegun oraino

bizi edo zenduak direnei. Haiek, nolabait, sail batzuk ireki baitzituzten Estatu frantses, herri hizkuntza itotzailearen azpitik burua altxatuz. Holako langile amorratu eta zinezko profeta batzuei esker gaude oraino xutik edo bederen xutik egon nahiz. Baina gohaintzen gaituena da gazte batzuek gure iragan hurbil hori arbuizatzea, kristau kontserbadore kutsua duelako aitzakian.

Hegoaldean ere, hemen bezala, betiko presatu batzuek Ibarretxeren plana kolokan ezartzen dute : dena batean eta berehala eskuratu behar litzatekeelakotz. Baina Euskal Herriak ez du jauzi handi hori eginen gure arteko zatiketa hau doi bat ttipitu artean bederen.

Euskaldun batzuk uzkur badaude eta erdaldunak berriz deusik ezin ulertuz, ez da harritzeko : borroka bortitz eta berdin odoltsua hitzematen baitigute gure herria ez bakarrik burujabe baina ere sozialista marxista bihurtu arte !

Eta gauzak emekiegi aitzinatzea batzuek lekuz kanpokoak eransten dituztelakotz balitz ? Iparraldeko auzapezek berriki aho batez eskatu dute frantses konstituzioaren bigarren artikulua zoritxarreko haren aldaketa, Jakes Abeberryk bazterrak harrotu ondoan. Ez ote da hor frogarria borroka jarraiki eta demokratiko batek bere fruituak eman ditzakeela ? ■

Ondorio urrunak gogoan

2004-10-28

EUROPAKO Konstituzio egitasmoaz eztabaida interesgarri bat ikusi dugu joan den egunean telebistan, Alain Lamassoure eta Henri Emmanuelliren artean. Biak europazaleak dira, baina lehenak apailatzen ari duten Konstituzio horri baia emangogo dio, bertzeak aldiz eza.

Lege Nagusiaren hirugarren zatiaz ari izan dira lehenik. Hor finkatzen omen da zer ekonomia mota nahi dugun eta Emmanuelliren ustez, lehen aldikotz Lege Nagusi batean hautatzen da deblauki eta behin betikotz finkatzen, merkatuaren legea, merkatu hitza bera ere errepikatua delarik etengabe. Ez omen da holakorik Estatu Batuetako Konstituzioan ere ! Xuxenago mintzatzeko Konstituzio batzuetan eredu ekonomikoa finkatua izan da baina hori gertatu da bakarrik komunisten diktaturapeko eremuetan.

Lamassouren leloa da, merkatuaren bide liberal hori, jadanik izenpetuak diren hitzarmenetan sartua dela, Maastricht-ekoan bereziki. Eta hitzarmen horiek denak, hain xuxen, gobernu sozialisten denborakoak direla.

Emmanuellik aitortu dio baietz baina horiek ‘akordio’ batzuk zirela bakarrik, mementoko hautsi-mautsi batzuk ; hortik-eta Lege Nagusian behin betikotz ezartzea bertzerik dela, eta hori ezin onartua zaio ; ordu litzaioke beraz goraki erran dezagun ez dela konstituzio batean eredu ekonomikoaren finkatze beharrik. Puntu horretan landestar sozialistaren aburuko ginatke.

Laizitateaz ere izan da eztabaida. Lehen zatian Konstituzio horrek balore izpiritualak aipu baititu eta hori ez omen baitoake neholara ere frantses legediarekin batean, zeina baita osoki laikoa. Emmanuellik dioenaz Estatu Kontseiluari dei eginga izanen zaio eta proiektu hori baztertuko duke Frantziako Errepublikak.

Hemen sentitu dugu Emmanueli bere adiskide laizizta amorratuak ferekatu nahiz ari izan dela, zeren-eta baitaki hark, guk baino hobeki, Frantziak aspaldian laizismoari aizkora kolpe ederrik emanik baduela ; adibidez, eskola katolikoetako irakasleak ordainduz edo oraino Alsazian Konkordatua atxikiz.

Ikusiz bi eztabaidalariak bigarren puntu huni eman dioten garrantzia, argi dago gizarte gaiek leku handia hartzen ari dutela eta beharbada politika hutsari lehentasuna hartuko diotela... Batzuentzat politika hotz-hotza egin behar da.

Guk berriz diogu politika jende osoaren zerbitzuko dela eta laguntza materialak bideratzean behar dela ikusi jendartearen gogo-izpirituak nola hunkitzen dituen.

Horretaz, harriturik gaude ikusiz zoin arinki jokatzten duten politikari batzuek. Beha Noel Mamere-k ez hain aspaldi ibili dituen zimardikak baitezpada bi gizon ezkondu beharrez PACSik ez balitz bezala !

Bertzalde, Berdeek OGM horientzat aipatzen dute “le principe de précaution” eta osoki bat gaude hor. Aldiz homosexualek haurrak adoptatzearen alde dira errotik, haurraren geroko gogo osasunaz-edo neholako “prekozionerik” hartu gabe !

Gizartea aldatzen ari da bereber, kasik itsumandoka ! Berehalako gozatzeari dagokio gero eta gehiago. Indar izpiritualak gaitzetsiko lituzke, zilegitasunik gabe, jokoz kanpo utziz. Bizkitartean arimarik gabeko Europa batek handizki kezkatzen gaitu. Itsuskeria deitoragarrienen egilea izan bada ere, aitzinamendu garrantzizkoenen ekarlea ere izan baita kristautasunak oratu Europa.

Eta Turkiarekin bat egiteak noraino eraman gaitzake ? Ergelkeria hutsa ote da pentsatzea ez badugu gure zibilazioa begiratzen eta lantzen, beren sinesteari askoz ere tinkoago daudenek, sekulako hersturetan ezar gaitzaketela, bertze zibilizazio ilunago baten menpekorik aipatu gabe oraino ? ■

Anoetako erakustaldiaren ondotik

2004-11-25

AZAROAREN HAMALAUAN, Batasunak hamabortz mila lagun bildu ditu Donostiako belodromoan. Ez da balentria txarra ; horko mintzaldian azaldu denak, haatik, ez digu baikortasunik piztu. Mintzaldi luzea, hitz ederrenez jantzia egin du Arnaldo Otegik, hitza luzeago eta hobeago balitz bezala ; gaiztoak bagina erran genezake iduri zuela “L’Humanité” kazetaren besta handian ginela...

Gai minberak itzalean uzteko ote dira holako ele uharrak ? Ez ote zen euskal errankizunez oroitu behar : “Hitz guti eta haiek onak”, “Entzule onari hitz guti” eta holakoak baitioskute hauek ? Baina hainbertze jende bilduz gero, ez da dudarik, ‘asetzekoa’ eman behar zela nolabait.

Lehenik azken 25 urteetako ibilbidea jorratu digu Batasunaren eledunak, beren ikuspegitik, bistan dena, autokritikan sartu gabe, bereziki 1998ko su-etenaren haustea aztertu gabe, hain damugarria izan delarik alta gertakari hori ezker abertzalearentzat. Jon Idigoras-ek ere, ez du holakorik oroitarazi : ez zuen bada begi onez ikusia !

Hor sakondu zen ezkerrekoen arteko bereizkuntza, anitz baikara su-eten horren haustea enganiotzat daukagunak : holako solas ederrak demokraziaz eta elkarriketaz aho beteka, eta gero gibeletik tiroka has estakuru gutirekin ! Su-eten haustearen ondorioak “larrutik ordaindu” dituztela... Zertako ez zaizkio kontuak eskatzen hobendunari ?

Oroitarazten dugu su-eten denboran ezker abertzaleak sekulako boz kopuru onak erdietsi zituela : zertako ez dute segitu beretik, boterea hartzeraino Gasteizen, gero, beren gisarat eramateko herria askatasun bidean ?

Preseski ezker abertzaleen hauteskundeetako emaitza onak izan dira, gure ustez, ETA berriz bereari lotarazi dutenak : bere zergatia baitzegoen hor auzitan ; ordea, hainbertze errepikatua zuten Autonomia Estatutuak ez zuela deus balio, Gasteizko legebiltzarra luzaz boikotatzerainokoan... Estatutu hori ez zen segur nahikoa baina ez zen osoki hutsala ere. Herri bat ez da egun batez eraikitzen. Euskaldunek ez dugu, nazio askatasun bidean, begiak hetsirik jauzi eginen ; autodeterminazioak geroxeago etorri behar du, ez lehen urrats bezala, baina gauza asko bide onean ezarri ondoan. Hiru lurralde dira gaur autodeterminazio gainditzeko gai liratekeenak. Bertzeetan bada lehenik nun zer egin.

Nehork ez du ukatzen ezkerreko abertzaleen ekarpena hainbat eta hainbat alorretan eta haien behar gorria dugula Euskal Herrian. Baina betirako armen uzterik ez badute eskatzen, Euskal Herria eraiki beharko da ezker abertzalearen parte batekin bakarrik : bide demokratikoak erabiliz

soilik jokatu nahi dutenekin. Egiazko harremanik ezin baita izan pistolen kanoia bizkarrean duzularik.

Baldintzarik gabeko elkarrizketetan ez dugu sinesterik gehiago. 1998an alderdiek egin zuten lehen urratsa ; aldi honetan ere urrats batzuk emateko prest leudekeela dirudi. Baina funtsezko urratsa ETAk egin beharko duela lehenik ez da dudarik : aldi bat enganatzen da ; ez bietan...

Azkenik, seriozki ari ote zen Otegi, ETArekin eta espainiar nahiz frantziar Estatuiekilako akordioa eskatzen zuelarik, erakunde armatua beherenean delarik, haren omena lurrean (martxoaren hamaikakoaz geroztik are beherago), haren ekintzek espainol boterea bere hartan indartzen baizik ez dutelarik Espainian berean nola kanpoan ?

Estatuen gogoaren berri ukan dugu biharamunagoan berean, beti berdin oieski : atxiloketak orgataraka, hobenduntasunaz axolarik gabe. Ez, ETAk ez ditu presoak askatuko. Horretarako beharko du herriak indar bat gaitza egin. Baina politikoak ez bide dira eskakizun gogor horretan sartuko herio-mehatxuek dirauteno. Eta Estatuak ez dira higituko bere hartarik, ETA gaur ahuldua izanik ere haren ildoak ontzat daukatenean holako erakustaldiak egiten dituzteno. ■

Aberastasunen artean ezin biziak

2004-12-23

AZKEN DENBORA HAUETAN pobrezia goiti ari zaigu; buruko eritasunak halaber. Ez da harritzeko: langabezia ere beti emendatzen ari baita; parte, langilearen formakuntza eta lan eskaintza nekez akordatzeko direlako. Gaur haatik ezin bizi ez da bakarrik lanik ezari lotua.

CDD delakoetan dauden batzuk pobrezian erortzen dira, soilik etxebizitza bat ezin eskura dezaketelakoan. CDI baten jabeak ere ez dira baitezpada pobreziatik gerizatuak: dibortzio bat, haur bat altxatu behar soldata batekin, eta horra zer aski den batzuetan nekezia handitan gertatzeko.

Aberastasunen mailan berriz handioskeriak lotsarik gabe! Joan den astean, hemen berean, Canal+ nola dabilen aipatu zaigu xeheki eta erakutsi ere diru eskasiarik ez dela bazterretan!

Bertze etsenplu bat ere ikusi dugu aste honetan: Millau-ko zubi erraldoia, munduko gorena! Zer balentria hau berriz! Duela zenbait urteko egitasmoa dugu obra hau eta ministro komunista baten denborakoa eta diru pribatuarekin eraikia osoki... Bitxikeria bat ere haatik: estreinatze biharamunean, telebistan, lekuko batek zioskun zubi berriak ez zuela aldaketa handirik erakarri eta ikusten ere genituen kamioiak Millau erditik aitzina segitzen! Usaia eskasagatik ala bidesaria karioegiz ote?

Batzuek ezin bizi eta bertzeek gero eta diru gehiago: norat goaz horrela? Ezin sinetsia badirudi ere, 1968an Frantzian langabezia arras behera zegoen: 500 milako bat lanik gabeko nunbait han! Eta gaur hiru milioi direla diote... 1968an inflazioa gora zegoen, %20a inguru, eta egoera horri ihardukitzeko, erran nahi baita salgaien gorapena hein batean atxikitze --bertze molderik ere bazatekeelarik alta-- politikoei sustatu zituzten industrialariak eta merkataria gure eguneroko beharren asetzeko ekartzerat, lana aise merkeago zegoen herrialdeetarik.

Eta jokabide horrek ondorio ikaragarriak izan ditu lanbideen galtzean, hauen aldaketan, horrela indartu baita zeingehiagoka bat, elkartasuna ahuldu eta kutsadura izigarria hedatu duena. Jendea, hura beti merkeenaren alde, ohartu gabe sartu da joko edo zepo horretan.

Lehen aldikotz, gizonaren historian, guhaurk eragiten dugu beraz langabezia. Egia da aberatsak gehiago hertsatzea aldarrikatzen dutela askok. Eta zuzen baino zuzenago litzateke. Baina dirudun handiak sobera kilikatzen badira eskapatzen dira kanporat. Gizon mandilak dauden bezala, Estatu mandilak ere baitira haien errezebitzeko.

Iniziatiba gogoahultzea ere errexki gerta daiteke. Alta, merkeena gogorki bilatuz, liberalismo basatia dugu laguntzen. Ihardets dakiguke eiki,

gure inguruko erresumetan ere gauza bera edo bertsua egiten dutela ; eskualde erromes batzuk laguntzen ditugula bidenabar eta holako.

Ordea, hor balitzateke aldekorik bai eta kontrakorik ere. Aldekoetan : gure bizimailaren goratzea bistan da edo Txinaren garapen ekonomikoa bide horri esker. Kontrakoa : duela berrogei bat urte, orokorki, Afrikako laboraria hemengoa baino 10 aldiz pobreagotzat zeukatelarik, orain 70 aldiz pobreagotzat daukatela...

Aitor dugu, Hegoaldean langabeziaren behehitze ohargarri bat lortu dutela. Bada, CDD gisako lanpostuak beti emendatzen ari zaizkie han ere eta sortzen dituzten goi mailako lanbide horiek segitzen ahalko dituztea denek ?

Joan den igandean bertsolari batek zioen zubi azpiko lo egileen lerroa emendatuz zoala Bilbon. Bertzalde, haur sortzeak murriztuz doazkie eta Euskal Herriarentzat hori baino kezka handiagorik ez dauka Jean Haritxelharrek ere...

Barne borroka izigarri baten pean gaude beraz. Lanbideak sortzekotan, gaurko sisteman sartu behar eta gaurko sistema ezin onets ! Altermundialistak eta komertzio bidezkoa sostenga ditzakegu halere. Aski behera erorita bederen, gogoak noizbait alda daitezkeelako esperantza atxiki behar dugu. Eguberri on ! ■

ELBren urrats bikaina

2005-01-20

JOAN DEN LARUNBATEAN atearik idetzu beraz Euskal Herriko Laborantza Ganbera berriak. Arrakasta gaitza lortu du : milako bat lagun hurbildu baita Ainhiza Monjoloserat ! Bildu den gehiengo laboraria zen, zuzen den bezala, baina bertze gizarte arduradun eta kargudun asko ere juntatu nahi izan dira haiei.

Huna larrienak bederen : Pauen edo Bordelen kontseilari nagusi direnak andana bat, euskal auzapezak berrogeita hamar bat hurbil, Baionako Merkatal eta Industria Ganberako ordezkari, Hegoaldeko nekazarien arduradun (sailburuorde eta EHNE), CFDT, ELA eta LAB sindikatuak, bertze langile sindikalista parrasta bat CGTko batzuk artean, Confédération Paysanne-koak ere, hautetsi sozialista batzuk ahortzi gabe : hauek beren alderdiaren debekuaren gaitetik iraganik etorriak...

Hor agertu dira ere, Batera, Udalbiltza, Hautetsien Kontseilu eta Garapen Kontseiluko en sostenguak... Hitzaldi eta paper, gehienak elebidunak. Hots, eguzkiak ere ez du huts egin nahi ukan hitzordu historikoa : lanoak goizik kasaturik udaberrian sartuak ginela baitzirudien...

Holako sostengu zabalak, ez da dudarik, ELBren borroka demokratiko eredugarria goretzi nahi ukan duela. Aski zen ikustea ezin atertzeko esku-zarta uhar hura Mixel Berocoirigoin-i Ganberako lehendakari hautetsia izendatu delarik ! Aspaldiko lagun eta idazle kideari goresmenak guk ere hemendik eta haren inguruan gogor eta iraupenekin jokatu diren guziei.

Laborantza Ganberaren eskakizuna aspaldikoa da eta guziz naturala : departamendu honetan zenbat eta zenbat elkarte batasun eta erakundek ez dute gorputz bat Biarnoan eta bertze bat Euskal Herrian ? Denek badakigu zein egitura dugun eskas hemen, lehen urrats bezala : euskal departamendua !

Orain, zer behar da pentsatu prefetak Ganberaren xede horri egin dizkion mehatxuez ? Auzapez zenbait durduzarazi nahiz ari izan dira bistan dena, baina ez dute egitura berria desbideratuko, itsuek ere ikusten baitute Estatu frantses jakobinoaren ttipikeria bat gehiago baizik ez dela hori guzia.

Gogoan ditugu lehenago ere “Denek” kooperatibari ezarri eragozpenak, Seaskak jasanak, COB delakoarenak Hemen Herrikoari, eta abar. Anartean auzi irriskua dela-eta, euskarazko izena soilik eman zaio egitura berriari ! Ez dakigu irrintzi umoretsu horrek auzipetzetik begiratuko duen Ganbera berria, baina anartean zer txaloak horren berri eman delarik biltzarkideei !

Goazen barnaxago. Elkarte berri hunek instituzio publiko bilakatzea du helburu. Horretaratzeko elkarte berriak frogatu nahi du haren beharra baduela Euskal Herriko laborantzak nola gizarteak eta sekulako gogo berriarekin plazaratzen zaigu : bere eginkizun lehena laborariak sustatzea

baldin bada ere, dio lanbideen sortzeaz arranguratu behar dela beti, ahalik eta laborari kopururik gorena begiratu, oinarrizko produktuei ahal den baliorik gehiena erantsi, ingurumena errespetatu, kontsumitzaileekin harreman sakonak jarraiki, halaber Hegoaldearekin...

Horra hor xede batzuk abertzale guzien sustengu osoa merezi dutenak. Iduri luke borroka luze horretan aurkitu nekeziak ildoaren sakontzeko baliatu dituela ELBk ! Ganbera berriak ukanen du denen beharra oztopo guzien gainditzeko eta “bertze laborantza bat” bideratzeko, liberalismo garai eta ingurumen idor hauetan.

Azkenik azpimarratu behar dugu egitura hau ere sortzen dela Hegoaldeko diru laguntzari esker, ELA sindikatuak Iparraldean sortu berri duen Robles-Arangiz Fundazioak erosi baitu etxea, bere gain hartuz haren egokitzeko lanak, nahiz estatu onean dirudien, zabal-zabala baitago hantxe, herriaren eta laborari etxaldeen erdian paratua, jadanik herriaren zerbitzari.

Orain denak lanerat, zein gure sailetan ! Ea bada ELBren mezua heltzen den euskal politikoenganaino bederen ? Ordu litzateke. ■

Hitzaroaren zain

2005-02-17

JOAN DEN OTSAILAREN LEHENEAN gertakizun arraro baten lekuko izan gara euskal telebistaren bidez. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak bere Plan famatua aurkeztu du Madrilen, diputatuen ganberan. Sekulako kemenez aritu zaigu lehendakaria eta leku horretan ezin adituzkoak bota ditu, hala nola lehen hitz haiek berak : euskaldunek geure geroaren erabakitzeke eskubide osoa daukagula...

Kataluniako diputatu bat oraino urrunago joan da erranez Espainiako autonomia buruek Euskal Herriaren borrokari zor dizkiotela beren aulkiak ! Holakorik ikusi eta entzun behar genuela, Madrilen, betiko otsoaren aho barnetik... Eta, duela doi-doi oraino, ez genekiela Plan hori Gasteizen nehoiz bozkaturia izanen zenetz ere... Historiaren azelerazio ohargarri bat ikusi dugu hor.

Zapateroren ihardespina ere azpimarratzekoa da. Bere iritzia atxiki du, aurkakoa jakina, baina gizonki atxiki duela ere erran genezake. Baliteke gizontasun hori “politikoa” izatea, Kataluniako sozialistak ez galtzeko : haien beharra baitu gobernuan irauteko eta haiek euskal arazoaren idurikoa baitute etxean eta hari heltzeko gogoarekin baitabiltza.

Oren luzez eztabaidatu izan da delako Plana edo hobeki erran planaren helburua : ozarra batzuentzat, hau da Espainiatik bereiztea ekar lezakeena, Espainia apurtuz ; zintzoa bertzeentzat, espainiarrekin partzuer lan egitea duelarik helburu, bakoitzaren errespetu osoan. Telebista sortuz geroztik gertakari handiagorik ikusi ote dugu, euskaldunek, pantailan ?

Erran gabe doa, gertakari arraro horri beha dakiokela alde askotarik : EAJri hurbilago eta begirune handiagorik ? Dena den, ABri hurbilago gaudelarik EAJri baino, aitortzen dugu deblauki Ibarretxeren balentriak handizki bozkariatu gaituela. Haren jokabidea eta helburua nahikoak dauzkagu : gaurko egoeran nekez asma baitezakegu gehiagorik bultzatzea.

Baina diogu ere Ibarretxe Plana –hemendik goiti Gasteizko legebiltzarrarena dena-- oraino indartsuago izan zitekeela borroka armatuaren burrunba isildu ondoan gertatu izan balitz. Gehiengo osoz onartu bada Plan hori Gasteizen, gehiengo horrek zabaltzea on lukeela ere aitortu beharrean baikaude zerbait funtsezko eta iraunkor ateratzekotz...

Urrats historiko horri, alta, bertze ahulgune bat ere senti zitzaion, gai berari lotua egia erran hura ere : Batasunaren jokabide maingua. Ez dugu behin ere ikusi alderdi bat, hola, bere baitarik erditik egiten, batzuek alde eta bertzeek kontra bozkatzeko, biharamunean berean denek berriz bat egiteko hitzartuta...

Jokabide horri, jukutria dario ; politika gizona jokolari huts, erakunde baten txontxongilo bihurtzen du. Plana aurrera ateratzeko balio izan duela ?

Egia handia, baina ez bakarra : bertzela eginez, hauteskundeei begira beren buruak egoera txarrean ezartzen baitzituzten zenbaitek... Ez, bertze molderik aurkitu beharko da berantetsia dugun elkarrizketa sano hura sustatzeko gure artean lehenik : euskaldunen “hi bahaiz eta ni banauk”, hunek biziki sobera irauna baitu.

Martzel Etxehandi, fraile beneditanoa, aske utzi digute eta hobetik gabe. Badakigu eta badakite ez duela neholako gaixtakeriarik egin ; alta hiru egun atxiki dute ; zer helburuz ote ? Euskal borrokari hurbil dabilzan apez batzuen zikintzeko ? Beneditarren ohiko atezabalkortasuna ezin jasanez ?

Hauek, Berrionari jarraikitzeke, gostarik gasta, ateak ireki dituzte, bertzeak bertze, Erresistentziakoei, azken gerla mundialaren denboran, baina ere kolaboratzaileei, gerla ondoan, hauei ihes egiteko aldia etorri zitzaizenean...

Ongi etorri beroa egin zaio Martzeli igande arratsaldean Beloken, zenbait oron lehenago askatua izan ondoan. Opari guziz atsegina, euriak euriari, harat bilduak ginenentzat. Egin laidoaren ezititzeko ote zen holako ikustatea ? Ala mobilizazio handiago baten beldurrez ? ■

Euskaltzale maitasunez

2005-03-17

MARTXOAREN 10ETIK 20RAT, hamalagarren aldikotz aurten Korrikak zeharkatzen du, lasterka eta sigi-saga, Euskal Herri guzia, ekialdetik mendebalderat eta iparraldetik hegoalderat. Mendi, hiri, herri, itsaso izkin batzuk barne, denak besarkatzen ditu, ibai luze baten pare, denetarat hedatuz euskararen aldeko ur bizia.

Herri Urrats eta hunek Hegoaldean dituen kideak bezala, sekulako eginkizun ederrak eta emankorrek asmatu ditu euskaldunak eta bere erraiegarik bideratu ere, itsutuki maite zuenaren/ duenaren salbatzeko : hiltzorian zegoen/ dagoen bere hizkuntza. Gure eskubideak aldarrikatu ditugu eta aldarrikatuko ere.

Erran dezakegu haatik ez garela oihulari huts gelditu eta euskaldunek jakin dugula egin behar genuenari lotzen : elkarren osagailu baitira helduen euskalduntzea eta hezkuntza, bakoitza bere eremuan, gogo ber-berarekin dabiltzalarik, euskararen indartzea helburu, zazpi lurraldeetan, muintzaraino sarrarazi diguten muga higuin horri ostiko bat ederra emanez bidenabar.

Maitasuna sortzailea da. Euskararen aldeko dretxoak oroitaraztea biziki ontsa da eta beharrezkoa. Gure eskubideak ukatu ezinak dira baina horietan bakarrik finkatzen bagara eta bururaino joaten elkar ezin jasana ere pitz daiteke. Adibidez eta gaurko gure egoeran, iragarki elebidunetan frantsesezkoa ezabatzen dutenak ez dira maitasunez ari. Bertzeek guri jasanarazia mendekatzeko baizik eta horrek ekar diezagukeen atsegin antzua ez ote dira jadanik arrazakeriaren eremuetan sartzen ? Eta jakina ez dugula horren beharrik !

Korrikak ematen digu etsenplu ederra : lekukoa hartu eta segi aurrera ! Erran nahi baita bakoitzak egin dezala bere ahalein arabera eta hala eginez sinesten dugu aldaketarik ikusiko dugula, politika horretan astokeria handiegirik ez badugu egiten segurik : batzuek kultura bidez eraikia bertzeek bortizkeria politiko deseginik...

Eta huna nun Korrikaren dinamika eta xarma berezia dastatuz bezala geundela irakurtzen dugun Frantziako barne ministroari bidali txosten batean parlamentuko batzorde batek dioela brauki : “Familian haurrei frantses ez mintzatzea eta haur horiek geroxago gaizkile bilakatzea, elkarri loturik daude”.

Harrigarria zinez ! Diputatu txostengileentzat, familian frantses ez mintzatzea da antolabide bakarra ; eta bertze bidea, erran nahi baita ama hizkuntza irakastea haurrari, kriminogenoa.

Behingoan bederen frantses unibertsitariengandik etorri da ihardespena, Nancy eskualdetik, txosten hori erroitik gaitzetsiz eta elebitasunaren eredua laudatuz gain-gainetik. Ihardespen horretako

xehetasunak eta egileen izenak dauzkagu Berria egunkarian, martxoaren 12ko zenbakian. Eta biziki urrun joan dira beren kexuan : parlamentari batzordea mozkorraldi baten ondotik aritu ote den galdegiten diote ministroari ! Dena den, atseginez hartzekoa da holako ihardespen bikaina, xeheki bezain zientifikoki ari izan baitira hor.

Gaizo frantses diputatuak, jendeak merezi bezalako hautetsiak omen... Negargarria : lehenik, mendez mende, hexagoniako herrialdeak odolean eta odolerraino hezi dituzte jakobino amorratu batzuek ; sinetsarazi diete herri hizkuntzak oztopo batzuk direla aitzinamenduetarako eta frantsesa dela munduko hizkuntzarik distiratsuen.

Orain jendeari zaila zaio onartzea, ama-hizkuntza baten erabiltzeak haurraren adimenduari ekar diezazkiokeen on guziak eta gizon emazte kementsuak beharko dira hoinbertze urtez landatu sineskeria horiei lepoa bihurtzeko !

Egia erran, ingelesera ikastea gomendatzen delarik, elebitasuna ontzat eman dezakete. Alta bada, goraxago aipatu unibertsitarien ihardespena oraino urrunago doa dioskularik, elebitasuna are gehiago onuragarria dela, ama-hizkuntza bat eta frantsesa direlarik delako bi hizkuntzak ! Zeren ama hizkuntzak baitu bertze batek ukan ez dezakeen barne indarra : zure nortasun ezaugarri nagusia baitauka berekin eta horren lantzea guziz garrantzizkoa baita nornahirentzat, baina bereziki haurren eta gazteen heldutasuna delarik gogoan. ■

Erromakoen artetik dei baten oihartzuna

2005-04-14

JOAN DEN ASTE HORRETAN azkarki jo gaituzten berrietan handiena, Joani Paulo II.aren ehorzketa-omenaldia. Mundu osoa Erromari buruz egon da, itzatua ! Dirudienez, egundaino sortu den ikusminik handiena hedatu da mundu guzirat ! Zer pentsa daiteke holako arrakasta itzelaz ? Anitz gauza, liburuen betetzekoa ! Frantses kazetariak sekulako lekua egin diote bereziki telebistan : orenak eta orenak eta beti gai berarekin !

Frantzia, Estatu laikoa dugu omen baina sekulako xehetasunak entzun eta ikasi ditugu gate publikoetan ere. Harrigarria dena usaian hain murrizki aipatzen dituzten gaiei bat-batean holako lekua ematea ! Badakigu hedabideek bilatzen dutela jendeketa ahalik eta handiena berenganatzea eta karia horretarat sumatu duketela hor gai guziz emankorra... Baina ez da beharbada arrazoi bakarra; iduri luke zerbait sakonagoko ere bazela laikozele amorratuak hola gainditzeko uholde batek bezala.

Errana dugu lehenago ere, izpiritualitate baten behar gorrian dagoela materialista huts bilakatu nahi luketen mundu hau. Iduri luke Aita Sainduak, bere ahal paregabeak lagun, bide erakusle, biziaren sustatzaile, esperantza sortzaile edo holako zerbait izan dela jendearentzat eta hori eskertu nahi izan zaiola.

Badakigu, eiki, gazteek bereziki, ez dituztela erlijio katolikoaren gomendioak betetzen, baina amodiozko Jainko-barkatzailearen mezua baino bihotz altxagarriagorik ba ote da ? Eta bertalde ez ote zuen bere izate gozo bezain larderiatsuaz, gurasoen eginkizun eskasa betetzen edo oraino arbaso barreiatuen falta ordaintzen nolabait, ipar orratza zorabiatuak daukaten askoren baitan ?

Media horietaz baliatu da anitz Joani Paulo II.a, eta, telebistak deusek baino hobeki gizonaren barnea salatzen baitu, hortik ikusi dukete hain xuxen gizon horren zintzotasun osoa, demagogia mikorik gabea, jendea goiti eraman dezakeen bide nekea bezain zoriontsuaren lekukoa.

Hil ondokoak soberakinak izan direla diote zenbaitek. Hala izan bada ez ote da media horien falta ? Alabaina nork muga dezake jendearen atxikimendua, atxikimendu hori berezkoa, neholako bortxarik gabekoa delarik ? Frantzian baizik ez omen da entzuten gisa horretako arrazoinamendurik. Frantzian eta beharbada Euskal Herrian. Gure artean ere baititugu gizon-emazteen behar guziak, gorputzekoak nola izpiritualak, aseko lituzketen errezeten jabeak. Jainkorik ez dela edo beren gorputzez nahi duten guzi-guzia egiteko dretxoak aldarrikatzen dute. Bizkitartean, “errexkeria” eta bizia kentzen duten egintza batzuen ondorio guziak ezagutu gabe ari dira, itsumandoka. Abertzaletasunak ere ez ditu aseko gogo-

izpirituen behar guziak, gaztarokoak, nola zahartzarokoak, haietarik parte bat bete badezake ere.

Politika alorrean Aita Saindu hunen ekarpen handiena izan da dudarik gabe komunismo bortxatzaile haren erorketa handizki eragitea. Ez da guti. Stalinen trufak, hau da “Zenbat soldadu dauzka Aita Sainduak”, lehertu, zapartatu dira ! Zer Historiaren itzulipurdia !

Horiek hola, ez dugu gordeko Aita Saindu hunen kristau kontserbadore batzuekilako hurbiltasuna. Haatik sekulako gauza ederrak ere erran eta idatzi ditu, hala nola bakearen eta giza eskubideen alde. Ingurumenaren eta langilearen errespetua oihukatu du luze eta zabal. Nehork ez bezalako urratsak ere ibili ditu erlijioen arteko harremanak hobetzeko : aski da ikustea bere ehorzketarat bildu duen jende iritzi desberdinekoa !

Orokorki behatzen badugu : zer aldaketak Elizan azken mende horretan ! Agian, hautetsiko duten Aita Saindu berriak liberalismoa zirikatuko digu oraino garbikiago, etsenplua emanez, hainbertze herri ukaturen bizi nahiaren alde mintzatuz denbora berean. Kristautasuna ez da fini ; eta hastapenetan baizik ez balitz ?

Asteke bigarren berri handia, hurbildik segitzen dugun Ipar Irlandatik etorri zaigu : Gerry Adams, Sin Fein-eko buruak, dei egin dio IRARI aldebat armak uzteari buruz itzul dadin politikan sartzeko, demokratikoki, bere kemen guziarekin. Berri hunek ortziak bezala jo du Euskal Herriko abertzale mundua : hemen ere gisa bereko deiaren zain baikaude aspaldi handian !

Berrikitan ari baitziren ezkerretik eskuinari Ipar Irlandako abertzaleak hartzeko eredutzat, huna orain errefera eskuinetik ezkerretat : Gerry Adamsek bezala egin dezala Batasunak ! Dena den, armen uztea batasunerako eta bakerako bide bakarra zela/ dela aspaldian errana eta hamaika aldiz errepikatua baitugu hemendik beretik, traidoretzat ginduzkatela batzuek eta orain dei hori hausnartzerat utziko ditugu. Eta gu isilduko, hoberena gogoan... ■

Hauteskunde iraganak eta datorren referenduma

2005-05-12

ITXAROPENA berriz pizten ari ote da Hegoaldeko azken hauteskundeen ondotik ? Bakea bilatzeko ez omen dela aspaldian holako aukerarik izan, horra zer entzun daitekeen euskal politika gizon eta emazteen aho-mihietan. Hauteskunde hauek antidemokratikoak zirela ziotenak ere gaur sosegatuak dirudite !

Ibarretxe ere bildu da Zapaterorekin eta hitz baikorrak erantsiz : elkarrizketa gehiago eta prentsaurreko gutiago litzatekeela emankorrena bide berri hau irekitzerakoan. Batasunak ere solas positiboak erabili ditu, hala-nola, epeetan malgu egonen dela helburua garbi ezarriz gero ; goraki erran du ere denekin hitzegin behar dela, denak -PPkoak eta UPNkoak barne-- Euskal Herrikoak direlakoan...

Gure nahikundea ere litzateke esperantza horretarik zerbait gauzatzen balitz lehenbailehen. Baina bidea luzea eta zakarra dakusagu aitzinean. Sobera galdera airean daude hor. Lehenik eta bat ETAk ez du oraino eman bozketa horietaz bere ikusmoldea. Alta erakutsi du bizi dela eta gogor jotzeko gogoarekin dabilela : dirudienez, lehergai keta gaitza eskuratu baitu berriki bertze balentria baten bidez, egia erran. Alabaina, gatazka konpondu eta bakea erdiesteko alderdi nagusia ez ote da ETA bera ? Eta haren iritzia entzun arte ez ote gara erdi alferretan ari ? Adibidez, Anoetako bilkuran Otegik egin mintzaldia zangoz gora bota baitzuten handik laster atentatu bidez !

Eta diputatu aulki banaketa bitxi hori : PP eta PSOEk 33 hautetsi, EAJ, EA, EB eta Aralarrek ere 33 hautetsi eta auziaren trenkatzeko hantxe Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistaren 9ak, zortzi emazte eta gizon bat ! Erantzukizun itzelarekin ! Ahal erabakitzailea eskuetan, hotza edo beroa ufa dezakete, jadanik hasiak diren bezala funtsean legebiltzarburuaren hautaketari buruz...

Batasunaren bozei esker iraganik, ez dakigu zer nolako beregaintasunarekin jokatuko duten EHAKkoek. Komunista eraberritzaileak ala stalinistak diren ere ez dakigu. Dakiguna da PPkoak ez direla nehoiz bilduko Batasunarekin armak entzunen direno. Zer pentsa beraz gorago aipatu solas eder horietaz, egiazko bake biderik ez bada irekitzen ahal zartagailuak isildu arte ? Dena den, agian agian, gehiengo bat bilduko da nolabait, egitarau baten inguruan, urte pare batentzat bederen ; aldian aldiko eta noiz nori nola bozkatu sasi joko politiko ahulgarria baztertuz.

Iparraldekoek Euro Konstituzioaren referenduma ere hor dugu bada, sekulako tira-biretan ezartzen gaituena ! Ezaren arrakasta goiti joan ahala argi ikusten dugu Frantzia eri handi dugula : regionalak, kantonalak eta

Europakoak botereak galdu ditu, lerroan, bata bertzearen ondotik eta oroitu behar da presidentarenak ere nola pasatu ziren !

Langabezia goiti ari : mila lanpostu sortzen direlarik Airbusak salduz Txinari, hamar mila lanpostu galtzen dira ordainez Txinari erosten den puskateria elementa batekin.

Baina iduritzen zaigu frantsesek Europaren gain ezartzen dituztela asko gaitz Frantziaren beraren egitura zentralizatua datekeelarik gaitz horien hobendun nagusia. Europa honetan ere badira herrialde ttipi burujabe batzuk arras ongi ateratzen direnak... Argi daukagu, Europa zabalduago eta horrek eskatuko lukeela lekuan-lekuko botere bat jendea gerizatuko eta sustatuko lukeena hurbildanik.

Kultura ikuspegitik behatzen badiogu Euro Konstituzioari baia eman behar zaio dudarik gabe : alde horretarik Frantziako Konstituzioa baino hobeki baitabil, ez baita gaitz.

Ekonomia ikuspegitik ariz gero haatik Europa hori (atzokoa ala hitzemenen digutena) ez dugu gogokoa, liberalismo arruntari ateak zabaltzen baitizkio eta horren ondorioak ezagutzen baititugu. Baia bozkatuko dugu halere Euro Konstituzio horri goratik behatuz eta beharrena hautemanez. Eza nagusitzen balitz estatualisten (Le Pen, Chevènement...) gure etsai handien fagoretan litzateke gehienbat eta bertze ezezlarien eragina (José Bové, abertzale batzuk...) urrun geldi bailiteke.

Amestuko dugu beraz ekonomia liberal hau hobetzen ahalko dela, neurri batzuk hartuz merkatu librearen ondorio latzak eztatzeke. Abertzaletasuna kulturaren finkatzen delakotz oroz gainetik, giro hobexagoko bat bederen igurika dezakegu Euro Konstituzio berriarekin. ■

Ametsa eta ahalkea indargune

2005-06-09

JOAN DEN ASTELEHENENKO SUD OUEST-AK Jean Ziegler soziologoaren elkarrizketa ohargarri bat argitaratu digu. Nahiz ezagunak diren artikulu horretan ematen diren zifra eta xehetasunak, ezin uka inarrosi gaituztela berriz ere. Huna altxatu ditugun larrienak. Urte hauetan, iraultza teknologiko eta zientifiko zigante bati esker, aitzinamendu ekonomiko bat gaitza bizi dugu nehoiz gizonak orain arte ezagutu izan ez duen bezalakoa. Kapitalismoa izan da ontasunak emendatzeko sistema paregabea : hamar urtez, 1992tik 2002rat, munduaren aberastasun orokorra bikoiztu egin da eta sal erospenak hirukoiztu !

Holako aberastasunen metatzeak feudalismo berri bat eragin du. Munduko Bankuak dioenez, aberastasun horren guziaren erdia 500 bat sozietate erraldioen esku dago. Ohointza gisa hori egin da beraz ofizialki, miseria handienen bizkar, munduaren asetzekoa eta denen zorionaren egitekoa balitzatekeelarik alta : FAOk baitio gaurko laborantzak hazten ahal lituzkeela 12 miliar gizon eta emazte.

Gaur erran daiteke beraz, haur bat gosez hiltzen denean hilketa bat izan dela ! Produktibitatea ikaragarritzki emendatu arau mozkin-probetxuak are gehiago goiti joan dira. Aberastasun berri horien jabeak okaztagarriak dira, jendetasunik gabeak : suntsiketa hedatzen dute bazterretan, beharrik gabe gehiago dena...

Nazio Batuek zerbait egin zezaketen beharbada duela 50 bat urte baina orain gaindituak dira : Estatu Batuen indar ekonomiko eta militar nagusia inperialista baita. Gelditzen den esperantza bakarra jendarte zibilaren ihardespenean dago, Porto Alegreko Forumak bildu ditu 8.000 elkarte eta 150.000 lagun. Olde planetario horrek itxaropen handia sortzen digu ahalik eta zuzentasunik osoena eskatzen baitu gizonen eta herrialdeen arteko harreman ekonomiko eta sozialetan.

Egia da gizarte eredu berririk ez duela gomendatzen ; denek gogoan duten esperientzia komunista eta zentralismo demokratikorik ez du nehork aditu nahi ere gehiago. Baina gaurko munduaren martxa ezin onartua dela aldarrikatzen da hor, argi eta garbi.

Europako Elkarteko 25 erresumetan ere 18 milioi langabe daude, kosmokratek sekulako dirutzak berenganatzen dituztelarik aldi berean. Langilearen irabazien murrizketa eta langabeziaren beldurra hedatu dira azkarki. Gogoak lotsaturik dabiltza diruaren nagusigo oies horren aitzinean.

Beharrik badira bi indargune, historikoak : utopia (edo ametsa) eta ahalkea. Utopia behar-beharrezkoa dugu : baitezpadakoa baita bizi hobe bat amestu dezagun denentzat, hari buruz lehiatzeko eta miseria gorrian bizi

diren familietan pairatzen den ahalkea (edo umiliazioa) indar sortzaile leku ere da.

Bidezko komertzioa arras gutiengoa dugu orainokoan baina hobekuntza baten seinale garbia da, erakusten baitu komertzioa egin daitekeela zuzentasun bat errespetatuz. Gauzen hobetzeko, azken batean, aski litzateke espekulazioa menperatzea. Multinazional horiek jarriak dira urre meta ikaragarrien gainean ez baitakite zer egin ere diru horrekin ! Zuzentasun gehiagoren eskaera, horren orotaratzabaltzea da bide bakarra : klase ideologiek ez baitute arrakastarik.

“Argien Mendean” hedatu zen arazoaren arrazoiak antolatze gogo. Baina gaurko kosmokratak ‘argia’ hastio dute banpiro odol xurgatzaileek bezainbat. Kinka larrian gaude. Edo kapitalismoa xuxentzen dugu etika bat zabaltzeko orain aipatu mugimendu planetario goresgarri horren bidez.

Edo helburu hori hutsegiten dugu eta kapitalismoa nagusitzen da denetan, jende xehea lehertuz ; ondorio arbuiagarri hori heren mundu dohakabeak jasaten du jadanik baina haien zorigaitza gudanatuko da. ■

Euskaraz mintzatzea sustatzeko

2005-07-07

DUELA HAMAR BAT URTE Azkaingo Herriko Etxerat joan beharra gertatu zitzaigun. Eta hantxe, sartzeko gelan, langile harrera egileak bere aitzinean zeukan idazki bat arras ohargarria “Hemen euskara maite dugu” zioena. Gainerat larriki bezain maiteki idatzia baitzen delako idazkia, ezin gehiago gustatu zitzaigun.

Hain xuxen hori da zabaldu nahi genukeen gogoia, bertze hitzez erraneta, xede ere bihur dezakeguna : euskara maitatuz maitarazi. Horrela, ez dezala nehork uste ukan ez eta pentsatu ere, gure eskubideen aldarrikatzeko uzkurtsunik badenik hor ; edo gure hizkuntzarentzat botere publikoei buruz egiten ditugun eskakizunak eta manifak ordaindu beharrez ari garenik. Alderantziz diogu, indartuz joan balitez, hainbat hobe !

Bistan da ere euskaltzale orok maite duela euskara. Baina uste dugu bagenukeela maitasun horren barnatzearen, osatzearen beharra. Zerbaitek erraten digu euskara ez dela salbatuko bakarrik gure eskubideen erdiesteaz, nahiz hori lagungarri handi-handia izan lekigukeen. Irlandaren kasua hor dugu lekuko eta Hegoaldeko egoera ere, euskara mintzatuaren mailan, kezkarria gelditzen baitaigu.

Lehen, frantsesaren eta gaztelaren hedakuntza egin zuten bortxaz edo halatsu ; oraino ere gure artean zenbaitek jokabide horri pentsatzen dute henengotzat ere. Gure ustez, Euskal Herriko jendarteak ez du onartuko bortxazkorik deus. Lehendanik gogoak aldatu egin dira errotik. Hortik dator gure ustea eta oihua : euskararen sustatzeko armarik hoberena dukegula harenganako maitasuna lantzea, ofizialtasunik ezak beharragotzen duena.

Joan den ekainaren 25eko Berria-k, orrialde osoa betez, Adolfo Arejita-ren Euskaltzaindian sartzeari aipatzen digu, karia horretarat euskaltzain berriak egin oharpenak azalduz. Berrogei bat urte euskara batuaren oinarriak finkatzen hasi zirenetik, Euskaltzaindia aitzindari, urrats erabakigarriak eman ditu holaxe euskarak.

Baina Arejita-k uste du ahozko tradizioak idatzizkoari zerbait ekar diezaiokeela oraino ; are gehiago, dio, gai horri lotzeko ordua dugula bete-betea !

Segitzen du : “Herri hizkera aintzat hartu beharko luke gaurko euskarak”; “Herri hizkerak baditu baliabide ugari, gaurko testu sorkuntzara ekartzeko”...

Beti Berria-n, ekainaren 9koan, Juan Luis Goikoetxea ere, bi orrialde osotan, bide bertsutik zebilkigun : “Euskalkiek jardunean egon behar dute, eta euskara batuak ere bai, elkarri ekarria egiteko”.

Bizkaieraren arazoa luzaz aipatzen du Mendebaldeko Kultura Alkarteko kide horrek berriki argitaratu baitu liburu bat “Euskaldunaren anekdotak” izenburuarekin. Herriz herri ibilki dira, euskara bil eta bil. Baina biltzea ez dela aski, oroitarazten digu : “Ikasi behar da eta badugu zer ikasi elkarrengandik gero sorkuntzan sartzeko : ezin baita euskaltegiatarik idaztera joan”.

Gure aburuz, bertze arrangura bat bada oraino kezkarriagoa : eguneroko urratsetan, ahal delarik ere, ez dugu aski euskaraz egiten. Eta herri hizkera horretaz jabetzea idatzizkoa hobetzeko bezainbat mintzatzea sustatzeko egin beharko genukeela deritzogu.

Euskaraz mintzatzea sustatu : horra hor, sail bat ikaragarria, buru hauste handien eragilea. Euskara eskoletan sartzeko hasi ziren duela aspaldi, xuxen nola egin jakin gabe. Gaur ere ez dakigu nola lot mintzamenaren sustatze horri.

Edan dezagun, euskararen ‘itorrotxetik’ goza-gozatuz, ahal den guzian, etxetik haste. Dakiguna da elkarrekin gogoetatuz eta bermatuz egin beharko dela lan, irakaskuntzarentzat behiala nolabait egin izan zen bezalaxe funtsean. ■

Euskal indar uztartuak noizko ?

2005-08-04

EZ DUGU Etxebeltzen lanari itzalik egiteko ez gogorik, ez ahalik behereko marrazki hori dakarkizuegularik gaurko hitzaren lagun. Ulertzeko, gainetik behatzen bagenio bezala hartu behar da. Denboraz, etxe egiteko zur handiak segeriarat eramateko bi “urka-motxen” gainean ezartzen zituzten Urketa, Mugerre eta Beskoitze aldeko itzainek.

Aitzineko urka-motxa gidaria da eta idiek tiratzen dute ; gibeledo urka-motxa, gibelerat buruz emanik, gizon batek kudea dezake, erran nahi baita timoina edo endaitza erabiliz gero gibeledo errota edo gurrilak ere gidari bilakatzen direla. Hori guzia bide onerat heldu arte : oihaneko erro tzar, harroka, ziloka eta lohiguneak huts eginez joateko ez baitu guti balio gibeledo gurrilak ere gidatzaile izatea !

Aukeraz balia, ausartzen gara bertze zerbaiten eransterat ere hemen : gure ustez, gaur holako arrakasta duen “kudeatu” hitza orain aipatu lan gisa horretarik hedatu zatekeela... Egia da gaur “gestioneaz” hitz egiteko erabiltzen dugula gehienki. Baina etorburuetarat iganez gero, badirudi “coudeja” hitz gaskoietik jalgitzen zaigula, eta “ukondo plegakorra” edo suge baten “buztan higikorra” ere adieraz ditzakeela...

Uda beteak gure solasa airostu duke : ez ote da kazeta hunen ohituretan Tartaroren umorea lantzea barneko ezkertasun batzuk gainditzeko ? Nehor gaitzitu gabe, beherean zirrimarratu dugun marrazkitxo gaur Hegoaldeko politika itxuratzen duke edo bederen itxuratzea nahi genuke. Aitzinean gidari eta tiratzaile EAJ bere lagunekin (hauteskunder gaurko indar nagusia delakotz) eta gibeledo, kudeatze lanetan erne, EHAK...

Ehun aldiz hemendik errepikatua, baitezpadakoa zaigu bi euskal indarrak batean jokatzeko, ez fronte bat egiteko baina bide handirat eraman dezagun euskal “zura”, Euskal Etxeko laza edo habe bilaka dadin : gure etxeak ez ote dira zurez egituratu mendeetan barna ?


Baina hara, arras idorki dabilzkigu elkarren artean delako gure bi indar politiko nagusiak. Idorki batzuk Elkarri bezalako bakegileekin. Idorki Atutxaren kasuan. Idorki Gasteizko ganberako bulegoa hautatzerakoan. Horrek kezkatzen gaitu handizki.

Ipar Irlandan IRAk armak utzi ditu : uzten ahalko zituzten Stormont-eko akordioetarik landa segidan. ETAk ere noiz ulertuko du zartagailuen oihartzuna, bere eta gure kontra doala aspaldian eta kontrako giro hori areagotu dela Al Qaidarenaz geroztik ?

Zapateroren gobernuarekin buruz buru negoziatu ? Ez ote litzateke hobe, elkar aditurik, presoen arazoa herriak eskuetan har baleza ?

Autodeterminazioaren gaia halaber. Zapaterok ez ote du nahiago ETArekin hitz egin euskal indar uztartuen ordezkaritza batekin baino ?

ETAk bere aldetik, bere-ber erdietsi nahi luke ahal den guzia Madrildik. Ez dezagun ahantz, haatik, euskal indarren zatitzea gure ahultzeko, dutela helburu espainol buruek, bertzerik ezinean ! PSOE eta EAJren arteko aipu dituzten harremanak ere —nahiz denekin hitzegitea behar-beharrezkoa den— ez dira menturaz gibelasmo horretarik gabeak...



Oharpentxo eta galderaño batzuk

2005-09-01

ZINEZ EGUN EDERRA bizi izan dugu Saran, abuztuaren hamazazpian, joan den asteko kazetan ere irakurri ahal ukan dugun bezala. Biziki gustatu zaigu Donostiako hamabortz eguneko musikaldiak egun bat Saran ospatzea : holako inizatibak ezin gehiago gomendagarriak zaizkigu. Gertatzen dena da halako egun aberatsa antolatua zutela nun gai batzuek ez baitute beharbada ukan mereziko zuketen artea.

Gerla zibilari ihes, 1936tik goiti hunat etorri ziren euskaldunei nolako harrera egin genien Iparraldean, adituak ari izan zaizkigu, argiki bezain zuzenki, baina, denbora eskasez-edo, ez zen iritzi batzuen osatzeko astirik izan eta horrek lerro hauek sortarazi dizkigu. Gisa guziz ez dugu, ez egun ez bihar, hain garrantzizkoa izan den gerla zibil horren eztabaidatzeari azkenik emanen. Zehazki gertatu direnak ezin ukatuak badira, batzuen eta bertzeen gogoez jabetzea edo haien sumatzea bederen ez baitagoke agorturik...

Duela berrogei bat urte, hor gaindi eta intelektual batzuek kanpo, Euskal Herriaren Hegoaldea bazenetz ere ez zekiten... Ezin sinetsia da, baina hola da. Goraki diogu, gure denboran, Hegoaldea Burgosko Auziak ezagutarazi zuela munduari. Egia da Iparraldekoek beti ukan dituztela harremanak Hegoaldekoekin baina hori mugaren inguruko eta gutarteko bertze bakar batzuen zortea izan da.

Gainerat, Hegoaldeakilako harreman horietarik zenbait erdaraz egiten ziren euskaraz elkar ulertzeko zailtasunengatik. Hor berean ikusten dugu zer aldaketa ikaragarria bizi izan dugun berrogei urtez, euskara batuari eta alfabetatzeari esker eta zein zaila zaigun gogoratzea ere orduko egoera txarra, nahiz esperantzaz beteak ginen.

Saran eta mugaren ondoko bertze herri batzuetan salbu, Iparraldean ongi etorri epela edo hotza ukan dute Hegoaldeko anaiarrebek. Lehen arrazoiak, kanpoan ez zutela ezagutzen Hegoaldea, baina gure artean ere zer genekien hango euskaldunak ? Eta Hegoaldekoek zer zekiten gutaz ? Muga higuinagari batek bi aldeetarako itzularaziak gintuen !

Harrera hotz horren hobenduna omen hemengo kontserbatismo famatua eta maiz hari datzekion frantses-zaletasuna. Baina gauden gaur kontserbatismoaz, galderaño batekin : ezkertiarrek zer egin dute eskuindarrek baino gehiago orduko iheslarien edo/ eta euskararen alde ?

Bertzalde, kontserbadore zahar okitua beti borrokatu dugu, baina nola uka euskaradun sortu bagara gure arbasoen nolabaiteko kontserbadoretasunari esker izan dela eta ez zela bertze biderik frantses iraultza liluragarriari ihardukitzeko : hau, bakoitzaren libertatea lehenesteko aitzakian, herrialde berezien suntsitzailea baitzen eta baitago oraino ere funtsean ?

Hoztasun haren eragile handiena guretzat, Jaurlaritzakoek komunistekin eta erlijioaren etsaiekin jokatu izana. Hau bai, gai minbera bihirik baldin bada... Denetaz abandonatua, Francoren eta Stalinen artean hautatu behar ?

Ulergarria da, bistan da, egin izan den hautua abertzale ikuspuntutik. Hautua ezinbertzekoa zen baina ez arriskurik gabea : espainol errepublikanoak euskaldunen adiskide gibelasmorik gabekoak ote ziren ?

Gaur Stalinez eta haren jarraitzaileez dakizkigunak dakizkigula, ez ote genuke onartzen ahal gure arteko jakintsu erneentzat, Aintzina-ko buruentzat bereziki, durduzagarria gerta zitekeela erabaki hori ? Eta gaur hola-hola segitzen badugu, osoki ikuspegi batetik, noiz antolatuko gara nafarrekin ?

Zuzen da Historia ikertzean egiari bere bidea irekitzea. Ez genuke ahortzi behar, ordea, helburu bat betetzeko dugula oraino, hau da “Zazpiak bat” eraikitzea eta horretaratzeko iritzi nabardurarik gabeak euskaldunen biltzea oztopa dezakeela. ■

Batzuk biltzen, bertzeak irakasten

2005-09-29

GAITZEKO LANARI lotuak ditugu nafartarrak irailaren hogeiko Berria-n irakurri dugunez : euskararen bilketa osoa egin nahi dute Nafarroa guzian, Baxenafarroa barne. Sail horren izena : “Ahozko Ondarearen Artxiboa”. Bilketek hamar bat urte iraun behar lukete eta laurehun mila euroko gastuari buruz doazela diote !

Europa guzian ez omen da holako lan zabal eta zehatzik egin. Eragilea nolabait, UNESCO erakundea, berriki ahozko ondarea berreskuratu eta zabaltzeko deia egin baitu hunelako leloarekin : “Zahar bat hiltzen den bakoitzean, liburutegi bat erre da”.

Erran daiteke beraz altxor paregabe baten biltzerat doala Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Kutzaren laguntzarekin. Bultzatzaile nagusiak dira : Alfredo Asiain doktorea eta Maria Jesus Goikoetxea NUPeko irakaslea. Maite Domezain adituaren laguntza ere segurtatua dute.

Herri guzi-guzietan ibiliko dira, informatzaileak bilatuko dituzte, haien lekukotasunak grabatuko, denak gero xeheki digitalizatzeko eta artxibatzeko. Orain arte hainbat ikertzailek bildua ere, molde berean egokiturik, leku berean begiratuko dute ; Jose Miguel Barandiaranen Atlas Ethnografikoa eta Jose Miguel Pedrosaren Mitologia Atlasa abiapuntutzat harturik ariko dira.

Mintza moldeek, kantuek beren lekua ukanen dute hor beraz, halaber erran zaharrek, edozein sinesmenek eta ohiko medikuntzak ere bai ; folkloreaki lotuak diren kondairak, dantzari, eskulangintzari, gastronomiari doazkienak ahortzi gabe ; hirikoak nola baserri mundukoak, zezen plazetako gorabeherak eta etorkinak baztertu gabe...

Emaizta guzia lau hizkuntzetan paratuko dute : gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez eta Iruñeko Donibane auzoko “*Civican*” kulturgunean ezarriko ororen gomendio. Den-dena baliagarri izateko gisan emanik, herri bakoitzak bere lekua ukanen du.

Gainerat, Maria Jesus Goikoetxeak erantsi du : “Artxiboa besterik ez balitz, ondarearen hil-ageria izango litzateke eta ez besterik. Baina ez, lan hori zabalduko dugu, pedagogikoa eta didaktikoa izanen da”.

Ez dute duda-mudarik xedearen garrantziaz, jadanik Bortzirietako, Malerrekako edo Baztango kantu batzuetan, Neolitikotik datozen hatzak aurkitu baituzte eta beraz parada paregabea dela baitaukate mendeetako jakintza berreskuratzeke. Alfredo Aisianek berriz gauditu nahi du gaurko ezkortasuna, euskararen biziraupenari buruz eta dio : “Mendeak daramatzagu horrela, iduri akaberran. Egia da haatik une erabakigarrian gaudela : orain dena bildu behar dugu, betiko gizarte hartan bizi izan diren azken belaunaldiak ditugulakotz gure artean”.

Bertze alor batean baina beti euskarari gagozkiola, liburu guziz interesgarria atera berri digute erdaraz : euskarazko irakaskuntzaren gorabeherak berrogeita hamar urtez Iparraldean. Aski xeheki azaltzen dizkigute hor Seaskaren, sare pribatuaren, sare publikoaren bai eta AEKren bide luze eta nekeak. Alabaina denak merezimendu handikoak dira : Iparraldean ahal den bezala baikabiltza: beti ofizialtasunik gabe.

Euskaltzaleen Biltzarrak omenduko ditu langile porrokatu horietarik biga datorren larunbatean Saran : Isabelle Lichau eta Claudine Leralu andereak. Frantses Hezkuntza Nazionalekoak ditugu hauek eta Enbatako irakurleak aise asmatuko du nolako laharren artetik bideratu duketen eskola publikoetan sare elebiduna. Sail zinez goresgarria eraman dute : harrabots guti baina gogor eta kementsu lanean !

1983an hasi ziren kasik hutsetik eta gaur egun hiru mila hurrez goitik sare horretan ikasten dute... Anitz gelditzen da egiteko baina hastapena hor da, historikoa, eta herriarekin bat eginik, larunbatean Saran izanen gara, bi adiskide hauen agurtzeko, eta eskertzeko bihotzaren erditik. ■

Estatua eta eliza bereizi zituzten...

2005-10-27

ZER LEKU ERLIJOENTZAT gizartean ? Gai hori eztabaida sortzailea dugu, gure lerroetan ez badugu maiz aipatzen ere. Ez baita bakarrik frantsesen afera, biharko Euskal Herria eraikitzen ari direnen artean ere badaude arazoak, ez direnak hainbat plazaratzen egia erran. Gaiaren samintasunaz jabeturik, guk ere, uzkurtasun hori ez dugu gaindituko gaurkoan eta xehetasunetan sartu gabe ibiliko gara. Gaingiroki ariz ere ez da denen gustukoa izanen...

Beraz, duela ehun urte, abenduan, bereizi ziren Frantzian Estatua eta Eliza(k) eta mendeurrenako ospakizunak hurbiltzen ari direla-eta, gai hori gainean dukegu jadanik.

Lehenago hasiak ziren, haatik, horri buruz : hastapena, gehienek, 1598an ezartzen dute, orduan baitzuen Henrike IV.ak “Édit de Nantes” famatua izenpetu katolikoen eta protestanten arteko gerlari bukaera bat emateko. Lege horrek bakea erakarri zuen bi erlijioen artean.

Zorigailteaz, lege on hori desegin zuen Luis XIV.ak eta elkar ezin jasanak berriz piztu ziren. 1789ko Iraultza da, Giza Eskubideak aldarrikatzearekin batera, jazarriko dena elizari, haren eragin handia eta erregeazaleri sobera lotua, bizi publikotik ezeztatu beharrez.

1905ko legea ere bide bertsutik doa ; bake zerbait ekarri du hunek eliza katolikoa amore ematerat behartu baitu. 1968an, maiatzeko iraultzak osatuko du instituzio batzuen kontrako borroka hori zangoperatuz elizaren (eta Estatuaren !) debeku sakratu batzuk.

Lehenago elizaren nagusikeria haiek guziz arbuiagarriak bazaizkigu, gaurkoa aldiz epel eta uzkur dakusagu, higitzeko ordua lukeelarik alta. Sustraiak burrustan argalduz doazkio eta, urrun behatuz gero, gaur egiten dena ez da askiko giro hori uzkaileteko.

Erljioen historiatik zerbait irakasten dute eskoletan. Ordea, laizista amorratuek, hori ere kendu nahi lukete, hain beharrezkoa delarik alta jendartea eta mundu korapilatsu hau ulertzeko ! Jakintza ez ote da gerlaren etsairik hoberena ?

Gaur musulmanoen galderek dute inarosten frantsesek hain gora daukaten laizitate berezia. Joan den larunbatekoa da, Sarkozyk diru publikoaz lagundu nahi lituzke meskitak eraikitzen... Joko hori lagun, orain ikusi behar eliza katolikoa ‘bere lekuan’ ezarri duen laizitateak, emaitza bera lortuko duen islamarekin. Bertzela, hemendik zenbait urte barne, gaur katolikoen beherapenez trufaz daudenei, irriak sartuko zaizkie...

Ez ahal du nehork uste ukan gorago aipatu lege eta iraultza horiek ekarri dizkiguten aitzinamendu guziak ukatzerat goazenik hemen. Ez nehola

ere ! Diogu bakarrik gero eta berekoiago ari garela bilakatzen eta, politika, izpiritu-indar sano batek sustatu behar lukeela, gizona eta emaztea beren osotasunean ikusiz, erran nahi baita erabaki materialen ondorio izpiritualak kontutan hartuz.

Denak gara sinestedunak, hartan edo honetan. Gizonak eta herriek mistika bati lotu beharra daukate bizitzeko eta hori betidanik. Sineste horrek bakoitzaren askatasuna errespetatu behar du bistan dena. Baina erlijio guziekin hedapena dute berezko helburu eta hori dira sortzen tirabirak : fedegintza noraino joan daitekeen, bertzearen nortasuna errespetatuz, lege ezin baita finkatu.

Gaurko mende nahasian, solas zintzo baino ergelkeria gehiago zabaltzen dizkigutelarik, daukagu, nehork egitekotz, kristauek mega-arazo hauei nolabait ihardesten lagun dezaketela ; gehiago egitekotan haatik : joan den mendeetako gidaritza soberakinetik eragintza eskasegira iragan baikara naski.

Bertzeak bertze, zenbat ihes-egite hizkuntza eta kultura zapalkuntzen aurrean, miseria sortarazten duten gizon eta egiturei buruz. Pobreenen eta zapalduen alderako maitasuna predikatzea biziki ontsa da... obraz egiaztatzekotan. ■

Ihardespen osatu beharrak

2005-11-24

AZKEN HILABETE HAUETAN agertu dituen ikuspegien bitartez, adiskide batek enpresen deslokalizatzea onartzen du deblauki eta kasik desiratzen neholako duda-mudarik gabe. Erraten du hunat ere etorri eta etortzen zaizkigula enpresak eta nehor ez dela arranguratzeko nondik datozen eta han langabezian langilerik gelditu ote den.

Egia da, Hegoaldetik edo Japoniatik enpresa banaka batzuk etorri zaizkigula baina ez zaigu iduritzen batere jatorrizko lurretan langabeziarik sortu duen horien hunat aldegiteak. Alabaina bi herrialde horietan industria indarrean dago eta hunat etortzen direnean beren garapena dute bilatzen, salbuespenak salbuespen, hori baita betidanik enpresa baten helburu naturala, industria sortu denetik, eta deusek ez duena geldiarazten.

Etika sano bat zabaldu beharra sendi badugu ere indartsu hemen aspaldian, garapen hori izan dadin hein batean atxikia eta gizonaren onetan lehenik, beti eta gehiago egiteko partez, hobekuntzari buruz itzuliko dena. Langileen onetan bada ingurumenaren onetan ere izanen dela ez ahal dugu errate beharrik.

Baina hunat heldu diren enpresak ez dira konparatu behar, adibidez, hemendik Errumaniarat joaten direnekin ; harat baitoaz langileria han hamar aldiz merkeago ukanen dutelakoan eta beraz araberan irabaziak jorituko zaizkielakoan, hori baita helburu nagusia, jende pobreaki ekar dezaketen balizko ongia baino lehen.

Aldiz, Japoniatik edo Hegoaldetik hunat, lantsarrietan, ez da desberdintasun handirik eta lan baldintza kodea, hemen, zorrotzagoa da, langileen faboretan eta zergak gorago. Lantegi horiek jende xehea laguntzeko ari badira aski dute Frantzia behere horietan hiri inguruetakoko etorkin eta etorkin umeei lana ematea, kexu baitira, arras kexu baztertuak direla lan mundutik...

Eta huna nun egundainokotan bertze adiskide batek ateratzen digula, gaineko horrek baino ezinbertze aise handiagotan uzten gaituena. Entzun zer dioten : Estatu frantsesaren pean egon diren eta dauden herrialdeetan hobeki ateratzen direla beregain jarri diren bertze gehienetan baino...

Adibide argiena Haiti omen dugu. Herri hau beregain jarri zen duela berrehun bat urte Frantziatik bereiziz. Aberastasun mailan, orduan kasik frantsesaren hein berean zen haitiarra eta gaur egun munduko jende pobreenetan sailkatzen dute. Alta bada duela bi mende hasi zuten gibelamendua ez da dena Estatu Batuetako harraparien gain ezartzen ahal : hauek azken hamarkada hauetan baitira zinez beren bide lotsagarrian eraginkorrenak izan.

Duela zenbait hilabete gure inarrosle horrek berak galdegin dio haitiar arduradun bati (hunat ihes etorria, preseski hango pobrezia salatzeagatik biziaren irriskuan zelakotz), historikoki nolaz gertatu den destorbu hori eta ez omen dio argitasunik eman ahal ukan; holako isiltasuna baino txundigarriagorik ez omen du behin ere bizi izan...

Eta gure zirikatzaileak segitzen du aipatuz Frantziak oraino bere menpean dituen Euskal Herria, Britainia eta abar, eta urez haindian dauzkanak : Korsika, Martinika, Guadalupa, Reunion eta bereziki Kaledonia Berria, garapen ekonomiko ohargarria egiten ari omen dena azken denbora hauetan, dirudienez, Matignongo akordioei esker.

Haitikoaz ez badakigu zer erran, bertzeen kasuaz ihardets dezakegu errexi gure kitzikatzaileari. Lehenik eta bat herria ez dela bakarrik ogiz bizi, nahiz hori oinarrizko beharra duen. Gainerat, ogi hori ere zer balditzatan datorkigun eta zer ingurumenekin ikusi behar baita. Baina berezikiago kultura, hizkuntza eta nortasun mailan zertan gara euskaldunak, nun daude gure eskubideak ?

Badugu hor zer ihardets, ikuspegi inarrosle horiek ez baitira menturaz bakar batenak eta abertzaletasunaren muina gaur nun dagoen sakontzea eskatzen baitute. ■

Aupa Sustrai, Amets eta bertzeak !

2005-12-22

DUELA 45 URTE —1960ko maiatza zen— Lurdesen bildu ginen munduko 61 erresumetarik kristau laborari gazteen ordezkariak : 25 milako bat ongi oroit baldin banaiz. Erran daiteke gaurko JMJ Aita Saindu zenak bultzatu horien aitzindaria izan zela biltzar hori. Gogoeta gaia arrunt serioa ginuen : “Gosetea Munduan”!

Baina gaztea beti gazte eta gogoeta sakonen artetik airosasuna errexki jalgitzen. “Relais d’Auvergne” hotelean genuen egoitza Iparraldeko 40 bat ordezkari eta han gertatu ere, ez baita harritzeko, Auvernia eskualdeko gazteak, beren etxean bezala zeudenak beraz.

Ahantzia dugu nola hasi zen haien eta gure artean halako elkarren kitzika airos hura baina eztabaida ezin xurituz ari ginela huna nun gure arteko batek —gaur denek ezagutzen dugun Mixel Itzaina bertsozale amorratuak— bertso bat botatzen dien, erdaraz, frantses doinu ezagun batean eta arras ongi errimatu. Gure Auverniako gazteak erotu ziren, ezinbertzez zozotuak ziruditen, ehortziak, hots ! Nik, orduan 17 urte, ikasi nuen bertso errimatuak zer indarra daukan, prosak baino askoz ere handiagoa baitu.

Joan den igandean zer eguna iragan duguna berriz ere, Euskal Telebistari itsasia, zailtasunik gabe bat egiten genuela Barakaldon bilduak ziren hamahiru mila entzuleekin, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren finala bizitzean.

Bagenekien egun handia izanen zela : jadanik kanporaketa ala finalaurrekoetan sekulako arrakasta bildua baitzuten aurtengo haitadek. Igandean jendea, gaztea gehienbat, bildu da girorik beroenean baina lehiakide guzien errespetu osoan.

Finala jokatzeko, beraz gipuzkoarrak lau : Maialen Lujambio, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze eta Jon Maia ; bizkaitarrak biga : Unai Iturriaga eta Igor Elortza ; Lapurditik ere biga : Sustrai Colina eta Amets Arzallus.

Damugarriena da naski Nafarroatik nehor ez izatea. Kanporaketaren ondorioa dela badakigu, baina zein ezin jasana nafarrik ez izatea Euskal Herriko finala batean : ez baita lehen aldia holako bat gertatzen dela... Ez dugu hemen nehor kritikatu nahi, baitakigu nundik datorren makurra, bertsolaritzaren indar nagusia nun dagoen. Baina, baina...

Goizeko saioa guziz hunkigarria kausitu dugu, gaiek hala erakarririk. Horietarik bata haxe zen : “Aspaldiko partez, begiak busti zaizkizu” eta hor ez gaitezke egon Sustrai Colinak eman dituen bertso oroigarriak aipatu gabe... Eta bildu dituen eskuzarta haiek ! Ikusi ez diren zirrara eta malkoak bertzalde ! Egia da egoera ontsa ezagutzen duela, baina kartzelako gaia

izanik bakarra izan da horrat buruz joan dena, doi bat harritzeko baita, egia erran.

Artetik errateko Ametsek ere aipatu baititu presoak, bere azken agur biziki gustatu zaigun hartan, Iparraldeko ordezkariak izan dira naski haietaz gehienik oroitu direnak... Zorionak hortakotz ere biei bertzalde eman guzia baztertu gabe : Amets 4. eta Sustrai 6., ez ote da hori balentria harrigarria, 21 eta 23 urteko mutiko gazte horiengandik ?

Eiki badakigu, gure herriak bizi duen kinka honetan, neke dela gizarte gai batzuez hitz egitea, eta sarien banatze denborako txistu lekuz kanpoko haiek oroitarazi digute zertan garen.

Halere, halere... Teknikak eta jakintzak sekulako tokia hartu dute bertsolaritza modernoan bizi esperientziaren kaltetan. Gaurko bertsoekin gozatzeko behar da gain-gainetik alfabetizatua izan Hegoaldeko arak ezagutzerainokoan. Lehen bertsolariak arazo handirik gabe segitzen ziren : hemen ari zirenak gehienak Iparraldekoak baitziren eta han zihardutenak Hegoaldekoak gehienki bederen.

Euskara batuak, alfabetatzeak, bertso eskolek ekarri digute sekulako aitzinamendua baina ere, zorigaitzez, publiko zabalagoko batengandik urruntzea ere bai, Iparraldean segurik. Ez dugu, ordea gaur alde ilunen aipatzeko gogorik holako egun zoragarriaren ondotik. Miresten dugun Andoni Egañak laugarren txapela lortu du : bertsolarien panteoian sartu da bizirik ! Zorionak dizkiogu bihotz-bihotzez eta gauden gozatzen oraino ahal bezainbat gazte horiek erakutsi diguten kemena eta etorkizuna gogoan. ■

Geroa eraiki nahi badugu

2005-01-19

GURE OHIKO BIZIMOLDEAK ahulduz joan arau, eta bere denboran halako arrakasta ukan zuen “Iana herrian” leloari jarraikiz abiatu ginen gu ere zerbait egin beharrez, Sokoa, Hemen, Herrikoa eta bertze batzuek gaitzeko sailak irekitzen zituztela.

Gertatu da barnealdean ez zela batere errex behar genituen lanbide berriak sortzea. Horren lekuko, kooperatiben hastapen nekeak eta haietarik batzuen desagertzea ere. Gainerat, enplegu andana bat sortu zituen ekonomia berrizatuak, BABn gehienak, behar-ordu zenbait betez : komertzioan, militar alorrean, udal zerbitzuetan, eta bertze. Uste dut hautetsien lanik handiena izan dela eta dagoela lanbide horietarik batzuk aurkitzea, hari, huni edo haiei, ondoko aldian berriz hautetsia izatea holaxe segurtatuz askok bidenabar.

Eta abertzaleen eta bertzeen (gehiengoaren) arteko elkar ezin ulertuak dirau : guk, euskal jendea beroarazi nahi gure geroa guhaurek eskuetan hartzeari buruz — haiek, ongizatearen desira lehenesten. Guk, kooperatiben sistema parte-hartzailearen inguruan jendea bildu nahi — haiek lanbide ahalik eta errexenaren bila notableen laguntzarekin.

Tsunamiaren indarreko giro horren aitzinean, abertzaleei emeki-emeki ahuldu zaigu eginbide ekonomiko premiatsuari aurre egiteko gogo. ELBren sail eredarriaz kanpo —Euskal Herriko Laborantza Ganberak daraman sail bikaina gogoan baitugu— barnealdea eta bereziki mendialdea hustu arau, gure bizipide propioaren sortzea abandonatu arau, gero eta gehiago euskararen defentsarat ihes egin dugu, ihesaldi txarragorik izan badaiteke ere, oinarritzko egia bat ahanzten gurela : herriaren mintzairaz jabetzea ez dela aski populu bat izateko !

Zenbait euskaldun gaztek ez dute BAB-n baizik bizi nahi, eta beren gurasoengandik daukateno mantenua, ez dira lanaz gogoetatzerat biziki ekarriak, bizitza alde onetik hartzen dute. Herrian maite dutena da itsasoa, mendia eta kultura ; beti prest dira manifestatzeko eta besta egiteko euskal giroan.

Baina beren burua preparatu beharko luketela herriaren etorkizun ekonomikoa beren gain hartzeko, burutik pasatzen ere ote zaie ? Gaude, ea, ez ote luketen ideia hori eskuindartzat hartuko edo bakoitzaren eskubideen kontraktatzat...

Alabaina, gurasoek hain makur heziz gero —bertzerik ezinean edo errextasunez— ez genuen mirakulurik itxaroten ahal gure segida hartu behar luketenengandik.

Hezkuntza Nazional zaharkitutik, enpresa munduari batere irekitzen ez duenarengandik, ez dugu gauza handirik igurikatzen baina euskal

irakaskuntzan ere ez ditugu aski laguntzen gazteak herri hunen ekonomiari buruz itzultzen. Aski da ikasleei galdegitea zer bide hartugogo duten terminaletik landa, datorkigun hondamendiaz jabetzeko ! Beldur izateko da teknikari on edo enpresari baino funtzionari gehiago aterako dela haien artetik, eta joanen direla, ahal badute, lan postua dena prest aurkituko duten lekuetarat, baina, zorigaitzez, asko, herritik urrun.

Gauza bera gertatzen dela bertzetan ere ? Hegoaldean, segurik ez. Hain gaizki gabiltza hemen nun, ez baitakit gure belaunaldiak sortu duen gutia ere biziraunarazteko gogorik aurkituko den ! Nola ohartaraz, bada, bertzela egin behar genukeela ? Kapable bagina, guhaur lehenik, gure ihesbide mainguari, nolabaitekoari ohartzeko...

Gero, beharbada, ulertarazten ahal genuke, esperientzia unibertsalak erakusten duena, eta denek sendi duguna : biziraun eta garatu nahi duen populu batek behar duela bere herrian egon eta berak kudeatu lanetik bizi.

Bide zaila, oso gogorra, instituzio sustengatzaile bat ukaiteko orde, administrazio kargudun handien mehatxu eta auziak izanen dituguno oztopatzaile ! Alta, herria eraiki nahi badugu... ■

Marrazkilari supitx

2006-02-23

IGANDE EGUERDIZ, bosgarren gatean, emankizun interesgarri bat zabaltzen dute “*Arrêts sur images*” deitua. Hor ikusten eta ikasten dugu nola erabiltzen gaituzten indar politiko eta mediatikoeak, kazetaritzaren bidez, baina bereziki telebistaren indar ikaragarria baliatuz.

Ez usu, baina batzuetan xauxunkerietan ari direla baderitzogu ere, joan den igandeko saioa bederen ez dezakegu horien lerroan ezar ! Gai nagusia zen : Mahometez egin marrazki satirikoak, gaur hainbertze aipu direnak. Alabaina, duela bizpalau hilabete, marrazki zorrotz batzuk Danimarkatik zabaldurik, islamistak sutan jarri dituzte eta danimarkarrak edo danesak zenbait herrialdetarik, haia-haia, etxerat itzuli ere dira, beren enbaxadak husteraino batzuetan !

Marrazkilariak, egiazko artistak direlaket, erran nahi baita jeinu edo dohain berezi baten jabe, ikusi dugu zer indarra ukan dezaketen. Beren boterea erabil dezakete egoera baten deitoratzeko, gorestekoa, alaitzeko, baina ere berdin min egiteko, idazki zorrotzenak baino saminkiago ; idatzizkoari ihardestea nornahik egin badezake, marrazkigintza artea da eta ez da deneri emana !

Islamisten haserrea sortu da, haien erlijioa hunkitu delaket baina ere, bidenabar, gu mundu aberatsagokoek, mundu erromesagokoak zirikatu ditugulaket ; kasu honetan, zirika, gutiespen edo mespretxu bat bezala senti baitaiteke. Beherekoak goragokoa zirikatzea aldiz onargarriagoa da ; botere politiko edo ekonomiko zerbait dutenek, adibidez, heien batean bederen, onartu behar lukete herritarren eta langileen kritika.

Baina adierazpen askatasunaren izenean denak haizu ote dira ? Gure ihardepena garbia da, ez, ez dira denak haizu. Danesak ez dakit, baina Charlie Hebdoko marrazkilari zorrotzak trebeak dira gauza sakratuenez, erlijioaz-eta, trufatzeko ; erlijioetan dauden sexu debekuak bereziki ezin jasanak zaizkie. Frantzia libertatearen herria baita ! (Erran behar gure presoei...) Libertatea, bakoitzak bere gorputzaz nahi duenaren egiteko, nahi duena idatzeko eta marrazkitzeko.

Ordea, bere dohainaz eta botereaz baliatzea, ttipiagoren fedea eskarniatzeko, hori ere libertatea ote da ? Ez omen dira gaiztoak delako marrazkilariak. Alta gauzen hobetzeko baino balentria gehiago sumatzen dugu horien jokoan ; zein gehiagoka bat. Libertatea gauza baliosa da baina urrunegi joaten bada, ostiko bat ere eman dakioke, horrela baitira sustatzen, islamista erradikalak eta eskuin muturrekoak...

Gure libertate fisikoa mugatua da alde guzietarik, goizetik arrats bertzea errespetatuz ibili behar baitugu, on bazaigu eta ez bazaigu. Libertateaz denak liluratzeko orde hobe genuke geure burua menperatzen

ikasi behar dugula errepikatzea. Libertatea gure baitan bilatu behar dugula nolabait. Gero, “*defultatze*ko”, barneko ezinbertzeen jariatzeko, artista handi horiek segurik, ez dute hautu eskasik...

Marrazkilariek lagundu behar gaituzte, jendartearen eta munduaren akatsak salatuz, buruzagien bide makurrak gaitzetsiz. Baina ez dugu hasi behar gurutzada berririk, iduri-eta gure zibilizazioa akatsik gabea den ! Hola segituz europarrek amerikarren hilek bezainbat desmasia egin dezakete. Gaude, azken batean, libertate horren neurritz baliatzen ez dakigulakotz, ez ote garen, pirka pirka, libertateari mugak tinkatzen ari, legeak eraginez gero eta gehiago...

Jadanik badira antisemitismoaren kontra, arrazismoaren kontra, “*harcellement moral et sexuel*” delakoaren kontra, pedofiliaren kontra, erlijio ikur gehiegizkoen kontra eta abar. Azkenean, legeak egin beharko ote dira islamaren, kristauen eta abarren gerizatzeko ?

Autozentsura aipu da. Guk nahiago dugu bakoitzaren erantzukizuna azpimarratu ; bakoitzaren sinesteari errespetua zor zaiola oihukatu. Borrokatu bai behar dugu, gogorki gainerat, baina arerioa apaldu gabe. Noiz gelditzen da ordea gure idaien alderako borroka eta hasten bertzearen zapalkuntza ? Horren hautematea da lan guzia. ■

Izen eta ezizen

2006-03-23

BERRIKI HEMEN BEREAN agertu dugu artikulu bat bere egilearen izenarekin eta gure onarpen osoz. Baina ez da hori gure usaietan eta gertakari horrek bi gogoeta pitzarazi dizkigu. Anitz artikulu agertzen da euskal munduan sinaturarik gabe, eta hori aspaldidanik. Lehengo denborak ikertu nahiz ari direnek sekulako izerdiak bota behar dituzte gero artikuluak nork eginak dituen zilatatu beharrez, jakintza askok zehaztasun hori baitezpadakoa baitute.

Alabaina, hitz ber-berek, harengandik edo hunengandik etorritz gero ez dute indar bera. Nundik mintzo den (edo zer erreferentzia duen) eta hark ematen dio araberrako indarra erranari. Mozkor batek egia handiak erran ditzake baina haren eragina ez bide da urrun zabalduko... Gizonak bere bizimoldeaz behar du egiaztatu bere errana. Eta hobe erraten duen baino gehiago egiten badu. Aldiz erraten duena baino gutiago eginez baldin badabil denen irri egingarri bilakatzen da.

Lan batzuek eskatzen luketelarik egilea nor den jakitea, askok segitzen dugu izenik eman gabe idazten halere, nahiz bilatuz gero behar den lekuan gure izenen aurkitzea errega den gaurko egunean. Enbatari dagokionez, ez dut uste baden artikuluen izenpetzeari buruzko dogmarik. Hemen dugun dogma bakarra Euskal Herria da eta haren geroa.

Zertako bada jarraiki izenik eman gabe idazteari ? Artikulua taldean egin bada zuzen da, baina bakarrik egin bada ? Aspaldiko ohitura bat da gurea baina ez da ezin aldatuzkoa. Lehen, gazte ginelarik, izena gordetzen genuen eta gure barneko ezinbertzeak jariatzeko baliatzen ginen ezizen batez : harria bota eta eskua gorde, ari ginela erreki zirikatzen gintuzten...

Eta egiten zitzaigun kitzika hura ez zen beti merezigabea, baina borroka armatua gorenean zegoelarik (Hegoaldean ala Iparraldean) ez zen hemendik hitzegitea josteta bat eta borroka horren ihardespina izan den GAL delakoa ere ez zen alegia ari !

Gure arteko armatuen mehatxuak ere izan ditugu ; aspaldian barkatuak baitizkiegu, haatik, gordinki ordainduak baitituzte espetxeetan...

Denek badakigu, egiak min egiten duela eta ondorioak gure lanbideak kolokan ezartzeraino joan daitezkeela, batetik eta bertetik kalitate askoren jabe da euskalduna baina iritzi ñabardurak eta autokritika hastio ditugu helburu bera edo berdintsua izanik ere. Bazterketa anitz bada abertzaleen artean ere. Ikus ere Hegoaldeko euskal alderdien arteko gaurko egoera tristea : bake bidean nehundik nehorat urrats bat elkarrekin ezin eman ez baitabiltza...

Guzien gainetik bazen eta bada oraino pentsaera marxista idor bat Euskal Herrian ere : helburua ona den ber jo daiteke bortizki eta badakigu

zer hilketa deitoragarriak bizkarrean ditugun orain eta Jainkoak daki noiz arte... Talde lana beti hobetsiz bakoitzak behar zuen urtu haren baitan. Klandestinitateak ospe handia zuen.

Ez da beraz harritzekorik izenik gabe idazteko usaia horretaz, beharrezkoa ere baitzen batzuetan. Baina orain ? Idazle bakoitzak ihardets dezala hor ; huna gure iritzia. Euskal Herri honetan, ekonomia mailan, sindikatu, kultura ala politika alorretan, hainbertze eta hainbertze gizon eta emazte, gazteak barne, bermatzen dira, sekulan izenik aitzinatu gabe, bakoitzak bere eginbeharra betez, nehoiz saririk bilatu gabe, adiskidantzaz bertzerik.

Horra zertako sail honetan zerbitzari ezezagun baina euskaldun leial eta langile zintzo horiekin bat egiten dugun herriaren alde jokatzekoan. Gure hautua da, alda daitekeena. Bertzela jokutzen direnak guziz errespetagarriak zaizkigu eta gain-gainetik onartzen ditugunak. Garrantzitsuena da, sar-hitzean, izenpetzen ahal genukeena baizik ez idaztea.

Gogortasunak bai baina gehiegikeriak ez du indarrik politikan. Bere zakua hustu nahiz ari denak literatura alorrerat jo behar luke. ■

Inarrosaldi bat gaitza

2006-04-20

BERTZERIK EZINEAN, bere biziaren irriskatzeraino joanez, entzuna izateko gelditzen zitzaion azken arma erabili du Jean biarnes deputatuak, bere sorleku dorpe bezain ederrean, bizipide bat begiratzeko. Bidenabar, politikari lehentasuna berriz eman nahi ukan dio jendeen onaz axola guti duen ekonomiaren lege idorren aurrean.

Atsegin hartu dugu joan den astean, jakin dugularik 39 egun gose-greba egin ondoan, erdietsi zuela ezinezko zirudiena : hitzarmen bat zointan Toyo, Aluminium lantegia, engaiatzen baita Accous herrian gelditzerat, Lacq-eko industriagunerat joan gabe. Urruntze horrek, alabaina, berriz ere joko baitzuen, zuzen-zuzenean, mendi handien arteko Aspe harana, aspaldi honetan jendez husten ari dena : joan den mendeko 12.000 bizilagunetarik, 2.800 ingurutarat jaitsia baita !

Hitzarmen horrek botere publikoko gorenaren babesa ere lortu du, harrigarria baita, zeren-eta gaurko mundu liberalean, lantegiak utzi behar (omen) baitira beren gisa nahi duten bezala ibiltzerat, langileen eta herrialdeen beharrak bigarren mailako kezka gelditzen direla... Jokamoldea harrigarriagoa zaigu oraino : deputatu bat gose-greban abantxu sei astez, gapelua buruan, Biltzar Nazionalean bertan, jauneria eta trufa anitzen erdian, serioski hartua izan arte bederen.

Gure agurra hartze du gizon horrek duda izpirik gabe. Eiki, departamendu hunek parlamentari mintzatzaile dohatuagoak igorri izan ditu Pariserat baina ez dute bihibatek nehoiz lortu hunek bezalako oihartzunik : eskaera denentzat ulergarria izanik (fedea gaiztokoentzat izan ezik) eta kalipu izigarria erakutsi baitu ere, borrokak hedadura hartzen eta luze joaki zen arau.

Jean Lassalle gazterik sartu zen politikan : Lourdios-Ichère-ko auzapez lehenik, gero Accous-eko kontseilari nagusi eta azkenik deputatu, Michel Inchauspe-ren segida hartuz, hautes-barruti berezi batean haatik, Euskal Herritik eta Biarnotik hartuz, Pasqua Barne Ministro ohiak artifizialki muntatua euskal ahotsa hausteko gisan.

Ori, azpi-jokoak ukan du uztarra, ustegabekoa bezain merezitua ! Frantziako klase politikoari harroaldi bat gaitza eman dion gizon hau, “gure” deputatu gisa ohora dezakegu ekintza honetan. Ez dute ebatsia ostikoño hori Parisko urrieren erdian gradu, aitzinamendu, berriz hautetsia izateko gogo soilez dabilzan askok ! Euskaldunen borrokak sustatu duke, loerian dagoen baina maite duen bere Biarnoarentzat zerbaiten entseatzerat.

Inarrosaldi berezi hunen irakaspenik handiena dateke, ekonomiaren kudeantzan, politikoei, nahi badute zinez, zerbait egin dezaketela. Guk beti hala pentsatu dugu. Bertzela zertako da politika gure bizia baldintzatzen

duen sailik garrantzitsuenean ez badezake deus egin ? Borroka hau goresten dugu beraz, deitoratzen dugularik, bistan dena, bizia irriskatu behar izana haran batean enpresa koxkor baten atxikarazteko ! Agian ez da hau izanen, Frantzian berean, jendez husten ari diren eskualdeen azken putarra...

Ezkerreko ‘ongi ikasi handien’ arrangurek ez dute hutsegin : zer ari da gizon hori UDF alderdian, horren gaurko bidea kasik altermondialistena delarik ? Zer egin du orain arte ? Horiek ote dira moldeak politika egiteko ? Hemen oroitarazi behar da UDFko deputatuetarik bakarra izan dela Jean Lassalle Europako Konstituzioari eza eman diona.

Alain Roussetek erran ditu naski hitzik ahulenak : holako ekintzak kanpoko enpresariak iziarazteko direla eta haien hunat etortzearen oztopatzaile izan daitezkeela... Hots, liberalismorik gordinena aldarrikatzen dutenen hitz ber-berak... Bekaizkeriaz ote, bertze askok bezala ? Alderdiek leku handia dute politikan eta zuzen da ; baina ez dute monopoliorik ; pertsonak ere badute eta beti ukanen bertze hainbertze garrantzia.

Bihoztunak ez dira ezkerrekoak bakarrik. Hain xuxen pertsonak eman diezaiokeite politikari, alderdiek baino hobeki, hain beharrezkoa duen jendetasun mezu bat, hautetsien erantzukizunaz jabetzean. ■

Jorran aroa lagun

2006-05-18

AZPIJOKO NAHASIENETAN dabilzkigu Frantziako Estatuburu eta gobernuko batzuk. Zoinek bertzea behaztoparaziko duen lehendakari hauteskunde bidean ! Ezkerrean ere alta badute nahiko lan beren arteko lehiaketak neurrian atxikitzen... Frantses politika, hauteskunde nagusi horien inguruan itzulikatzen da, gehienki, aspaldi honetan. Bazter guziak hondatzen dituzte, sobera botere jokoan baitagoke.

De Gaulle-k eraiki zituen oraingo instituzio bitxi handios horiek, beretzat egokiturik lehen-lehenik, Frantziarentzat zeukan maila goren espantutsu hura obratzeko asmoz. Bertzalde, bozkatzeko sistema bat atxiki zuten, antidemokratikoa, bigarren itzuli batekin, orduan alderdi komunista azkar baitzegoen, harekin ibiliko zirenek beti galduko zutelakoan eta bertzalde lehen itzulian alderdi ttipiek harrotu iritziak ahanzteko gisan.

Badakigu Mitterrand instituzio horien kontra zela baina botererat heldu ondoan ez du hark ere deus egin Lege Nagusiaren funski aldatzeko. Gaur, alderdi komunistak ez du gehiago nehor izitzen ; aldiz, eskuin muturrekoek, Mitterranden denboran goiti joan zirenek eta gaurko saltsa horietaz balia, kopeta gora dabilzanek, ttanttoak eskuratzen dituzte. Askorentzat, haien alde bozkatzeko bihurtu da gaurko nahaskeriez aseak direla erakusteko moldea.

Frantzia urguilu handi batek jana dabil. ‘Munduaren argia’ dela eta izan dela uste du oraino ere! Bere hizkuntza munduko ederrena ; Paris, munduko hiririk puxantena ; Versailles, munduko eraikuntza ospetsuena, eta abar. Denak ere menperatuei ebatsiz eginak, esklaboak baliatuz, probintziak xurgatuz, handieria burgoi baten menean. Ez baita harritzeko Iraultza eragin bazuten horiek guziek. Baina Iraultzak jakobinismo idorrena finkatu zuen eta federalismoa ito. Orain, estatua hor dago, ezin eraberrituz, berak eraiki sistemaren gatibu.

Kultura desberdinak ezabatu, frantsesa sakatu eta gaitz hori landatzen entseatu dira mundu guzian barna. Oraino ere ‘kolonizazioaren ongiak’ goraipatuko lituzkete zonbaitek, egin sarraskiek, barkamena eskaintzea galdatuko luketelarik, gutienez, isil-isilik egotea. Baina eraberritze horretan lehen urratsa litzateke dezentralizazioa, Paris munstroak dena irensten baitu. Eskualdeei uzten zaizkien botere purruxken burutzeko behar den diru heina ere nekez itzultzen zaie !

Badu Frantziak bertze berezitasun bat : laizitatea. Hau ere Iraultzaren miresleek eta erlijioaren etsaiek asmatua, erlijioak sobera leku hartzen zuen garaletan. Gure inguruko erresumek ez dakite zer den ere ikuspegi hori. Egia erran, guhaurk ere ez dakigu xuxen : funtsez ados izanik ere ez baikara denak bat ideia horiek zehazki indarrean jartzeko orduan.

Zertako hoin gogor jorratzen dugun frantses sistema politikoa ? Euskal Herrian ere oraino, zenbaitentzat, Frantzia, sail batzuetan, eredugarri dagoelakotz ; hark kutsaturik baitauzka, ezkerreko batzuk, berak ohartu gabe gehienetan, hala nola, zerbitzu publikoen alorrean. Alta bada, Hegoaldean, adibidez, badituzte, sail batzuetan, zerbitzu publiko batzuk Frantzian egundaino izan diren baino hobeak...

Eta orain mundializazioak sortzen duen langabezia lotsagarria ezin gaindituz, etorkinak ezin frantsestuz, giro politiko ustelean pulunpan, zapartatuko ote da zerbait Frantzian ?

Erakunde publikoak birmoldatzeko ez dugu sinesterik jazarraldietan edo bederen horiek ez dira askiko. Gizon edo emazte kementsu batzuen esperantzan gaude, noizbait atera daitezkeelakoan hainbertze dohain naturalez fagoratua den lurraldean, bide berri baten zabaltzeko XXI. mendean, Euskal Herriaren lehen eskaerak bederen onetsiko lituzketenak.

Gerla ondoan, Robert Schuman batek, bertze batzuekin, alemanekilako adiskidantza, osoki ezinezko zirudiena, sustatu zuen... ■

Burujabetasun osoaz

2006-06-15

EMANALDI BERRI BAT sortu du Euskal Telebistak, “Kalaka” (Iparraldeko hitzaz) deitua, Xabier Eguzkitze kudeatzaile. Joan den asteko eztabaida gaia zen “independentzia”. Batzuk alde, bertzeak kontra, ez alde ez kontra den bat ere tartean, bazen denetarik beraz mahai inguruan.

Eztabaidaren hastapena huts eginik, uste dugu Motenegro herrialdeak (Aupa Mendibeltza !) eman digun erakustaldi bikainarekin hasiak zirela. Alabaina, guk baino ‘arrazoi’ guttiagorekin bereizi baitira Serbiatik montenegroarrak : hizkuntza-kulturak kasik berak (hemendik behatu-ta bederen), erlijio bera eta halere beren Estatua eraiki nahi ukan baitute.

Mahai inguru horretan gehienik harritu gaituena da PSOEtia bat izatea euskarazko hizlari trebeena, pozoitsuena ere zelarik denbora berean. Bistan da ihardetsi zaiola baina erratea ez da aski, behar da ere jeinua hitzari emateko behar duen indarra. Alabaina, holakoetan, hitza bezain garrantzitsua da moldea. Ez dira denak horretarako eginak. Entzule batek baino gehiagok pairatu dukete Mixel Bidegain bezalako baten eskasa, Iparraldeko bat izendatu behar eta.

Artetik erran, idazle hau biziki ontsa ari zaigu Enbatako orrialdeetan barna aspaldixkoan, bai euskaraz, bai erdaraz, arras ongi dakigularik lumarekin bezain trebe dela ahozkoetan ere. Jakes Abeberry sendatzen ari den honetan, luma hain jantzia izanik eta ildo berekoa, badira aldaketaz ohartu ere ez direnak. Dena den, PSOEtia raren faltsukeriek mereziko zuket en refera ginarritsuagoko bat...

Zer zioten bada delako solas pozoitsu haiek ? Deus berririk, egia erran : ez dela gehiago Espainiaren aztaparrik Euskal Herriaren gainean ; bozaldi bakoitz autodeterminatzen dela gure herria ; gure borondatea erakusteko ahal demokratiko osoa daukagula hauteskunderen bidez ; Euskal Herria iritzi anitzekoa dela eta elkar bizitzaren antolakuntzaz dugula bakarrik kezkatu behar ; autodeterminazioak bazterrak suminduko lituzkeela gehiago... Hots, PSOEn katixima : presoak ahantziak eta Euskal Herriak burujabe oso izateko duen eskubidea ukatua.

Xabier Artzallus kexu-kexua paratu zaio, begi zorrotz batzuekin, eta solasa nolabait beztitzeko, Francoren denborako ETA errofik onartzeraino joan behar ukan du ! Baina, hara, PSOEtia rrak ihardetsi dio ETA sortu zela EAJrekin ezin zezaketelakotz aurrera egin. Egia handia baita hori ere, maltzurkeria handiagoko baten azpian estalia kasu honetan !

Guk zer erran dezakegu bertzerik ? Hau bederen : Iparraldea gabe, Hegoaldea, Espainiako lurralde bat litzatekeela, Andaluzia bezalatsu. Iparraldea, nahi bezain ahula delarik, instituzio propiorik gabea delakotz,

Hegoalderik izan ez balitz desagertua zatekeena beharbada, baina, den bezalakoa bada ere, Iparralde hunek deusek baino gehiago ematen dio Hegoaldeari burujabetasuna aldarrikatzeko zilegitasuna. Iparraldea, ez delakotz nehoiz espainola izan, sekulako indarrez salatzen du Euskal Herria, bere zazpi lurraldeekin, egiazko nazio bat dela ! Ikuspegi horretan hainbertzetaraino sinesten dugu, non, uste baitugu, Hegoaldeak Iparraldea laguntzen duen aldi oroz bere faboretan ere ari dela. Beti eskale izateak ematen digun ahalke hartarik poxi bat kentzeko balio balu bederen gure ateraldiak...

Eztabaida horretan entzun dugu haatik bertze zerbait, naski, oro baino gehiago, harritu gaituena. Animatzailearen galdera zen : Zer pentsatzen duzue ekarriko digula gehiago burujabetasun osoak ? Batek atera du, bertze arrazoi funtsezko batzuen ondotik, guti gorabehera, hauxe : “Horrek gauza on bat ekar liezaguke : Vatikanoren eragina ttipitzea”. Gizon hori burutik maingu da edo bertzela guziz beldurgarria da, dakigularik Hegoaldeko gehiengo batek, gazte bihibatek kasik, ez dutela zangorik ematen elizetan, Aita Sainduaren erranak bost axola zaizkiela batetik eta bertzetik, Elizak, zuzentasunaren, jendetasunaren eta bakearen aldeko gomendioak ematen dituela bakarrik eta ez duela, aspaldi honetan, nehoren hertsatzeko eskumenik, bada harritzekoa eta kezkatzekoa holakoak entzutean ! Espainiako II. Errepublikaz geroztik ez dute deus ikasi...

Ala Gandhi miresgarriak, Matiuren “Zoriontsuak” irakurri ondoan (5,1-12), erran zuena gogoratu behar da hemen : “Jesus zinezko Jainko Semea da eta giristinotasuna erlijio perfeta ; zorigaitzez, ez da nehoiz Berri On hori zinez pratikatu”? ■

Goresmen eta desohore

2006-07-13

KIROLTZALE AMORRATU ez garenek, zer pentsa dezakegu igande arratseko Frantziaren eta Italiaren arteko futbol neurketa ikusi ondoan ? Kirolez ari garelarik, lehenik dakiguna da, bere mugetan egonez gero, kirol egiteak bertute ederrak susta ditzakeela eta osoki beharrezkoa gelditzen dela jendartean.

Baina kirol gehienak usaintzen ari dira : drogan ihalozka dabilzkigu edozein diziplinatan izan dadin eta bertzalde diruak aise sobera leku hartzen du maila goren horietan bederen : errotik aberastuak zaizkigu futbolari asko ! Erran dezagun oraino, txapelketa mundialetan, Estatu txobinismoa sostengatzen dela deblauki ! Frantsesak zozotuak ziruditen azken egun hauetan : Zidane hunat, Zidane harat, ezin aski goretsiz, ez zuten bertzerik ahoan !

Alde batetik eta goratik behatuz, ez zaigu batere itsusi mauroak eta beltzak zuriak baino hobeki ari ikustea, bereziki Frantzian : Estatu hau bezain inperialistik ez baita anitzik munduan ! Nolabaiteko arrebantxa bat bezala ikus daiteke. Kolonizatu horien umeen artetik, kabiliar bat ateratzea, zuria ez den jendaira guziaren ikono bilakatzeraino munduan, ez da hori gertakari ttikia ! Kabilia da, gainerat, Frantziaren uztarripetik jalgitzeko hainbertze jokatu den herrialdea eta gaur bere nortasuna ezin onarraraziz ari dena, zalapartaka, arabeen zepoan eroria.

Baina Zidane, munduko futbolari hoberena, jainkotua, huna nun behaztopatu den, milioika ikusleren aitzinean, nehoiz egin beharko ez zuen jestu desohore egingarri batean ! Jokolari handia, sobera goratua zuketen eta ez duke iharduki ahal ukan bizkarrerat erori zaion erantzukizunari.

Kiroltzaleak oroit dira, haatik, lehenago ere Zidanek jestu itsusiak izan zituela. Bistan da Materazzi italiarrak kitzikatu duela igandean, eroarazteraino ere beharbada. Ordea, zer uste zuen bere balentriañoen egiterat, utziko zutela, lasai-lasaia ? Xori onak ! Kirol egiteak erakutsi behar duen bertuterik ederrena dateke nork bere buruaren menperatzen ikastea eta hain xuxen bertute hori du lotsagarriki kolpatu Zidanek.

Halere Parisen ongietorri beroa egin diote ; ez du nehork barkamenik eskatu : Frantziak ‘ongi’ hezi ditu bazterrak : hemen barkamen eskaera ez da ezagutzen...

Bertze oharpen bat ere egin dezakegu ; orohar, italiarrak bezain onak zirela frantsesak, beharbada hobeak ere eta irabazten ahalko zutela baina Frantziako jokalaria kasik denak beltzak izatea normala ote da ? Frantzia Afrikan ote den pentsa zezakeen munduaren bertzaldeko ikus-entzule ezjakinak !

Alemanak, portugesak, italianoak, espainolak, naski denak zuriak izatea ere ez da, egia erran, arras normala. Arrazismo arazo handiak badaude futbolaren inguruan. Baina frantsesen kasuan zer erran nahi luke, hemengo jendea nagitzen ari dela, aberats moteldua dela, ez duela gehiago kemenik gogor jokatzeko ?

Zenbaitek uste dute etorkinen integrazioa laguntzen duela haietarikoen parte-hartze nasaiak goi mailako lehiaketa horietan... Baina hori ez da batere frogatua, ez zurien partetik ez eta bertzeen aldetik ere. Eta alderantziz balitz : Zidaneren buru-ukaldi deitoragarriak arrazismoa bultza baleza, mauroak eta beltzak odol berokoak edo areago erdi salbaiak direla sinetsaraziz ?

Alta, gutiengokoek iragan behar duten ateka hertsitik pasatua zen Zidane ! Alabaina, bertzeen heinerat heltzeko ez dute aski, haiek, bertzeak bezain onak izatea, hobeak izan behar dute. Hori gertatzen zaie emazteei ere politikan sartzen direlarik.

Eta bide zakar beretik doakeelakotz uler daiteke zertako, gutiengotik datozen gaskoi izeneko anitz euskal borrokan sartzen den baina laster lotsatzen. Irakurleari kausitzeagatik, erdal deiturako idazle asko ere izenorde euskaldunen hartzerat behartuak dira. Nahiz, azken alor honetan, emeki-emeki, gauzak aldatuz doazen. ■

Ez da lana bezalakorik

2006-08-10

HARRITUKO DA irakurlea titulu hunekin... Lana ? Hoinbertze direlarik gure artetik eta gure artean bestaz besta dabiltzanak edo oporretan ? Baina Enbata berriz lanari lotu da : euskal borrokan jostaroak labur dira eta zenbaitentzat batere ez (iheslariak, presoak...). Funtsean ikusi behar da zer indarrak egiten dituen euskal mugimenduak besta horietan ere euskal giro baten sortzeko, bestak euskalduntzeko —joan den asteko Enbataren zenbaki kolorezkoa artean— eta erran dezakegu arrakasta goitituz doakigula hor.

Dirudienez, euskaltzale eta abertzale jendea kultura eta politika alorretan da gehienki jokatzeko, lan munduan aise uzkurrago gabiltzalarik, hor egiten diren entseguak eta horretarat lehiatzen direnak goresgarriago baizik ez zaizkigularik (Sokoa, Hemen, Herrikoa, Lantegiak eta abar). Beñat Castorene adiskideak ere igorri digun gutun luze eta giharritsu batean nahi gintuzke preseski horretaz gogoetarazi. Huna, labur bildurik, zer dioen.

“Iduritzen zaigu, gure belaunaldikoei (guraso garenei), mugaz hunaindiko eta haindikoei elkar ezagutzen ikasi dugula. Egia da orain ez dela maiz aditzen Hegoaldekoentzat ‘*espainola*’, bestaldean, guretzat ‘*frantsesa*’ baino gehiago ez bederen. Den zozoenak ere badauki orain euskaldunak badaudela bi aldeetan.”

“Haatik, ene iduriko, hasi bakarrik gara elkar ezagutzen eta zonbait mendez gure menperatzaileek ezarri muga bereizle hilgarriak egin kaltea ez dugu bi belaunaldiz zuzenduko, bereziki orain arteko martxan...”

“Alabaina besta, bakantza, kultura eta politika ekitaldietan dugu gehienik elkar gurutzatzen. Anitz da baina ez nahikoa ! Elkar ezagutzeko bidea zinez zabalduko da bizitzeko daramatzagun urratsak haiekin emendatzen baditugu. Gure ekoizpenak harat salduz, haienak erosiz, edo elkarrekin ekoiztuz, zertako ez ? Hots, alor ekonomikoa sakon irauliz.”

“Baduke ene ikusmoldeak, anitzen gisa, modaz pasatutako aire bat, baina, liburuen irakurketaz gain, azken sei urte hauetan gure enpresaren esperientzia barnetik bizi ondoan ari naiz. Urteak eta urteak bestalderat saltzen alferretan saiatuz gero, horra nun, harat lanegiterat joan baxenafartar inguinadore gazte bati esker, harremanetan sartzen garen eta elkarlana hasten dugun Bizkaiko kooperatiba gotor batekin. Ohar zaitezte zerk duen bidea harrarazi, esanguratsua baita berez !”

“Hastapeneko mesfidantza piskanaka ttipituz joan arau, kooperatiba horri buruzko gure salmenta igan da gure saltzeen erdia

izateraino, hainbestetaraino nun, ari baikinena beste langile bat hartzekotan, euskalduna izan beharko lukeela baitezpada, harremanak errexteko...”

“Zeren-eta, hizkuntzaren aldetik, erran behar baitut, esperientzia horrek euskaraz aritzerat behartu gaituela, gu, gure lanean hori gehiago egiten ez genuenak, haiek, gu baino aitzinatuago baitziren alor horretan. Azkenean, euskaraz genuen elkar hobekienik ulertzen ! Alta sei urte horietan barna, jakizue izan direla eztabaidak, izan direla desadostasunak, baina hautsi-mautsi batetarat heltzeko nahikundea baitzegoen, aurrera egin dugu, hinka-hanka baldin bazen ere.”

“Erakaspenik baldin bada historio ttipi horretan hau dateke : lantegi saileko alor guziz garrantzitsu horretan indartu behar genukeela Hegoaldekoekin lan egiteko gogoia. Herri bat eraikitzeko, ez da lana bezalakorik, historia guzian ez baita hobeagorik asmatu, gorabeherak izan badaitezke ere.”

“Horrengatik eta luzara begiratu, bestaldetikako diru laguntza erdiestea baino hobe litzateke elkarlanerako abaguneak edo okasioak biderkatzea ekonomia alorrean. Zaila izan daiteke beharbada, urrun begiratzea eskatzen baitu jokamolde horrek eta gaurko jendea berehalakoarekin borrokan ari baita. Eta gainerat hori ez baitetorkiguke ez Pauetik, ez Paristik, ez eta jadanik anitz egiten duen Euskal Jaurlaritzarengandik, baina jin bailekiguke, oroz lehen, gu bakoitzaren nahikundetik.” ■

Gauak irauten du

2006-09-07

UDA HONDAR HONETAN zer pentsa Ekialde Hurbilean gertatu denaz ? Horra hor Israel, juduek eraikia, naziengandik sekulako sarraskiak jasan ondoan, sekulako lanak egin dituen, bertzeak bertze, bere hizkuntza berpiztu, bere lurralde guzia arakatu, nehun egin den baino sakonkiago. Miresten dugu populu hori bere gaztetasunarentzat, bere laneko gogoarentzat, basamortuak baratze egin baititu ; baina juduen Estatu moderno eta demokratiko hori bere ingurukoentzat otso bihurtu da Itun Zaharraren izenean gainerat !

Berriki, bi soldadu bahitu dizkio Hezbolak eta gertakari horretaz baliatu da Libanoa, bere auzoa, erdi-suntsitzeko lehergailupean. Egia da bi soldaduren bahitzea ez dela nehola ere egitate baketsua baina ez litzateke ahortzi behar Libanoko lur muttur bat ozarki bere aztaparretan daukala Israelek bahikuntza baino lehenagotanik eta horrek diola eman eta ematen Hezbolari bere zilegitasuna.

Israel lotsagabea bilakatu zaigu : nazioarteko legeak zangopilatuz, hartzen du nahi duena edo beharrezko deritzona (ur, lur eta bertze) eta uzten gaineratekoa palestindarrei edo libanoarrei... Badirudi amerikanoak ere, bere gerizatzaile sistematikoak, sudurretik darabiltzala...

Ezin ulertuzkoa da Nazio Batuen Erakundearen jokabide motela eraso neurrigabe horien aitzinean. Erakunde hau gero eta gehiago Amerikanoen eta bertze Estatu indartsu batzuen menpeko tresna agertzen zaigu ; hobeki egin lezake, mendebaldeko zibilizazioa —diru-jokoek usteldua— bazter guzietarat hedatu nahi luketenen aurrean, Estatu ttipiak eta herrialde askatu nahiak susta balitza !

Euskal Herrian ere Ekialde Hurbilean bezala iduri luke gaua ez dela sekulan bukatuko. Han desmasiak ageri-agerian dira ; hemen maltzurkiago dabilta. Beha bakerako urratsak zertan ditugun... PSOE-k ETArekin sekretuan sinatu dituzkeenak su-etenari buruz, ez ditu, ez bete, ez betetzen hasi ere... Dirudienetz izenpetuen alderantzizkoa egin ere du !

Bertzetik berriz nola sinets erakunde armatua isildu gabe bake prozesuak aurrera egin dezakeenik ? Alabaina, nork asma ere dezake, Espainia, ETArekin onespen edo gaitzespen agerian pean ibiliko denik tette bezala ?

Agian gure ikusmolde ezkorra gezurtatuko dute ondoko egunek baina gaur sumatzen duguna lotsagarria da. Zer probetxu espero du euskal ezkerak bere hartan kantitu gabe egote horretarik ? Uste badu idarkeria arbuia gabe bake prozesua funtsez aitzinatuko dela, erran nahi baita ETA-k egin dituen petto izigarriak (Franco zenduz geroztikako batzuk) Espainiak

hola-hola irentsiko dituela, ametsetan ari da. Eiki, ezkerak nahi du bakea, horretan ez da dudarik, baina autokritika funtsezkorik egin gabe.

Bakearen beldur ote da euskal eskuina ere ? Autonomia Estatutuak, oro har, aitzinamenduak ekarri ditu zenbait alorretan. Ibarretxe ere dena borondate on dabilkigu, baina boterea dastatu duen alderdiak badaki beretik segituz bere aulkian segi dezakeela, aldiz egoera politikoa normalizatzen bada, botere hori galtzen ahal lukeela airez aire ezkeraren faboretan.

Roger Etchegaray kardinalak elkarri barkatzeko deia egin du ozenki igandean Loiolatik, Iñigok eta Xabier-ek —etsai izanek— elkarri barkatu zuten bezala ; ordea, bakeari buruzko urrats politiko batzuen ondotik etorri izan balitz, mezu horrek oihartzun handiagoa izan zezakeen.

1998ko su-etena lortu zenean Iparraldeak bere ekarpena egin zuen, Kanborat bilduz Hegoaldeko alderdi nagusien ordezkariak, nahiz ELAren harroaldia izan zen erabakigarria oroz gaineratik. Baina geroztik Iparraldean hedatu da Hegoaldeko kutsadura gaiztoa : alderdikeria. Sekulan hemen zabaldu beharko ez zena ikusiz gure egoera hitsa instituzio mailan. Hutsegin dugu hor beharbada gurea izan zitekeen betebeharr historikoa : Hegoaldeko anaia indartsuen biltzea, baina hortakotz beharko genuen denbora batez hasia genuen ildotik jarraiki. ■

Abertzalegoa suspertzeko

2006-10-05

GIZARTEAN hoinbertze bidegabekeria ikusten delarik iduri luke berri onen hedatzeak jendearentzat lagungarri eta sustagarri izan behar lukeela. Baina ez, berri txarren eta liskarren aipatzeak du kazeta asko biziartzen. Eta dena merkatuaren meneko denaz gero... Telebistan are gehiago : han kasik makur dozenak baizik ez dituzte aipatzen...

“Berria”, egunkari euskalduna, ez doa bide horretarik, azaltzen baitizkigu herri eraikuntzak, enpresen lorpenak, gizon emazteen bizi baliosak, etorkizunerako lanbideak... Baina Hegoaldeari itzulia dago kasik guzia. Iparraldean araberrako ‘berri onen’ ufada gozoa ukan dezagun arte iraganen da urik Infernuko errekan ! Hegoaldekoen laneko kemenak ezaguna da eta goretsia ; gure itxaropen iturrietarik dugu hori. Eiki, alde honetan ere, ez gaude eskuak gurutze, gure ahalak, azken batean, mugatuak gelditzen badira ere Hegoaldekoekin alderatuz gero.

Abertzale oldeak sortu ziren ikusiz norat zoan gure herria. Ontsa joaki ez direnak salatu dituzte, haien antolabide batzuk eskainiz jendeari eta elkarlanaren balioa azpimarratuz. Ez da beraz harritzeko horien kazetak ere trebeska doazen aferez ari badira maiz, aspergarriak izan arte. Beharrik gure hunek badu Tartaroren omorea bederen eta asko gara astekari hau irekitzen dugunean, haren zutabea lehenik irakurtzen dugunak. Horrek berak zerbait erran nahi baitu !

Aspaldian euskaltzale batzuk bermatzen dira euskara sarrarazi edo haren lekua emendatu beharrez hainbat lekutan, SNCFaren geltokitik hasi, pilotan gaindi, euskarazko fedegintzaraino. Buruzagiei beren betebeharrak oroitartzen dituzte, bazterrak sumindu arte batzuetan.

Hemen goraki erran nahi duguna hau da : nahi bezain aberasgarria izanik ere, euskara ez dela bere indar soilez salbatuko. Hiltzorian den mintzaira bihibat ez baita bere baitarik salbatu. Horretarako beharko da mugimendu politiko abertzale indartsu bat, gaur den baino eraginkorragoko bat, erabakiak hartzen diren gunetan gehiengo baten lortzeko beharrezkoa izanen dena, joan den astean Jean-Michel Galant-ek zioskun bezala, boz kontuetan %20 batetarat bederen heldurik.

Nola indartu ordea gure abertzale oldea ? Hori dateke, azken batean, gure arazo nagusia ez errateko bakarra.

Orain arte gurearen gisako mugimendu berri batzuek jendartean bide egin nahi zutelarik, eguneroko arazoetarik lotzen ziren ; laborantzan, adibidez, sindikalismoa sustatuz, kooperatibak sortuz eta abar. Baina, orokorki Euskal Herria, miseria askoren lekua bada ere, herri aberatsen lerroan balitz bezalatsu bizi delakotz, zaila ikusten da gure ideia abertzaleen

eroale izan litekeen lanbide sail berezi bat sortzea gaurko industriagintza barreiatu eta nahasian.

Azen ontzeko, gazteek joan behar dute urrun beren heziketa osatzeko eta gero beren lehen enplegua ere askok han nunbait aurkitzen dute. Eta ETArek deiadar zaharkituek ere ez gaituzte alta laguntzen : borroka armatua Estatu sozialismo hura eraiki arte !!!

Abertzaleen oldea, orokorki, biziki emeki hedatuz doala oharturik gaude denak aspaldixko honetan. Indartzeko, menperatzaileen jokabidea eta gizartearen gaitzak salatzen segitu behar dugu, berri onak ere aipatzeko ahortzi gabe haatik !

Abertzaleen batasuna lortu behar dugu ; helburuetan argi, urratsetan malguago, oroitu gizarte perfektik ez dela ; herriaren eta euskararen ezagutza sakondu ; jendetasun osoaren (gorputz eta izpiritu) axola grinatsua ukan ; libertate enganagarriak hauteman eta gogor salatu (joan den igandean besta batzuk ganibet ukaldika bukatu dira) ; bakoitzaren eskubideen ondoan, betebeharrak etengabe errepikatu eta guhaurk bete lehenik : demagogiak hats laburra baitu... Horra zenbait ikuspegi, bertzerenen arterat isurtzen ditugunak. ■

Egintza goresgarri jakingabea

2006-11-02

DUELA URTEA jakinarazi zitzaigun Andres Urrutia euskaltzainburua, lanbidez notario dena, ari zela lehengo notario euskaltzaleen idazkiak biltzen ; jadanik bazituela ere hola eskuratuak zenbaiten lanak eta publikatuak. Denek badakite Senperen ere izan zela bederen notario euskaltzale bat, Dominique Dufau deitua, eta, lekuko batek, euskaltzainburuaren deiari ihardetsi nahi ukan dio, bilakuntzari lotuz.

Nor dugu bada bakar batzuek bakarrik, eta haiek ere axaletik, ezagutzen duten notario euskaltzale hori ? Mexikon sortua zen 1880an. Baina hamar urteak gabe Senperen zen, hunat bizitzerat etorria bere guraso dirudunekin. Arreba bat eta anaia bat ere izan zituen. Ikasketak Larresoron hasirik bururaino eraman zituen eta 1911an Senpereko notario zen eta hala geldituko da 1941a arte.

Hamalauko Gerla Handia egina, Senpereko auzapezgoa lortu zuen 1919an eta kargu hori atxikiko du 1935a arte. 1926an sartu zen Eskualtzaleen Biltzarrean, euskal elkarte zaharrena delarik hau eta denbora haietako euskaldun batasun garrantzitsuena ere bai dudarik gabe. 1929an elkarte horretako diruzain ezarri zuten eta 20 bat urtez sail berari jarraikiko zaio Louis Dassance ezin ahantzizko langile suhar hura bera dutelarik denek buruzagi. Dufau-k lan gaitza egin zuen hor, denen lagun eta denen zerbitzari, gisa horretako elkartearen diruzaingoa ez baita nehoiz lan errexa izan.

Artikulu andana bat idatzi zuen, erditsuak euskaraz eta batzuetan berak eginez frantseserako itzulpena; Gure Herria, Gernika, Eusko Jakintza eta Agur aldizkarietan agertuko dira haren lerro garrantzitsuneak orduko idazle hoberenen artean. Bere abertzaletasuna agertuko du argiki. Hastetik buru Euskadi hitza erabiliko du eta 1937an Gernika suntsitu nahi ukan zutenak gaitzetsiko ditu. Urte hartan berean euskal iheslarien laguntzeko elkarte bat sortu zen Iparraldean, eta, Dufau, lagun horien artean aurkitzen dugu, Ybarnegaray puxanta, gerla lekuetan ezagutua zuena eta lagun bilakatua, bertzalderat jokatuko delarik frankisten alde.

Batek erranen du : horiek guziak biziki ontsa, gizon interesgarria da baina Enbataren sar-hitz bat osoa merezi ote du ? Bai merezi du, zeren joan den udan izan baitugu gizon horren urrats aipagarri baten aurkitzeko zoria.

Huna zer : 1940eko gerla aitzin baziren Senperen 13 kofradia edo “lagungarri” elkartasunez eraikiak. Kofradia horiek asurantz batzuk ziren eta auzotegi bakoitzak bereak bazituen : ‘abereen’ aseguratzeko kofradiak, animalia bat hiltzen bazen eta ‘gorputz’ kofradiak norbait hiltzen zenean familiaren laguntzeko. Kofradia horiek arras seriooki antolatuak ziren eta bertze aldi batez aipatzea merezi lukete, batzuek hirurehun urteko bizia

baitzuten eta ikusten baita hor auzoek bazekitela elkartzen beren arteko gorabeherak gaituz.

Kofradia horien kontratuak, notarioz egiten zituzten eta zinez harrigarria gertatu dena da, kontratu horietarik biga Dufau-ren denborakoak eta hark idatziak, bi hizkuntzetan ederki paratuak aurkitu ditugula, euskarari ematen zaiolarik frantsesaren leku ber-bera : ezkerreko hostoan frantsesez eta eskuinekoan euskaraz ! Eta denak harritu gara !

Euskaltzainburua bera ere ez guti, aurkikuntza hori historikotzat baitauka ! Jakin behar da notario batek, Frantzian, ez duela eskubiderik bere lan ofizialak euskaraz idazteko eta Dufau-k, kasu batzuetan, muga horren gaitzeko kalipua izan duela ! Bertzalde, kontratu horiek egin zituenean herriko auzapez ere zen, bete-betean, eta horrek ematen dio egintzari sekulako indarra, guziaren gainerat !

Laster agertu behar lukeen liburuan egitate goresgarri horren berri xehekiago emanen zaigu. Frantses muga hertsu horien higiarazteko lege gaitzaleak izan dira beti euskaldunen artean baina batzuetan, gure aitzindari horiek, ez ditugu ezagutzen ere. Euskara mintzatuaren alorrean ala gizon emazte entseatu batzuen lanak biltzen bada zer egin : egiazko altxor sustengatzaileak lo zurrungan baitaude oraino. ■

Ostatu xokotik pindar

2006-11-30

EGIA DA astokeria handienak entzun daitezkeela ostatueta-ko elasturietan bereziki espantulari edantegietako usatu batzuengandik. Baina oharpen zorrotzenak ere, buruz buruan, hantxe entzun daitezke. Bertze nehun, bereziki bilkura batean ezin erranak, han ateratzen dira. Badakigu eiki ez dela politika egiterik ostaturaz ostatu ibiliz eta bilkura antolatuetan adituen arteko erabakiek eramanen dutela auzia. Halere, nehun baino aiseago hitz egiten den leku horietako solasei, noiztenka beharriño baten atxikitzeak ez diezaguke kalterik egin...

Bake prozesua aitzina doala erraten digute batzuek eta beti leku berean, higitu gabe, dagoela diote bertze batzuek. Nor behar da sinetsi ? Preseski, joan den egunean, gure arteko bat horretaz ari zen, gogoak eman ahala, delako ostatu xumean, bere basoñoa eskuetan. Hunelatsukoak erran zizkigun.

Euskal Herriko bake prozesuak ez du itxurarik ; gure egoerak ez du eite handirik, adibidez, Irlandako egoerarekin ; hemen, han ez bezala, autonomiak martxan baititugu EAEn eta Nafarroan ; bi gobernu beraz, mende laurden bat honetan, arrakasta gaitza izan dutena biek ekonomia mailan bederen ; kultura eta hizkuntza alorretan, haatik, EAEko gobernu askoz ere euskaltzaleagoa agertzen delarik.

EAEn, Ibarretxe eta bere lagunak Estatutu horren barnetik ari dira lanean, egia bada ere urruntxeago joaterat saiatu direla eta Lehendakaria bera izan dela Madrilgo parlamenturaino, euskal diputatuen xedeak aitzinarazi beharrez. Baina gure elkar ezin adituak 1979tik datoz. Orduan EAJk pentsatu zuen aitzinatze bat egin zitekeela autonomiaren bidez eta iritzi hori egiaztatu da ondoko urteetan.

Ezker abertzaleak aldiz ez du nehoiz Estatutu hori onartu. Luzaz eta luzaz ez dute hauteskunde autonomikoetan ere parte hartu nahi ukan : bide horretan sartzea menperatzailearekin ‘kolaboratzea’ zitekeelakoan. Ez hori bakarrik, ezker abertzale indarkeria ukatzen ez duenak pentsatzen zuen Madrilgo gobernu, berak hertsatzen ahalko zuela, joaren joaz. Baina hori ez da gertatu. Eta islamistek Madrilen bertan burutu sarraski okaztagarria baino okaztagarriagoak indarrezko bideak ukan zezakeen azken ateka hertsu hura, hetsi du tanpez, lurrikara batean bezala.

Eta orain, ETArekin harremanak Madrilgo gobernuarekin : zeren erdiesteko orde : presoen hurbiltzea ? Haien askatasun osoa eskura baleza ere, hori ezin da aski izan, hastapeneko punturat erortzea bailitzateke bakarrik eta mende laurden honetan pairatu eta jasan guziak deusetako izan direla erran nahi bailuke.

Bertzalde, presoak ETArentzat borrokatu dira ala Euskal Herriaren alde ? Euskal Herriaren alde borrokatu badira ez ote ditu Euskal Herriak hurbilarazi behar eta askatu ere epe laburrean ? Ala erakunde armatuak esperantza du, amets, gehixeago Madrildik, hala-nola gure etorkizun politikoaren erabakitzeko eskubidea edo holako zerbait ?

Nola sinets ezker abertzaleak, ber-berak, bere omena ahuldurik eta PP goiti doan honetan, erdiets dezakeela hoinbertzerik ? Halere, ETA beti beretik, euskaldunen aintzindari bakar izan nahiz jokutzen du. EAJk berriz, Estatutuaz landu baratzea ez du galtzekoa. PSOE, usaian bezala, euskaldunak bi andanatan bereizirik, nola menean atxikiko gaituen ari da. Zeinek bertzea izorratuko duen da legea. Gaixo Euskal Herria !

Gure ostatuko hizlariak, bere pindarrak bota ondoan, proposatzen duen aterabidea, ELAk, duela urtetsua, proposatu zuenaren hatzetarik doa : euskal indarrak bildu lehenik, gero helburuak eta urratsak finkatu eta hasi Madrilekin “konfrontazio demokratikoa” armarik gabe, bistan dena. Baina, dirudienez, ez dira, ez ezkerrean, ez eskuinean, bide horretarik abian.

Badirudi gorago aipatu jokabide bitxi horretarik, gorago izendatu hiru protagonista nagusiek, bakoitzak beretzat bere gisako probetxu zerbait itxaroten duela eta euskal indarren biltzeko zinezko gogorik ez dela.

Dakusagunez, ostatueta gai serioak ere azaltzen dira. Bi gogoetaren hazia eman zaigu mahai gainean, prozesu egoera honetan gibelerateko urratsak bai eta aitzinerat doanik bihirik ez, bazterrak aspertzen hasiak direlarik.

Beha gaude noiz deituko gaituzten batasun eskuzabal baten ardurapean, osteka, gure nahikundearen agertzerat ; zeren-eta, ELAk hain ederki dioen bezala, gauzen funski higiarazteko, euskal jendartearen parte-hartze nasaia eta zabala beharko baita. ■

Lurra itsumandoka, eta gu ?

2006-12-28

BETI ETA GEHIAGO egin, sal, eros, balia, luzaz uste izan da hori zela bidea, bide bakarra eta gaur ere badira oraino anitz horretan daudenak. Etengabeko aitzinamenduaren gogoia europarrek zabaldu zuten mundu guzirat bertze ikuspegi mota guziei nagusi zelakoan. Zientziaren eta teknikaren aurkikuntza miresgarriari esker, bai mundu kapitalistak, bai eta ere mundu komunistak, ongizatea eta ondorio distiratsuak hitzeman dituzte, batzuek berehala gozatzeko, bertzeek gerorako amesten zuten lurreko paradisu hartan.

Aitzinamendu liluragarri horrek durduzaldi batzuk jasan ditu halere bere urratsean : bi gerla mundialek bazterrak pobretu baitzituzten, baina, ororen buru, aitzinamenduari sekulako bultzada eman zioten, oldarraren hartzeko gibelatze bat egiten baita, bi gerla horiek halako zerbait izan balira bezala.

Jakin zirelarik Sobietar Batasuna baitan eta Txinan, bertzeak bertze, gertatu sarraskiak eta gero mundu komunista hori itzulipurdika erortzearekin, ilaundu ziren lehenagoko amets eder haiek. Gainerat mundializazioak hogeitaz zenbaiten bizi-maila doblatzen zuelarik, langabezia itsuski zabaldu du. Heren Munduan, ez bakarrik aitzinamendurik eza, baina ere gibelatzeak ikusi dira : Madagaskarren, adibidez, 1960an burujabetasuna lortu zutenean, %80 alfabetizatuak ziren eta gaur kopuru hori jaitsia da %50erat...

Gaur aitzinamendu itsu horri buruzko fedea (zientzia eta teknikan finkatua soilik) egunetik egunerat ahulduz doa, bere infrentzua ere baitauka : guziaren hondamendia ere izan daitekeen indar nuklearra, sabelean duelarik. Gero eta argiago da gure mundu industrializatuaren hondarkinek, emanazioek, bai eta laborantzan edo arrantzan erabiltzen diren molde berriak lurra eta ura larrutzen dituztela, kutsadura hedatuz orotaratu, gure ongizatea arrisku handitan ezarri egundainokotan.

Munduaren itsumandoka aitzinatze horri ohartu behar litzateke. Gure zibilizazio hunek anitz alderdi txar dakartza berekin. Aspaldiko arazo batzuk antolatu ditu baina gaitz berriak sortu ere. Hiri handien inguruetako kalapitak pil-pilean ditugularik, ez omen da hor aitatxi - amatxien eskasa baino damugarriagorik deus ! Hala zioskun karrika animatzaile esperientzia handiko batek joan den egunean. Mende batez, herrialdeen barne-hustea, jendeen hirietan metatzea, belaunaldien lokarriak ahultzea eta familien desagitea, hori guzia zinezko izurritea izan dela erran daiteke eta bide makur horren kalteen hastapenetan gara bakarrik...

Frantziako buruek sekulako ziztuan gaitzesten dute komunitarismoa. Estatua eta jende bakoitza buruz buru nahi dituzte atxiki ; denak berdin, teoriarik behintzat, Estatu guziz ahaltsu baten pean edo/ eta gerizan. Alta,

ideologia horrek jendea bakartasun lotsagarri batetarat daramala ikusia dugu jadanik, eta urrunegi joanez elkar bizitza suntsitzeraino ere eraman gaitzakeela diote aditu batzuek. Alta ere, lehen ala gaur, mundu bortitz hunek sortzen dituen nekeziekin ez da harritzeko etorki berekoek elkarganat ihes egitea ; guri, kultura berekoek elkarrekin bizitzea arras gauza ona zaigu berez eta begi onez ikusi beharra ere bai gehiago dena.

Gisa guziz lurraren ala izpiritu indarren historiaurrean gaude. Alde batetik ezin da segurtzat eman gizonen arteko harremanek hoberat eginen dutenik baina bertzetik handiak dira onerat egin dezaketelako aukerak ere.

Beti haize kontra ari garelarik, Olentzerok aurten berri on batzuk ere ekarri dizkigu Iparralde honetarat : doi-doia Lurramaren gustu ona dastatu orduko, horra hor Euskararen Erakunde Publikoak agertzen dizkigula bere xede onak, gure gogo zaurtuen goxagarri... Berri handia dugu hau.

Gertatzen dena da beharrak ikaragarriak direla. Jendarte hau euskaldundu nahi dugu denek eta, bertzalde, gazte askori euskararen aldeko lan horrek beren biziari balio bat, zentzu bat ematen die. Euskara hizkuntza bat baino gehiagoko zerbait bada ere, ez du haatik gizonak egundainotik bilatu duen goragoko sineste baten ordezkari izan behar.

Bizia eta euskararen salbatze hori gogorrak izanez, Eguberrik gonbidatzen gaitu bide izpiritual argigarri batzuen miatzerat ere, lagun gaitzaten gure eguneroko borroka idor hori kudeatzen...

Urteberri on deneri ! ■

Delako “lurrikara” haren zain

2007-01-25

EGOERA BORTITZ ASKO iragan izan ditu Euskal Herriak. Alta bada gaur bizi duguna ere txarren artean sailkatzen ahal dugu. Gure ikuspegiak ez dira kargudun handi zenbaitenak. Erran genezake direla herritar batek erabiltzen dituen gogoeten mailakoak. Alta ez dugu lotsarik batere haien azaltzeko izanik ere xeheak.

Demokrazian baldin bada gauza bat sakratua hau da : bakoitzak, handi ala txiki, aberats ala pobre, jakintsu ala jakingabe, denek badutela beren iritzia azaltzeko eskubidea. Eta iritzi guziak entzungarriak dira, nahiz gain-gainetik borrokatu behar ditugun batzuk, hala-nola kolonialismoa, arrazismoa eta holako ideia beltzak deblauki dakartzatenak.

Alabaina, azken batean, guziaren helburua ez ote da karrikako pertsona xehe horren gure iritzietarat hurbilaztea lehenik, haietan sarrarazteko gero ? Ez du iduri, haatik, Hegoaldeko euskal indar nagusiek axola handirik badutela horretaz...

Has gaitezen ETatik. Zer dira molde horiek : zu-etena beti alha dela dioskute Madrilgo atentatu erraldoi horren bihamunean ! Holako moldeek garbiki darakutsate zer errespetu dioten zenbaitek gu bezalakoari eta abertzaleen alderako sinesgarritasuna, jadanik ez zena hain gora, ahuldu dute egundainokotan. Sekulako zailtasunak ditugu gure naziotasuna ulertarazteko bazterretan.

Aski da ikustea Estrasbourgoko legebiltzarreko eztabaida hura zein nekez erdietsi zen eta eztabaidaren emaitza zein exkaxa izan zen, azkenean ; doi-doia zenbait bozñorekin sustengatu baitzen, ez Euskal Herriak behar duen instituzio berrien eratzeko gogoia, baina instituzio aitzinamendurik gabeko bakearen bilakuntza humanitario hura bakarrik.

Eta zer erran Bilboko manifestaldiaz ? Aldarrikapen bat hautatu dute lehenik eta gero Batasunak parte hartuko zuela jakin ondoan leloa aldatu egin dute gauzak argiago ezartzeagatik, omen, helburu bakarra ageri-agerian uzten zutelarik ordea : Batasunaren ateketan ezartzea ! Ez gara oroit egundaino holako jukutria bat ikusirik hogeita bortz urteren gobernu esperientzia duen alderdi batengandik : batetik elkarriketa gomendatu eta bertetik haren oztopatzekoak asmatu !

Batasuna, hura berriz beti erakunde armatuaren morroi eta eskumakila ? ETaren komunikatua irakurtzean ikusten da nork dauzkan ezker abertzalearen giderrak. Eta gero harritzen dira denak zaku berean sartzen dituztela Madrilen ! Hain xuxen, hango PPtiar epaile espainolista amorratuen aurrean oso argiak izan behar genuke gure bideetan. Gardentasun ezarekin segitzen bada, bakarrak beharko dira oraino pairatu espainol presondegiatako murru pareta hotzen artean ! Ez gara ariko PSOEz,

haren espainolismoa ezagutzen dugu ; guri buruz egiten dituen guziak edo dira gure lokarrazteko edo zenbait hautetsi kargu eskuratzeko.

Nola behar dugu beraz ateratu berriz ere amildegi honetarik ? Gure ustez ez da deusik aitzinatuko euskaldunak ez bagara puntu batzuetan elkar aditurik bateratzen. Ezker abertzaleak deus guti erdietsiko du berak. EAJk halaber. Bi alde nagusi horien elkarlana baitezpadakoa da aurrera pausorik ikusi nahi badugu gure herriarentzat. Ez du balio, haatik, itxaropen faltsurik piztea, borroka armatua behin betikotz utzia izanen ez deno : elkarriketa hasiko da, beharbada, baina funtsezko akordiorik ez da burutuko, haren aitzakian, zailtasun batzuk agertu orduko, dena erroz gora joanen baita berriz !

Beraz gure iritzia garbia da. Armak utzi behar dira bazterrerat behin betikotz. Horrek bai “lurrikara” eragin lezakeela ! Alabaina, azkeneko su-etenak ez du ‘lurrikararen’ ondoriorik izan, nehola ere, asko baikara sinesterik izan ez dugunak “su-eten iraunkor” izena bera ere susmagarria zuen horretan ! Eta sinetsi dutenak sinetsi nahi zutelakotz izan bide da.

Orain ezkerreko eta eskuineko abertzaleek hasi behar dute berriz hurbilketa lana eta elkarlanean jarraiki gehiengoari buruz, lehenik Hegoaldeko lurralde autonomoetan. Han lortuko denak behar du bertze lurraldeetako jendea sustatu bide berari lotzerat. Bitartean, bakoitzak bere aldetik, eskubide berrien eskatzea alferretan dateke. Sinplea da gure ikuspegia. Herritarrena da haatik, ez baikara guti holatsu pentsatzen dugunak ! ■

Aterabidea : abertzaleen batasuna

2007-02-22

UNE ZAIL BATEAN garela ez da dudarik. Bake prozesua heiaigoraka bultzatu nahiz ari gara baina hura eskuetarik beti lerratzen ! Zer dugu bada falta ? Falta duguna dateke, Espainiak eta Frantziak ez dutela interes politikorik ikusten, bake prozesu horren ondorioz, hauteskundeei begira. Zeren bake prozesuaren barnean baitago zerbait bi Estatuak utzi beharrekoa nahi ala ez. Eta jakina politika gizon eta emazte kargudunek beren lan guziak daramatzatela hauteskundeetan emankorrak izan dakizkien ala ez hausnartu ondoan. Hori da beharbada demokraziaren ahulgune lotsagarriena.

Adibidez, hautetsi askok badakite deszentralizazio handi bat behar litzatekeela egin Frantzian, baina hautetsia izateko aukera dutenek ez dute holakorik aipatzen ere. Jakobinismoa muinetaraino sartua baita oraino Frantzian eta beraz ez baita xede hori emankorra bozen biltzeko.

Behar handi horren jakitun osoenetarik dugu François Bayrou eta, orain arte, dakigula, ez du gauza handirik erran gai horri buruz. Alain Rousset-ek ere badaki, adibidez, Espainiako autonomiek zer aitzinamendu harrigarria eginarazi duten hor. Ikusiko ea haren bozeramaleak, delako andere errege izeneko hark (Ségolène Royal), zerbait proposatzen digun horretaz. Egia erran, harri gintezke...

Hautetsietan, hauteskundeak baino urrunago lihoakeen ideal baten bultzatzeko prest daudenak, arras guti dira. Badu haatik bertze akatsik ere demokraziak : jauntxokeria eta alderdien arteko lehia herri-hilgarria. Eta horretaz preseski denak loriatu gara Abertzaleen Batasunak Donibane Lohizunen antolatu hitzaldiak izan duen arrakasta handiaz. Zinez erran dezakegu ideia miresgarria izan duela hor ikusiz horrat bildu duen jende iritzi askotarikoa. Aldiz, Batasunak Uztaritzen egin duen erakustaldia ez doa batere hain beharrezkoa genukeen eta bere izenak berak dakarren gogoari buruz.

Denak loriatu gara ere Filipe Bidart ikusi dugularik desterruko lau pareta hotzen artetik ateratzen, hemeretzi urtez han jasanik, jasan dituenak, hala-nola hastapenean bi urteko bakartasun oso hura aberei ere egiten ez zaien ‘tortura zuri’ hura, bertzeak bertze.

Azken finean, eta larri-larria, bi andanatan gaude abertzaleak : batzuek diote ‘atxiki’ behar dela, zernahi gostarik ere: isun, debeku, presondegi eta abar, Espainiak eta Frantziak baino oren bat gehiago, atxiki. Horretan daudenek borroka mota guziak ontzat ematen dituzte, badakitelarik barnez, arras ontsa borroka mota guziak ezin direla uztartu. Horien kezka nagusia beren militanteen atzarririk, bizi-bizia begiratzea.

Bertze andanan daude diotenak egin dezakegun gauza bakarra dela espainolak eta frantsesak baino ‘hobeak’ izatea, jende iritzia gureganatzeko, sail guzietan lan serioa, eskuzabal eta jarraiki baten bidez.

Bistan da gauzak ez direla hoin sinple : aski aldiz errepikatzen dugu oharpen hori. Alabaina erran daiteke naski gutarik bakoitzaren baitan ere borrokan ari direla bi ikuspegi horiek. Ba ote da bigarren andana honetan dauden abertzaleetan, goragoko lehen horretan nehoiz itzuliño bat egin ez duenik ? Eta argi diogu hau ere : Iparraldean, Hegoaldean baino askoz ere arrazoin gehiago bagenukeela oldartzeko, bere hizkuntza eta kultura bakunarekin, bertze guzien ukatzaile den Estatuaren aurka ! Hori idatzi ere izan dugu leku honetan berean.

Baina Frantzia eta Espainia ez ditu talde batek belaunikaraziko. Hartarat edo honetarat hertsatzea ere zaila izanen da. Aitzitik jokabide bortitzak segurik baliatzen dituzte gure zuzenen zokoratzeko eta egintza armatuek handizki indartu dute PP, gure etsai nagusia, itzulipurdi bat eginarazi badiote ere islamisten sarraski haren ondoko hauteskundeetan.

Urraska, urraska, bide egin beharko dugula erratea ez da, jakina, jendearen biltzeko eta berotzeko molderik errexena. Daukagu euskaldunek badutela oraino kalipu eta nahikunderik aski, bidez bide, gauzen aitzinarazteko. Hor ditugu erakusle, arrakastarekin, beti aintzina ari, aspaldi honetan denek ezagutzen eta sustatzen ditugun erakundeak, hizkuntza, kultura eta ekonomia alorretan.

Eta bake prozesuaren alde edo instituzio sailean ere, ez dugu herriarentzat bertze aterabiderik ikusten, ideologia ekonomiko eta sozialak errespetatuz baina haien gainetik abertzaleen batasun politiko sinesgarri bat eraikiz baizik. ■

Elkarretaratu aitzinatzekotan

2007-03-22

ORAIN ABERTZALE GEHIENEK onartzen dute, instituzio mailan, Hegoaldeko eta Iparraldeko egoerak desberdinak ditugula, nahiz bietan arazo nagusiak instituzioetan dauden. Horiek hola, hartan edo honetan, izan ditzakegu kezka ber-berak. Hala nola euskararen erabilpena kezka handia bilakatua da Hegoaldean ere.

Baina, gai hori aipatua dugu jadanik bortzetan eta zenbait aterabide proposatuak ere. Dugun ikus egun abertzaleek aurkitzen ditugun oztopo ikaragarriak, Iparraldean instituzio propioen eskasez eta Hegoaldean, gure zatitzeko asmatu bi estatus autonomiko horiekin.

Hemengoaz den bezainbatean lehenik gogorat heldu zaiguna, bistan dena, Euskal Herriko Laborantza Ganbera, larunbatean, oraino azkenik bere bizi nahia ozenki adierazi duena. Baina laborari horien sailean ez dugu alde txarrik ikusten, bihirik. Bai ordea bertze batzuetan. Adibidez, Iparraldeko euskal mugimendua arras berotua dugu etxebizitza sozial gehiagoren galdez. Eta nork ez du ikusten zer beharrak diren bazterretan ?

Ordea, hamar etxebizitza egiten badira zortzi bederen badoaz erdaldunen eskuetarat ! Beha zer ezinbertze ezin jasanarekin gabiltzan hor Iparraldeko abertzaleak : etxebizitzaren behar gorria dugularik, haien hartzaile gehienak erdaldunak gertatzen direlaketoz, gure euskararen egoera, jadanik hain kezkarria dena, oraino gehiago ateketan ezartzen baita...

Duela bizpahiru hamarkada izan ziren turismoaren aurkako borroka gogorak. Afera horretan zernahi euskaldun urundu zen abertzaleengandik. Zer zen gertatu ? Munduko edozein Estatuk zazpi eginahalak egiten ditu bere turismoa bultzatzeko.

Baina guretzat turismo mugagabea kaltegarria zen instituzio propioen eskasez, frantses-zaleek, euskal kulturaren axolarik gabe, edo axola alegiazkoarekin, kudeatzen baitzuten, zernahi ekintza mota antolatuz dirua biltzeagatik. Bertzela erran, turismoaren kontra ginen ez genuelaketoz kontrolatzen ! Orain, egia da 'kontrola' hitz hori ez zaigula gehiegi gustatzen. Baina badira muga batzuetan ezartzen ahal direnak, gisa bat edo bertze, gure herriaren ezagutaraztea duintasunez egin dadin eta ez bertzela.

Bada bertze sail bat ere, eta honetan abertzaleak errotik alde ziren eta erran daiteke akulatzaile lehenak ere izan direla : industriagintza. Industriaguneak paratu behar zirela zenbat eta zenbat aldiz ez dugu errepikatu ? Eta egin dira industriaguneak eta etorri dira lantegiak, lantegiak eta saltegi handiak, hainbertzetaraino nun Iparralde honetan baita gaur lan eskaintza gehiago lan galdegile baino !

Ordea, hor ere, aitortu beharren gaude, lanbide horien bidez sekulako kanpotarra sartu dela gure arterat eta, erran dena, ez genuelarik haien euskalduntzeko ahalik. Aipatu ditugun hiru kasu horiek, etxebizitza, turismoa eta industriagintza, Iparraldean kaltegarriak gerta badakizkigu Hegoaldean ez du haien garapenak neholako kezkarik sortzen. Zertako ? Instituzio politiko batzuen jabe direlaketz.

Hegoaldean badute haatik bertze arrangurarik, Nafarroarekin nehundik elkar ezin adituz dabiltzalarik. Ezker abertzalea ere azkenean ohartu da hor zegoela Euskal Herriaren aitzinamendurako gako bat, eta naski gakorik garrantzitsuena. Hor ere beraz argi ikusten da instituzio politikoen garrantzia herri baten eraikuntzan. Hegoaldean ala Iparraldean, nahiz maila oso desberdinetan, eta ahal oso desberdinekin, instituzioekin dugu korapiloa.

Baina alor horretan ez du balio gure Estatu zapaltzaileei buruz alderdiak, bakoitza bere aldetik, joka daitezen. Euskaldunek behar dugu elkartu, ez da gure ohituretan ez gure naturalezan, baina ez da bertze biderik zerbait eskuratzekotan. Ez badugu elkar aditzen ditugun estatusak ere (Hegoaldean) murriztuko dizkigute, pirka pirka, osoki moteltzerainokoan.

Han ala hemen, gure aterabide bakarra elkartzean dago. Gure iritzi sozial eta ekonomikoen eztabaidatzeak bere leku osoa dauka auzia gure artean dagoeno baina ez dute lehentasunik Madrili edo Parisi buruz iharduki behar delarik. Oso zaila bada ere batasunaren egituratzea politika alorrean, haren gauzatzea eta urratsez urrats hari eustea, hil edo biziko eginkizuna bezala dakusagu. ■

Bakea irabazteko

2007-04-19

GERLA GALDU BEHAR OTE DA bakea irabazteko ? Galdera hau bitxia baino bitxiagoa kausituko du irakurleak. Ez da, bada, funtsik gabea. Gure irakurleetan ez da, batto ere, jakingabe, 1936an Francok, Mola, aleman, italiano eta bertze askoren laguntzarekin, gerla zibila piztu zuela Madrilgo gobernu errepublikano eta legezkoaren aurka. Eta denek badakigu, gerla hori Francok irabazi zuela hiru urteko gudu izigarri bat eraman ondoan.

Orain egin ditzagun bi gogoeta lañoki. Francok irabazi du gerla baina denek badakigu bakea dela irabazi behar gerlaren ondotik, bertzela gerlaren irabazteak ez baitu tirrit balio. Gaur egun begiratzen badiogu Espainiari orokorki eta urrundarik, behatzen badiogu horko jendeak gaur gozatzen duen norbanakoaren libertateari eta lurraldeek dituzten autonomiak bertzalde, erran dezakegu, argi eta garbi, bakea galdu duela Francok.

Bere etsai zituenen PSOEkoen ondokoak ditu boterean gaur eta lehenago ere egonak ziren. Eiki Francok errege bat ezarri zuen indarrean baina Espainiako monarkia konstituzionala Frantziako errepublika monarkista baino okerragoa ote da ? Eiki Espainiaren batasun sakratu hura hor dago baina Europan sartua da Espainia eta egun batez (Frantziak bezala funtsean) onartu beharko du populuek, autodeterminazioaz, beren geroaren finkatzeko duten eskubide ezin hautsizkoa.

Hartzen ahal dugu afera bertze eskualde batetik. Komunistek irabazi zuten 1917an Errusian eta 70 urte boterean egon dira, gider guziak eskuetan zeuzkatela. Sekulako sistema eraiki zuten, teorian oso langilearen aldekoa, baina zehazki gizonaren zoriona berak nahi ala ez egin behar zuena. Bakerik ez dute ordea irabazi, porrot izigarri batean erori baita guzia azkenean, 1989tik goiti, denek dakigun bezala, hainbertzetaraino nun liberalismo salbaienak arrebantxa okaztagarri bat hartzen ari baitu leku haietan, miserian ezarriz jendeketa gaitzak, Espainian baino makurrago.

Orain itzul gaitezen Euskal Herrirat. Gernika ere errautsi zuten, hain xuxen duela hiruretan hogeita hamar urte. (Durangokoak eta bertzeak ez ditugula ahanzten, erran gabe doa). Urtemuga hori handizki ospatzerat goazen honetan nork erran dezake gaur Gernika edo Euskal Herria suntsitu zutenik ? Uste baino emankorrago gertatu den autonomia batek, akatsak akastei, eta euskaldunen lan eta kemen goresgarriari esker, Euskal Autonomia Erkidegoa Europako eskualde aberatsenen artean kokatzen dute orain, seigarren, xuxen errateko, kasik ezin sinetsia ere baita holako lorpena, holako epe laburrean...

Gudu bat daramate ETakoek kasik berrogeita hamar urte honetan. Bertzerik bilatzen bazuten ere, autonomia hura ere haiek izan zuten eragin handiari zor zaiola uste dugu, parte handiz bederen. Baina, gure ustez,

armekin egin zitekeena aspaldian bukatua da. Gaurko egunean egintza armatuek etsaia indartzen dute sail guzietan eta gure arteko batasuna oztopatzen. Gerla mota horretarik ezin da irabazle atera, demokraziak eta nazioarteko iritziak, helburua ona izanik ere, holako bideei ez baitezakete onespénik erakutsi.

Agurtzen dugu Ibarretxe elkarriketari eutsi nahi baitio, oztopo guzien artetik : espainol inperialistek auziperatua batetik eta bertzetik ezker abertzalea beti eta gogorragotuz doakiolarik ! Elkarrekin lan egiterat kondenatuak gara.

Orain ETAk du ikusi behar bakea irabazi nahi bada armak utzi behar dituela. Zeren-eta elkarriketen ondoriorik ikustekotan, giro jabalduagoko bat beharko baita sortu. Lehergailupean zuzengabekeria bat geldiaraz daiteke beharbada baina bakerik eraiki ez. Armen behin betikotz isiltzeak gure eragina indartuko luke ikaragarriko neurrian. Eta bakeari buruzko urrats horiek berantetsiak ditugu. Gudu luze honetan Iparraldekoak baikara naski urrikalgarrienak, orokorki, gibelka baikoaz, ez gaudelarik bizkitartean, nehola ere, eskuak gurutze ! ■

Denak berdin hobendun ?

2007-05-17

HODEIAK LEHERTU ZAIZKIGU, joan den maiatzaren lauan, argitu baino lehen, Sarako, Senpereko eta Azkaineko beheleguneak itoz, urrunxagoko batzuek ere dastatzen zutelarik uholde izigarri horren larderia ! Zangoak urean, gauzak altxatzen, ximistak argitzaile ! Berehala etorri dira suhiltzaileak alde guzietarik.

Herriko Etxeetarik ere bertan lotu dira lanari, egin zezaketen laguntza guzia ekartzeko herritarrei. Aipatzekoak dira elkartasunezko ihardespeneak ere. Jendea jaitsi da, urak hunkituen laguntzerat, bihotz-bihotzez eskertuak izan bitez hoinbertze esku ukaldiren emaile guziak. Ez dira oraino denak beren aitzineko egoerarat itzuliak, urrun da, baina iduritzen zaigu has gaitezkeela halere gogoeta zenbaiten plazaratzen, Senperekoztat bederen, hura baitugu hobekienik ezagutzen, ---balio badu segurik--- antolakuntza orokorra hain da gaizki presentatzen...

Lehenik entzun den arrangura izan da jendea abisatzeko tresneriak ez duela bere lana bete. Irakurleak jakin behar du, duela urtetsu bat, 2006ko martxoaren 11n xuxen errateko, uholde ez hain tiki bat jasan genuela, karrika nagusiaren inguruetan, gaurko hau baino 80 zentimetro beherago gelditu bazen ere, eta orduan ere tresneria horrek berak ez zuela funtzionatu. Nortzuk dira, ordutik hunat, akats horien xuxentzeko funtsa egin ez dutenak ? Zorionez ez da hilik izan, baina jadanik osasun arazo larriak agertzen hasi dira.

Gaur goraxagotik behatu nahi genioke egoerari. Hots, nondik heldu zaizkigu holako uholdeak ? Nolaz bada gure lehengo zaharrek, halako zuhurtziarekin jokatzeko zirenek, nolaz bada eraiki zituzten, bai Ibarrune lehenik bai eta Senpere geroago, gaur urpean noiz nahi gerta daitezkeen gisan ? Gehienek aipu dute bakarrik zer gertatu den, zergatiak isilik utziz !

Lehenik ikus dezagun, larri-larria, nondik heldu zaizkigun urak Senpereko plazarat. Hiru uharletarik datozkigu : gure Aintzira artifiziala ureztatzen duen errekatik, Urdazuri ibaia Dantxarineatik, eta Sara aldetik. Duela 24 urteko uholdea, hunen parekoa izan zen hura, hiru alde horietarik hazi zen baina gehienki Dantxarineakotik. Aldi honetan ere hiruretarik etorri da ura baina bortizkienik Aintzirako eta Sarako aldeetarik. Jakin behar da ere aipu den eta egiten hasi berria duten baradera handiak Dantxarineakoa duela bakarrik eztituko.

Berriki argitaratu da liburu bat “Dufau bi anaiak” deitua. Liburu hori irakurri balute, zenbaitek, ikasiko zuten beharbada, duela 350 urte, Senpereko etxe ederrenak eraiki zirenean, 5.000 hektareako oihan guziz ederraren jabe zirela senpertarrak. Hitz dizuegu denbora haietan ez zela urik ateratzen karrika nagusian ! (Ikus liburu horretan “Senpere nausi oihanez” 47. orrialdean, Dominique Dufauren artikulua, bi gerlen artean Senpereko

auzapez eta notario izan zenarena). Gaur zer gelditzen da oihan famatu horretarik ? Gainerat, gelditzen denaren parte on bat, Uhabiarako isurbideari dagokio eta ez Urdazuriko ibarrari buruz. Nahiz ez dugun ezagutzen Sararen historia xeheki, han ere oihanek bilakaera bertsua jasan bide dukete, izenak berak baitio herri hori zer izana den.

Azken 200 urte hauetan bereziki, asko arrazoinengatik, azkarki ttikitu, kasik desagertu dira oihan ederrak. Denbora horretan, uren mehatxu orotarazleak ez direlarik guti izan, nehork ez du bertuterik aski izatu, Senperen segurik, behar denaren egiteko : lur jabetasun arazoak antolatuturik oihaneztatzeak gain-gainetik sustatzeko batetik eta bertzetik etxegintza zorrozki mugatzeko, ez bakarrik urak ateratzen diren lekuetan, baina Urdazurirat isurbidea duten lur guzietan : ez baita zuzen, ezin onetsia ere baita, gainaldekoek sakelak betetzea etxegintzarako lurak salduz, beherean bizi direnek, haiek deusik ezin eraiki eta gainerat jasan behar bertzeek eginen ondorio gero eta txarragoak...

Gaurko uholdearen bortitzena Aintziraren eskualdetik etorri da baina, ixo ! horren aitortzeak herriko ezaugarri nagusiaren (???) erakargarritasuna histuko bailuke... Alabaina hautetsi zenbaiten balentria da beren herrietan jendetza karraskan emendatzen ikustea. Senpere bikoiztu da 30 urtez : 5.000 jendez goiti gaur egun ! Areago, abertzale batzuk ari dira 10.000 biztanleko hiriri buruz apailatu behar genukeela oraindik ! (Ikus “Egun eta bihar” aldizkaria, 2001). Egungoa eta biharkoa nahi lukete antolatu atzokoa ahantzirik, mundua haiekin hasi balitz bezala !

Aintziraren gainekaldean, iratze lekuak oihan bihurtu beharko ziren tokian, 300bat etxe eraiki dira, diru-jokoa oinarri ! Eta beharrik, duela 40 urte, lurrez desjabetu zituztenak gogor jazarri baitziren, bertzela bertze hainbertze egitekotan ziren... Bai, bai Jaun Andreak ! Aurten Aintzirako baradera doi bat goratua zuten baina urak gainditu ditu eraikuntza zaharra eta berria... Oi naturaren malezia menpera ezinak !

Egia da denek “*mea culpa*” baten egiteko aukera dugula. Ordea, ez dira denak neurri berean hobendun. Bere egoitzaren edo bizipidearen nolabait segurtatzeko jokatzen den herritarra eta jendeen hunat ekarrarazteko politika arriskutsua daramatenak, ez dira maila berean hobendun. Aldi bat gehiago, ortzia mintzatu zaigu. Entzunen ote dugu mezua ? ■

Bide onaren bila

2007-08-09

EUSKAL HERRIKO POLITIKA mundukoak okazaturik gaude Nafarroako gobernu moldatzerakoan gertatu denaren ondotik. Horra hor lurraldeko hauteskundeen ondotik sekulako solasaldiak izan ondoan, sekulako gorabeherekin bi hilabetez-edo, akordio batetara heltzen direla Nafarroa Bai-ko abertzaleak eta ez abertzaleak, ezkerreko gobernu baten xutik ezartzeko. Eta huna nun, Nafarroako sozialistek aldarrikatua zutelarik nafarrek erabakiko zutela Nafarroako politika, Iruñen lortu akordioak behar duen Madrilgo PSOE alderdiko buruzagitzaren baimena aurrera ateratzekotan...

Eta denek dakigun bezala, Madrilen, erabaki ezin sinetsia hartu dute, beren kideek Nafarroan burutu akordia zakar ontzirat aurtikiz, nafarren nortasuna ukatuz. Alderdiak, Madrilen, erabaki du beraz Nafarroako gobernu, eta ez bertako hautetsiek berek, hor berean baita hamaika gogoetaren gaia...

Espania horretan jelosten ditugu beren hauteskunde sistema proportzionalagatik. Aitortu beharrean gaude, haatik gaur, ez dituela beti ondoriorik loriagarrienak sistema demokratiko horrek ere eta lekuko hautetsien gainetik erabakitzen duen alderdien nagusigo hori ez zaigula batere gustatzen. Guk lekuko hautetsiari eman geniezaioke lehentasuna ; baina norainokoa izan behar da hunen azkatasuna alderdiaren barnean ? Badukegu hor demokraziaren ibilbide ezatabaidagarri bat.

Dena den, ezin sinetsia da PSOEek Madriletik egin duena. Eta zer ikusi da ? PPkoak eta bertze frango loriatuak sozialistek egin lotsagabekeriaz, Espainiaren salbagarri gerta baitaiteke omen holako erabakia...

Zerk du bada ahalbidetzen holako ikuspegi ahalkagarriak txalotzen direla durduzatu gabe ? Gure ihardespena argia da : abertzaleek soinean daramagun usain txar batek ; borroka armatuak hedatua du hori gure gainerat erahilketa deitoragarri andana baten ondorioz ; hark du posible egiten, hark dezake onesgarri egin, Madrilgoen erabakirik zirtzilena. Ikastolak sortzen, presoak sustengatzen edo/ eta iheslariak laguntzen ditugun ber, usain txar horrek kutsatzen gaitu guk nahi ala ez, ekintza armatuak errotik gaitzetsirik ere.

Hortakotz, burumuinetaraino sartua dugu, gure etsaia ez bada halakoa ere, demokratak izan behar dugula, gostarik gusta. Gure helburuak eta lanak onak dira, ez dugu beraz arrazoinik politika egiterakoan bide txarraren hartzeko. Hola jokatzeara, gure burua errespetarazteko molde bakarra dela deritzogu.

Bide oneratze horrek galdatuko du haatik denbora. Delako usain txar hura jarraikiko baitzaigu luzaz armak ixildu-ta ere. Gure borondate

demokratiko hori frogatua izanen dugularik irekiko da bide on bat gure aurrean. Bide luzea eta patarra menturaz baina bide zabala. Gaur gure xede hoberenak, azken unean, zangoz gora botatzen dizkigute, daramagun usain txarrak, ezin hurbilduak bilakarazten gaituelakotz, beti nonbaitik mugaturik baikabiltza. Iparralde honetan, politika alorrean, aspaldian bertzerik merezi genukeenak, horrek berak gaitu dakigun urrats urrian atxikitzen.

Egia da haatik badirela gure artean gogo bihurrikoak, uste dutenak, hala-nola gaitzetik ona sor daitekeela. Kasu honetan derasagute, nork daki Nafarroako sozialistak ez ote diren abertzaleei hurbilduko are gehiago Madrildik jasan duten mespretxioaren ondotik ? Gertatzen ez denik ez da alabaina... Eta gisa horretako ondorioak ikusi izan dira behin baino gehiagotan. Iraultzaileek ere ez ote digute aski aldiz errepikatu eta errepikatzen beren lelo famatua : “*action-repression-action*” delakoa, zoinak nahi bailuke zarpaldia gure gainerat jaitsarazi gure atzarrazteko eta borrokari lotarazteko ?

Baina ondorio horiek gelditzen dira hipotetikoak, balizkoak. Eta gisa horretako asmakuntzekin, hatsa labur duke bide horrek, ez da batere gaurko europar munduari egokitua.

Euskaldunek maite ditugu (kasik sobera...) lanari, ongizateari garrantzia ematen dieten bideak, elkartasuna, kultura eta bestak baztertu gabe. Ez dugu herri hau bilduko jukutria maltzurrez : bertzeri demokrazia eskatu, guhaurk zangopilatzen dugularik.

Gardenak izan gaitezen, bai xedeetan, bai bideetan. Euskaldunen elkarganatzea oztopatzen duen indarkeria bazter dezagun behin betikotz eta herriaren baitan sinets. Herri indartsua eta aintzinatua gara oro har : hura gabe deus ez dezakegu. Elkarganatzea hil edo biziko baldintza, Euskal Herria askatzekotan. ■

Lehendakariaren urrats handiak

2007-10-04

JOAN DEN IRAILAREN 28AN, Gasteizko Legebiltzarrean iragan da eztabaida garrantzitsu bat, pentsatzeko baita Euskal Herriko bizi politikoa baldintzatuko duela zenbait urtez. Euskal arazoari aterabide bat emateko “aro historiko berria” ireki nahi izan du Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak. Horretarat heltzeko, aipatu duen urratsik garrantzitsuena dateke, 2008ko urriaren 25eko antolatu gogo duen herri galdaketa.

Erreferendum hori egin aitzin Espainiako gobernuarekin saiatuko da itun bat finkatzen eta galdaketa horretan berretsiko litzateke Gasteizko eta Madrilgo gobernuen arteko akordio hori. Bi gobernuen artean akordiorik ez bada, galdeketa eginen litzateke halarik ere, zuzenbide baliorik gabekoa, zeinetan herritarrei galda bailitzaieke zein bide hartu behar den Euskal Herriak noizbait erdiets ditzan bere zuzenak eta bakea.

Bide horretako urrats zehatzak ere finkatu ditu lehendakariak. Larri-larria errateko, lau pauso ikusten dira. Lehen urratsa : itun politikoa lortzeko proposamenak eginen dizkio Zapaterori, hemendik eta datorren urteko ekaina artean. Eskaintza horretan bi puntu nagusi leudeke : batetik, indarkeriari buruz, bertzetik, gizartearen borondatea nola errespetatu.

Bigarren urratsa Eusko Legebiltzarrean eginen da beraz datorren urteko ekainean. Orduan ezohiko bilkura batean, diputatuek erabaki beharko dute Espainiako gobernuarekin lortu itun politikoa berresten duten ala ez. Jaurlaritzaren eta Espainiako gobernuaren artean akordiorik ez bada lortu, Eusko Legebiltzarrak erabaki beharko luke ea baimena ematen dion egoera lotsagarri honetarik ateratzeko lagungarri izan litekeen kontsulta bat egiteko.

Eusko Legebiltzarrak itun politikoa berresten ez badu edo kontsulta baten egitea baimentzen ez badu, datorren udazkeneko hauteskundeetarat deituko luke lehendakariak. Kasu bat ala bertzea izan, herri kontsulta 2008ko urriaren 25ean egitea proposatu du Ibarretxek hirugarren pauso gisa.

Lehen kasuan, euskal gizarteak hauta izanen luke itun berria berresteko, balio juridiko osoz.

Bigarren kasuan, berriz, gizarteak agindua emanen lieke ETArri eta Espainiako gobernuari indarkeriaren amaiera helburu duen prozesuari lotzeko. Bigarren kasuko erreferendum hunek ez luke balio juridikorik, balio politiko eta soziala baizik.

Guri, egia erran, arras gustatzen zaigu urraska eginen litzatekeen bide hori. Funtsean aski da behatzea etsaiek (PP eta PSOE) edo arerioek (ezker abertzalea) zer dioten. PPK dio ez dela euskal arazorik, euskal terrorista batzuk baizik. Zertarat etorria zen bada Maria San Gil lege biltzarrerat ? Utz zitzala beraz elkarrekin eztabaidatzerat euskal arazo bat badela diotenak...

PSOEk berriz ez du Konstituzioaren aldatzerik pentsatu nahi ere : Espainiako lege nagusia 1978an gelditu da, blokeatuta, santa sekulako... Oroit ote dira Euskal Herrian eza nagusitu zela behiala ?

Ezker abertzaleaz zer erran ? Noiz jaitsiko zaizkigu ametsetarik lurrerat ? Noiz abiatuko dira errealitatetik, ametsari uko egin gabe ? Noiz onartuko dute Gasteizen EAEko gauzez erabakitzen dela ? Nafarrek berek Iruñean beharko dutela beren geroa erabaki ? Halaber Iparraldean. Egoera ez da, eiki, nahiko genukeena : baina nun da hautua ? EAEri, euskal lurralde aitzinatuenari, legokioke bidea irekitzea eta hain erakargarri bilakatzea, nun, bertze lurraldeek hari lotzea baino bide hoberik ez bailukete ikusiko.

Anartean, erakunde armatuaren gehiegikeriek euskal mogimendua ahuldu dute eta Espainiako faxistak indartu, bereziki eskuinekoak. Orain pirka pirka PPren eragina berriz apaldu behar litzateke baina horretarako ez zaio bazka berririk eman behar gaur egiten den bezala. Noiz geldituko gara geure buruari harrika aritzetik ? Zertako indarrez jarraiki, ondorioak beti eta beti gure etsaiak indartzeko direlarik, joan den hogeita zenbait urte honetan segurik ? Bide hori hurbildik segitu dugunek argi eta garbi dakusagun bezala. ■

Sabelahots

2007-11-01

ZER DEABRU OTE DA izenburu bitxi hori hiztegi bihibatetan ere ez dagoena ? Aise ulertuko duzue, bi hitz elkarri lotu ditugu, sabel eta ahots. Elkarketa ausarta, ez dena menturaz hizkuntzalarien gogokoa izanen eta ez duena beraz artikulutxo hunen irakurketak baino gehiago iraunen ; hortik “*ventriloque*” hitzaren itzulpena dugu egin nahi izan. Beharbada “sabel mintzoa” xuxenago izanen zen, baina ez zaigu gustatu gaur aipatzerat goazen lanari buruz. Zertarat datorren sabelahots, aise ulertuko duzue hori ere.

Badira gizonak, berez osoak, eta hala deituak. Haien bizian ez da dudarik edo zalantzarik. Bereari ari dira, buru-beharri, beren egitekoak bete, ohiturei jarraiki eta jo aitzina ! Holakoak ziren gure arbasoetarik anitzak. Barne gogoetak bazituzketen, baina ez ziren haien gogoaren durduzatzeraino heltzen. Helburuak eta bideak argi zeuzkaten. Gure belaunaldiak, berriz, gizarteak nehoiz ezagutu dituen aldakuntzarik zaluenak bizi izan ditu eta, aldaketa zalu horien medioz, ikusi ahal izan du xede on batzuek ez dituztela beti emaitzak aurretik ikusi haiek.

Argi eta garbi ageri da Enbatak eraman duen sail aberatsa, Jakes Abeberry kemen paregabekoa aitzineko. Ikusten da gaurko Euskal Herrian egiten ari den lan zinez espantagarria. Edozoin alorretan ezin kontatuzkoak baitira, Iparraldean berean, euskaltzale eta abertzaleek asmatzen eta kudeatzen dituzten ekintza guziak.

Aste honetakoak baizik ez aipatzeko, behazue hor gainean dugun Lurrarama-ri, iazko arrakasta itzelak sustaturik, aurten oraino hobeki egin beharrez ari dena... Behazue Biperraren besta Ezpeletan joan den igandean ; zer bide ezin sinetsia ez da egin baratzekari horrekin ez delarik alta, adibidez, gatza bezain beharrezkoa bizitzeko ? Bai zinez miresgarria, ez da bertze hitzik bururat heldu euskaldunek daramatzaten sailez gogoratzean.

Alta Enbataren bi milagarren zenbaki horretan berean, lekukotasun emaile batek oroitarazten digu abertzaleen boz kopurua ehuneko hamar-hamabia inguruan dagoela eta horretan zait sabelahotsa, gure baitako bigarren pertsona bihurri hura, iratzarri eta marmaran hasi, begiak irekarazi nahi balizkit bezala.

Ziostan, duela berrogei urte jadanik abertzale bat segurik boz kopuru maila horretarat heldu zela hauteskundeetan, aipatu gabe Jean Etcheverry-Ainchart Enbataren izenen aurkeztu zena deblauki eta airez aire iragan... Nun da hor mende erdi bateko lan ‘miresgarri’ horren uzta politikoa ?

Sabelahots zirtzila, ihardetsi diot, ez dakika gaurko mendean ez dela sori autokritikan denborarik galtzea, ‘positibatu’ behar dela “*Carrefour*”-ek irakatsi digun bezalaxe ?

Sabelahotsek jarraitzen du, ordea, beretik eta uzten dut, politikan iritzi guziak entzun behar baitira : zertako Enbatak ez du sekulan aipatzen, Marc Legasse-z bertzerik bera baino lehenagoko abertzaleen lerroan ? Zertako ez goraipa maizago Agustin Xaho baten idazkiak eta urratsak ? Zaldubi baten, ehun urte baino gehiago dauzkaten bertso abertzaleak ? Broussain hazpandarra edo oraino “Aintzina” mogimenduak egin lana, zorigaitzez Hegoaldeko gerla zibilak eta Iparraldeko gerla mundialak suntsitu zutena ?

Ez da deusik hutsetik sortzen, beti badira lehenik igarle hazi ereileak. Toki gehiago zor diegu. Jean Pitrau ere ez litzateke aiantzi behar laborarien artean. Bertzalde, Enbataren ekarpenak guziz garrantzizkoak dira baina berdin ezin ukatua da haustura sakon bat eragin zuela euskal jendartean, Zazpi Lurraldeen batasun politiko berehalakoa ikusten ez zuten guziak etsai eginez. Eta jokabide gordin horrek izitu zituen euskaldun asko, abertzale bilaka zitezkeenak.

Geroztik bazterrak jabaldu dira, axalez bederen, zeren-eta amildegia baitirau, hauteskunde emaitzak lekuko, gehienbat Hegoaldeko euskaldun batzuen bortizkeria dela eta. Anartean belaunaldi bat bederen, euskaraduna galdu dugu, eta haren eskasia senti da euskararen erabilpena lagun zezaketen hiztun garbiz osatua baitzen.

Aski ! Isilarazi dut azkenean sabelahotsa eta hitz dizuet bertzaldian begirune hobeaz behatuko diogula egin bide emankor eta itxaropen pizle horri. Berdin ezin da gibelerat egin eta errankizun batek dio, modari behar dela jarraiki edo herritik aldaratu... ■

Goresmen zuri Adema-Zaldubi !

2007-11-29

ARDURA ENTZUTEN DA gure arbasoek Euskal Herriaren alde egin lanak ez ditugula aski aipatzen. Aldi honetan, haatik, haietarik bat dugu, eta ez edozein, irakurleari begien aitzinean eman gogo dioguna, duela ehun urte zendu zen Gratien Adema “Zaldubi”.

Datorren abenduaren 20an, Euskaltzaleen Biltzarrak eta Euskaltzaindiak batean ohoratu beharra dute urtemuga hori Senperen, bere sor herrian : euskal batasun zaharrenak bere lehen elkarteburu izan duelakotz 1901ean, elkarteen lege famatu hura sortu eta berehala ; Euskaltzaindiak berriz, euskal letretako klasiko bat izateaz gain, Adema-Zaldubi lehenetarik izan baitzen euskal akademia baten sortzeaz arranguratu zena Azkueri igorri zion gutun batean argi dakusagun bezala. Guziz interesgarria zaigu beraz gizon hau alde askotarik. Goazen bada zer bait erakuts, jasta eman bederen...

1828an sortu zen, aita gaskoinaren eta ama euskaldunarengandik. Apezgai zelarik badakigu adiskidetu zela Jean-Baptiste Elissamburu saratar kantugile guziz famatua bilakatuko denarekin. Adinak ziren-eta. Gehiago dena, badirudi biak betan eta elkarrekin hasi zirela bertsu moldatzen, 18 urtetan, hala dakar eskuizkribu batek hor baitaude biek izenpeturik, 24 bertso, ‘Betirisants’ gosetearen bertze izendapenari paratu zizkiotenak.

1855an Hazparneko bikario da eta fama handia bilduko du laster. Hortik Bidarraiko erretor izendatuko dute eta handik Atharratzeko erretor nagusi. Azkenik, Iparraldeko itzulia eginik, Baionan kalonjer bukatuko du bizia eta Senperen dago ehortzirik.

Apez bezala kantika andana handia ondu zuen eta horietarik batzuk oraino ere kantatzen ditugu elizetan : “Oi Gurutzea”, “Adora dezagun”, “Amodio Ohore”... Kantu profanoetan hor dugu haren himno nazionala “Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun” denek ezagutzen dutena. Elizako kantiketan arras serio eta fede handiz ari izan da, ‘Adéma’ bere deituraz izenpetzen dituela.

Bertze gisako bertsoetan aldiz, izengoiti bat hartzen du, gehienetan “Zaldubi” eta orduan gizon arraia, jostakina eta ausarta ere bai bilakatzen zaigu ! Kantu herrikoi horietarik bat “Mehetegiko xakurra”, Otxalde handiak hasia baina Zaldubik bururatua. Eta ausarten sailean ezar genitzake “Errepublika” izenburupean dauden 35 kopia satirikoak !!!

Haren lanik gehienak publikatuak izanak dira baina denak aspaldi agortuak ere. Euskaltzaindiak berriz guzien argitaratzeko xedea luke orduan ikusiko bailitzateke zer langile ikaragarria izana den Adema-Zaldubi. Zazpi liburuki bederen beharko dira guziaren kokatzeko ! Lehenak, Senperen

eginen den ekitaldean agertu behar luke eta hau preseski behin ere publikatuak izan ez diren lanez osatua da.

Zaldubi-z beti errepikatzen da erregezalea zela eta hala izan da dudarik gabe nahiz bere bizi hondarrerat apezen etsai ziren ‘gorriekin’ lan egin zuen, ordutik euskara eta Euskal Herria bilakatu baitziren haren kezka nagusi. Erregazalea zela diogularik ordea, ez ote genuke behako bat eman behar orduko ingurugiroari ?

Herra bat ikaragarria bazen elizatiarren eta elizaren kontrakoen artean, itsuskeria handienak lekuko. Eta sor herrian berean zer kalapitak ! Alabaina Senpere Iraultza Handiaren alde jarri baitzen 1789an, inguruko herri guziak hari aihur zegozkolarik ! Eta ez zen epelki jarri gero, sekulako karrarekin baizik ! Hainbertzetaraino nun Iraultza horren suak iraun baitu Senperen ehun urtez goiti eta, doi bat eztitua bazen ere, joan den mende erditsutan oraino itxindi eta pindar batzuek han zituztela erroak baitaukagu...

Dena den, Zaldubiren ideiak ez dira gaurko begiz epaitu behar, maizegi ikusten den bezala. Gizon bakoitzaren bideak epaitzeko haren garaiak ere lehenik aztertu behar dira. Ea bada jakinen dugun behar den bezala ospatzen, gizon haren xedeek eta obra kasik dena euskarazkoak merezi bailukete. “Musde Anton Abadiak” bere ontasunak erakunde frantses bati utzi zizkiolarik “gure etsaiari” eman zituela saminki deitoratu zuen 1896an... ■

Argi eta itzal

2007-12-27

GAITZEKO ARRATSALDE ederra iragan dugu abenduaren 20an, Senperen, Adema-Zaldubiri eskainia izan zaion omendaldiaren karietarat. Euskaltzaleen Biltzarrak hunela ospatu du bere lehen elkarteburu izan zena. Lehenik herriko auzapezak ongi etorria egin du, agertuz bronzeko irudi bat, guziz gustatu zaiguna, artista herritar batek asmatua baina Herriko Etxeak ordaindua. Gero elkarteburuak erran ditu bi hitz omoretsu. “Zaldubi” deitu ikastolako haurrek ederki eman digute “Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun” haren himno famatua. Dantzariak Agurra, Ademaren ondorengo batek lore azaua eta apezak bere otoitza.

Handik goiti Euskaltzaindiak hartu du omenaldiaren segida Elkartetxean, “Zaldubi” gela nagusia mukuru beterik zegoela. Arratsaldeko mintzaldiak euskaltzainburuak kudeatu ditu. Lehen hiruak, doi bat teknikoak ziren eta batzuentzat zailak gertatu bide dira baina azkenik etorri diren bertze biek, atzarri dituzte bazterrak eta denak loriatuak ziruditen hainbertze gauza ikasirik Adema-Zaldubiren biziaz eta lanez.

Zazpi liburuki argitaratu beharrak dira naski orotarar haren obra guzia edo gehiena berriz ezagutarazia izan dadin. Oroitaraz dezagun idazle handia zela eta anitz bertso jarri dituela bere bizian, elizakoak batzuk, plazakoak bertzeak, ostatukoak ere ez zituelarik batere hastio... Lehen liburukia hor plazaratu da, Ademaren hamar hitzaldi behin ere argitaratu gabekin. Entzule bakoitzak liburu bedera eskuratu du dohainik: Euskaltzaindia Olentzero ! Hainbat gaizto han ez zirenentzat : hutsegin dute zerbait...

Itzalik gabeko eguna beraz ? Falta ziren prentsa eguneroko batzuk. Astekariak hor ziren, haatik, xintxo. Zerk gibelatu ditu bada : gure ekitaldiaren zahar kutsuak ? Erlijio usainak ? Biak bekatu larriak baitira gaurko gizartean... Euskal kazeta batean moztu diote Adema argazkian daukan gurutzea eta hori, ez leku eskasez, gurutzearen baztertzeko baizik !

Deitoratzen dugu holako egitatea, jendea zeduzitu beharrez edo –nork daki ?- beharbada irakurle batzuk gal beldurrez egiten delarik. Zernahi izan dadin, gizonari bere biziko engaiamenduaren lekuko nagusia ezabatzea ezin onetsia zaigu... Haurra ginelarik ari zitzaizkigun zaharragokoak : “Apez egiten bahaiz, xikitatuko hautel!” Haurren zozokeria hori, hortxe, jende helduek dute obratu...

Errepublikaren kontra zela ere jakina da baina holakoak botatzean ez ote litzateke on hurbilagotik behatzea egoerari ? Bai Frantzian, bai bere sor herrian, bai erreter egon den herri batean, apezan etsai ziren ‘gorri’ batzuk gaitzeko indarrean ziren. 1789ko Iraultzak piztu suak Adema-Zaldubiren denboraldi guzia iraun zuen, bizi-bizia eta ondorioz sortu ziren Errepublikak hain erakargarriak ote ziren, haien alde jartzeko ?

Gizon argitu hark ez ote zekien Frantziako Errepublika jakobino amorratuak zer zekarren sabelean, eskualdeen suntsiketa kulturala frantsesaren faboretan, bertzeak bertze ?

Olerkari sentiberatsuak ez ote zituen aitzinetik usnatzen, euskal akademia baten beharra hain ederki sentitu zuen bezala, ohointza deitoragarriak burutzerat zihoazela, eta hori guzia neholako autoritate moralik ez zelakotz onartu nahi?

Hots, apezak daudela apezetxeetan eta kito, funtsean, orain ere pentsamendu bera dabil, erlijioak osoki eremu pribaturat mugatu nahi lituzketelarik. Bake zerbait baldin badago Elizak amor eman duelakotz edo menperatua izan delakotz da. Baina, beharbada, egiaren, zuzentasunaren eta maitasunaren alde baizik ez daitekeelakotz izan, minorizatua, baztertua eta martiritatua izatea da kristauaren zortea...

Denbora haietako autoritate izpiritual hori ez zen ez, egia da, perfeta. Gaurkoa ere ez da hala : zoin motel dabilen hoinbertze zuzengabekerien aitzinean... Bagenuke alta autoritate izpiritual biziago baten beharra, diruaren diktaturari ihardukitzeko, gizarte kontsumitzaile neurrigabeko huni ohartarazteko : nehork ez mugatu nahi bere bizi moldea aberatsagoek mugatuko ez duten bitartean ! Ordea, norat goaz horrela ? Arrazoinamendu horrekin lurraren beroketak badu egun 'ederrik' edo berorik aitzinean...

Aski nigar egungo, Eguberri inguru honetan bertzenaz ere, hoinbertze misterio miragarrik gure gogo zimurtuen, presoen pareta hotzen, desterratuen bihotz ubelduen, zorioneztatzerat etorri nahi luketelarik... ■

Hizkuntza guttituak ohoretan...

2008-01-24

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAK erabaki du 2008garren hau izanen dela “hizkuntzen urtea” eta UNESCO, bere baitako zientzia, hezkuntza eta kultura adarra, ezarri du urte berezi honetako lan, harreman eta ospakizun guzien buru. Halaxe jakinarazi digu Euskal Herriko kazetak joan den larunbatean. Koichiro Matsuura UNESCOko zuzendariak, argi eta garbi diosku :

“Sustatu eta garatu behar dira hizkuntza guziak ; komunitate bakoitzak merezi du bere ama hizkuntza irakatsia izan dadin, hezkuntza serio baten bidez eta erabilia ahalik eta gehiena biziko urrats guzietan... Bistan da bertze hizkuntza nazional edo nazioarteko bat ere ikasi behar dela denbora berean ; ele aniztasunak dio bakarrik emanen hizkuntza bakoitzari bere tokia mundializazio garai honetan.”

“Ele aniztasuna bultzatu behar dugu baitezpada. Hizkuntzak dira, alabaina, herrien nortasun ageria bezala eta guzia egin behar da bertako mintzairak eta hizkuntza nazioartekoa elkarrekin bizi ahal daitezen. Ordu litzateke zerbait alda dezagun, zeren-eta zenbait gizaldi barne gaurko zazpi mila hizkuntzetarik erdiak ezabatzeko arriskuan baitira. Horietarik laurden bat da irakatsia eskoletan eta erabilia ziberespazioan. Baina, laurden horretan ere, asko, noiztenka bakarrik dira irakatsiak edo erabiliak. Milaka hizkuntzek, bizi-bizirik eta egunero erabilak direnetan ere, ez dute neholako hezkuntzatan sartzerik, ez eta liburugintzan ere. Bertzalde, ele aniztasuna eta kultura aniztasuna elkarri loturik dabilta”

UNESCOK gonbidatzen ditu beraz denak beren eginahalak egin ditzaten, hizkuntzak ez bakarrik errespetatuak izateko, baina oraino sustatuak izan daitezen bakoitza bere herrian, bizi partikularrean, nola bizi publikoan, ardura berezi bat ekarriz galtzeko arrisku handian direnei. Hots, hizkuntzen garrantzia errotik nahi da azpimarratu eta otsailaren 21ean, bederatzigarren aldikotz, ospatuko da “ama-hizkuntzen eguna”. Aurten, ontsalaz, oihartzun handiagoko bat behar luke egun horrek...

Europen, Frantzia da herri hizkuntzen suntsitzaileetan txapelduna. Alta, joan den maiatzean NBEko biltzarrean, Jean-Marc de la Sablière frantses enbaxadoreak aldarrikatzen zuen :

“Herri baten ezaugarri nagusia : bere hizkuntza. Herriek badute beren ama-hizkuntzaren erabiltzeko eskubide osoa, hizkuntza hartan ulertarazteko eta ulertua izatekoa ere. Ondare bat dute eskuan, batzuetan milaka urteetako altxorra. Hizkuntza horien biziaraztea NBEaren eginbide nagusietarik bat da.”

Eta Nicolas Sarkozy ez da gaizkiago mintzatu berriki zioelarik :

“Ez da bakerik izanen munduan herrien nortasunak ez badira errespetatzen, jendeen sinesteak eta kulturak ez badira gerizatuak. Zuzen da bakoitzaren bizitzeko manera, pentsakera eta sinesteak errespetatuak izan daitezen; haien zangopilatzea, humiliazioaren haztea da.”

Hauxe solas ederrak ! Lehenago ere entzun izan ditugu haatik ez hain txarrak, bai Giscard-engandik (Arantsusirat etorri zelarik), bai Chirac-engandik (oroit Quimper-eko hitzaldia) eta Mitterrand-engandik nolaz ez, legegai bat eraikitzeraino joan baitzen hau, nahiz hautetsia izan aitzineko egintzetan ginen hor, egia osoa errateko, baina halere...

Eta futxo, huna nun, “hizkuntzen urtea” aldarrikatzen den une berean, Parisen, diputatu eta senatoreek, berriz ere baztertzen duten Frantziako Konstituzioaren bigarren artikulua famatu haren aldatzea. Solas ederrak beraz, urtea bultzagarria eta halere artikulua horren aldatzea bera ere ez posible!

Frantziako buruzagi handiak, hizkuntza gutituetaz ari direlarik, hexagoniakoez ari ote dira ? Egia da ere, zangopilatzearen bortxaz, ama-hizkuntzak arrunt behera jaitsiak ditugula Frantzian eta ondorioz eskakizuna ere frango motteldua, euskaldunak eta korsikarrak baitira gehienik ageri.

Bertzalde, Frantziako Errepublikak hizkuntza atzeritar bat irakats dezake lasai, baina barneko ama-hizkuntzak irakasten balitu, berrehun urtez eraman politika ukatuz, herrialde desberdin batzuk menpean dauzkala aitortuko luke eta bertze deskolonisazio bat has liteke... ■

Kosovo beregain

2008-02-21

JOAN DEN IGANDEAN, 2008-ko otsailaren 17an, Kosovok beregaintasun osoa aldarrikatu du legebiltzarrean egin duten ospakizun berezi batean. Aitzinetik iragarria zen gertakari handi hori eta azken egun hauetan sukarra goitituz joan da, sekulako alegrantziak bete baitira, Pristina hiri kapitalean baina ere bertze leku askotan.

Haatik, bertan bizi diren serbiarrak (jendetzaren %10 nunbait han) kezkatu daude ez guti, alabaina badakite nola jokatu diren Serbiako beren anaia handien sahetsean gerla gorria egin zutelarik Kosovo Serbiaren menpean atxikitzeko. Kosovoko serbiar horien kasuak badu Aljeriako zango beltzen egoeraren eite zerbait...

Kosovo, herrialde hau, Yougoslavia deitua izan zen Estatu handi baten 'gerizan' bizi izan da denbora batez eta Titoren agintepean autonomia koxkor zerbait gozatu ere zukeen, Yugoslaviar batzokoen, alabaina, ezkertiar batzuk, eredu garrantzitsuak zeukatelakotz Estatu horren joka moldea bere minorien alderat. Geroztik, haatik, ikusi dugu zein gaizki bururatu den esperientzia hori bereziki, Serbia, bere baitan zeukan talde azkarrenaren inperialismoagatik.

Aitortu beharrean gaude beregaintasun horren aldarrikatzea egin ahal izan dela batetik Estatu Batuen onespenerari esker eta bertzetik Europaren laguntza argiarekin. Bertzela, pentsatzeko da ez zirela menturako holako urrats garrantzitsuen pausatzerat jakinki-eta erroten erabaki horren kontra direla, Errusia, betiko hartz handi minorien lehertzailea (ikus Txetxenian nola dabilen), eta Serbia haren lagun handia, berdin inperialista hura ere bere mailan.

Europako bertze Estatu batzuk, ez badira osoki kontra agertu ere, hotz, biziki hotz agertu dira erabaki horri buruz. Erreski ulertzen ditugu zenbait, hala nola Espainia denek dakigunarengatik ; funtsean, Poutinek berak piztu du sua, ohartaraziz erabaki gisa horrek zenbat ondorio izan litzakeen han, hartarik gogotik bereiz liratekeenak gogoraraziz...

Kosovoren independentziaren kontra diren guziek badituzte beren menpean minoriak eta batzuetan nortasun handikoak. Behazue Eslovakiari, Txekiatik bereizi nahi izan zuen eta gertakari hau laudatu genuen hemendik beretik, bereziki, banaketa hori eredu garrantzitsuak izan zelakotz. Alta, Kosovoren beregaintasunaren kontra jarri da. Zertako ote ? Bere baitan daukalakotz, gerla ondorioz, Hungariako eremu puska bat, hungarieraz mintzo dena eta Hungariatik erroten sustengatzen dutena !

Aldiz, gora Belgika, alde agertu baita dakigularik baduela bere baitan, samin, zatiketa arriskua... Frantziak ere Kosovoren beregaintasuna baieztatuko duela dirudi, Kouchner, atzerri ministroa bederen, ados legoke

omen. Ikusi behar bere gobernukideak iritzi bereko izanen direnetz eta lehen-lehenik egun hauetan gure artean genuen MAM barne ministroa... Hunek baitaki, Kouchnerrek baino hobeki, Hexagonia mailan guti hedatzen baina lekuan berean sentitzen diren herri menperatuen nahikunde kementsuak zertan diren.

Euskal Herrian ere bazterrak poztu ditu, beraz, gertakari horrek, baitzuten beharra! Alabaina, gure herria gau beltzean kausitzen da gaur politika mailan. Zergatik? Alderdikeriak errautsia baikade, bai Hegoaldean, bai Iparraldean. Axaleko hurbiltze batzuk erakuts eta gero borroka armatuak balentria bat egin dezala eta huna nun gure 'batasuna' milafrix zapartatzen den espainiarrena indartzen delarik, zernahi jokabide deitoragarri gure kontra onetsaraziz iritzi orokorrari !

Kosovo burujabearen aurkakoen mehatxuak direla-eta, gure zoriona ez da oso-oso, nahiz ez dugun uste gibelerat itzultzerik izanen den. Gutierrez, sekulako itxaropen pizlea izan bekigu gertakari hau. Hola segituz, zer aldaketak ez ditugu ikusiko ondoko urteetan gure Europa zaharrean, gure aldia ere etorriko baita horien artean! Kasuek, haatik, puntu berdinak izan baditzakete, desberdintasunak ere hor baitituzte. Beraz, herrialde bakoitzak har dezala gaurko data atsegingarri honetarik onuragarri zaiona eta egokiturik balia askatasun bidean. ■

Emaizta gazi-gozaak

2008-03-20

GISA GUZIZ boz biharamun zailak abertzaleentzat. Lehen itzulian emaitza askitto onak dastatu ondoan, bigarren itzuli hunek haize hotz bat hedatu du bazterretan, egoera gordinerat itzularazten gintuela. Alabaina, zer erran, ikusiz Jean Espilondo Angeluko hiriaren buru jartzen? Baina gehien-gehienik min egin diguna Jean-Mixel Galant adiskideak doi-doiatarik galdu izana, Departamenduko hauteskundeetan.

Duela zazpi urte eskuindarren zatiketari esker irabazi zuen, hiru gelditu baitziren lehian orduan. Aldi honetan gairaipena ederragoa izanzen, buruz buru jokatu, borroka garbia baitzen: abertzalea, eskuinaren aurka. Gure agurrak hartze ditu, horraino heldurik eta egin lanarentzat. Aupa Jean-Mixel, gazte haiz oraino: sei urte, laster iraganak dituk!

Uztaritzen ere bertze galtze bat berdin damugarria baina ez beharbada hain mingarria oro har: Battitt Amestoy adiskidearena Herriko Etxeko hauteskundeetan. Ezkertiarrekin elkarturik joan da, borroka gaitza eraman, eta doi-doiatarik galdu, eskuindar batzuen kanpaina itsusiarengatik. Egia da, irabazi izan balu, eskuinaren zatiketari esker irabaziko zuela eta abertzale ez diren ezkertiarrekin nola aterako zen ere ez dakigu bertzalde. Ez da hau Baigorriko kantonamendukoaren kasua.

Ohar politikoak asko izan daitezke; hauxe genuke lehena: berriz ere ikusten dugu, hainbertze aldiz deitoratu duguna hemendik beretik: Frantziako hauteskunde sistema, bi itzulitakoa, alderdi ttikien izorratzaile gertatzen dela. Itzuli bat baizik ez balitz izan, emaitzen ondorioak hobeak izanen baitziren abertzaleentzat.

Ezkerrarekin nola eskuinarekin uztartze horrek ere ez ote ditu bere mugak erakutsi aldi honetan? Alta, bi itzulien arteko antolamenduez ere balizateke zer erran: zer, bi egun barne (astelehena eta asteartea) alderdiburuek akordioak lortu behar dituzte, postuak eta egitarauak finkatu, beroan bero, bezperan oraino elkarren aurka ari zirelarik! Ez dugu hor abertzalerik gaitzesten, hasteko eta bat ez Battitt adiskidea, hainbertze denboran honetan jokatzeko dena, euskal kulturaren eta presoen alde, bertzeak bertze. Ez, sistema dugu deitoratzen gain-gainetik!

Bertzalde, Euskal Herria Bai bozkatu dutenak zenbatetaraino dira ezkerrekoak? Ez gaudeke hemen aipatu gabe bertzela ibili diren batzuek gaitzeko emaitzak eskuratu dituztenak. Salaberry Hendaiaiko auzapez izan dena ez dugu anitz ezagutzen baina gizon zuzena delako oihartzunak badatozkigu. Gauden beha, laster ageriko da.

Ikus dezagun Mixel Etchebesten garaipena ere Maulen, balentria handia baita. Eskuinean sailkatzen dute batzuek, Mixel, euskaltzale eta Zuberoako ekonomiaren bultzatzaile erne hau. Gure gustuko, sailkapen hori

ez da osoki egokia; ez baita ahanzi behar bere arerioak ez zirela ezkerreko abertzaleak batere.

Eta orain hor dugu Alain Iriart Abertzaleen Batasunakoaren kasu harrigarria: lehenik bereber ibili da eta garaipena erdietsi, airez aire, lehen itzulitik! Eta bigarren itzuli honetarik landa, badirudi, Departamenduko lehendakaritzaren giltza ere eskuetan daukala, zeren eta gertatzen baita, ezkerreko eta eskuineko hautetsiak kopuruz berdin-berdinean direla eta Alain-en bozak uzkailez dezakeela afera, alde baterat edo bertzerat. Hauxe da erantzukizuna!

Hegoaldean ez da bozkatzeko itzuli bat baizik izaten eta joan den igandean berean trenkatu dira aulkien banaketak. Madrilgo parlamenturako bozak zituzten eta sekulako porrota jasan dute abertzaleek. Aitzakiak bai atera dituzte, bipolarizazioa eta bertze.

Baina gure uste apalez erradikalismoa dute gaitzetsi, EAJrena ere barne, naski segurik(?). Funtsean Iparraldean ere holako zerbait hauteman daiteke hauteskunde hauetarik landa. Gizon eta emazte pertsonalki osoki engaiatuak sustatu ditu herriak eta ez alderdi gogorrenak. ■

Gosetea anitz herrialdetan

2008-04-17

IDURITU ZAIGU behar genuela egun behako bat eman gosetearen ondorioz sortzen diren liskarrei bereziki hego hemisferoan. Hor, anitz lekutan, ezinbiziak beren onetik jalgiaztatzen ditu jendeak : Egipton, Kamerunen, Senegalen, Burkina Fason, Somalian, Liberian, Bolikostan, Afganistanen, Bangladeshen, Filipinetan edo oraino Haitin...

Egia da gisa horretako jazarketak beti izan direla eta aipatzen ere ditugula noizbehinka. Zertako gaur eman ordea garrantzi gehiago ? Ez baitugu sekulan gehiegi salatuko makurtuz doan bilakaera hau.

Ez, ez dut uste aski aipatzen ditugun urruneko asaldatze mota horiek, gosetea baitateke gaur egungo arazo nagusia guhauren nekezien artetik doia kokotsa altxatuz gero. Guhaurk ere badugulakotz jos ahala urratu geure Euskal Herri honetan ?

Ez dezagun ahantz haatik orain izendatu ditugun herrialde horientzat, eta bertze askorentzat, aberatsak garela eta hego Euskal Herria Europako leku jorienetarik bilakatua denaz gero, erran dezakegu aberats okituak ere garela, nonbait, zenbaitentzat... Bitxi egiten du gisa horretakoak botatzea zeren baitakigu aberastasun hori ez dela behar den bezala banatua gure artean. Bainan orokorki hola da eta urrunetik begiratzen delarik hala ikusten dukete.

Zerk jauzarazi ditu bada holako jazarraldiak zoko guzietan eta bat-batean ? Janarien prezioen goititzeak, azken sei hilabete hauetan bereziki. Zerealen eskaintza behehitu da azkarki azken denbora hauetan eta arabera prezioek goiti egin dute. Zerealen eskaintzaren beherakada dator asko bidetarik.

Hala nola Brasilen, sekulako eremuetan petrolioa ordaintzeko den bioetanolaren egiteari lotu dira. Ez da harritzeko gisa batez, baril petrolioa 110 dolarretan baikenuen aste honetan oraino! Eta ezantzen galdetza ez da berehala ttipituko, ipar hemisferako autozainek ordainduko baitute, zakutik edo zorrotik bada ere... ‘aberatsen’ autoak asebeteko baitira ‘gose hamikatuaren’ sabela baino lehen...

Laborantza mundializatu eta handizki diruztatuak, munduko laborari ttipiak itotzen ditu eta are gehiago lurralde pobre horietan. Beren jatekoak kanpoan erosterat behartuak dira, beren irabazi pizarrak horretan ematen dituztela osoki.

Adibidez, irrisa, milioika jenderen oinarritzko hazkurria dena, %60ez goititu da zenbait hilabetez eta ahal bezala bizi diren jende askorentzat hoinbertzetarainoko emendatzeek hil edo biziko garrantzia izan dezakete.

Ziegler jaunak, Nazio Batuen Erakundean mundu guziko elikaduraren arta duenak, gogor salatzen du egoera hau eta dio badela hor gizadiaren aurkako krima bat. Langile suhar horrek badaki zertaz ari den. Baitaki bereziki norat doan afera eta gosezkoen jazarraldiak ugalduko direla. Zerk geldiaraziko ditu ? Noraino joanen dira horiek guziak ?

Afrikako zenbait herrialdetan, Kamerunen adibidez, poliziak tirokatzen ditu manifestariak eta hiltzen dozenaka. Azken aste hauetan ‘aberatsen ume’ frango agertu da Tibeteko askatasunaren alde, zuzen den bezala eta ohore zaigu. Damurik ez baitute araberrako karrik erakusten gosetearen alde manifestatzen duten eta hilik ere gertatu diren horien alde... Oroit gara, duela hogeita hamar urte jadanik, nola René Dumont batek goraki erraten zigun norat gindoazen eta zein baitezpadakoa litzatekeen herrialde ahulenean beren oinarritzko janariak bederen, berek, beren herrian segurtatzea.

Lotsa bat izigarriak hartzen gaitu holako arazo erraldoiez gogoetatzean. Mundua zabala baita eta aterabidea hain zaila agertzen baitzaigu diruaren diktadurapean bizi den ekonomia hunekin. Gauza bat badakigu haatik: egoera hobetzeko etxetik hasi behar dela. Gure ezinbertzeen artetik ez da atsegin ttipia, euskaldunentzat, ikustea Euskal Herriko Laborantza Ganberak daraman sail guziz eredugarria.

Hortakotz galdatzen dugu zinki eta finki erakunde hau izan dadin lehen-lehenik eta berehala ofizialki ezagutua Departamenduko hautetsiengandik. Ez genduke onartuko, Kontseilu Orokorrean gehiengo baten osatzeko abertzale baten bozaren beharra delarik, ez bagina egoera berezi eta harrigarri honetaz baliatzen zerbaiten lortzeko. Onartzen dugu zaila datekeela etorkizun politiko pertsonal itxaropentsu bat hola, sortu orduko kasik, hordago batean kolokan ezartzea. Ez arriskatzeak, haatik, abertzalearen ohorea luke suntsituko. ■

Aro kaskarra

2008-05-15

EUSKAL HERRIAK hain aspalditik daraman borroka honetan, idazle politikoaren eginkizuna dateke gure nortasunaren aurka doazenak salatzea baina ere handik edo hemendik jalgitzen diren eguzki zirrinten erakustea, haietan bilatuz itxaropen, argia ttipia izanik ere, handik irekidura bat ikusten saiatzeko...

Egia erran ez da ekintza eder eskasik Euskal Herrian, anitz dira preseski, alor guzietan: joan den igandeko Herri Urrats xoragarria azkenik. Baina politika alorra bertze mundu bat da eta handik argi izpiak urrikiago datoz. Egia da Iparraldean emaitza onak eskuratu ditugula azkeneko hauteskundeetan batasun zerbaiti esker. Ordea, baleki jendeak zer nolako piruak atxikitzen zuen xutik gure delako batasuna, harriturik legozke guziak sekulako !

Dena den, funtserat joaten bada, ez daiteke hurbilketarik egin ekintza sozial, ekonomiko edo kulturalen lorpenekin, elkarren artean lokarriak, nahi bezain handiak, izan baditzakete ere. Ez gaitezen sobera harritu egoera tetele honetaz : politika gauza nahasia eta gogorra izatea ez da gaurkoa, beti halatsu izan dela ere erakusten digu Historiak, eta alor honetan murgiltzen direnek egun gozo baino mingarri gehiago iraganen dituzkete.

Politikan dagoen egiazko atsegin kasik bakarra, hautetsia izatea da edo bederen boz andana esanguratsu bat eskuratzea taldean edo bakarka. Atsegin hori handia da eta karguaren karga eztitzeko gai da, baina bide horrek ere bizkarrean dakartza botererat heltzeko edo hartan mantentzeko egiten diren ttipikeriak, hainbertze eta hain itsusiak! batetik eta bertzetik egun batez kanporatua izateko arriskua : gutiak baitira hauteskunderik eskuratu karguak beren baitarik uzten dituztenak ; gehienak egun batez baztertuak dira, azken herriko boz hauetan ikusi den bezala, urrikalmendurik gabe.

Dena den eta horiek guziak hola, ez gara Hegoaldeko gorabehera guziez jakitun nehola ere; kazetek dakarkigutena dugu bakarrik hazkurri, batzuen eta bertzeen ateraldi zenbaitek osaturik. Kontuz ibili behar dugu beraz, itxuratik izanerat izan baitaiteke alde: “Kazetak, ematen diotena hartzen du”, zioten lehengo zaharrek eta zuzen zebiltzan.

Ibarretzek bere hitzari ohore egin nahi lioke eta gisa batez txalogarria zaigu, hain xuxen hori baitugu eskatzen hautetsiei, eman hitzari leial egotea. Zuzen dabil ere dioelarik ez dugula utzi behar politika alorra erakunde armatuaren goiti-beheitien meneko. Osoki zuzen hor ere, baina politikagintzak bertzerik erakusten digu, guk nahi ala ez, armen ziliportek gure kontrakoak elkartzen dituela eta euskaldunak bereizten.

Gainerat, erahiltze horiek euskaldunen zangopilatzeko edozein zirtzilkeria onargarri bihurtzen dute. Beha banku kontuen blokeatzeari :

denek badakigu zertarik datorren eta ondorioz erhi tinttilla ere ez du nehork higitzen zuzengabekeria ezin jasana delarik alta berez...

Guk, Iparraldetik, ulert ezina da, nolaz autonomiaz gehiagokorik eskura daitekeen, autonomia horrek barnean dauzkan eskumen guziak ez direlarik oraino Gasteizkoari utziak 29 urteren buruan...

Nolaz Gasteizen gobernatzen duen hirukoteak zerbait gehiago erdiets dezake, Ezker abertzalea, PP eta PSOEk zazpi eginahalak daramatzatelarik EAJren oztopatzeko !

Bai gurpil zoroan sartuak gara erroraino. EAJk ez du halere PSOErekilakoa osoki hautsi nahi, beldur baita bakarrik geldituko dela guzien kontra. Ezker abertzaldeak ez du ETArekilakoa moztu nahi, moztekotan aspaldian moztu beharko baitzuen, Lizarra-Garaziz geroztikakoa baizik ez aipatzeko, erakunde armatuaren bilana tamalgarria baita.

Eta euskaldunak horrela gabilta aspaldian, alderdikieran ihalozka, esperantza bati tinko lotuak, haatik : noizbait aterako direla, alderdien biziraupena baino lehen herriaren ona bilatuko duten bertute handiko buruzagiak...

Oroz gainetik kezka handia sentitzen da bazterretan. Euskal Herrian espainolak eta frantsesak kopuru handian daude. Komunitate desberdinak bakean biziaraztea biziki zaila ikusten da eta adibideak kontrakoak ditugu : beha nola dabilzan Bruselako inguruetan bi komunitateak elkarrekin bizi behar duten eremuan...

Ondikotz, eta gure uste apalez, kasik ezinezkoa daukagu bi komunitate, ahal beren jabe, elkarren ondoan bizitzea. Hemen beraz herri euskaldun baten lekua baizik ez legoke eta Espainolen eta frantsesen gureganatzea litzateke, azken batean, eginkizun nagusia. Gaurko bidetik ez gaude horretaraturik ! ■

Gurpil zoro hori

2008-06-12

DENBORAZ, aspaldi, ikusi izan da munduan ekonomia gorabehera zenbait gertaturik ere, gu hemen haien uztar handirik jasan gabe baikindoazen, autartzia osoan edo kasik bizi ginelakotz. 1929ko, zorigaitzeko krach hartan, haatik, argi eta garbi ikusi zen herrialdeen arteko ekonomiak elkarri lotuz zihoazela, langabezia handia hedatu baitzen herrialde askotarar. Ordukotz!

Eta orain zer erran liteke? New-Yorkeko burtsak eztul ttipi bat egin orduko mundua ikaretan jartzen da! Eta bada ikaratzekoa, gaurko ekonomia elkarri josi eta diruzaleen menpeko horrek bizimaila goratu badu ere zenbaiti, arrisku izigarritan ezarriak baikaitu guziak.

Gaitza azkarki emendatu zen duela berrogei bat urte super merkatu handi horiek burrustan zabaldu zirelarik orotarar ; saltegi ttipi anitzi leher eginarazi zieten ; jendeak ez du, alabaina, bere sakela baino urrunago behatzen : merkeago da han eta goazen harat. Hala egiten erakutsi ere zaio : ikus kontsumitzaileen aldekoen mezuak.

Alta, erosketa bat egitean kasu egin behar litzateke lana nori ematen den eta nori kentzen, bertzela, geure buruari harrika aritzea gerta dakiguke; eta gertatu zaigu askotan! Horrengatik, saltegi ttikien alde borrokatzen gara, lekuan lekuko laborantza jende-hazkurri egilearen alde garen bezala eta egungo kezkek arrazoin ematen digute errotik.

Beha, adibidez, supermerkatu erraldoi horietan dagoen janari hautu ezin sinetsiari ; irudika dezagun hautu espantagarri horrek zenbat garraio lan, erran nahi baita zenbat erregai gostaia den, egun batez (laster) agortuko den erregaia eta gaur halako preziorat igana zaiguna hain zuzen ere...

Zelanda berritik atzarkia, Argentinatik behikia, Marokotik tomatea eta elemenia bat herrialdegarik, elemenia bat puskateria! Ez da dudarik berrikusi beharko dela ekonomia hori, beti hautu gehiago ukan eta merkeago erosi beharraren gurpil zoro horretan murgiltzeko orde, gure erosketen ondorioez --ingurumenaz eta abar-- axolatuz gehiago, eroslearen egiazko botereaz eta erantzukizunaz jabeturik.

Ekonomiatik pasa gaitezen euskal politikarat, han ere gurpil zoroan baikara. Harrigarria zaigu batzuen jokabidea: heiagoraka ari dira euskaldunen kontrako zapalkuntza gogortzen ari dela, presoak sekulan baino gehiago direla, gero eta zorrozkiago gazituak gainerat ; gaztetxoak berak zuzenkontra erabiltzen dituztela jendarmek eta zer aterabide proposatzen digute? Bide beretik jarraitzea! Erran nahi baita borroka armaturik nehola ere ez baztertzea, are gutiago ukatzea. Hori ez bada gurpil zoroa...

Goiti ari garela, azkeneko hauteskunde emaitzak lekuko? Ahanzten dute azpimarratzeko Batasunako buru ezagutuenek dituztela emaitza

txarrenak eskuratu, zinez txarrak gehiago dena. Goiti ari gara bai, Baionan izan ezik, baina gehienbat euskaldunek ekonomia, kultura, hizkuntza eta humanitario alorretan egiten duten lan itzelari esker. Ahantzi gabe, bertzeak bertze, Miarritze bezalako hiri ‘galdu’ baina garrantzitsu batean Jakes Abeberry batek bere lagunekin eraman duen sail txalogarria.

Jendeak ez dezake jasan erahilketarik. Demokraziak ez dezake onar, agerian bederen, indarkeriari amore ematerik. Zin-zinez daukagu bide demokratikoak askoz ere emankorrak litzaizkigukeela. Ez Espainiak, ez Frantziak eta are gutiago Europak ez liezaioke, egungo egunean, muzin egin hauteskunde bidez garbiki erakutsi borondateari. Hobe genuke beraz elkarrekin adostu eta urraska joan. Beha Eskoziari nola ari den bere bidea egiten...

Ibarretxe urriaren 25eko galdaketa prestatzen ari da. Galderak ja ezagutaraziak ditu. PSOEtik eta PPtik ez baita deus igurikitzen ahal, galdaketak aurrera egin ahal dezan ezkerreko abertzale gogorren baia behar du. Izanen ote du? Haien bederatzi deputatutarik baten boza aski luke horretarako behingoan. Baliteke lortzea. Galdeketa aurrera aterako denetz ez dakigu, haatik, alderdi espainolista horiek, gure aurkari amorratuak, indartu baitira azkarki azken hogeitaz urte hauetan (abertzale batzuek indartu baitituzte bortizkeria itxuragabeko bat eramanez) eta gaitzeko oldarrean jazartzen baitzaizkigu, gaur, Euskal Herriko giderren hartzeko prest ! Oi ama, pollitak ginateke orduan!

Politikaren gurpiletik osoki ateratzerik ez dateke. Egin behar duguna da ez dadin hoin zoroa izan... ■

Iritzi eztabaidagarriak

2008-08-07

HAUTSAK HARROTU DITU, “*Sud Ouest*” egunkarian, Hondelatte kazetariak egin duen ateraldi gogorrak: “Higuin dut euskaldunen abertzaletasuna!” Bada hor doi bat harritzekoa gisa batez zeren eta azken denbora hauetan fereka zenbait jartzen hasiak baikinen izatekotz, handik eta hemendik ari zaizkigularik, nahiz axalekoak izan, lehenagoko etsaigo arrunt hartarik urruntzen ari ginela baitzirudien.

Egia da, haatik, Frantses Akademiak berriki bere mexpretxua oroitarazi digula; baina hor ere, nolabait, lehen artikuluan ez bada, 75.ean bederen, sartu da gure euskara Frantziako Konstituzioan. Ez da nahikoa, baina guziz garrantzitsua halere gure borroka luzean gogoratzen bada nun ginen Iparralde honetan duela ez aspaldi eta areago nun ziren hexagonian zehar bertze zenbait hizkuntza gu baino ere aise galduagoak!

Harrigarriena da beharbada, garaia, alabaina Baionako besten kari Hondelattek holakoak botatzea! Gaineratzen duelarik bertzalde: Gure artean jostatzen garela eta ez dakigula bertzearen gure arteratzen! Hor, haatik, bere frantseskeria hertxia erakusten du, zeren eta egundainotik, egiazki jostatzeko, ezagunen artean izan behar baita. Baina kanpotar bat sartzen bada gure artean, eta hari da sartzea eta ez guri haren ondotik ibiltzea, euskaldunek badakigu haren onartzen gure jokoan sartzen den ber. Zer mila sorgin, gure bestak badira guretzat dira lehenik!

Badakigu, eta Hondelattek ere badakike, abertzaleak izan direla besta horietan euskal pizkundearen eragile, besta horien ‘altxagarri’. Badakigu altxagarria bera deusetako ez dela oreka gabe. Halaber erran daiteke gatzarekin: bakarrik, deus gutitako dateke, janarien pizteko aldiz zer gauza paregabea eta ezin baztertua! Alde horretarik behatuz gero Hondelatten ahapaldia onar daiteke gatzala altxagarri hutsa, berez, gustu txarrekoak baitira.

Baliteke naski barnagoko zerbait izatea gure baionesaren ateraldian. Ez ote du haxe golkoan: zuek, abertzaleek, muga berriak eraiki nahiz ari zarete... Aspaldiko errepika da hau. Abertzaleek berehala ihardesten dute gehienetan: alderantziz gabiltza, guk mugak kendu nahi ditugu! Baina hemen gure erantzunak baduke faltsukeria izpi bat: eiki, Euskal Herria bi zati egin duen muga hori ezeztatu nahiz ari gara, ordea nola biziaraziko eta indartuko dugu gure euskara, erdal itsaso itogarriaren pean dagoelarik, ‘muga’ berri baten itxura luketen lege berezi eta berdin dorpeak gerta litezkeen batzuk finkatu gabe? Nola aterako dugu jendea espainol eta frantses hizkuntza puxanten aztapar erosoetarik legez doi bat hertsatu gabe?

Guk amesten dugun Euskal Herri euskaldunean, legeak ez dira berak izanen Bordelen eta Hazparnen. Gure herrian bizi nahi duenak euskaldundu beharko du, Frantzian edo Espainian bizitzeko, frantsesa edo gaztelera

beretu behar den bezalaxe. Eta horrek dio min egiten Hondelatte bezalako frantses bati, aspergarri zaizkiolarik gure betiko dantzak, betiko kantuak...

Dena den, aski da ikustea zer lege zorrotzak ezarri dituzten Flandrian beren hizkuntzaren zaintzeko, bakoitzaren libertatea hunkitzerainokoak ! Hizkuntzaren piztea ez baita aski iraun behar baita ! Bitxiak zaizkigu batzuetan hango liskarrak, baina menturaz gogoetagarriak dira batzuentzat eta bereziki bertzeek baino gehiago ikusiak diren kazetari horientzat.

Abertzaleek gure jitezko bestazaletasuna landu dugu, jendea biltzeko, arrazoin osoz eta molde txalogarri : ez baita eulirik harrapatzen ozpinarekin ! Guri da politika alorrean ere garen baino erakargarriago izatea eta horretarako, lehen-lehenik, abertzale batzuen jokabide bortitzak baztertu behar dira behin betikotz, gero elkarri hurbilduz joateko. Beti eta beti batasun politiko gutieneko bat bederen bilatuz lortuko ditugu menturaz, gure helburuak : Euskal Herriaren azkatasuna, haren euskalduntzea eta euskaldun begiratzea. ■

Goresmenak zuri Ingrid

2008-09-04

JOAN DEN UZTAILEKO LEHEN EGUNETAN, zer atsegina, zu, Ingrid Betancourt, pantailetan agertu zinelarik, askatu eta kasik berehala, zeure aurpegi goxoarekin. Telebista horrek erraietaraino miatzen eta salatzen baitu jendea, amesgaizto soil baten ondotik bezala zenirudien ! Zure ezagutzak egitea zorion arraro bat izan zen. Emaztetatsunarekin batean, zurekin dakartzazu, alabaina, hainbertze dohain: azkatasuna, demokrazia baina ere ihardukitzeko kemen miresgarria.

Badakizu, bertzalde, gertakariak aski goratik hartzen, hitzak zetabetan irazten dituzularik lau haizetarat barreiatu aitzin. Badirudi estekan atxiki zaituzten sei urte horietan zuhurtziaz jantzi bete zarela. Itxaropena ez duzulakotz galdu dateke. Zerbait bada : ez zenuen bertzela holako aurpegi onik erakusten ahalko libratu bezain laster.

Alta zerbait zerbait jasan duzu : bakartasun izigarria oroz gainetik, sei urtez oihan beltzenetan eta zuhaurk dakizu zer jende motaren erdian ! Ezinbertze lotsagarrienak gainditu eta etsimenduak garaitu dituzu. Eiki bada zure azkatasunak eragin duen oihartzun mundialaren pean burua hotz atxiki duzu, bakoitzari isuriz zeure barne aberatsetik goizeko ihintz fresko bat bezala, amultsuki. Ezin sinetsia da egiazki hoinbertze pairatu ondoan holako sanotasuna erakustea : zer mezua ! Frogatu duzu zuhaur zinela, egiazki, duela zenbait denbora oihanditik helarazi zitzaigun gutun hunkigarri haren idazlea.

Zure askatzea ere ezin sinetsizko haitada izan zen, zure osasuna bezain sinesgaitza. Guzien zorionak ez digu ahantzarazi behar, haatik, munduan gaindi beren idaiengatik preso edo bahituak direnak. Euskal Herritik hasiz. Eta gero, zure ingurukoak ere jendetasun handiz ibili dira. Ordea, zer zenituen ukaraiko arrosarioño haiek, doi-doia ageri ? Denak, emazte adinik gabe zahartu, erdi basatu baten beha geunden eta horra non agertzen zatzaizkigun osoki jendea, zeure buruaren jabe, zintzoa bezain apala eta fededuna gainerat...

Baina zer derasat, ahantzia zintugun jadanik, Ingrid ! Joan den astelehen arratsaldean Aita Sainduak errezebitu zaituelarik gara denak berriz zutaz oroitu. Udako amets eder bat izan zara, hots. Eta, bertzenaz ere, hemen abertzaleek, ez dugu kasurik egiten espiritualitate kutsu zerbait darakustenei. Hemen kristautasunak ez du gogorat ekartzen gurutzadak, inkizizioa eta Madrilgo apezpikuen biltzarra baizik ! Hemen, itzalik gabekoak balira bezala, marxismoa, existentzialismoa, elizen etsaigoa gaina hartuz doaz. Libroago sentitzeko asmoarekin, omen. Eta zuk aldiz, gatibu zinelarik, iraun duzu eta zure baitako askatasuna begiratu zeure arrosarioak lagun ! Txundigarria, zinez !

Ahantzia zintuzten aspaldian, alderdi sozialisteko buruek ere, egun hauetan, Arroxelan bilduak direnek. Zuri pentsatu dut, Ingrid, alderdi horretako ‘elefanteen’ ibilera ikustean ! Horiek ez dute gauza bat baizik gogoan : Frantzia osoko hauteskunde presidentzialak ! Hemendik lau urteren buruan direla ? Berdin du, haiek dituzte bakarrik gogoan ! Nork daki zer axola zaizkien jendeen arrangurak, ezin biziak ? Idaia baten bila dabilta -- demagogioaz oratua izanik ere berdin zaie-- lehenik alderdiko arerioei nagusitzeko eta gero jendea liluratzeko...

Berdeak isilik dagozkigu menentoan. Kohn Bendit abiatua da denak bildu beharrez, sozialistak bezain zatiturik baitabiltza. Eta hauek ere beti presidentzialek eman diezaieketen prediku aulki paregabe hura gogoan gauzen aitzinarazteko. Demokrazia ote da holako pertsonen arteko lehia berekoi, azkenean okaztagarri horien sortzailea? Demokrazia ez, baina gure ustez, Frantziako instituzio politikoak. Presidenteak sobera botere dauka eskuan ; lehengo erregeak bezainbat dela diote ! Funtsean, ‘errepublika monarkista’ deitzen dute askok...

Bai egiazki Frantzia eri da bere instituzioengatik gehienbat. Iraultza handi bat behar litzateke Parise, bazter guzien iresle den, kapitala horren puxantzia hausteko eskualdeen faboretan. Funksi eskualdekatzea hori bai litzatekeela egiazko iraultza ! Baina noiz hasiko dira alor handi horren lantzen ?

Ingrid, ez dakigu xuxen zer bide politiko hartuko duzun ondoko egunetan eta jakin-minez gaude. Anartean milesker eta goresmenak, zure lekukotasunarentzat. ■

Jokamolde deitoragarrien ondorioak

2008-10-02

BAI HEGOALDEAN, BAI IPARRALDEAN, badaukagu hamaika arazo bizkarrean ; horrek ez liguke haatik ahantzarazi behar gure bizimailaren etorkizuna, parte handi batean, ingurumen mundialaren peko dagoela. Anitz aipaldi sortzen dute preseski, azken denbora hauetan, finantza eremu horietan dauden diru gorabehera ikaragarriek, bereziki Ameriketako Estatu Batuetan. Baina, erran dena, han gertatzen denak eragin handia izan dezake mundu guzian eta are gehiago Europa honetan, finantza eta komertzial harreman hertxiak baitaude bi kontinente hauen artean.

Ez da lehen aldia aipatzen ditugula hemendik, larri-larria, Burtsaren gorabehera horiek. Batere aditua izan gabe, ikusten dugu hor ekonomiarik handizki eragiten dion erakundea, kapitalismoaren eta diruzaleen tenploa, handien merkatu arriskutsua, goiti-beheitiak artifizialki eta zalu emendatzen dakiena eta oroz gainetik urrikirik gabea : bide onean den enpresa, den baino gorago ezar dezake baina nekezago dabilena den baino beherago ! Akziodunen faboretan ari da eta beraz mozkinak so dago, haiei emanez lehentasuna eta ez langileei.

Krisi handi hunen karietarat bertze zerbait ere ikasi dugu : merkatu ero horri muga batzuk bederen ezartzen ahal zaizkiola. Sarkozyk berak errana du holako zerbait eta gizon horrek, gai horietaz bederen, zerbait badakike : ez ote da mundu horretarikakoa ? Horra hor beraz gauza berria, alabaina ez ote dugu beti entzun alderantzizkoa : Burtsa dela enpresa handi guziek neholara ere bazter ez dezaketan merkatua baina libre utzi behar dena, esteka eta zerga berezirik gabe ?

Denek badakigu ere liberalismoak eskatuko lukeela etika bat : bakoitzak bere erantzukizunak betetzeko ardura. Eta zer ikusi dugu ? Lehenik jendea bultzatua izan dela bere erosmen ahalak baino gorago bizitzera, mailegu eta zorren pean itoa izan arteraino. Gero, enpresaburu handi batzuk, beren eginbideez axola mikorik gabe, itsuski baliatu direla utzia izan zaien askatasunaz, beren moltsak ezin sinetsizko diruketez betetzeko !

Nola egin duten ? Enpresaburu batzuek segurik beren geroa lehenik errotik segurtatu “*stock-options*” eta bertzerekin eta gero etxea utzi buruz beheiti joaterat, kanporatua izateko beldur mikorik gabe, aitzitik, diru gehiago eskuratuko baitute zuzendari segituz baino ! Zer eskandala ezin onetsia, ezin jasana ! Errak, Karlos (Marx), hire denborako kapitalista haiek bele zahar batzuk zituan oraingo arrano harrapari hauen aldean !

Bertzalde, gerla gogorak daramatzate musulmano herrialde batzuetan demokrazia okzidentala inposatu beharrez han, haien lege eta ohiturak baino hobea delakoan... Eta horra non ikasten dugun berriz Golkoko herrialde musulmanoetako banku guziz puxantek ez dutela parte hartzen diru-joko

horietan eta New York-eko krisiak ez dituela batere hunki ! Haien erlijioaren arabera diruak ez dezake berez dirurik erakar ; diru-jokoak ez dira haizu han ; diruak ekonomia erreala lagundu behar du soilik... Gure harritzea ! Ezin sinetsia da kasik, dakigularik zer aberastasunak dauden metatuak petroliodun lurralde zenbaitetan, ez baitakite kasik zer egin beren dolarrekin !

Hori osoki egia baldin bada, bide horrek aztertzea merezi luke ikusteko ea Burtsarik gabe bizi daitekeen. Zuk, orain irakurle, ez irri egin, hau amets hutsa delakoan edo ohantzetik erori xori kume lumatu gabeko ttiuttaren heineko ateraldia... Kristauek segurik bagenuke hor jorra-sail ederra : nehor haserre egon bada Tenploko ohoinekin gure Nazareteko zurgina egon baitzen, behiala, bidez bide zihoalarik Aitaren izenean mezulari...

Dena den, krisiak iraunen duke oraino. Gauzak gaizkontzen badira, aski behera jaisten bagara (ez da gutiziatzekoa baina...), orduan beharbada iratzarriko dira egiazki bazterrak eta diruzaleen jukutria hilgarri horietarik begiratzeko legeak eraikitzen ahalko dira. ■

Ahulenak lehen pekatzaile

2008-10-30

LERRO HAUEK IDAZTERAKOAN burtsa berriz ere arras behera joana zaigu. Lerro hauek aterako direnean nork daki zertan izanen diren aferak ; alabaina, goiti-beheitiak hain dira zalu eginak diruaren merkatu zirtzil horretan. Gisa guziz gehienek ustea da krisi hau ez dela hala-hulaka antolatuko eta badirudi zenbait hilabete txar beharko ditugula iragan eta hori hoberenetik, zeren-eta itzulipurdi handi hura, ekonomia hautsiko lukeen haren arriskua, ez baita osoki urrundua oraino.

Merkatu zirtzila diogu: merkatu ustela ere erraten ahalko genuen. CFDT sindikatuak salatu digu “*Société Générale*” deitu bankuak, krisiatik ateratzeko Estatuak berriki bozkatu laguntzak eskuratu dituela baina ere denbora berean, Daniel Bouton, banku horren zuzendariak, azkeneko lau hilabete hauetan, erran nahi baita krisi denbora honetan erdiz-erdi, burtsatik milioi bat eta hirurehun mila euro sakelaratu dituela... Zer zaizu, irakurle ?

Ikusi nahi genuke egun krisi bortitz honek erroak non dituen, gure ustez bederen. Ez da lan errexa, diru merkatu horiek hain baitira korapilatsuak, tratulariek berak ere erdi itsurat ari baitira jakin gabe beren desafio etengabeen emaitzak zein izanen diren. Ipar Ameriketatik datorkigula arazoa, hori ezin ukatua da, mundu guziko diruzale amorratuen jokabide oiesak laguntzaile.

1980ko hamarkadan, Reagan kontserbadore handia buru, politika oso liberala eraman zuten AEBetan : zergak ttikitu aberatsenei, laguntza sozialak murriztu bertzei, merkatua osoki libro utzi, heldu baita oro har, indartsuenak zituztela aberastu (jendetzaren laurdena nonbait han), bertze guziak ahulduz zihoazelarik. Baina ekonomia kapitalista horrek ez dezake iraun kontsumismo orokorra indarrean atxiki gabe. Nola egin ordea jendearen eros ahalmena ttikituz baldin badoa? Nola egin? Kredituaren bidez. Horrela, jendea bultzatu dute mailegatzerat, edozein erosketarentzat, eta laster zorren pean gertatu da, zorren pean leporaino sartua !

Bankuak beren ahal guziez saiatu dira diruaren ‘saltzerat’, bertzeak bertze, bakoitzak bere etxearen erosteko, askotan, mailegatzailea diruaren itzultzeko gai zenez gehiegi behatu gabe. Arriskuen estaltzeko bankuen artean zernahi asmakuntza muntatuak zituzten, jadanik hain ulergaitza den diru merkatu nahasi horretan. Maileguz lagundu etxeak denak hipotekatuak zituzten bistan dena, horrela dirua prestatzean hartu arriskua ttikia edo batere ezekoa izanen zelakoan. Hots, amerikarrak zor ikaragarri baten pean jarri dira, airoski, artetik diru zama ederrik irabazten zutela, haatik zenbaitek...

Memento batez, maileguak ezin itzuliz (aferak makurtzen hasirik, interes mugikor haiek azkarki goratu zirenean), delako etxe hipotekaz bilduak gertatu dira salgai kopuru handiegian eta prezioak buruz beheiti egin

dute brauki ! Banku gotor batzuek leher egitearekin, sistema edo eraikuntza maingu hori guzia porrot izigarri batean errekarat uzkaile da...

Mingarriena da, herrialdeen arteko harremanak hain handiak izanik, batzuek bertzeekin estekatuak kasik, Amerika behaztopatzean, bertze guziek ere jasan behar dituztela haien erokeriak. Azken batean, gauzak doi bat sinpletuz beharbada, erran dezakegu kapitalismoak irautekotz jendea doi bat aberats atxiki behar duela. Baina aberastasun hori artifiziala bada goiz edo berant itzulipurdika eroriko dela guzia.

Dena den, krisi hunen ondorio latzak denek pekatu beharko ditugu eta ahulenek dute beti bezala gehienik sufrituko, Europan, Afrikan eta mundu guzian barna. Ekonomia erreala bultzatu eta diru-joko horiei muga zorrotzak ezarri behar litzaizkiela ez da dudarik.

Gogo aldaketa berri hori zabaltzen balitz jendartean politika gizon eta emazteek ere beharbada zerbait egin nahiko dute bide horretan eta gaurko ezinbertzeak ez lirateke debaldetan. Politikak behar luke ekonomia liberalari eta diruzaleei utzia zien lekua berriz hartu ; guhaurk ere, hemendik beretik, zenbatetan ez dugu errepikatu gauza hori ! Sarkozy abiatua da zerbait zuzendu beharrez. Zertarat helduko den, hori geroak erranen... ■

Ipurdia lastoz

2008-11-27

BISTAN DA gure irakurlearen kilikatzeko ezarri dugula titulu lagunarteko hori. Euskaldun berrientzat (zorionez, hainbertze bada orain gure artean), adiera zehaztuko dugu laburzki : ‘ipurdia lastoz’ duela erraten zaio zerbait egin beharko zuena ez eginik edo zerbait gaizki egin ondoan kontzientzia lasai ez duenari.

Lapurdiko herri gotor batean gertatua da hau, 1975ean edo 1976an. Lau-bortz urte lehenago ikastola sortua zen eta hogeita bortz bat haur bazeuzkan jadanik. Gau eskola baten sortzea ere aipu zen, kultura asteak eta abertzale talde bat ere lanean ari zen karraskan. Hots, euskaltzaleen lana hezurmamituz zoan. Zazpi edo zortzi urtetan egiten den ‘Komunione ttikia’ edo lehen ‘Jaun hartzea’, apailatzen hasiak ziren parropian.

Gure irakurleek badakikete, bertze alor guzietan bezalaxe, elizaren baitan ere euskararen alderako lana eta borroka eramaki dela etengabe Euskal Herrian. Eta huna non gurasoak biltzen diren komunione eguneko elizkizunaz hitzegiteko : zenbat euskaraz egin eta holako... Baina, euskaltzaleak usaian baino indartsuago agerturik-edo, ez zuten adostasunik lortu ahal izan bilkura hartan.

Biharamunean herriko erretorea badoa guraso euskaltzale horietarik batenganat eta erraten dio deblauki: “Hola denaz gero, bi zeremonia egin beharko ditugu : bata euskaraz bertzea frantsesez”. Ez zen holakorik behin ere ikusi ordu arte. Eta proposamen beraren egiterat badoakie guraso ez euskaltzaleei. Dena den, jakin behar duzue azken hauek arras gaizki hartu zutela apezaren proposamena, hainbertzetaraino non nahiago baitzuten azkenean elizkizuna osoki euskaraz egin zedin ezen ez eta euskaldunetarik bereiziak izan !

Euskaldunek beren hurrei ez dietelarik euskararik irakasten, maiz erraten dugu ezazolkeriaz dela. Hala da hein handi batean. Ordea, egiteko edo ez egiteko libertate oso horren eraginez, nork ez du bere bizian urrats ahul bat egin, gero berdin, ipurdia lastoz, dolutu zaiguna eta nolabait zuzentzen saiatzen garena ? Gertatzen dena da libertate osoa dugunaz gero irakasteko edo ez irakasteko, euskaldungoaren aberastasunari doi bat ohartua izan behar dela funski euskararen alde joateko, dakigularik zenbat lan eta ardura eskatzen duen oraino sail horrek.

Horiek hola, usaian erdaraz egiten diren ekintzak zertako ez antola bi hizkuntzetan ? Eta jadanik bi hizkuntzetan direnen artetik, zertako ez proposa euskara hutsezko batzuño ere artetan ? Eta gainean aipatu dugun kasuan bezala jendeak gogor ihardesten badu, marka ona da, euskaltasun zerbait bizi dela erakusten baitu. Eta hura dugu inarrosi behar.

Zaharrekin, kontuz, haatik! Gehiengoa euskalduna bada ere, zorigaitzez haustura bat baitago haien eta abertzaleen artean. Haatik, bada zaharretan euskararen atxikimendu guk uste baino handiagoa eta gazteek, zaharrei zor zaien errespetuz, haien hobeki ezagutzerat saiatu behar lukete gehiago.

Eta beraz delako haustura zertan datzan? Lasterrago aitzinatu beharrez, eta duela berrogei urte, omena gorenean zeukan marxismoaren eraginez, molderik bortitzenak onartzeraino joan direla abertzaleak, molde horiek euskaldunentzat, gutienetik arrotzak eta gehienez ezin onartuak zirelarik...

AEBetako beltzak gu baino hobeki atera dira, zurien eskubide berak lortu baitituzte, indarkeriarik gabeko borrokaz, Martin Luther King ezin ahanizizkoarekin eta, lehengo etsaia ere bereganaturik, beltz bat ezarri baitute gaur munduko Estatu indartsuenaren buru, horrelaxe koroatzen dutela beren mogimendu espantagarria !

Guk aldiz, bitartean, ez dugu Laborantza Ganbera ofizialik erdietsi, ez eta departamendu soil bat ere Lege Nagusiaren ahaletan eta denetarik onargarria izan zitekeelarik alta. Hori berriz ez bada gogoetagarria... ■

Ohorea galdu dugula

2009-01-22

EGIA DA nahiagoko genuela joan den larunbateko Ainhiza Monjoleseko bilkura aipatu luze eta zabal Euskal Herriko Laborantza Ganberari gure sostengu oso-oso aldarrikatzeko berriz ere. Nahiagoko genuen goretsi, luze eta zabal, “Urraska” dantza-antzerki sorkuntza bikaina, igandean, Baionan ikusi duguna... Bixintxo ere hor, neguko besta maitagarrienaren oroitarazle, Beskoitzen, Hendaian, Ziburun eta abar. Eta guk zer aipatu behar? Euskaldunek ohorea galdu dugula eta dolore minez gaudela !

Bai, ezin ukatua baita, ETAk euskal telebista zartagailuz jo ondoan euskaldunen ihardespina deusezaren heinekoa izan dela. Egia da ez dela hilik izan eta hilak direnean ere ez garela biziki gehiago higitzen Iparralde honetan segurik Hegoaldeko aferek hunkitzen ez bagintuzte bezala... Gaur euskal telebista jo dute, adierazpen askatasuna jo dute, baina oroz gaintetik EAJ jo nahi izan delakotz, alderdi ixtorio bat balitz bezalaxe hartu dukegu. Are makurrago, gazte batzuk entzun dira oihuka euskal telebistak merezitua baizik ez duela izan...

Isilik egote horrek oroitarazten digu Alemanian juduak arrastatzen hasi zirelarik askok egin zutela beren baitan: ni ez naiz judua, ez dut sudurrik sartuko afera zikin horretan! Eta naziek beretik jarraiki zuten, zernahi jende mota desberdin arrastatuz eta alemanak ez ziren anitz gehiago axolatu. Badakigu zer izan den segida. Ekonomia alorrean ere komertsante ttikiak eta laborari ttikiak liberalismoak desagertarazi zituen eta jendea ez zen higitu, gehiengoa ez baitzen oraino hunkia... Badakigu zer etorri den: gehienentzat, langabezia eta kapitalismo gordin baten dastatzeko aldia !

Milaka eta milaka dira herritarrak eguneroko euskal hazkurri bakarra euskal telebista dutenak. Iparraldean berean, errepikagailu haien muntatzeko bereziki, urrats eta lan asko egin izan da eta nahi genuke jakin zenbat ikusle garraizkion eta ez bakarrik pilota partida miresgarri haiek segitzeko edo bertsulari saioak...

Euskal telebista ez da ez perfeta baina lan handia darama euskararen batasunaren alde, hainbertzetaraino non Hegoaldean arrangura baitira batzuk ez dutela aski hango euskara erabiltzen eta zailtasunak dituztela ulertzeko berek, beren sakelatik ordaintzen duten telebista !

Eta guk hemen urririk holako tresna gozatzen dugunek, gainerat hoinbertze aldiz eta hain sanoki errezebitu gaituen euskal telebista utzi dugu ostikatzerat higitu gabe egonez sobera denbora honetan, eta gero erranen didazue zuzen ari garela? Arbuiatu bai egin ditugu askotan, hemendik beretik eta aspaldidanik, ekintza armatuak, baina gaitzetsi behar dira holako ekintzak eta goraki gaitzetsi, karrikan, milaka bildurik ! Asea dela jendea manifestatzen? Ez duela deusetarat aitzinaraziko gaitzeste batek? Zer

lastima, hori gogoratu bazaizu : galdua dukezu ohorea eta naski jendetasuna ere ; uste duzu isilik egoteak antolatuko duela arazoa, euskaldunek berek eraiki etxea harrikatzerat utzi ondoan ? Ez ote duzu ikusten gure isiltasunak duela sustatzen iparra galdua duen talde hori gero eta oiesago jokatzerat, anaien arteko egiazko gerla pizteraino ?

Egia da denbora berean, espainolisteek piztu itxuragabeko auziaren karietarat, ikusi ditugula Ibarretxe eta Otegi elkarri esku ematen, eta amets egin ere, bi gizon horien inguruan dauden ahalak gogoan : ahal horien uztartzeak ekarriko lukeen, ez indarren metatzea baina biderkatzea euskaldunen alde (eta gure ustez ezkerraren faboretan !).

Alta, gaur egun batasun hori ezinezkoa da zartagailu makiavelikoak alha direlaketz. Ondorioz euskal indarrak ahulduz doaz eta espainolistenak indartuz... Errekaz erreka gabiltza, hinki-hanka, zeinek bertzea behaztoparaziko duen, arranoak goian, itzuli-mitzuli. Gaixo Euskal Herria...■

“Oi gu hemen bidean galduak...”

2009-03-19

ASKOTAN ERRAN IZAN DUGU bidegurutze batean gertatzen ginela, baina gaur bertzerik dakusagu: gutienez, bidean galduak gara, non ez garen gibelerateko hartan sartuak gehiago dena... Ulertua dukezu bistan da, Hegoaldeko egoera dugula gogoan eta ez Iparraldekoa, berriki han iragan diren hauteskundeen ondotik. Horrenbertzez ez uste ukan Iparraldeaz espantuka hasiko garenik, ez baita zeren, Hegoaldearen eraginpean bizi baikara sobera, noiztenka, Abertzaleen Batasunean bereziki, han baino zabaltasun gehiagoz jokatzeko delako hemen uste badugu ere.

Horra beraz bazterrak jabalduak diruditela, denek onarturik bezala Patxi Lopez lehendakari ; aitzinetik PPk PSEri bere bozak ekarriko dizkiola goraki hitzeman du ‘aldakuntzari’ bidea emateko...

Lehenik eta behin, zorionak euskal erakunde armatuari bere helburuak lortu baititu. Alabaina, azkeneko denbora hauetan bere eginahal guziak egin ditu horretarako : PSOEko batzuk erahilez, haienganako atxikimendua pizteko heina eta joan den urtean, bere eskumakiletako baten bozari esker Madrilerat igorritik Ibarretxe bere xede goresgarriarekin batean han zangoz gora behaztopa zedin, gizagaizoa ! Bederatzi lagunetarik baten bozarekin igorri zuten, jostatzeko bezala, armadunen kutsu doiarekin, trufa baino musika handiago. Alabaina holako laguntza petralarekin zer egin zezakeen Madrilgo otsoen erdian? Han zerbait eskuratzekotz herritar batasun zabal baten izenean joan beharko zen eta ez zepoa zerion boz dohakabe harekin...

Zorionak ere Euskal Herriaren nortasun bereziaren etsaiei, haiek, ezkerreko eta eskuineko, prest baitira bateratzeko, usnatua baitzuketena bozaldi honetan ezker abertzale erradikalak suizidioa hautatuko zuela, bertze abertzaletasun moderatuagoko bat lagunduko zuen baino lehen.

Goraki gaitzesten dugu Madrilek D3M alderdi berria debekatu izana urrats bat bera ere egin gabe. Baina erabaki horren ondorio diren baliogabeko ehun mila boz horiek berdin deitoragarriak zaizkigu, beren alderdia lehenetsi baitute, Francoren umeak diren PPkoak Euskal Herriko aulki nagusietan paratzeko arriskua deplauki hartzerainokoan ! Harrigarria, ezin sinetsia, nehork munduan zehar ezin ulertuzkoa, hain beharrezkoa genukeelarik alta mundu zabal horretarik laguntza zerbait ; laguntza moral hori gabe ez baitugu nehoiz azkatasunik erdietsiko.

Orain egin ditzagun bertze gogoeta batzuk ere. Zer diozue hauteskunde hauen emaitzen ondotik? Alderdi batek (EAJ), alde handiz, irabazi ditu bozak baina bertze koalizio batek azpitik ebatsiko dio gobernatzeko eskubidea... Adiskideak, zuzentasunik ikusten duzue hor? Nik ez.

Bertzalde, zenbaitek, Iparralde honetan naski gehienik, bitxi kausitzen

dute Arabak Bizkaiak bezainbat ordezkari izatea. Eztabaidagarria da gaia, baina ikuspegi hori Iparraldetik mahaigaineratzea pixka bat harrigarri zaigu : izan ere, sistema horrek, biharko Euskal Herri bateratuan, emanen lioke Iparraldeari indar gaitza, 25 ordezkari Zuberoatik eta bertze hainbertze Lapurditik ! Ez ote litzateke hori egitura miresgarria preseski Hegoaldeak ez gaitzan irents hurrupaldi batean, gu, halako gibelapena hartua duguna eta beti hartzen ari ?

Bertzela, jeltzaleek oposizioan egonaldi bat egitea ez da beharbada osoki kaltekorra izanen hogeita hamar urtez botere bat eskuetan atxiki ondoan. Ezker abertzale erradikalak gehiago kezkatzen gaitu, berak sortu hikadegian sartua baitugu erroraino : 700 preso eta Espainiaren den gutieneko eskuzabaltasunik ez ageri eta borroka armatua ezin utz deus ordainik gabe, azkeneko hogeita hamar urteetako hil, pairamen eta zalaparta guziak deusetako izan direla onartzea bailitzateke!

El Salvadortik dator bide erakusle izan daitekeena : borroka armatua denbora labur bateko dela bakarrik eta armak utzi behar direla, on deno, eta behin betikotz, herritarrei hitza uzteko, hartako doia demokrazia baitago. Gerokoak gero. ■

“Lapurdi 1609-2009”

2009-04-23

SORGIN URTE HAU merezi duen bezala ospatzeko gisan, egitarau hornitua zabaldu digute Saran, Pazko astelehenez : 1609ko sarraskia ez ote da gure Historiako deitoragarrienetarik bat ? Laurehungarren urte muga honetan beharrezkoa zen beraz indar handi bat egin genezan argi poxi baten ekartzeko denboraldi ilun horretaz.

Bai, argi poxi bat, hoinbertze tetelekerien ondotik. Horretaratzeko zailtasunak, haatik, ez ditugu gordeko : De Lancre berak utzi xehetasunez kanpo ez baitugu gauza handirik eskuartean... Bertzetik berriz biziki zaila zaigu orduko pentsaeraz, orduko sinesteez, orduko bizi moldeaz jabetzea, hots, orduko euskaldunaren baitan sartzea.

Bada bertze zailtasun bat ere ez ttipia : Euskal Herri honetan zerbait antolatzen duten gehienak abertzaleak dira eta jaiduraz Historia sakontzeaz baino hartaz baliatzerat ekarriak dira, gure gaurko begiekin behatuz gehiago dena, abertzale xedeen eta ideien funtsa egiaztatzeko. Ez da sobera harritzekorik holakoak baldin bagara, Iparralde honetan segurik egoera txarrenetan lan egiten baitugu: instituzio mailan funtsezkorik deus ezin eskura eta genituen kaxkarrak ere (*Pays...*) galtzeko irriskuan Balladurren xedeek aurrera egiten badute !

Goazen gure sorginetarat edo bederen halaxe deitzen dituztenetarat, gai zabal horren itzulia egiteko ahalik ez badugu ere artikulu soil honetan. Sorginen arazoa mundu guzikoa da, eta egundainokoa. Euskal Herria baino gogorkigo zanpatuak izan diren eskualderik ere bada Europa honetan berean : interesgarri bailitzateke jakitea nola ospatzen dituzten haiek orduko odol isurtze ezin sinetsiak... Betidanik beraz gizonak sinetsi du gisa bateko edo bertzeko sorgingoan, magian edo zerbait gaiztakeria eragin edo zerbait gaitz heda dezaketenen boteredunetan.

Lehenik argitu beharretarik dukegu, Lapurdiko sarraskia ez dela Inkizizioaren lana izan baina lege zibil eta epaile zibil batek burutu izigarrikeria. Zugarramurdin aldiz Espainiako Inkizizioa zuten kondenatzaile, hiltzea edo/eta erretzea botere zibilari galdatzen zitzaizolarik. Inkizizio hori hain krudela zaigularik jakin behar da De Lancre epaile zibilak bigunegitza zeukala eta beraz hark Inkizizioak baino gogorkiago jokatu zuela Lapurdin !

Lapurdiko emazteen nortasun handia azpimarratzen da maiz eta zuzen zaigu. Baina gure lege zaharrek, hain eraginkorrak gertatu direnak gure izatearen, gure lurraren eta gure etxaldean gerizatzeke, nolako euskalduna sortu ote dute?

Oroit lege zahar eta ohitura horiek sekulako erantzukizunak zirela ere, anitz sakrifizio eskatzen baitzuten ezkontza mailan, zahar-gazteen arteko

elkar bizitzan eta abar. Ondorioz daukagu Euskal Herria gizon eta emazte bortitzez betea zela : berentzat bortitzak eta ingurukoentzat halaber. Gogorki hezia : ikus zer arrakasta zuen euskaldunak lanbide edo lantegi nekeetan, arrantzan, balea ihizin, Ameriketan...

Miseriaren aitzakia aipatua izan da soberaxko gure ustez. Ez bide zen Lapurdin, inguruko lurraldeetan baino miseria gehiago. Arrantzaren ekarpenaz gain, Errobi eta Urdazuri ibaiaren inguruko lurrak emankorrak dira eta oihan aberatsak baziren Saran, Senperen, Uztaritzen eta abar. Lapurdiko etxe eder horietarik asko ere eraiki zituzten mende berean, gutiak baitira, egungo egunean ere, holakoen eraikitze ahala luketenak...

Zerk eragin zuen bada hola erauntsia gogorra? Larri-larria, badira bi iritzi lehian, zabalduraz desberdinak. Gehienek diote lapurtarrek ez dutela deus makurrik egin : Frantziaren batasuna finkatzeko asmopean, hemengo ohitura bereziei jazarri zitzaientza De Lancre hiritarra eta gogo hertxikoa. Bertze batzuei, berriz, hori ezin sinetsia zaie eta diote deusetarik ezin dela holako zapalkuntzarik erakarri ; Lapurdiko emazte zenbaiten azkatasuna urrunxko joan zela menturaz, belarkietako jakintza lagun, gizonak itsasoan...

Ea, erahilak ohoratzearekin batean auzi hau ere argitzen dugun izpi bat... ■

Izorratu gaituzte

2009-05-14

GAUZA AGERIA DA izorratu gaituztela berriz ere. Begira, Patxi Lopez lehendakari berriaren kargu hartze kari, Espainiako Gobernuko, Armadako, Poliziako eta Guardia Zibileko buru batzuk, nolabait Francoren alderdikoak diren PPkoekin, haltoki, Gernikan bilduak, aurreku eta “Gora ta Gora Euskadi” himnopean !

Ez da haratik ez hunatik, bertze izorraldi bat ederra jasan dugula erakusten du horrek. 1936an lehertu gintuzten baina sozialistekin geunden, erran nahi baita Espainiako gehiengoarekin ! Ez da guti ! Baina geroztik makurtu gara haiekin dakigun arma erokeria batzuegatik eta Madrilen arerio amorratu dabiltzanak Euskal Herrian elkarri esku eman dute gure hezteko, gure burujabetasun tirrien lehertzeko.

Euskal Herriak baduela holako bat ikusirik? Edo eta berdin egoera honetarik abertzale indarren hurbilketa bat atera daitekeela ? Hori bertzerik da. Baliteke botereak berekin dakarren delako mistikak edo, Euskal Herriko sozialistak doi bat euskaldunagotzea, Katalunian noizbait gertatu bide zen bezalatsu edo. Euskararen mailan, adibidez, ez dugu uste egin den lan guzia lurrerat bota nahiko dutenik, nahiz arranguratzeko arrazoiak ere badauden. Gaurko egunean nekez jazar dakioke euskarari, agerian bederen ; eta euskara izan daiteke euskaldunen arteko lokarririk hoberena, berriz bateratzaile sendoena.

Gogoan atxiki behar da ere PPk eta PSEK egin duten akordioa soilik lehendakariaren hautatzeko izan dela eta ez dagoela gobernu akordiorik. Hori bera ere aski gogoetagarria da berez ; ezen Patxi Lopezen jaurlaritzak gobernu ahul baten itxura guziak ditu : batetik Madrilgoen geriza behar du irautekotz eta bertzetik PPk atxikitzen du lepotik bere interes politikoen arabera. Gisa guziz egoera berri baten aitzinean gaude. Nork daki norat goazen ?

Horrek berriz ere garamatza hauteskunde sistemaz hitzegiterat. Askotan erran izan dugu, EAEko bozketa sistema Iparralde honetan duguna baino zuzenagoa zaigula. Eta zuzenagoa da eiki. Onar dezagun, ordea, zuzengabekeriarik ere eragin dezakeela : EAJk irabazi ditu bozak eta alde on batekin baina bertze koalizio batek azpitik badaramazkio lehendakaritza eta gobernu... Nun da hor hauteslegoaren errespetua ?

Jes, zertako ari gara sistema horren jorratzen, gu berriz, ez ahal dugu sistema soilaren gain emanen euskal indarren porrota ? Zeren eta euskaldunek izan balute espainolek muntatu zepoaren saihesteko aski adimendu, elkertasun, malgutasun abil batekin, ez baikinaren garen lekuan izanen...

“Xuri” bozkatu duten ehun mila lagunek edo hobeki errateko xuri

bozkarazi dutenak dira egoera hunen egileak azken finean. Hori ere zintzurrean kokaturik dagokigu. Ez zutela beren gogokorik hautetsigaian bihirik ? Ori, guk Iparraldean, bakarretan gertatzen zaigu bozkatzea, erdi gogoko baten alde, bertzerik ezinean hemengo bigarren itzuli hura dela eta !

Lotsarik gabe zuzentasuna zangopilaturik, Espainiak asmatu du zepoa eta erdietsi ditu bere helburuak : ezkerreko erradikalak joko kanpo ezartzea eta EAJ, gotorlekua, gaurko euskal indar nagusia, belaunikaraztea. Horretan laguntzaile izan du erakunde armatu jukutrialaria. Hainbertzetaraino non azken batean ez baitakigu espainolisten zepoan erori garen ala ETArenean, aspaldian hunek ez zuena EAJren humiliazioa bilatzen ?

Hots, zer indar xahutzea gertatu dena berriz ere ! Aldiz, zer heldutasuna, zer abilezia ez zuten erakutsiko gogorrenek xuri bozkatzerat hertsatzeko orde utzi balute jendea bere gogoaren arabera egiterat... Gogortasuna gogorkeria bihurtuz, galdu da aukera bat gaitza, bat gehiago, egunsenti ederrenen lehen urrats izan zitekeena ezkerarentzat eta beraz Euskal Herriarentzat... ■

Emaizta gordeak eta bertzeak

2009-06-12

JOAN DEN IGANDEKO Europako hauteskundeen ondotik erran dezakeguna da emaitzek ez dutela agertzen Abertzaleen Batasunean, EAren parte hartzea barne, egin den lanaren eta deien ekarpen handirik. Deitua genuen Europe-Ecologie taldearen alde bozkatzerat, sustengu zerrenda ohargarria lagun. Alderdi hunek sekulako arrakasta izan du Frantzia mailan, Estatuko hirugarren indar politiko bilakatzerainokoan ! Ekologistek ez dute nehoiz holako emaitzarik lortu. Inguruko Estatu eta Erresumetan ere berdeen arrakasta nabaria izan da, loriatzeko arrazoinik ematen digula horrek.

Emaizta gordeak, gureak, ekologisten zerrenda baitan, zeren-eta Euskal Herrian eskuratu boz kopuruak ez baitira bertze lekuetan erdietsi direnak baino anitzez hobeak : aitzitik, hemen baino emaitza hobeak ere lortu dituzte zenbait lekutan... Iduri luke gure lagun zenbaitek nahiago izan dutela, azken finean, ikurrina bat zekarren alderdiaren alde bozkatu, ABren joera ontzat emanik ere. Funtsean, duela bortsu urte ere gauza bertsua gertatu zen. Ondotik, haatik, ederki baliatu dira denak Gérard Onesta hautetsiaren laguntzez, hau guziz leiala gelditu baitzen bere xedeen, bere laguntzaile eta lagundu nahi zituen guzien alderat.

Aitortu beharrean gaude ere krisi ekonomikoa bete-betean jasaiten dugularik, krisi hunen hobendun lehenak berriz ere hautetsi dituztela eta kargutan ezarri, Europa gehiengan ! Ezkerrak eta sozialistek ez dute lortu egoera hunek, iduriz, eman ziezaiekeenik. Gogoeta lazgarria ! Horrek erran nahi ote luke jendeak ez duela sinesten gehiago ezkerraren baitan arazo larrien zuzentzeko, hunen proiektua demagogiaz betea litzatekeelakoan-edo ? Egoera gogorretan, gure konfidentziaren merezidun bakarra eskuina balitz bezala, ezkerreko legokeelarik garai oparoagoko batzuetan metatu aberastasunen banatzeko gai doi-doi ?

Egia erran lehen ere gertatu da holakorik. Gogoan dugu 1968ko nahasmendu izigarrien ondotik gertatu zena. Hamar urte hartan, gaulistak ziren boterean, gehiengo murriz batekin maiatz hartan. Ekainean egin ziren hauteskunde ezohikoetan haatik gaulistak airez aire iragan ziren berriz eta gehiengo aise zabalago batez jabetu ! Horrek ez du erran nahi 1968ko maiatzak ez zuela deusik ekarri, aitzinamendu asko bideratu baitzen nahiz horien zenbaiten ondorioez baden erratekorik ere...

Huna beraz gogorat heldu zaizkigula orduko zalapartak eta horien pizle eta kudeatzaile ezagutuena, Daniel Cohn-Bendit, hain xuxen gaurko Europe-Ecologie taldearen aitzindari ospetsua ! Ez omen da orduko bera, hala dioskute gehienek ; orduan han nonbait baitzegoen anarkisten lerroan-edo. Geroztik, jitez beti berdin sutsua badago ere, badirudi bide klasikoagoko batetarik badabilkigula. Ageriko.

Baina berri atseginik baldin bada José Bové-k eurodiputatu aulki bat

eskuratzea izan da. Geure burua hunenganik askoz ere hurbilago sentitzen dugu. Hauteskunde presidentzialetan egin zuen petto bat, laguntza xumeegi batekin lehian sartu baitzen, emaitza txar bat lortuz azkenean. Aldi honetan, haatik, denak ontsa itzulikatu zaizkio, haizea errotik alde gertatu zaio eta itxaropenez betetzen gaitu hautespen horrek, alde askotarik.

Baikor gaude beraz : gure ezkerrean eta eskuinean ere abertzaleek boz andana ederrak lortu baitituzte, guk karraskan goiti doan frantses alderdi batean zangoak sartzen ditugularik. Emaitza ageriek eta gordeek elkar osa dezakete. Esperantza dugu gorde hauek emankorrak izatea : ereiaroan lurrean estaltzen den haziaren gisarat fruitu ekar dezan.■

Besten artetik, borrokarako deia

2009-07-09

HARRIGARRIA DA Euskal Herriak batzuetan erakusten duen bizitasuna. Iparraldean gaudela, huna doi-doia bururatu diren bi besta edo elkarretaratze handi. Joan den larunbatean Espeletako lasterkaldian hiru mila lagun baino gehiagok parte hartu dute lehiaketan edo bertzalde antolatua zen ibilaldian.

Besta giroan iragaiten den zangozkakoen biltzar horri arrakasta urtetik urterat goiti doakio. Frantzia guzitik datoz orain, aise urrunagotik ere heldu direnak bertzalde. A zer ikusgarria Mundarraingo bidexketan gora doazelarik horiek guziak ! Badu merezimendu Gabi Etchart batek holako animazio sorturik eta holako zabaltasunerat eramanik.

Are miresgarriago aurtengo Euskal Herria Zuzenean Heletan iragan dena asteburu honetan guzian arrakasta itzela lortuz, bertzeak bertze, Manu Chao eta Fermin Muguruza musikazale amorratuen inguruan. Zer gauza ederra Heleta bezalako herri polita, euskal olde bestazale batez mukuru betea: hamabi mila gazte eta adineko hor kokaturik, behin segurik ! Plaza nagusiaren animatzea eginez gainerat : errotik sartu baitira guziak euskal gazteen asmo eder horretan...

Eta hor dugu ere Errobiko Festibala Itsasun ospatuko dena uztailearen 16tik 19rat. Hor ere badakigu Beñat Achiarik eraman duen lan handia. Ahantzi gabe zuberotarrak ere ari zaizkigula pastorala baten apailatzen. Hots, lerro hauetan maiz gaizki doanari leku handia ematen baitiogu, beha dezagun artetan hodei arteei ere ! Uztaile lagun, balio du kultura saileko uzta eder horretaz goxatzea.

Horiek guziek, alabaina, fruituak emanen dituzte politika mailan. Funtsean euskalgintzan egin daitekeen lanik emankorrena dateke hain xuxen kultura elkarretaratze eta euskal besta handi horietan jokatzeko. Gaitzak bilakatzen ari baikara horien eraikuntzan eta antolakuntzan !

Dena den, euskal alderdi politiko eta bertze zenbait erakunde ekonomiko eta sozialek ez dute ahanzten Euskal Herriak instituzio propioak behar dituela bere izaitea finkatzeko eta garapena aitzina eramateko.

Aldi honetan Errepublikako presidentak berak du giroa piztu, instituzioei buruzko borroka nola segitu behar zen hausnarketan ari zirenen sustagarri : “Martinikarrak, zuen lurraldeko instituzioen bilakaeraz galdeketa egiteko xedea dudala argi eta garbi jakinarazterat etorria natzaizue” erran baitu Sarkosyk joan den hilabetean ! Eta hangotzat on dena, zertako ez litzateke zilegi hemengotzat ?

Euskalgintza, urriaren 24an Baionan egitekoa den DEIADAR manifestaldia prestatzen ari da, Euskal Herriko Laborantza Ganberako lagunek dei auzia begien bistan daukatelarik.

Batera-k, 2002ko abenduaz geroztik haren dinamikan parte hartu duten elkarte, mugimendu eta pertsona guziak Biltzar Nagusia handi batean parte hartzerat gomitatzen gaitu, Ezpeletako merkatu estaliaren ondoan, uztailaren 11n, larunbatarekin beraz, bederatziak eta erditarik goiti. Han, ondoko hilabetei begira ere, ekimen zehatz eta mobilizazio berriak proposatuak izanen zaizkigu, bertzeak bertze, herrietan galdeketak antolatzea 2010eko martxoko Eskualdeetako hauteskundeen karietarat. Helburu nagusia beti bera : euskal instituzio baten beharra ozenki adieraztea.

Oroitaraz ditzagun Batera-ren emaitza ohargarri batzuk. Haren lanari esker 2005ko urrian Euskal Herriko auzapezen %64k euskal departamenduaren aldeko galdeketa egitearen alde agertu ziren. 2006ko urrian 21.000 sinatura bilduak baziren jadanik xede horren alde, bortz hilabetez beraz ! 2007ko martxoan : 26.000 sinatura eta lehendakari hauteskundeetarako 21 hautagaietarik 11 galdeketaren alde. 2008ko martxoan : 34.000 sinatura bilduak, heldu baita hauteslegoaren %15ak sinatu duela !

Sail guziz baliosa, orain denek batean bururaino eraman behar duguna.



Jabetasun eztabaidak Senperen

2009-08-06

GURE ASPALDIKO IRAKURLEAK oroituko dira duela zenbait hamarkada izan ziren liskar handiez Senpereko larre eta oihan batzuen jabetasunaren gainetik. Bi elkarte saiatu ziren Herriko Etxeak desjabetu nahi zituenen laguntzerat: ADPALAA, Lakuko aferan (112 hektareatan) eta Senpereko Gure Lurak gaineratiko eremuentzat. Ikus horretaz agertu lerro luzeak Enbataren zenbaki hauetan: 20-11-1969; 24-06-1970; 09-12-1970; 01-12-1983; 12-01-1984; 17-05-1984; 21-03-1985; 05-02-1987.

Nahi ala ez historia izpi bat egin behar dugu urrunago joan aitzin, zifreak larri-larria emanez. Senpere, frantses Iraultza Handiaren alde jarri zen 1789an, deplauki, handi eta ttipi, apezak barne! Inguruko herri gehienak aldiz, Sara, Azkaine, Ainhoa eta bertze, Lege Zaharrari leial zegozkiorarik. Senperetik gaur 6.500 ha dauzka eta, Iraultza aitzin, bere oihana Euskal Herriko handienetarik zen, 2.500 bat hektareatarat zabaltzen zenaz gero. Oihan horren jabeak “etxeko jaunak” Lapurdiko Lege Zaharren arabera.

Baina iraultza giroak sustaturik, 1793ko ekainaren 10eko legearen arabera, eremu batzuk partekatu edo banatu zituzten beren artean, heldu baita Herriko Etxearen izenean gelditu zirela bakarrik 1.000 hektarea lehen kalastra egin zelarik 1810ean. Jakin behar da ere, laborariak bereganatu zituzten lur zatiak, sakabanatuak zirela, han-hemenka, herriko lurren artean, mosaika bat bezala osatuz.

Auzi garrantzitsuenak. Lehena, 1828an. Blaise Goyeneche orduko auzapezak auzitegiatarat jauki zituen 130 bat lur jabe baizik-eta eginak izan ziren banaketa haiek ez zirela legezkoak. Auzia galdu zuen. Baina Herriko Etxea, legeak errespetatu gabe, “*régime forestier*” delakoa ezartzen saiatuko da eta oihantzainen mehatxupean, emeki-emeki, delako eremu banatuak ere beretzerat saiatuko da.

Bigarren auzi handia, Lakukoa, 1964-1972. Cami turismazale fama handikoak piztu zuen sua Lakuaren egiteko lurra salduz (herriko lurak eta partikularren lurak), bi sotesan gehiago dena, etxegile bati.

Laborariak irabaziko dute gozamina (*droits d’usage*) nehoiz gozatzen ahalko ez dutena! eta galduko jabetasun hutsa (*nue propriété*), nolabait errateko. Auzi hau ADPALAA-k kudeatu zuen eta gaulisten eraginpean zegoen justizia latza pairatu behar ukan zuten.

Hirugarren auzia Paul Jorajuria Bernateneko zenak eginen du Senpereko Gure Lurak elkartearen laguntza osoarekin. 12 urte iraunen duen borroka gogor bat (1975-1987), Herriko Etxearen eta “*Office National des Forêts*” delakoaren kontra. Auzi honetan osoki aztertuko dira lehen aldikotz Herriko Etxearen eta partikularren dokumentuak: kalastra, “*régime*

forestier”, notario kontratuak eta gozamina. Jorajuriak irabaziko du, ez bakarrik gozamina baina jabetasun oso-oso.

Lehenik partikularren alde jokatu ondoan, auzapez iragan bezain laster Espona ere Cami-ren ideietarat itzuliko da 1977tik goiti. Gaurko auzapeza, Bessonart andreak ere, bide ber-beretik doala jakinarazi du, idorki, joan den hilabete horretan.

Senpereko Gure Lurrak taldeak bi aldiz antolamendu orokor bat proposatu du, azkena 1989an. Baina Herriko Etxeak, ez du holakorik aditu nahi, ez atzo ez egun ; denbora lagun duela, azken ihardukitzaileak noiz desagertuko diren beha dago bere gisako tratu bat onartaraziz amore ematen duten guzietan. Liburu baten egitekoa bailitzateke, egia erran, horietan guzietan.

Uda honetan haatik Peitxenbordako Erremundeguy familiak ez du onartu belaunikatzerik : 8 haurrideak (zenduaren haurrak ere barne baitira) batean jazarri zaizkio Herriko Etxeari, beren lau hektareen zaintzeagatik, zuzentasun osoz gure ustez, jabetasun agerietan baitabiltza, egundainotik familia horrek bakarrik erabili duen luraren jabetasuna begiratzeko. Zorionak gure partez ! Lagunduko ditugu. ■

Gibleko estalkian :

1989ko Herriko Etxeko bozetan, lehen aldikotz abertzaleek talde bat osatu genuen Senperen eta, GURE HERRIA deiturik, arrakasta pollita eskuratu ere.

Argazkian, aurkeztu ziren batzuk, familiako eta laguntzaile zenbaitez inguraturik :

Dominika Olacireguy,
Henri Duhau,
Pierre Bugnon,
Ernest Etcheverry,
Peio Chipy,
Marie-Carmen Dunoguez,
Jojo Lahetjuzan,
Paxkal Bourgoin,
Mixel Mendiboure,
Jean-Paul Gobet,
Louis Jorajuria,
Auxtin Zamora,
Dominik Larretchea ⁽⁺⁾,
Panpi Erremundeguy.



HORTZAK IZERDI

Liburuaren gibleko estalia

GEHIGARRI A / SUPPLÉMENT (2020)

- Graxi Solorzano eta
Mixel Itzainaren hitz hunkigarriak**
- Beskoitzeko gazteria**
- Ahaide eta familia**
- Lur berri egiten**
- Euskaldun Gazteria**
- Senpere**
- Euskal Dantzarien Biltzarra**
- GURE HERRIA eta politika**
- Hirigintza**
- Euskara eta Euskaltzaindia**

(2015eko udan)

Egun on Henri,

Goiz huntan bururatu dut zure liburuaren irakurketa, "HORTZAK IZERDI", ez dut hurrupa ttikika edan, itoka baizik !

Enbatako zure artikulua bat banazka ateratzen zirelarik irakurtzen nituen baina bilketa hori zinez aberatsa da.

Euskal Herriko historian erreferentzia xuxena eta sakona baita, hamar urte horiendako bistan dena. Ahantzi gabe lehenago idatziak.

"Marrazkilari supitx", 2006an idatzia, berdin berdin idazten ahalko zinuen aurtengo urtarril goiz batez... (*)

Egunak eta egunak, gure beharriak tutatuak "Je suis Charlie" alde guzietan eta begiak minberatzeraino ere, Charlie Hebdoen erosle ez izaita kasik anormal bat bezala ekarria baitzinen... Gero etorri dira noizbait bertze galdera batzu artikulua hortan zuzenki egin ditutzun bezalakoak : "Noiz gelditzen da...?"

Euskadi Irratiko kazetari bat menturatu zen erraitera: "Eta neretzat sakratua ez dena beste batentzat hala balitz ? Hortan da dena nik uste.

Bego hortan. Liburua hestean berriz ere galdera edo eskakizun bat etorri zaut gogorat eta serioa: Henri, zure idazteko eta filosofiatzeko ahal handiekin, gainera beti zure fede pindarra ageri da artikuluetan, zure toki guzia bazinuke "Jainkoa, bizia, jendea" HERRIA astekariko zutabea.

Urtean hiruzpalau aldiz zure izena ikusiz segur naiz gogotik irakur lezaketela frangok zure luma xorrotx bezain aberatsa, euskararen eta edukiaren aldetik. Beñat anaiak aspaldi errana daut hori eta Peio Jorajuria bat [Idazleburua, ndlr] ez liteke batere samurtuko zure siñatura ikustea astekari hortan.

Henri, ainitz baduzu emaitako.

Pasa egun on eta bi pott bieri.

Graxi (Solorzano, azkaindarra)

(*) Enbatan agertu artikulua hori, HERRIA astekariak berriz argitaratu du ez hain aspaladi.

Milesker handi bat Graxi. Zure olerkari sentiberatasuna banu ? H.D.

2016-02-05

Itsasutik

Adiskide,

Zahartzeak deus onik ez. Orain dela zenbait hilabete igorri behar nian gutun hau, eta egun bakarrik igortzen !

Alabainan hire “Hortzak izerdi” hori iragan maiatzean helarazi hautan. Eman diat denbora edo hartu diat denbora, hire 100 artikulu horien irakurtzeko : egunean bat ! Lekukotasun gaitza emaiten daukuk hor. « Bakartasun handiak jasan dituen baten barne barnetik heldu ziren garrasiak, herriaren maitasun hutsez ! »

Erraiten dukana eta hortakotz darabilkan euskara ederrakdituk. Euskara barnetik bizi behar da « trinko » horren indarra ezagutzeko.

Gainerat bakanak dituk abertzaleak, J.L. Davant-ez aparte, beren giristino fedea eta hunen ekarpena aitortzen dutenak plaza publikoan.

Bertzalde hoinbertze urtez ETArek bortizkeria salatzea, arrazoin huela... orai gertatzen denak, politika mailan, erotik egiaztatzen dik.

Eder duk, hoin luzaz, abertzale irautea ! Astez aste aritzea beretik, urteak eta urteak, bere gogoeta eta sendimenduak agertzen.

HERRIA kazetan behar huzke artikulu batzu agertu. Beharbada « Jainkoa, bizia, jendea, » sailean. Nik gogotik irakurtuko hintuzket.

Hor artikulu batean aipatzen duk Lurdeko biltzar famatu hura eta han eman nuen bertsoa. Ez diat hortaz oroitzapen izpirik. (*)

Nere memoria urteek ereman die ; bainan oraino ez dena, beharrena hor diat, beharrenari gero eta gehiago lotzen nauena.

Berriz ere onar nere miresmena, hoin hurbildik sarturik eta kuraia handiz gure Euskal Herri maite hunen bizi korapilatsuan eta hori hoinbertze urtez!

Goraintziak andreari ere : agian osagarri onean zarezte.

2016 urte hau izan bedi zuentzat eta zuen familiarentzat urte emankorra sail guzietan.

Hire adiskide Mixel [Itzaina].

(*) NDLR. Ikus 168. orrialdean.

Milesker Mixel, burtxoraturik uzten nauk holako hitzekin. Eta otoi barkatu, hire idazlan eta mintzaldi ezin sakonagoak irakurri edo entzun ondoan ez baitauiat nehoiz deus idatzi. H.D.

1925



1925. Beskoitze. Elizako kantorea, Jean Laxalt jaun errektoraren inguruan.

Ama hor da. Aita ez.

Ikus argazki honetako gazteen izenak 1993ko HASIAN HASIn.

Han daude ere bai geroztikako Beskoitzeko gazteen argazki eta izen batzuk.

© D.R.



1938. Otto Janpiarri eta ttantta Helenaren ezkontza. © D.R.

Gure buraso, arbaso eta auzoetarik zenbait ikus daitezke, otto Janpiarri Lafourcade (amaren anaia) eta ttantta Helena Duhau (aitaren arreba) ezkondu zireneko argazkian.

Janpiarrik bere ama galdua zuen, goraxago erran duguna [Mañeñe Lafourcade Olhatz] eta haren nolabait ordaintzeko hor dago gure ama zena jaun esposa eta anaia zuenaren eskuinean.

Helenak aldiz, aita galdua zuen [Xalbat Duhau], goraxago aipatua hura ere, eta haren ordain bezala gure aita zena hor dago andere esposa eta arreba zuenaren ezkerrean. Horra zertako diren gure aita eta ama bi esposen bi aldeetan.

Gertakari arraroa: Duhau anai-arrebak [Piarres eta Helena] ezkondu ziren Lafourcade anai-arrebekin [Xane eta Janpiarri]: Duhautarrek aita galdua zuten eta Lafourcadetarrek ama... Horra esplikazioa.

Nola egon, gure haritik doi bat baztertzea bada ere, hitz bat erran gabe argazki horretako eskuin-eskuinean xutik dagoen emazteño horretaz. Hori dugu Aña Berhonde sortzez Duhau, orain aipatu dugun Xalbat Duhauren arreba.

Izaba Añak, bigarren haurren sortzetik (Guillaume), ustez azkenetan zela, agonia ezkila jo zuten Beskoitzen. Baina jalgi zen ateka txar hartarik eta bertze zazpi haur ukan, ez nolanahikoak ! Eta zendu zen 107. (ehun eta zazpigarren) urtean!!! Ba ote da anitz gehiago zahartu denik Euskal Herrian bederatzi haur hazi ondoan ?



© D.R.

1938. **Aita-alabak:** aitatxi Jean Lafourcade eta ene ama zena.

Elkarri biziki atxikiak ziren familian. Ontsa egiterat ekarriak beti, otto Janpiarri barne.

Prestuak, baina beren buruen zaintzeko ez zuten nehoren beharrik.

Omore handikoak ziren eta badugu zenbait irri eginik etxean... nihaurre ez bainintzen azkena....

Amak erran zidan behin: “Hik, mutikoa, iguzkia ekartzen duk etxerat”.

Aitatxik azken hiru urteak ohean iragan zituen eta amak artatu zuen ezin hobeki.



© D.R.

1938. **Ama-semeak:** amatxi Mañeñe Duhau, sortzez Ospital, eta ene aita zena.


Biak bortitzak baina zer bihoztunak! Elkarri biziki atxikiak ziren: hainbertze lan bazuten eginik, bata nola bertzeak, beren familien hazteko!

Aita irakurtzale amorratua zen, bertsulariak biziki maite zituen eta kantua ere bai, funtsean, familiako gehienek bezala.

Amatxik, azken hiru urteak paralesiatu iragan zituen eta bere alaba ttantta Helenak, bere ahal handiekin, artatu zuen zinez perla bat bezala atxikiz bururaino.



Nor ote da mutiko hori? 1942an sortua da, zazpi haurridetarik 5.a.
Sei urte et'erditan abiatu zen eskolan. Zertifikata iragan zuen 13 urtetan baina maila hortarat heldua zen bi urte lehenago. 14-17 urte zituelarik Garroko laborantza eskolan asko ikasi zuen zenbait astez. Gazte zelarik euskal teatroaz, euskal dantzaz, Euskaldun Gazteriaz eta herriko pesten antolatzeaz okupatu zen 10 bat urtez. Doi bat gastatua izan da beti bai burasoen aldetik bai eta anai-arreben partetik ere...
Milesker guzieri ! © D.R.



25.000 jeunes réunis du monde entier. 61 pays représentés.
Mundu guzitik 25.000 gazte bilduak. 61 estatu ordezkatuak.
Ikus argazki bat ondoko orrialdean.



La JAC du Pays Basque au Congrès du MIJARC à Lourdes, les 27, 28, 29 Mai 1960.

ESKUALDUN GAZTERIA Lurden, MIJARC-en Biltzarrean, 1960ko maiatzak 27, 28, 29.

Gainean, ezkerretik eskuinerat : Pierre ICHAS, Gaby LARRE, Henri DUHAU, Gérard BERHOCOIRIGOIN, Pierre OXOTEGUY, Michel ITZAINA, Arnaud ETCHAMENDY, Beñat AHAMENDABURU, Louis LAGOURGUE de Bergouey (laguntzaile), Gratien (?) LIGUEIX.

Erditan, belauniko : Michel CACHENAUT, Cécile SALHA, Mayi CHABALGOITY, Maite EYHERAMENDY, Marie-Rose JAUREGUIBERRY, Irène ERRAMOUSPE, Marthe MENDIBOURE, Xavier BOLOQUY, Jojo ETCHEBARNE.

Beherean : Angèle HIRIART, Marguerite IBAR, Clotilde ARRAMBIDE, Jeanne GURRUCHAGA, Geneviève GARAT, Annie SAINT-JULIEN, Ketty LARRONDE, Mayi APESSETCHE.

© Argazkia : Gaby Larre.

Ikus parte hartzaileen izen guztiak « Laborantzatik hobeki bizitzeko » Gachiteguyren liburuan.

"GAZTE" 1960eko urtarrila. Euskaldun Gazteriaren ikastaldiak Garron.

BERTZEAK EZ BEZALAKO ESKOLA BAT

Aste bat etxetik kanpo

Abendoaren 12-tik 18 artean egin dugu « stage de culture générale » bat, Garro-ko eskolan. Hamalau gazte ginen Eskual-Herri guztitik.

Ikusi dugu gure izpiritua nola behar dugun argitu, baginuen eta badugu oraino beharra.

Egin ditugu bi inkesta, lehenik Lekorne herri guziaren gainean, ikusteko hango jendea nola eta zertarik bizi den. Bigarrena, hango familia batzuen gainean, ikusteko zertan diren etaldeak, zahar-gazten arteko molde eta gainerateko.

Ortzegun goizean pasatu daukute « Viva Zapata » filma ederra. Gero Dufour jaunarekin jutu dugu, eta solastatu gila filma baten egiteko maneraz.

Aratsaldean, De Monzon jauna mintzatu zauku teatroaz : zer den teatroa, nola egiten den eta zer den ikusgarri bat.

Gero guhaurek egin dugu entsegu bat prestatuz pieza titiki bat eta emanez jaun horren aintzinean. Aratsan ikusi dugu Mugari tiro, Larzabal apezaren ikusgarri ederra, Hazpandarek emana.

Ospital, Aiherrako jaun meraren solasa izan da konferantzez eta horien prestatzeko moldeak. Erakutsi dauku nola behar den mintzatu jenden aintzinean.

Charriton Izturitzeko jaun merra bere andrearekin etorri zauku gure alde batzueri errepustu emaiterak, bereziki familien altxatzeko maneraz.

Jean Etchepare gazteak erakutsi dauku kaseta baten egiteko

moldea eta nola egin behar ditaketen artikulu bat.

Astea ongi bururatzeko izan dugu erretreta labur bat. Aita Léon Beneditanoarekin, Horien denen buru zen, Hiriart-Urruty gazten omonier maitea.

Ez dugu segur urrikirik hola-ko aste bat elgarrekin pasaturik. Agian heldu den urtean multxo haundioa izanen gira.

Gabriel ARAMENDY
eta Martin ZOZAYA.

IKUS ETA IKAS

« Stage » hortan ikasi dugu nola « so egin » munduko biziari eta erakuspenen obratzeko, inkesta bat egin dugu Lekorne herria zertan den mintzatu. Bi andanetan joan gira, batzu Meriarat, besteak Lekorneko erretoraren etxerat.

Ohartu gira herria husten ari dela. Gazteak badoatzi kirirat. Zazpi urte under hotan, 31 ezkontzearik, zazpi bakarrik dira herrirat egin. Bestalde badira

sinhiiz karlos eta muturdiñ. Ehortze gehiago bataio beno. Herriak suntsitzen ari dela iduri. Elektu ditugun fameliaririk jakin dugu ainhitz burhasoek kurale guti dutela geroari buruz, beren haurrak hola ihes positon ikustearrekin. Gelditzen diren nekatoak ere lan beharretan faltar dituzte, sasoin egiterat joaten baitira. Etralde utzi horiek erakusterat emaiten dute aitamak zahartuta gazterik ez dela etzeke lanen segitzeko.

gaztek, aste guzian lanean ari-zan eta, libertzeko manera guti dute, nun ez diren joaten Hazpandarek beren motogtan. Mutikoek eta neskek gurutzamendu guti.

J.A.C.-ko bilkuretan ibiltzen dira neskek : ikusgarri bat muntatzen dute artheak eta sos hurrein liburutegi bat apaitzen. Horra herriko lan arteak.

Jean-Claude ERRECART.



● Zortzi egunez Garroan elgarrekin egon direnak.

Berriketaria

BERRIKETARIAREN EGINBIDEAK
IRAKURLEN ALDERAT :
Berriketariak behar ditu hel-

arazi irakurleri, berri guziak edo bederen beharreneak. Gazte berriketariak ekartzen dauku Eskual-Herriko gazten berriak. NORK EGIN BEHAR DU GAZTE KASETA ?

Gazteri da egitea : erran nahi baita berrien igortzea eta artikulu polik zombaiten egitea. Agian izanen da orai artian baino gehiago.

SALTZEA :
Ez da aski kaseten egitea : behar dira oraino saldu eta hori ere gasten lana. Saltzaleak behar du ezagutu bere kaseta lehen hitzetik askeneraino. Saltzaleak behar du bere eginbidea ongi bete ! Joan behar du gazte baktzari kaseten eskaintzerat.

André BISCAY
eta Etienne FERRANDO.

TEATROA

Teatroaz mintzatu zauku De Monzon Jauna.

Zer da bada teatroa ? Teatroa da bizi bera ! Ikusten, entzuten, genditzen, aurkitzen ditugun guziek dute egiten egiazko teatroa (théâtre réel).

Gero gizonak, bere bizi eta buruko animalen bizi imitatzu du formatzen teatroa (théâtre constitué), guk sala batean ikusten duguna.

Lan horren egiteko bada lehenik : asmatzalea (auteur) suiet bat harturik, hartarik izitorioa egiten duena.

Badira artzaleak (acteurs), egiazko bizi jentuek eta elhez imitatzu duenak.

Horietarik baktzari eman zaion lanaren hautatzeko eta gidatzeko bada antolatzailea (metteur en scène).

Ainitz urthe hotan, Eskual-Herrian, teatroak badu erreketta, bainan behar laiteke oraino gehiago maiterazi, partikulazki gasteri ! Ezen bizi maite duenak teatroa maite du.

Heian, baktzak gure partetik indar pozi bat egin dezagun elgar adituz eta lagunduz !
Raymond MARTICORENA.

Maitatzen ikastea

Suiet hunek gaitu gehienik interesatu aste hortan, gazteak usu hortaz mintzo bai-gira.

Ainhitzentzat, aitamien ixtlik alpatzen den gauza bat da, kasik abalgatzen gira hortaz seriozki mintzatu behar delarik ; neskaek eta mutikoek elhe funtsezko guti dute elgarrekin direlarik, horren gainean erraiten.

Ez ginuke hoin gordeka ibili behar ; klarki eta frankoki

mintzatzu, gure harat hunat guziek, dugu hobekienik elgar ezagutuko eta maitatuko.

Jainkoak eman sendimendu hortaz ainhitz zoin funts gutierekin mintzo diren, edo berdin, mutiko eta neska ale-giazko amodio batez aliatzen, elgarrekin ibitzeko ; joko hune on guti duke berekin, usu bat edo bertzea bilhotza kol-paturik gelditzen baita. Zer nahi gisaz, alegiazko amodioak egiazko amodioaren edertasuna funditzen du eta

bihotz huts batekin gertatuko gira amodio egiazkoaren aintzinean.

Amodioa egina da familia baten muntatzeari buruz ; ez eta libertzeko bide hortaz kanpo gireno. Bi gasteren arteko lokarria da, Ezkontzako sakramenduak saindutuko duena ; anartean guhaurek emendatu eta edertu behar dugu, ximpleki eta frankoki gure xede, esperantza eta ar-rangurak elgarri salatuz.
Henri DUHAU.

Ni predikatzaila ?

Galdegiten badautale bilkura batean mintzatzea, huna zer eginen dutan.

Mintzatsen ikasteko, lehenik ikasiko dut irilik egotea. Horrela, ene izpiritua haziko dut behatzu so eginez, irakurri, gogotek eginez, gizon argitu bat bilhakatzekotan.

Jenden aintzinean mintzatzeko, hautatuko dut maite duten eta ongi ezagutzen duten suiet bat. Ene gogoan ideian erakitzera utziko ditut egun zombaites, mahatsa zugarian bezala. Gero jan bat eginen dut, ideien tinkatzeko, jinkatzeko brentsa hortan, arno berria garbi eta on athera dadien...

Paperean ezarriko dut ene mintzaldia eta gogoz ikasiko, erdura goratik errepikatuz. Jenden aintzinean agertzeko tenorean, ene herabea kasatu be-

harko dut : gostuan jinen niz ene lekura. Handik zerkatuko dut behatzailen erdian begitarte plazetan bat eta hari buruz mintzatu-niz, haatik azken lerroan direnek entzuteko gisan.

Mintzatuco niz klarki, ahal bezain laburki, elhe ximplek hau-goetok eginez, gizon argitu bat bilhakatzekotan.

Zerbait erreprotxu egin behar badut, lañoki dut eginen, ene burua hobendunen lerroan ezarri.

Artetik, behatzailak kestionatuko bezala ditut ; hola ene solasari hobeki jarraituko dirga. Elheak eskuko jentu ximple zombaites bermatuko ditut.

Hitz batez egraiteko, izanen niz ber denboran mintzatzaila eta aditzaila.

Halere nik nahiago aditzaila, predikatzaila baino.
Joseph ERROTBEHERE.

Laket izan den bat

Astelehen goizarekin, Garro-n sarthü nizararik, ez nakian nur nitukian « stage » hortako lagün gazteak, ez eta zer lanü bürüz ari ginen...

Ezagützeak aisa egin tügü, eta laster lanari lotü. Süjeta etzen ximpletariak. « Culture Populaire », zer izaten ahal da hori ?

Hastean, larre batetan bezala ginen, khapar, othe, iratzex ün-güratürük. Beharre hor günian gure omonier Jauna, saillian ezar-teko. Larrea bere lanthare base-tarik xahatürük, lehen ildoa za-baltü dügü, eta haren ondolik oro sarthü gira ildo-errekari !

Hela gira lür-berri egiteari abiattü. Gure ezipiritiaren ün-gü-rian zen larrea dügü xahatü ge-ro lantü eta huntü, errekoita eder baten ekharlekotan. Hori da « kültürü », gure khorpitza-ren eta arimaren altxatzen, lanthare balius bat eraikitzen dügün be-zala.

Mundu huntako baratze han-dian, lanthare ondan dügü khor-pitza, eta haren lilia gure ari-ma. Behar den bezala hazirik eta xixentürük badira baratze-zain hunez, eta gehienik gihaurez, biek algarrekin emanen die fruta ederrik.

Eta egünetik egünüla, gure sai-la aintzina eraman dügü, ikusiz « eskola » eta « kültürü » biga-

direla, eta eskolatik kanpo ere gure ezipiritia lantzen ahal dü-güla.

Ez ginen eskolan bezala, era-kusleak alde hatetik, ikhasleak bestetik. Ez, denak algarrekin gi-nen, eta gutarik baktzak na-nix ikhasi dü, eta amüli bat bes-ter erakutsi.

Kasik gogoz-gainti utzi tüt la-gün xarmant horik. Hatik algar-ri hitzeman dügü dagün urthean arra-bildüko girela Xiberoko al-dean, beste « stage » baten egi-teko.

Jean-Louis DAVANT.

Itzuli balios bat

Garro-ko ikas-aldia buru-ratzarekin, deliberatu dügu « voyage d'études » delako it-zuli baten muntatzea heldu den martxoan, Frantzia-ko es-kualde batean : edo Norman-dian, edo Bretañan, edo Ro-quefort-eko aldean.

Karrez, zortzi bat egun iraun lezake, eta hamar mila-ko bat gosta baktzari. Bai mutikoek, bai neskek parte hartzen ahal lukete itzuli hor-tan.

Joaiteko ideia lukenak hitz bat helaraz dezala.

1-Martin Zozaya ; 2-Gabriel Aramendy ; 3-Jean-Claude Errecart ; 4-Henri Duhau ;
5-Joseph Errotabehere ; 6-Erramun Marticorena ; 7-Pierre Oxoteguy ; 8- Jean-Louis Davant

Donapaleuko LUR BERRI-tik, lur berrigintzan, aholkulari



1964-1968 urteetan lur berri egile ibilia naiz Euskal Herrian gaindi idazkari eta teknikari gisa Jean Errecart senatariaren zuzendaritzapean.

Horrela bisitatu ditut 2.000 familia eta ezagutu Iparraldeko herri gehienak. Argazkian Elgart Gamue-Zohaztiko auzapezarekin naiz.

© D.R.

HERRIA

N° 933

0,40 librea

1968-eko ekainaren 20-ekoa

LUR BERRI, GOGO BERRI

DUELA zortzi-hamar urte, abiatu zen lur berrien egi-teko asmu. Laborari bakar batzu ziren, orduan, lan hori lotu. Geroztik, betiko izpiritu hertxi eta gibelkari guzien gatik, geroago eta gehiago zabalduz badao lan hau, lan-molde eta pentsa-moldeak, karraskan kanbiazten eta kanbiazten dituela denbora berean. 50 buldozer segurik badira Eskual-Herrian baria, emeki-emeki, gure etxalden begitasteak erroz-gora aldatzen ari direnak.

Errecaat Jaun zenaturrak, asmu handi horren sus-tatzale eta kudeatzale atrebituenak dion bezala, lur berrien egitea izan da gure etxaldetan egin zitaken kanbia-tze on eta segurrenatarik bat. Zonbat etxalde « itozetik » beira-tuak, 3 - 4 - 5 edo 10 hektareaz emendaturik lur era-biliak ! Zonbat gazte berri kuraia hartu dutenak, ikus-tarekin lan-bide eta lana nekazten duten hesi, arbola-tzar, bide-hertxi, errotik garbituak eta plantan emanak ! Aini-tzek diote, sobera patar edo maldan diren tokien lantzea, hirrisku handien emendatzea dela. Baditake; eta ondiko-tz, itxirip deitoragarri batzuek iduri lukete arrazoin emaiten dituela, eta egungo egunean ez litakela mekanikaz aise ibiltzen ahal ez den lurrik lantu behar.

Batzuek sobera, bertzek ez aski

Balinbadira aiseko hirriskatzen direnak patarren lan-terat, badira oraino, nehorik uste duen baino gehiago, lur

egin gabe, santa-sekulan ez direla deusetarat helduko ? Bertze herri batek berri, 37 hektara konumetarik, urtean 4,50 librea ateratzen ditu ! Eta zonbat holako ez da !

Mendeak behar izan balin badira, partikatzeko eta alo-kairu kanorierik gabeko horien ondorio tzarren senditza-ko, orai, hamar urte gabe ageriko dira orai-koen hutsak, eta gaztek gaztigatuko dituzte frangotan buruzkinkeria eta elgar ezin jasaparen gatik, orotan, herrien kaltea egi-ten dutenak !

Ororen ona

Laborari ttipi batentzat, 4-5 edo gehiago hektara ukai-tea 8-10 mila liberetan hektara gozamen, urtean, ez da dudarik gauza ona dela. Herriarentzat berri goguan erraiten ahal da, alokairu horrekin, bana-bertze, 5-6 urtez ispatuko dituela lur-berritzeko eta partikatze esperta-lasaren gastu guzaki. Handik goiti mozkin ederra heldu zaio; hola Gabadiko herriak, hiruetarik batez emendatuko du bere butxeta eta denek baliatzen ahaliko duten zerbait gehiago egiten ahaliko du.

Ororen ona xerkatzea da oraino, etxalde ttipienieri eta gazteri emaitza, lehenik, herri-lur berri horien goza-mena. Eskual baserriak husten ari direla denek ikusten dute, eta parte bat etxaldeak ttipixegialak direlako. Zen-dako beraz, esku-menean ditugun larreak utzi baliatu gabe lenbalehen ?

HERRIA 1968-06-20



ederrak larre eta oihan, aifer, debalde dauzkatena. Ardu-renik hauen arrazoinak hain dira ahulak eta « atzokoak », nun ez baitu balio hemen alpatzea ere ! Denboran ez ote ziren gizon hauk berak, elektrika-argi, bide-berri, ur, behi xarto edo barrokien sanotze, laborarien kooperatiba, eta egun lurren elgarretaratzea onhartu nahi ez zituztenak ?

Bainan gehienik ota eta mazel ederrezt oroitzean, herri-lur edo komunak heldu zauzki-gogorat orori. Her-ri gehiutesuek badituzte. Batzuek **jada lantzak, hala nola** : Arboli 50 hektara, Aiherra 30, Gamu 55, Iiharre 50, Labe-tze 25, Gabadi 80, Escose 75 (azken 5 herri hauen lurak elgarri daitxikotela dira; 274 hektara lur berri aise pentsa-zen duzue, zinez, ikustekoa dela holako lana !). Bastida (Villefranche) 80 hektara, Behauze 30 eta Zuraide. **Lan-tzen ari** : Arrangotze 100, Charre 50. **Lantzerat abiatuak** : Izura, Martxuta, Lukuze, Bezkoitze, Bixdune, Bardotze, Sara.

Bertzeak bertze, badira herri-lur ederrak Uzartitzen, Milafrankan, Larresoron, Lohitzunen, eta partikulazki Haz-parren 800 edo 1000 hektara eta Senperen bertze hain-bertze. Laborariak berek, aski fermuki galditzen ote dute lur eremu horien lantzea ? Ala iduritzen zaiote oraino hobe dela otarretan pottoken haztea, behi eta ardiak pentze berrietan baino ? Aurrateko bidea edo hautua, noiz egi-nen dute bada ? Laborantzaiko eta herriko buruzagientzat bada hor nun joka...

Asko herri-ari hala nola Senperen, duela aspaldi, zaitutz, eman zuten etxalde bederari, hunenbeste eremu-ren gozamen osoa, lur-zergak pagarazterainoan; her-riak lur-azpia atxikitzen zuela bakarrik. Hortakotz, orai, tira-biran daude, denek beretu nahiz alde bat lantzen hasi aintzin. Nekorik ez onhartu ez pекatu nahi, lehen egin zuten partikatzeko bixi horren ondorioak. Noiz ohar-tuko dira bada, antolamendu bat gabe, hautsi-mautsi bat

Laguntzak

Gobernamenduaren emaitza : edozoin lan motentzat, gobernamenduak emaiten ditu 100 mila librea gostatzen den lanarentzat, 35 mila librea. Bainan laguntza horren ardiestekotz, behar dira lan andana bat elgarretaratu eta inkantean ezarri. Hala jokatzan da Donapaleuko « Lur Berri » zindikata eta molde hortan. Eskual-Herri guzian barna baditu, etxe-lur edo herri-lur, 10.000 hektara eginik eta antolatutik, 6 urtez.

Laborari bankoaren laguntza : lan erretxa delarik eta segidan egin nahi bada, laborariak malleagutzen ahal dute 100.000 librea zahar hektara bakotxarentzat ; **intre-sik ez dute pagatzeko**, Kontseilu Jeneralak egiten bai-tiote. Molde hortan ez da gobernamenduaren emaitzarik izaiten ahal. Halere arras gauza ona da, lehen bi urtean ez da deusik itzultzen : hiru, lau eta bortzgarren urtean da itzuli behar malleagatu dirua, bakarrik 1/3 aldian.

Herri-lurentzat : bere larreak lantzen dituen herriak malleagutzen ahal ditu gastu guziaren 80 %, 3 % intre-sekin, 15 urtez gibelertat itzultzeko.

Lur berri = diru berri

Horiek hola, erran dila-ke 15 mila hektara segurik baditazkela lanturik gure Eskual-Herri guzian barna azken urte hautan ! Ez da guti ! Eta beraz erran dila-ke ere, urte bakotz, sartzen dela laborarien moltsetan MILIAR BAT ET'ERDI gehiago : Lacq-eko indutziek emaiten duten bezenbat !...

Azken hitz : bertze hoinbertze eremu gelditzen da oraino lantzeko. Denen gomendio diren gizon eta lagun-tzak baliatuz, ez da gauza erretxagorik !

H. D.

Gureak gure

HAZPARNE

Ukan dut goresmena Eskual-zaleen Biltzarari mintzatzeko, 1937-ko urtean, Hazparneko eli-za nausion. Hartua nuen ekei-tzat eskualdun-goa. Galdatu-ruen : « Zer da Eskualdun izai-tea ? » eta ihardetsi : Eskualdun izoitea da eskual lur, mintzaira, federean, bihotz guziz maita-tzea. »

Itusua zen Eskualdunentzat orduko denbora. Elgarren etsai ari ziren joka, zoin arkatragoko oldar oiesean, mendiz bertal-deko gure bi anaia : xapel gor-ri eta xapel beltz, xapel gor-ri Nafartarra, eta xapel beltz Gi-puzkoa-Alaba-Bizkaitarra.

Egin nuen oitotz bat, geroztik munduan ikusi ditugun gerlen gakea berekin dabilana : *azkar-rak ez baitiro barka, baduela-kotz idur basotan, are gutia-go, ez nahiz atortu lurrean de-la, ba erran ahulenak, Jaun, ur-ri-ka! zaitziki !*

OXOBI

Mezatik lekora, Eskual-Her-ri-ko eta toki gehienetako ohidu-ren arabera, Eskualzale andana bat sartu zen Xinbalet ostaturat, idortu zintzura bustiño batez goxatzeko.

Edan, irri, trufa, oihu, bazen kalapita frango Xinbaletiko barnean. Frango... bainan ageri zerbait bazela eskas, ageri zer-baiten beha zagola jendea, bar-riand. « Heia, hitz bat, Oxobili-ndan. » Dago itilik Oxobi. Ezetza na-hi luke lepoa jalgi galdearen ko-ropilotik. Bainan hain du dorpe-ahoa, hain idor begia, halako ar-rolak ditu kopetan, nun ageri baitu, garbi eta argi, zerbait opili badaukala bihotz gainean, ezin atxikia, aurtiki beharra.

Xutitzen da emeki, mailka be-rra, esku-zartak laguntzale, eta hasten... Jalgitzen du Eskual-Herriaren onetan lerrozako jau-kitze miresgarria, lerro bakotxa-ren ondokit botatzen baitu hitz eta kasik nigar bera : *Gureak gure !*

ORAI

Ez da gorpuzte gora Oxobi jaun apeza. Hastean inharrosi ditu sorbaldeak, ogi joiteko egu-nean zakuketariak zaitzuteko egiten dituen bezala. Gero gel-ditu da tente. Gauaz ez dira age-ri haitzaren azpiko abarrak bai-sik. Bixkitatzen, adimenduak luzatzen du haitzaren kukulua, zerruan goiti.

Orobat iduri zaitzitan Oxobi, tinki-tinkia estekatu bere apez-otanean, begitarte ilhun, gor-putza haitz ondo bezain bel-tzean beltz, luzatzen dela hedo-ia kaskoan hunkitzerainoan. Haren botzak badu menditik za-lepartaka jautsi ibaiaren ihar-zuna : *Gureak gure !*

Dena elhe-melhe gezurti esta-furu, urkitzen ari baitute es-kuara, arbasoek utzi mintzaira ! Dena maltzur fartzuntzi alpa-men, bi mila gazte urte oroz hai-zatuak baitira herritik kanpo... ez dea xuxen oihu egitea : *Gureak gure !*

Mathieu medikuak behatzen daut Hazpandar trufari keinu maltzerakin : « Zuek, erakasle, baduzue buru, bainan eskas du-zue bihotz. Holako solasek ez zaituzte hunkitzen. »

Barka, Mathieu, barka, Oxobi jaunak. Orduan ez ninduten hun-ki, bainan 1968-an Eskual-Her-riaren oinhazeak 1937-tik baitira galdituz, orhoitzen naiz : *Gureak gure !*

SO EGILEA.

Etxondoan...



1965. Bixintxoz Iturraldean. Lucien Ithurbide adiskidea eta ni (pestarat abian), Martxela, ama, aita (harbi biltzerat abian). Beherean, Yvette eta Marie-Jeanne. Eskas Battitta anaia zaharrena, Léonie eta Abettu. © D.R.



1970.
Ithurraldea,
nire
sortetxea.
Ama,
doi-doia
ageri,
leihotik
begira
(hegazkin
argazki
hartzailea
entzunik).
© D.R.




1979-05-15. Ohiko euskal dantzaz arduratu naiz 20 bat urtez: lehenik Beskoitzen “Oinak Arin” taldean bizpahiru urtez eta gero Senperen “Zirikolatz” sortuz eta kudeatuz 17 urtez.

Euskal Dantzarien Biltzarreko buruorde lehenik eta buru ere izatu naiz. Argazkian, bizardun, Herri Dantzari-ren euskaraz animatzaile Donibane Lohizunen. Argazkia Ernest Etcheverryk igorria. © D.R.



1988-01-14. Piarres Lartzabal apez, euskaltzale, eta abertzalearen ehorzketa egunean, guzien izenean, hizlari bakar. © D.R.



GURE HERRIA abertzale taldearen aldizkari batetik (1989)

SENPERE

1989/03/12 Herriko Bozkak
Abertzaleen zerrenda

SAINT-PEE-SUR-NIVELLE

Elections Municipales 12/03/1989
Liste abertzale

"GURE HERRIA"

256	BERGARA Joset "Txistu"
245	BERGARA Joset-Antton "Olha-Soledad"
307	BOURGOIN Paxkal "Moxkoenea"
259	BUGNON Pierre "Iguzkian"
293	CHIPI Peio "Bernard-baita"
351	DUHAU Henri "Mariatoinea"
238	DUNOGUES Carmen "Hirioingoborda"
244	ERREMUNDEGUY Panpi "Peitxenborda"
257	ETCHEVERRIA Jakes "Alfarokoborda"
279	ETCHEVERRY Ernest "Nahika"
244	GALARRAGA Eliane "Gibeleko etxea"
223	GOBET Jean-Paul "Uhartea"
309	HARISGAIN Beñat "Hiriartea"
248	IDIART Marie-Agnès "Arantzenborda"
308	JORAJURIA Louis "Bernatenea"
282	JORAJURIA Mixel "Larreluzea"
286	LAHETJUZAN Jojo "Arkazketa"
265	LARRETCHEA Dominique "Giltxubeherea"
255	LURO Bernadette "Basaburu"
293	MENDIBOURE Mixel "Bidartekoborda"
269	OLACIREGUI Dominika "Azkenean"
243	QUIJANO Jean-Marc "Txalaparta"
278	ZAMORA Auxtin "Altziburua"

6.228 : 23 = 270 (13% des suffrages exprimés)

1989. GURE HERRIA, Senpereko lehen zerrenda abertzaleak lortu emaitzak.



2013-05-12 Senperen



Hil edo biziko hautua egin behar dugu

Agerkarien bidez egiaztatu da entzuna baina sinetsi ere nahi ez genuena : Senpereko Herriko Etxea bertze bizileku berri andana baten egiterat eta saltzerat abian dela egundainokotan. Ikus, 2013ko abuztu hastapenean ‘**Sud-Ouest**’ egunkari handia eta ‘**Femmes Actuelles**’ Parisekoa. Nun eraikiko dituzten bizileku horiek ? Herriko Etxearen lurretan, berriki laborari bati erosiak, « Larreko », kulturetxe hasi berriaren ondo-ondoan. Norentzat edo nori salduko dituzten ? Nehungo kanpotarrari ere berdin, itxura guzien arabera, publizitatea hedadura nazionala duten kazeten bidez egiten dutenaz gero !

Berrogei urtez 2.500 arimetarik 7.000etarat doakigu herria. Lakuan, Euskal Herriko lotizamendurik handiena egin ondoan (300 etxe eta horietan zenbat apartamendu ?), geroztik hainbertze lotizamendu, hainbertze etxe berri egin ondoan, denek ikusten ahal dugun Ibarrungo sakia begien bistan dugularik (150 bizileku) bertze bizileku erraldoi baten altxatzeko gogoia dute beraz, “Argi Eder” deiturik, autolekuak azpian, 3 estai gainean ! Orotarat 110 apartamendu !

Aspaldi hartu bide hitsari jarraikiz, azken urte hauetan, uholde baten pare, gure herriak azkarki arrotzez bete dira bereziki itsasalde huntan (Ahetze, Arbona, Arrangoitze, Azkaine, Basusarri, Bidarte, Beskoitze, Mugerre, Urruña, Uztaritze...). Kanpotarren olde hori, Estatuaren nahiz baina gure herrietako hautetsi askok errotik lauzkatzen dutena, goraki salatu genuen duela bi urte “Jabetasun auzi ahalkegarriak eta hirigintza bat eztabadagarria” deitu txostenean bai eta Enbatako artikulua batean (2011-09-15). Berriki, Senperen, kargu uzteak aipatu dituzte, etxegintza handios eta neurrigabeari uko egin gabe haatik, orain aipatu dugun eraikuntza hortaz gain bertze bizpahiru lotizamendu bidean direla jakin baitugu azkenik...

Ezin sinetsia hau baita : hori guzia heldu zaigula euskal herrizale agertu nahi luketenen eskutik edo haien laguntzarekin. A, bistan da, egoitza sozialen beharra aipatuko digutela euskal hedabideetan, zenbait senpertar edo euskaldunen berenganatzeko. Aitzakia : nor izan daiteke egoitza sozialen kontra ? Baina nork aipatzen ditu Iparralde huntan hutsik dauden 45.000 bizilekuak ?!

Ikusi behar da ere eraikuntza berri neurrigabeko horietan, zenbait bakar direla egoitza sozialak, eta, beharrak aitzinduz, kanpotarra sarraraziz trumilka, euskaldungoa izorratzen dutela. Jadanik gutiengoa bilakatuak ginenak, are gehiago gutiengotzen gaituzte, berriz gehiengorat heltzeko amets guziak suntsituz. Eta nola bizi gaitzezke euskaldungoarentzat egoera hobe bat amestu gabe ? Bazter guziak kanpotarrez estaliz (colonisation de peuplement), frantses Estatuko jakobinoek hizkuntza frantsesaz bertze guziak ahultzea bilatzen dute, emeki-emeki haien ezabatzea helburu.

Gisa guziz, bazterrak samin : etxeko hurrek etxeko lurretan ezin eraiki baina Herriko Etxeak jendearen metatzeko eskubidea, eta gero euskaldunek haien erdian bizitzerat joan behar ! Zinkurinek ez dute luzatuko : joan den hilabetea 77 urteko herritar batek erran digu deplauki : “Ez gare gehiago Eskual Herrian!”. Ez zezakeen hobeki erran. Dirudienez, hainbertze alorretan euskaltzale eta abertzale batzuek daramatzaten lanek ez dituzte bertze batzuek egin zentzugabekeriak gainditu ahal izan. Bertze hitzez errateko, ez gara gai izan, 50 urtez, euskal esperantza zabal baten pizteko jende adinekoaren baitan.

Kanpotar eta behartsu zenbaiten geureganatzea betidanik egin dugu Euskal Herrian, baina holako saldoan jendea erakarrit ez da gehiago lekuri ongiatorriarentzat, zuhaurk zeure burua, zeure herrian, arrotz sentitzen duzunean ! Funtsean, ez dabilta batere zure ongiotorriaren ondotik, bakar batzuek kanpo, bistan dena. Horiek hola, ez ahal dugu errate beharrik, ez goazela hemen kanpotarraren kontra, erabaki politiko batzuk ditugula gaitzesten bakar-bakarrik.

Orain, balio ote du galdera hau egitea : hemen Euskal Herria baldin bada nola euskaldundu etorkin horiek guziak, gehienek ez dutelarik euskararen ikasteko gogo izpirik ? Dakigularik guhauren euskalduntzea eta euskaldun egotea zernahi gostako zaigula laneko moldeak beti eta gehiago bihurriagotzen ari zaizkigula, gurutzamendu etengabe batean, hemengoak han harat doazelarik eta nunbaitekoak doblezka hunat ingurumenak zoraturik-edo.

Hegoaldean, autonomia eta euskara ofiziala duten eremuetan ere, lanak dituzte gure hizkuntzaren erabilpena ezin zabalduz azken mendeetan sartu zaizkien espainiar multzo ikaragarriagatik, bertzeak bertze. Zer egin dezakegu beraz guk, Iparralde huntan, Lurralde Kolektibitate bat bera ere ukatzen digutenean ? Diru publikoaz ikastola berrien eraikitzea debekatua zaigunean ?

Ezin onetsia da beren buruen edertzeko ustez eraikitzen ari direla batzuk, diruaren tirriak darabiltzala bertzeak, euskaldungoaren geroa ateketan ezartzen dutela ohartu ere gabe. Ongi ulertua izan bedi gure iritzia : burujabetasun mikorik ez duguno, sail batzuk, itxuraz arras onak, funtsez gure euskararen eta gure nortasunaren kaltetan gerta daitezkeela. Gauza bera erran izan dugu bai turismoaz bai eta industrializazioaz ere.

Hil edo biziko hautuaren aitzinean gaude. Bereizten gaituzten ideologiaren gainetik elkarretartzeko ordu gorria dukegu galdatzeko euskal hautetsiei, beren xede eta sail guzietan, eskaldungoari eman diezaioten lehentasuna, gostarik gosta, Estatuaren joko deitoragarrian partialier ez izateko, eta egun, lehenik eta bat, Senpereko Herriko Etxeari proiektu faraoniko horiek gelditzea.

Henri Duhau

(BERRIAN agertua 2013-09-06)



2016-08-23 Senpere Ibarrune, etxez mukuru betetzen ari laborantzako lur hoberenak galduz.



Senperen laborantzako lur hoberenatarik zirenak etxegintzarat joan dira.
Ibarrunen, arbola eder hau kendu dute etxegintza trabatzen zuelako...

Beskoitze



Beskoitzen ere “Hariaga” —arkitektura historiko baten lekukoa dudarik gabe— desegin dute, etxe berrien erdian “itsusi” eginen zuelakoan...

Euskaigintza : “Bidegileak” sailean



2010-06-02. « Dominique Dufau » eta « Jean Barbier » ‘Bidegileak’ sailarentzat liburutxoak eginik, Marie-Hélène eta Henri Duhau, senar-emazteak, hemen daude Miramar-en, Donostiako omenaldian. © D.R.

Senpereko Herriko Etxeak eta Euskaltzaindiak eskaini omenaldia



2019-03-02. Senpereko omenaldia. 2018ko apirilaren 27an, Bilbon, Euskaltzaindiak bere osoko bilkuran Iparraldetik hiru euskaltzain ohorezko berri izendatu zituen: Manex Pagola, Auxtin Zamora eta Henri Duhau. Geroztik Manex zendu zaigu eta beraz Auxtin eta nihurtu gelditu ginen omenaldirako.

Argazkian: Auxtin Zamora, Henri Duhau, Pierre-Marie Nousbaum
 auzapeza, Andres Urrutia Euskaltzainburua eta Xarles Videgain
 Euskaltzainburuordea. © D.R.



2019-03-02. “Zirikolatz” taldeko dantzarien “Agurra” jaso genuen, semea txistulari. © D.R.

